

Nabarnizko Hiztegia (B eta D letrak)

Alberto Mtz. de la Cuadra

Zamudioko Udaleko itzultzailea:
itzultz.zamudio@bizkaia.org:

Abstract

This dictionary is based on an oral linguistic corpus compiled in Nabarniz. In addition to the collection and definition of the vocabulary from that area, particular emphasis is placed on displaying the phraseology and examples of usage from that corpus. The current collection covers the B and D letters (B letter has 672 entries, and D letter 172 entries), while the rest will be subsequently added in the upcoming issues of the magazine.

Laburpena

Hiztegi honek Nabarnizen bildutako ahazko hizkuntz corpusa du oinarri. Bertako euskararen lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, ahalegin berezia egin da corpus horretako fraseologia eta adibide erabilera eskaintzeko. Aldizkariaren ale honetara B eta D letrak baino ez dira ekarri (B letrak 672 sarrera ditu, eta D letrak, berriz, 172 sarrera). Hurrengo aleetan joango dira beste atalak agertzen.

Hitz gakoak: Hiztegia, ahazkotasuna, fraseologia, Nabarniz.

Sarrera

1. Hiztegien eginkizuna izaten da hiztun talde jakin batek erabiltzen dituen berbak eta adierak era sistematizatuan bildu eta eskaintzea. Hiztegi gintzaren azkeneko joerei jarraituta, lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, erabilera adibideak ere eskaintzen dituzte hainbat hiztegi, beti ere hizkuntz corpus zabal batetik abiatu. Era horretan, definizioei beste ñabardura batzuk erantsen zaizkie eta argiago erakusten da zein portaera izaten duten berbek diskurtsoan. Hiztegi honetan, Nabarnizko euskal lexikoa –edo zati bat, hobeto esanda– bildu eta definitu da, baina aparteko ahalegina egin da bertako herritarrei ahoz bildutako erabilera adibideak eskaintzeko. Corpusa ahazko hizkuntzan oinarritzen dela kontuan harturik, ahazko formei darraizkien forma normalizatuak zehaztu gura izan dira, ahazkotasunetik hizkuntza idatzira igarotzeko prozesuan askotan aurkitzen diren oztopoak kentzen laguntzearen.

2. Grabazioak Nabarnizko jende heldu edo zaharrari egin zaizkio, 1993ko maiatzetik 2003ko otsailera bitartean. Grabaziorik gehienak kasete-grabagailuz egin dira. Hala ere, 2002ko urtarrilaz geroztik grabazio digitalak egin dira, Minidisc grabagailua kanpo mikrofono batekin erabilia. Grabazio digitalen transkripzioak COOL edit pro deritzon soinu editorearen laguntzaz egin dira.

Inkestak egiteko moduari dagokionez, batzuetan, etnografia arloko galderak egin dira; beste batzuetan, aurretik batutako testuetako berbei buruz galdetu da; berba biren edo gehiagoren arteko desberdintasunak ere eskatu dira; beste toki batzuetan erabiltzen diren berbak Nabarnizen ere erabiltzen diren galdetu da inoiz (halakoetan, erabilera hori egiaztatu beharra izan da berriemaile gehiagorekin); erdarazko esaldiren bat

euskaratzeko eskatu zaie kasu banaka batzuetan; irudiak edo argazkiak erakutsi zaizkie, edo, beste barik, edozein gairi buruz berba egiten utzi zaie. Galderak prestatzeko orduan, lagungarriak izan dira, batez ere, Iñaki Gamindek hainbat herritan eginiko lexiko bildumak, Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar* liburua, Candido Izaguirrerren *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* liburua eta Gilisasti Fanoren *Urduliz Aldeko Berba Lapikokoa* liburua.

3. Sarrera burua letra lodiz eman da, amaieran puntua duela. Mugatzailea onartzen duten berbetan, forma mugagabea zein mugatua ezarri dira, koma batez berezita (**apur**, **apurre**). Forma mugagabea nagusizat hartu da eta letra tamaina handixeagoan idatzi da. Hala eta guztiz ere, kasu banaka batzuetan forma bakarra batu da, eta, horrenbestez, hura baino ez da ezarri. Mugagabe eta mugatuen bereizketari dagokionez, aipatu beharra dago berba batzuetan bikoiztasun bat izaten dela, esate baterako, *-keridxe* atzizkia duten berbetan edo *karabidxe* berban, alegia, batzuetan *karabi-karabidxe* bikotea batu da eta beste batzuetan *karabidxe-karabidxie*.

Aditzei dagokionez, sarrera buruan era burutua eta ez burutua ezarri dira, koma batez berezita, beti ere biak jaso diren kasuetan. Era burutua letra handixeagoan idatzi da. Sarrera buruaren amaieran puntua ezarri da (**apurtu**, **apurtzen**).

Sarritan, ordea, forma bat baino gehiago batu da. Halakoetan, aldaera guztiak sartu dira sarrera buruan, koma batez berezita. Forma nagusizat jotzen dena lehenengo ezarri da, eta aldaerak, berriz, haren hurrengo, beti ere aurreko paragrafo bietan forma mugatuei edo aditz burutuei buruz aipatutakoa kontuan harturik.

4. Sarrera buruaren ondoren, hari dagokion forma normalizatua ezarri da, letra larriz eta parentesi artean. Askotan, bizkaieraz eta batuaz erabiltzen diren formak ez datoz bat; halakoetan, bizkaiera normalizatuko forma ezarri da aurretik, letra larriz, eta atzetik, berriz, batukoa, letra xehez eta *-bat.* gehiturik. Inoiz sinonimo bat edo beste gehitu da, beti ere Nabarnizen erabiltzen ez den berba bat izanik (ARTAGARAUN, artagarau-*bat.*, artale).

Atal honetan zailtasun handiak izan dira. Alde batetik, lexikoaren normalizatzeko lanak, orain arte, hizkuntza estandarera bideratu dira batik bat, eta horregatik ez dira normalizatu gaur egun ahozko bizkaieraz korritzen duten berba asko, edota baztertuta gelditu dira hitzak eraldatzen dituzten fenomeno fonetiko dialektal asko, nahiz eta euskalkiaren barruan hedapen handia izan. Beste alde batetik, bizkaierazko lexikoa ere oraindik normalizatu barik dago, nahiz eta ahalegin batzuk egin diren han eta hemen. Horren ondorioz, askotan ez da erraza izan forma normalizatuak *-batez* ere, bizkai ereduak-proposatzea. Esate baterako, *bijutz* sarreran (BIJA-HUTS, bidaia-huts-*bat.*) proposatu da, hiztegiaren haren aztarrenik aurkitu ez arren. Beharleku honetan, oinarri sendorik aurkitu ez denean, Nabarnizko berbetari estuago jarraitu zaio, batzuek estuegi iritzi liezaioketela jakin arren. Nolanahi ere, herri bateko hiztegi dialektala denez gero, normalizazioaren atal honetan irizpide malguagoak erabiltzeko lizentzia hartu da. Horrela, bada, *baridxeu* sarreran (BARIAKU, bariku-*bat.*) agertzen da, hau da, Bizkaiko alderdi zabal batean erabiltzen den forma proposatu da “bizkaierazko” forma normalizatutzat, eta ‘bariku’, berriz, “euskara batuko” formatzat. Ildo horretan, gogorarazi beharra dago proposamen horien xedea dela erraztasunak ematea edo bide posible batzuk erakustea ahozko formatik gaur egun zabaldua dauden edo zabaltzen hasi diren eruedetara igarotzeko. Hortaz, irakurleak erabakiko du zein forma (euskara batukoa edo bizkaierazkoa) erabili behar duen eta proposatutako forma egokia den. Hemen proposatutako forma asko era horretan ulertu behar dira, mendebaldeko lexikoaren normalizazioa egiteko, eremu geografiko zabalagoa hartu behar baita oinarritzat, literatur tradizioa ahaztu barik. Hiztegi honek, ostera, oso eremu geografiko txikia aztertu du, eta gaur egungo ahozko hizkuntzara mugatu da.

5. Forma normalizatuaren ondoren, sarreraren gaztelaniazko adiera ezarri da. Berba askok adiera bat baino gehiago izaten dituzte eta bakoitzari zenbaki bat ezarri zaio aurretik. Animaliei eta landareei dagokienez, izen zientifikoa jarri da, halakorik aurkitu den guztietan. Haur hizkerako hitz edo adieretan (Haur.) laburdura ezarri da.

Adierak emateko, gehienbat, ondorengo hiztegi hauek erabili dira: R.M. Azkuren *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Plácido Mujikaren *Diccionario Vasco-Castellano*, *Elhuyar Hiztegia*, *3.000 Hiztegia*, Juan Martín Elempururen *Bergara Aldeko Lexikoa*, Emiliano Arriagaren *Lexicón Bilbaino*, RAEren

Diccionario de la Lengua Española eta María Molineren *Diccionario de Uso del Español*.

6. Nabarnizko hizkeran sinonimotzat jo daitezkeen berbak ere aipatu dira *Sin.* laburduraren bidez. Askotan, sinonimotzat jo barik, sarrerako berbaren eremu semantiko berdintsuko berba bat edo gehiago ezarri dira, *Ik.* laburduraren bidez. Inoiz, azalpen osagarri bat edo beste gehitu da, euskaraz. Adibide bati buruzko azalpena eman denean, □ ikurra erabili da.

7. Batzuetan sarrera bitan edo gehiagotan zenbakiak ezarri dira sarrera buruaren aurretik. Horrek esan nahi du, alde batetik, berba horiek, grafia bera izan arren, kategoria gramatikal desberdina dutela, edo, bestetik, izatez, berba desberdinak izan arren, nabarniztarrek berdin ahoskatzen dutela (erren-herren/erren-errain).

8. Adibideak letra etzanean eman dira. Adibide bakoitzaren aurretik || zeinua ezarri da. Adibideok izan daitezke berba bikoak, esaldi batekoak edo esaldi gehiagokoak. Hasieran aipatu den bezala, adibideok erakusten digute berbak zein testuinguru zehatzetan agertu ohi diren, zein berbaren ondoan jarri ahal diren edo ezin diren, esaldiaren barruan zelan josi behar diren eta beste xehetasun batzuk. Adibideetan agertzen da argien zelakoa den Nabarnizen hitz egiten den euskara.

Adibide guzti-guztiak grabazioetan batutakoak dira eta euren hartan transkribatu dira, ezer gehitu, kendu edo moldatu barik. Kasu batzuetan, berriemaileei eurei eskatu zaie berbak definitzeko, jakingarri iritzi baitzaio berben adierak haien erabiltzaileek eurek mugarrizeari. Kasurik gehienetan, ordea, berbetaldi bateko atal bat ekarri da hiztegiara, testuinguru jakin bati dagokiola. Inoiz, berriemaileei berba biren adieren arteko desberdintasunak zehazteko eskatu zaie, era horretan azaltzen baitira, askotan, inguru horretako berbeta ez dakitenentzat hain begi bistakoak izaten ez diren ñabardura asko.

9. Sarrera nagusiaren barruan azpi sarrerak ezarri dira. Azpi sarrerok erabilera edo esanahi bereziko esapide eta hitz elkarketak izaten dira. Bakoitzaren aurrean □ ikurra ipini da. Azpi sarreraren burua letra lodiz eman da, eta amaieran puntua ezarri. Azpi sarreraren sailean nolabaiteko ordenari jarraitu nahi izan zaio. Lehenengo, aurretik sarrera nagusiko berba duten hitz elkarketak ezarri dira; ondoren, atzetik sarrera nagusiko berba dutenak, eta, azkenik, aditz batekin osatu direnak edo bestelako esapideak (**arto kapasie**, **kanpo artue**, **artue garandu**).

10. Sarrera hau ezin da amaitu berriemaile izan diren nabarniztarrei euren laguntasuna eta prestutasuna eskertu barik. Ondorengo hauek dira haien izenak: Isaac Urtubi (Larrinaga), Andere Goiriena (Ibarguen), Julian Bollar (†) (Ane), Karina Zabala (Ane), Maria Dolores Gabika-Aldekoa (†) (Bengoetxe), Genaro Izagirre (Etxebarri), Matilde Totorikaguena (Etxebarri), Victorio Goikolea (Goikola), Julian Beaskoa (Agarre), Pia Sierra (Goikoetxe), Sabin Sierra (Goikoetxe), Artiatx (Argiarrozarra), Jonas Gerrikagoitia (Ardantza), Alberto

Goiriena (Ibarguen), Isidra Lekerikauriarte (Argiarro), Victor Ordorika (Gorostiaga), Pedro Garatea (Merikaetxebarri), Bienvenido Beaskoetxea (Iturribeko), Juan Pedro Ikazuriaga (Ikazuriaga), Jose Arrizabalaga (Aboixene), Santi Urzaa (Merikauriko), Zubizarreta (Ormaetxe), Jesus Elias Basterretxea (Torretxu), Lontzo Garetxena "Arrola" (Arrolagoiko), Juan Jose Ondarza (Beitxi).

ba. (BA, bada-bat.) Pues, entonces. || *Bai, egongo esta ba! Txopue asko, or errekonduatan-da.*

baba, babie. (BABA) Haba. (*Vicia faba*). || *Babien begidxe.* || *Babie freskotan be jaten da.* || *Babie, axe da proteinarik geidxen dekona kiloko, laboriek, artuek da garidxe, sebadik, orrek danok bayo proteina geidxau.* || *Oin beste eser e, patata apur bet eraitten da, da beste geusa asko esta eraitten. Emen eraitte san babi, bai, ondiño baba apur bet erain deu.* □ **baba**

asala. Corteza del haba. □ **baba aundidxe.** Haba mayor. || *Emen baba asko esta eraitten, baya goxeti jateko babie ba eraitteu geu pe, baya apurtxut bakarrik eraitte, baba aundidxe dana.* □ **baba garaune.** Grano

del haba. || *Ba baba garaune ederra deko!* □ **baba kokue.** Gorgojo, insecto que destruye el grano. Sin. *baba sorridxe.* || *Babak sakun ekarten sin. Da sakue iguel artun lepun, da baba kokuk noberari pikete tzon!*

Bueno! □ **babin pipittie.** Pepita que se forma antes de dar el fruto de la haba. || *Pipittie: babik e garantzen daniñ e a ganetxun eukitten dabena, arixeri esate tzeu babin pipittie.* || *Da arek eukitten deu, babiek, atzien eukitten deu... A jateku ba kendu eitte dxako, a eukitten dabena baba garaunek. Ori da pipittie.* || *Begidxe ba eukitten dau an... Or ataraten dau bera babie. Da pepittie ba, pepittie ixeten da loran daunien.*

Lorie bestie. □ **baba saldie.** Caldo de habas. Ik. *saldie.* || *Baba saldie: babak egosi, ba saldie, axen ure.* □ **baba sorridxe.** Gorgojo, insecto que destruye

el grano. Sin. *baba kokue.* || *Baba sorridxe da: barie txikitxu danien, ba asko batze dxako, baiñiri be asko batze dxako, nik baiñak aurten iru bider erain ttut, da irugarren erai-ñittunak erneta daus, da eundi-eundidxe teketas, barik janda. Da baba sorridxe jaten deu edoser, letxugi be bai, asi be bai, da baiñi be bai, da baba sorridxe ortun geuse bigun gustidxe jaten deu.*

|| *Barik arrautzak eitte ittu, lurre barrun sulotxu einde, arrautzak, karakolak lantxik, da andixik erneten diñak dire baba sorridxe.* || *Baba sorridxe, babieri kokue eitten dxako, da urten eitten deu garaunetik. Baba kokue edo baba sorridxe. Gero egan eitten dabe. Arturi be eitten dxako ori, ta indarrari be bai.* || *Txiki-txikitxue ixeten da baba sorridxe, txiki-txiki-txikitxue.* ||

Babik baba sorridxe deko. □ **baba serukie.** Vaina de la haba. || *Baba seluki da garandu te gero geratzen*

dana. Ori len ganaduri emote dxakuen. Ligorra ixeten da ori. Segun. Len babie berderik jate gendusen guk. Sekule estu olanik solun eitten oinguk babarik, baya babie jateko dana, arek garandu te baba berderik garandute sus beti, da a ganaduk jaten dabe. Baba selukie. Ba besti da baba sikue. Sikeute jaten bosu, baba selukie eitten a pe, baya a ya ligorra ixeten da. Jan bes. □ **baba tekie.** Leca, vaina de la haba. ||

Baba tekie, ak deko barrun garaue. □ **baba txikidxe.** Haba pequeña. || *Baba txikidxe ganaduntzako be eraitte san.* □ **belu babie.** Haba tardía. Ik. *gois babie.* □

gois babie. Haba tempranera. Ik. *belu babie.*

babalasto, babalastue. (BABALASTO) Gandul, grandote; exagerado, fantasma. || *Eundidxe bada, da edoser farolkeridxe bota: babalastue.* || *Babalastuori!* || *Ori babalastu!* || *Babalastu ori or dxabik.* || *Nik pentzetot babalastue personiri esate dxakonien eundidxe ixengo dala. Eundidxe ta nire ustes e biergiñe be esta ixengo, se "Babalastu lakue asitte dau"-te esate dxako mutikuri be igul, "Asi da babalastu laku!"-te.*

babatza, babatzie. (BABATZA) Gran cantidad de habas.

babatzu, babatzue. (BABATSU) Abundante de habas. || *Babatzue: ori da, kanpue, dana solu badau baba onas, ba "Babatzu dxak ori".*

babero, baberue. Babero. || *Baberue: umiri ipintte dxakona, jatekue artzeko baberue.*

badaespada. (BADAESPADA) Por si acaso. || *Badaespada etorri bidzar!* || *"Ereixidxen esan dxok, ta asartau ein dxok": ori da badaespada, ba fijo estakidxela geusie.* || *Eutzi au badaespada. Anera jun biot, Karinak deittuste ta ensegida etorko nas neu atzera baya.*

badaespadako, badaespadakue. (BADAESPADAKO) Dudoso, -a, sospechoso, -a, no de fiar. || *Kittanue edo tratantie edo olako badaespadako jentie.* || *Badaespadaku da.*

bagille. (BAGIL, ekain) Junio. || *Bagille ille ba ta.*

bai. (BAI) Sí. □ **bai... bai...** Tanto... como... || *Bai bata ta bai bestie, onak dire orrek!* □ **bai orixe.** Sí por cierto. □ **bai sera.** Qué va!

bailarin, bailariñe, baillariñe. Cierta apero de labranza, metálico, que tiene las púas en forma circular. Sin. *are burdiñeskuek, burdiñarak.* || *Bailariñi ixeten da, bailariñak esate dxake..., are sorrotzak estire, espabese arik eukitten daben biarra les eitten deu, da eitten deu ba, ser esangot neuk?, paso geidxauku esango dot, da mamin gitxiau ereitte tzona lurreri, paso geidxaukue. Baya esteu eukitten arek, arik eukitten daben modun, sorrotzik esteu eukitten.* || *Bailariñik eukitte ittu, olan, sabalak ortzak, da arixas ba*

lengotan-edo pasetan da, edo ba, ari modun esta ibiltten, guk geuk estogu ibiltten beintzet. Da arik eitten dabe bier sietza. Bailariñek esteu eitten bier sietza. || Bueno, au ontzuauku da, are burdiñeskuk dire onek. Ondiño geurin be badau te estakitt, are burdiñeskuk esate gentzen. Oiñ estakitt ibili be eitten badeu, se ara erlatokidxe san lekure erunde deu te. Da oiñ estaitt ibiltteko moduku badau be. Are burdiñeskuk esate gentzen. Bailariña pe esate tze, baya geuk are burdiñeskuk, da bai, bailariñakin ba aittuten da, baya onek are burdiñeskuk dire ba. || Are burdiñeskuk e beste batzuk egon siñ orrek. Guk deitzen gentzon baillariñak. || Orrek e baillariñek. Orrek e die barridzek, burdiñeskuk orrek. Erosi eitte siñ osorik. Orrek e ya diferente, orrek ya geruau etorri sin. Orrek, len aintxiñe es san ixen. Aintxiñe ixete san bostortza, da lauortza. Da oiñ e bostortza ta lauortza, beiñ orrek etorri siñin, gitxi usete san. Se orrek e bostortzan bier tamaño eitte ben eukok. Ba orrek e erripan sier lurre botaten da asko bera, ta aintxiñeko sarrak orrek etorritte be es eben guisten orrekiñ ein, lurre jeurtiten dala bera. Bostortzas.

baña, baiñie, bañie. (BAINA) Vaina. || Baiña tekie ederra dau. || An aldatza daun lekun bertan dau ba. Bai, an nauku, ainbeste sepa dekona. An dau kañoberi elegantie. Da emen bestela esta... Orrek ona tie baiñantzako ta indarrantzako ta sartzeko. || Are dire urritxak. An ikustusus are sepak? Urritxak. Arek urritxa die ba baiñantzako, da akuluk eta makillak-eta eitteko. || Baña sarrak. ☐ **baña palue.** Palo que se coloca para que trepe por él el tallo de las vainas. || Baña paluk e dire are paluk, baiñari ipintte dxakon palo altu. || Baña paluk ixeten dire meyek eta altuk. ☐ **berako baiñak.** Vainas que crecen sin un palo por el que trepar. || Berako baiñak beyen geratzen dire; berakuk esteke palorik. ☐ **gorako baiñak.** Vainas que trepan. || Gorako baiñak palu bi dabe.

baitte. (BAITA) 1. También. || Urune eitten dabe artuas da garidxas, baitte sebadí be. || Ota-bedarra? Orko mendikue. Oiñ or estau iñor, baya or eitte san otie, oti tte bedarra, batera. Oti tte bedarra ekarte gendun mendittik. Da baitte askok e aspiarriidxe eitteko be. 2. Efectivamente. || Baitte! Oixe esate san, da auntxe seuk akorda-raistasu te geu pe esate gendun.

bajada, bajadie. (BAJADA) Bajada. || Erripe goitti bera daunien, "Bajadie dau or" esaten da.

bajan. (BAJAN) Bajando, reduciéndose, consumiéndose. || Bueno, bajan-bajan jutun da (txondorra), dana bajan-bajan sertzzen da.

bajatu, bejatu, bajatzen. (BAJATU) 1. Bajar(se). Ik. jatzi. || Bajatu umieri beren olgetako geusak. || Bajatzen siren erreketara. || Presidixue bajatu da. || Marimutil bayo txarrau sabix! Bajatu seix orti bera, jeusi etzeixen! || Gixaburuatik erreka aundidxe doye,

da Oixeti bera bajatzen dana dala esaten dabe Allustittik sier. || Ak igon eban, baya gero bajatu esin! || Gero (ardidzek) bejaten basen orra..., Gernike ondora be larrak jan ereitten. || Kakutu da ori, urkule... olan egur batek, berak eukitten deu ona susen, auxe eukittie, betik eldute. Sagarrari e adarra bejatzeko be, aras eldu, da txa! tirete tzeu bera, kakutu guk arixeru. || Bajatu tarran! 2. Decaer(se). Ik. jeusi. || Bajatute dau. || Asko bajatu da. 3. Disminuir, menguar. Ik. mermau, gitxittu, txatxartu. || Errekie bejatu ein dok.

bajaturera, bajaturerie. (BAJATURERA) Bajada, acción de bajar.

bajeta, bajetie. (BAJUTA) Baja, pequeña.

bajetue. (BAJUTO, baxuto-bat.) Bajo, pequeño. || Bajetue? Txikidxe danari bai, bajetu da.

bajoune, bajounie, bajuunie. (BAJUUNE, baxuune-bat.) Trecho de depresión del terreno, lugar profundo. || Emen trangu esate dxako ba arridxe, da arri trangu, edo bidiñ altzauunie edo bajounie, arixeru esate dxako trangu. || Bajuunie topeu deu.

baju, bajue. (BAJU, baxu-bat.) 1. Bajo, -a. Sin. txikitxu. || Baju da. || Morala bajue deko. 2. Zonas bajas con respecto a Nabarniz, como son Gernika o Belendiz. Ik. betarra, beye. || Betarrak bajukuk dire.

bakar, bakarra. (BAKAR) 1. Solo, único. || Seme bakarra. || Onek eskopetiek tiro bakarra deuko. || Bakar bat payo estau. || Besori paku bada, mantxu esate tzeu guk. Manku be esate tze, baya guk e beti mantxu, beso bakarra dekonari. 2. Apartado, -a, aislado, -a. || Etze bakarrien bixi da.

bakarrik. (BAKARRIK) No más que, solamente. || Bakar-bakarrik. || Ori personiori beti bakarrik ibiltten da. || Orrek gixonorrek bakarrik esin leike ein. || Bakarrik jun da. || Bakarrik dau. || Bakarrik eseittes jun! || Palanka jokuk-eta geidxau eitten ibiltte siren, baya neuk baten ikusi naben bakarrik.

bakarsale, bakarsalie. (BAKARZALE) Solitario, -a. || Bakarsalie da lagunik gustetan etxakona.

bakartada, bakartadie. (BAKARTADA, bakardadebat.) Soledad, retiro; desierto, lugar solitario. || Iñor estabillen lekun: "Bakartadie dau". || Bai, bai, esaten da "Basamortun dau a". Bakartadien-da dauna, da eskutuen badau, esaten da "A, a basamortuen dau". Ori esaten da.

bakasiño, bakasiñoie. (BAKAZINO, bakazio-bat., opor) Vacación. || Bakasiñoie? Bai, umiri eskolan emote tzesenin.

bake, bakie. (BAKE) Paz. || Bake santue. || Bakia apurtu. || Bakien itxi. || Bakien egon. ☐ **bakien esin.** Desasosegado, -a. || "Artak artu esiñik dabil" edo olan esaten da, ba ernegaute daunin-edo, bakien esin dabillenen-edo. || Ganadu selun sartzen danin, olan ba, ya bakiñ esiñ egoten danin ya, "Berotute dau" esate

dxako. □ **bakik ein.** Hacer las paces. Ik. *aiskidetu.* || *Asarratute dabixenin bakik eiñ esiñik goidxe jo ta beye jo ibiltten dire.*

bakealdi, bakealdir. (BAKEALDI) Época de paz.

bakesale, bakesalie. (BAKEZALE) Pacífico, -a.

baketu. (BAKETU) Apaciguarse. Ik. *mantzotu.*

baketzu, baketzue. (BAKETSU) Pacífico, -a. || *Persona baketzu da.* || *Leku baketzue.*

bako, bakue. (BAKO, gabeko) Carente, que no tiene. || *Ondo ein bako artaburue dxak asko.* || *Adardun kakarraldu, da adarrrik pakue.* || *Tantaidxe, iñustu bakue.* || *Tellatu bakuek.* || *Ligerra ixeten da, jeneral euma pe eukitten dabe, billotza pe eukitten dabe, jaten asi bakuek; ixeten di esnutzas ondiño dasenak, estabenak jaten.* || *Nik esan tzet leku gustidxetan iketza. Basorik estau iketzik ein bakorik.*

bakotx, bakotxa. (BAKOTX, bakoitz-bat.) Cada uno, -a. || *Bakotxak pentzau deidxela.* □ **bakotxik.** ¡Cada uno, -a (que)! || *Bakotxik: esate baterako, bakotxik e..., seinde iguel etorten dire, txar bat etorten bada, "Batxotxik etorri bi dxok ona, bakotxik!", txarragaittik.*

bala, balie. (BALA) Haz, bala, fardo. || *Gari balak.*

balantza, balantzie. (BALANTZA) 1. Balanza, instrumento que sirve para pesar. 2. Balanza, tambaleo. □ **balantzan.** Balanceándose, tambaleándose. || *Sopreixe da balantzan daun geusa bat, sopreixiñ edo indar eitten deun..., etengo balitz: "Sopreixin dau de kontus!" Se sopresixak igul soltaukeran bu! Da sopreixe esate tzeu guk orreri.* || *Xirin-xaran esan gure deu ba "Balantzan dabil". "Xirin-xaran dabil".*

balantzaka. (BALANTZAKA, kulunkan) Balanceándose, tambaleándose. || *Balantzaka doye.*

balaustra, balaustrie, baleustrie. (BALAUSTRA) Balaustre, columnilla de barandilla. || *Balaustrak goitti berako barrak dire.*

balda, baldie. (BALDA) Balda. || *Tapari pako baldie.* || *Len, esate baterako, ba oiñ esteku armaidxori pe eskatzin, baya armaidxu egote san eskatzin, da armaidxuk eukitte sittun ba baldak, platerak-eta eukitteko.*

baldar, baldarra. (BALDAR) Torpe, patoso, -a, desmañado, -a. Ik. *baldurre.* || *Ori dok persona baldarra!* || *Ori da baldarra!* || *Gangartute dabillena, edo erdi gangar antzeku danari ba baldarra be esate dxako.* || *Baldarra esate dxako... Seri esangot? Baldarra, beres kuridxosu estanari-edo, baldarra.*

baldartu. (BALDARTU) Volver(se) torpe, desgarbado. || *Baldartute ibiltten da.*

baldau. (BALDAU, baldatu-bat.) Abollar(se). || *Kotxi baldau ein da.* || *Kotxe batek golpi artu deu, da baldaute dau.*

balde, baldie. (BALDE, perrail) Balde. Ik. *edarrrie, galdarie.* || *Baldien ondue.* || *Presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen siriñ angillak.* || *Baldias ure kentzen sanien.* || *Bueno, a be bierleku ederra! A txapel ori eldu-eldu eindakun artun de onantzik rast! asidxe ta ra! baldara edo sestora.*

baldekada, baldekadie. (BALDEKADA) Balde entero.

baldistu. (BALDIZTU) Tajar, atarazar (las castañas para que se cuezan o asen mejor). Txorierrin *atxikitu* esaten ei da. || *Egosteko be eitte dxako surittuten estanien e ras! sati bet kendu te egosi. Da guk baldistu arixerri esate gentzon, gastañiri egosteko kentze dxakon satidxeri.* || *Gastañie baldistu.*

baldres, baldresa. (BALDRES) Desarrapado, -a, desaliñado, -a, descuidado, -a. Ik. *traskille.* || *Baldresa da edoselan dabillena jantzitte.*

baldreskeridxe. (BALDRESKERIA) Desaliño, tosquedad, dejadez.

baldue. (BALDO) 1. Baldadura, zona tullida. || *Baldue: olanik noberak golpe bat artu, da baltzunie eitten danin: baldue. Baitte katxarruri be, ajau balda bat, eta eitten badxatzu barrun sartun: baldue.* 2. Abolladura. || *Kotxik baldu deko.* □ **baldue ein.** Abollar(se). || *Oneri lapikuri baldue ein dxako.* || *Golpi artu deu te baldue ein dxako.*

baldur, baldurre. Basto, -a. Ik. *baldarra.* || *Baldurre? Suabe estabillenari. Trastue be ba an dana tatarres, baldurre dana brinke-ta branka-ta dabil. "Baldur garbidxok ori, suabe etxabik!"-eta.*

baleka. (BALEKA) Jugando al escondite. Gamindek (Bizkaiko ume-olgeten lexikoaz, FLG 77, 1998, 56. orr.) Elantxoben ere batu zuen berba hau. Eneko Barrutiak jakinarazitakoaren arabera, Bermeon ere *bale-baleka* ere esaten da. Beraz, *kubike* esaten zaio Nabarnizen, baina *bale* esan behar denez, *baleka* ere esaten da. || *Olan iskuteute dabixenin, 'baleka' ibiltten dire, 'bale' esanda, topetan gero.*

baleitteke. (BALEITEKE, baliteke-bat.) Puede ser, quizás. || *Baleitteke olan ixetie.*

balidxeu. (BALIAU, baliatu-bat.) Aprovechar. || *Balidxau: geuse bat balidxo estabena, ba arreglau te ibilli deidxela.* || *Esate baterako, sagarra usteldute badekosu erdidxe ta beste erdidxe ona (onan esaten da): "Ori balidxeu leike sati bat".*

balidxo, balidxue. (BALIO) Valor. || *Estaki pa sein dan orren balidxue.* || *Ori balidxo aundikue da.* || *Siderra san a, siderresko ogorleku sin danak. Ogerleku siderra. Arek balidxu euken. Arek e naitte desautxeute be, arek balidxu. Siderrak balidxo ban. Arek, askok arek, tontomendi geuk entregau gendusen, pilluk euki*

etzin-de. Estabela balidxoko, desautxeu eitte sittula danak eta, besti-tte. Ya tonto egon, da entregau.

balidxo. (BALIO) Valer. || *Ondatute dxak librué, etxuek balidxo. || Esetako estau balidxo. || Balidxo ete dau? || Gatzarridxe estau balidxo karie eitteko. || Goittik jota onenbeste balidxo deu. || Faldie ixaten da egostekue-edo, gixetaku-edo, baya ostantzin tajadetakota estau balidxo. || Altza da arbola bat, beres etorten dana jeneralin, da egur fiñeku be esta ixeten, estau balidxo ixeten..., olan konstrusiñoik edo olan eitteko estau balidxo ixeten. || Irotute dxak, etxok balidxo su eitteko be! || Gari burue eldukeran, baltzittu eitten da, gari burue, da estau balidxo es eraitteko, da... ludotuten dan garidxe estau balidxo, eraitteko be estau balidxo, da ganaduri pentzun emoteko bes. || Prantzesak esate ben a txapel gorridxe eiñ eskero ganaduntzako estaula balidxo. Balidxo bai! Baya probetxurik estekola, a sustantzirik es. || Diru apurrek asko balidxo ban gero!*

balidxoko, balidxokue. (BALIOKO) De valor, valioso, a.

baliente, balientie. (BALIENTE) Hábil, diestro, -a. || *Nire anaidxie balienti san arek preparentan. || A da ba perretxikotan balientie, arek jakingo deu. || Nabu balienti etxekuk, txongu dxok dana ta. || Ba balienti san ori! Bai. Orrek e danetan eitte ban entendidu ondo. Da berori san, ganera, eitteko ori. Bai. Perretxikuten, kasan, danetan, peskan... Danin baya! Bai, peskan be bai. Or Omarreta, Omarreta bakixu. Andik e, joliñ e, arrankaridxe eitten-da atrapete basen orrek! Ori! Oiñ estau eitterik, baya ordun libre san.*

balkoi, balkoye. (BALKOI) Balcón. || *Bai, obri eitten asi dire, ta balkoi bat bota dabela pentzetot, goiburukue.*

ballena, ballenie. (BALEA) Ballena (*Balaena mysticetus, Eubalaena glacialis*). || *Saiñe ballenien koipie da.*

balor, balorra. (BALOR, balore-bat.) Valor, audacia. || *Bier txarra, edo pendsin daun geuse bateri eltzeko-edo: "Balorra euki bi da gero gixonak a eitteko!"*

balore, balorie. (BALORE) Valor, audacia. || *Ori sera eitteko balorie bi da.*

baloretzu, baloretzue. (BALORETSU) Valiente, valeroso, -a.

baltz, baltza. (BALTZ, beltz-bat.) **1.** Negro. || *Lur baltza. || Baltza dala pentzeu ben, baltzittute egon salako. || Parte bat da suridxe ta bestie baltza. || Da besti da gibela. Gibelan kolorekue. Baltzuskie, baltzgorri.* **2.** Negro, -a, de raza negra. || *Persona baltzik sekule ikusi barik. Pentzeu be! Da oiñ e Gerniken berton edosenbat ikusten dire.* **3.** Mal, malo, -a. || *Geusie baltz dau. || Bier baltza. || Baltz ikusten doti nik ori asuntuori.* **4.** Durante las guerras carlistas, liberal. || *Baltzak eta suridxe.* □ **baltza bota.** **1.** Mentir. || *Baltza bota-ste orrek!* **2.** Decir un

despropósito, una patochada. Sin. *estan gausie.* || *Baltza bota dau!* □ **baltzak pasau.** Pasar apuros, dificultades. || *Baltzak pasau dire emen.*

baltza, baltzie. (BALTSE) Vals. || *Soltie, trikitrikidxe eta gero gure denpora ramoli egon san, da gero soñu-jotzaila pe bai. "Ointxe jo bi dau pasadoblie", "Ointxe jo bi dau tangué", "Ointxe jo bi dau baltza", da bakixu.*

baltzigue. (BALTSEO) Baile agarrado. □ **baltziguén ein.** Bailar agarrado. || *Pekatu ixate san baltziguén eittie. Oiñ iñor esta konfesetan, da aintxiñe konfesetan jute sin, da baltziguén ein dabenin, abadiri esan baltziguén ein dala, batzuk pa ixiltxuau, beste batzuk elixen dausenak danak entzuteko modun: "Baltziguén!!! Geidxau ingo-su??" Aintxiñe pekatu aundixe ixate san. || Baltziguén ein deigun!*

baltziska, baltziskie, baltzeskie. (BALTZIZKA, beltzexka-bat.) Negruzco, -a, moreno, -a. *Baltzuskie gehiago esaten da. || Ba, baltziskak nai suriskak ixen, olan lañotuten dabenin, "Laño soidxe das".*

baltzittasun, baltzittasune. (BALTZITASUN, belztasun-bat.) Negrura. || *Baltzittu eskerun (atzoskola)? Baltzittu eskerun ba euki, arek eta baltzittasune jun artin.*

baltzittu, baltzitzen. (BALTZITU, belztu-bat.) Ennegrecer(se), oscurecer(se). || *Golpias baltzittu te aundittu ein dxako. || Keyas dana baltzittute dau. || Baltza dalakun artu dxuen, iketzas baltzittue egon salako. || Gardostu: ori esaten da, esate baterako, suten geusa bat pasetan danien, esate baterako, ba egur bat-edo, olanik apur bet esetasune kentzeko-edo, da apur bet baltzitzen danin, ba: "Gardostu ein dogu suten". || Eitten espadxako eser, garidxeri ludoj etorte dxako, baltzittu eitten da. Gari burue eldukeran, baltzittu eitten da. || Da a ixeten da barridxe suri-suridxe da. A da ikusgarridxe! Da gero baltzittu eitten da. Abaidxe esate dxako arexeri. Elixako onek kandelak-eta eitteko-ta.*

baltzuna, baltzunie. (BALTZUNA, beltzune-bat.) **1.** Cardenal, moradura. || *Baltzunie illune da. || Marigorringo da kokotxu bat, gorritxue, baltzuna txikitxu batzuk dekosana, egas ibiltten dana.* **2.** Espacio o trecho negruzco. || *Olan laiñu illune datorrenien be: "Alako baltzunie dxatok!" || Baltzunie dxatok, ondiño bota bi dxok.*

baltzuske, baltzuskie. (BALTZUZKA, beltzexka-bat.) Negruzco, -a, moreno, -a. || *Sasi okanak ixeten dire txikitxuek, da ixeten dire illuntxuek, baltzuska antzekuek, da garratzak ganera. || Da gero jotén danin-da ba, ludoye agertze dxako, ta alaku ba errotaridxe es eben gure ixaten, se urune baltzuskie ataraten deu te, da jagi be ganera esta ondo eitten ludoj deken garidxen urune. || Berde baltzuskie ixeten da. || Da besti da gibela. Gibelan kolorekue. Baltzuskie, baltzgorri.*

bana. (BANA, bedera) A razón de uno cada. || *Ipiñi txakur txiki bana!* || *Ermandadak egon siren len. Bei bat iltzen bada be, ba bakotxak apur bana ipiñi, emon; ba orrek ermandadak.* || *Da trakulu da burdidxe, da erreilla bi alderdi banatan ibiltte ittu, da arbolie ba eunditxuau nai txikitxuau ganiñ ipiñi, da beidxe karreteridxe eitten dabe.* || *Arixeri asukeri bota, ogi salutaue arixeri ardauri eitte dxakon, da a etzeko gustidxe dana jan biar ixete ben apur bana, geixo txarrik etorri esteidxen.* || *Bana ei besen. Bana. Onek emen, da arek an.*

banaka. (BANAKA, bakoizka) Uno a uno. || *Ak ekarten deutzu, orrek, nastien banaka-banaka.*

banako, banakue. (BANAKO) Individual, de un solo miembro. || *Banaku: ba banan-banan datosena, fruti nai e..., ba sagarra be jeneral banan-banan egoten da. Madaridxe be bai madaridxe bikuk eoten dire. Baya banan-banan daun geuseri esate dxako ba banaku, banan-banan.* || *Busterrri bakarrrik ibiltten diñak ixengo dire banakuk. Emen estau.*

banan. (BANAN) Uno, -a a uno, -a. || *Banan ibiltten dire, estire alkarregas ibiltten.* || *Igul danak alkarras egon biarrin, danak banan, ta desbardindute.* □

banan-banan. Uno por uno. || *Danak batera barik, banan-banan.* || *Banan-banan doyes.* || *Len jeneral etziñ eukitte gendun estidxe, erlik euki gendusenda, ba erlio pa banan-banan il siren-da.*

banandu. (BANANDU, bereizi) Separar(se), apartar(se). Ik. *bixi-alargune.* || *Ango andra-gixonak banandute daus.*

banatu. (BANATU) Repartir, distribuir. Ik. *partidu.*

banda, bandie. (BANDA) Pertonekin *kuadrillie* esaten da gehiago, *bandie* baino. *Aldrie* ere esaten da. || *Ume bandie.* || *Txigue da txoririk txikidxena. Txirti da tamañotxue, txirti. Txirtak ibiltten dire bandak.*

bandada, bandadie. (BANDADA) Bandada. || *Txori bandadie.*

bandera, banderie. (BANDERA) Mujer bandera, desenvuelta, osada. || *"Neska banderiori!": erdi gangarra bada.* || *Ariñ ibiltten dana, ta ba edoser esaten dabena-ta, olan esaneku estana-ta: neska banderie.* || *"Bandera garbidxok ori!". Ori da danakin-de, or lantziñ or ibiltten danari, banderie. Igul mutillekin nai orretan ibiltte dxatzu e, da ointxe amen, da ointxe an, da danakin-de, "Bandera garbidxok ori!".* || *Banderi da len esan dotena, batari au esan, bestiri ori esan, da ara nai ona ta "Ori bandera garbidxok!".* □ **saltza banderie.** Mujer bandera, desenvuelta, osada. || *Saltza banderie da danakin nasteten dana, gusurre ta abarra ta olaku.*

bando, bandue. (BANDO) Bando, edicto. || *Arkupien ipiñi dabe alkatien..., ayuntamentuko bandue.*

baneka, banekie, banakie. (BANAKA) Pocos, escasos, algunos. Inoiz *banaka* ere entzun dut, baina gehien korritzen duen forma *baneka* da. *Kontauek* ere erabiltzen da batzuetan. || *Gero asten da ongue-ta, banakie urteten asten da.* || *Nire denporan be batzuk joten eben eskus. Banekak.* || *Gixon aundidxe banekak ixeten dire.* || *Banakak puntan garau gorridxe eukiten dabe.* || *Ikusten dire banekak oin be txotik.* || *Kangreju pe badaus, baneka, baya oiñ atrapetarik estau.* || *Ba (lupue) patatan egoten da asko. Asko edo banakie patatan agertzen da.* || *Besti gabilloi txikidxe txikidxau da asko be, amen txori txikidxei-de segite tzena. Gitxi da baya ibili ba banekak ibiltten dire.* || *Onek kanpotik etorten dire biragarruk. Berton be egoten dire banekak baya kanpoko biragarru... pasie egoten da ba sarridxen.*

banketa, banketie. Banquete. || *Banketa esaten da oin, len bayo geidxau. Len esteguk ixate siren, baya oiñ estegu es beste eser.* || *Arek euki dxuek banketa!* || *Bankete galanta euki dxuek are pe.* || *Banketa deke.*

bankue. (BANKU) Banco. Eskatzean egoten denari *mankala* esaten zaio. □ **lutu bankue.** Banco de cabecera en funerales. || *Luto bankuek oin be badas. Oin lengo modun estire, baya len lutu dekona eurreko bankutan egote san lutue saintzen, gixoneskuek, da kapak jaste sittun. Oin kaparik ikusi be esta eitten, da oingo unik selakuk diriñ estabe jakingo.*

bañu, bañue. (BAINU) Baño. || *Bañu bat artu.*

bape. (BAPE, batere-bat., bat ere-bat.) Nada, contracción de *bat+be*: *bape* (en frases negativos). || *A librun askana etxaten bape gustau.* || *Guk estekogu bape.* || *Gure biximodue auxe da, beti biarren, da beti bapes!* || *Edo dana gure deu edo bapes.* || *Langostik dana jaten deu, te karakolak pe naiku jaten deu, baya langosti esta bape ona.* || *Ni ixen enas bape briskelaridxe. Beti musin-de. Da briskelaridxe beti esango tzu: "Fue!".*

bapes. (BAPE, batere ez-bat., bat ere ez-bat.) Nada, contracción de *bat+be+es*: *bapes*. || *Bi tte bapes.* || *Urkulie ba, urkulie esate tzesu e... arboli pe adar bi dekosenak "Urkuladune dok". Piñuek amen oin, piñue esaten dabe, urkuladune, bat ebateko, se ostantzin gero aixik apurtu eitten deu, bata bai tte besti be bai tte gero bapes!*

bapesna. A cero.

bara, barie. (BARA) 1. Vara del alcalde. Azentua lehenengo silaban du (*bárie*). || *Barie alkatiaña da. Bai, makillatxu bat aintxiñe alkatik erute ban, mesa nausira jute sanien elixara. Da axe alkatin barie.* 2. Horca, trango, tramojo (que se pone al pescuezo de los animales). || *Narrak eukitte ban espatie. Da gero eukitte ittun barak, asturi inketako edo saldidxeri inketako. Da eukitte ban kollarra. Kollarra bakixu ser dan. Da arexe kollarrin sartze sin barak, edo aparaju*

pe bai. Aparaju batzuk eukitte ben katiakin lotute narrari. Da gero erute itun basetak. Basetak. Aspidxen.

baraka. Variedad de patata. || *Baraka suridxe da, oriskatxu dekona apurtut beren barrue.* || *Baraka: geuk kastata duna orixe da ta.*

barandel, barandela. (BARANDA) Barandilla. || *Barandela esate tzeu eskusalari te orreri.*

barasare, barasarie. (BARASARE, baresare-bat.) Peritoneo, diafragma que separa la cavidad del pecho de la del vientre. Emiliano Arriagak *barasarri* batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "La parte crasa del cerdo unida a ciertas membranas interiores, intercostales, etc., muy sabrosa puesta dentro del caliente *talo*". || *Barasarie: geuse suri bat, dana koipie ixeten da ori.* || *Barasarie gibelen ondun egoten dana da. Len sesiñek-eta illte sirin, da oin be txarridxeq illtten dire, ta egoten da, gibelen urran-edo egoten da; lusetxu ixeten da, da ba metxu ixeten da, da esta jateko aprobetxetan, txakurreri, edo katuri emote dxake.* || *Barasarie: serin, gibelen ondun-edo eoten dana, pulmoitan-edo eoten dana, alako illuntxu bat.*

barau, barau. (BARAU) Ayuno. □ **barau eusi.**

Desayunar, romper el ayuno. || *Barau eusi: goixiñ e otik jagitten daniñ esate baterako ba baraurik juten da, da ogi sati bet-edo, sagar bat-edo seoser jaten danin ba barau eusi.* □ **barau egune.** Día de ayuno. □ **barau**

ein. Ayunar. □ **barau gorde.** Guardar la obligación de hacer ayuno. || *Len elixik emote ban buldie. Paper batzuk emote sittusen, Aitte Santuk emonikuk, edo nik estaitt selan ixete sirin, barau gorde tekuk-edo, karidade eittekuk-edo.*

baraurik. (BARAURIK) En ayunas.

barbo, barbue. (BARBO) Barbo (*Barbus*). || *Barbue arraiñe da.* || *Errekie Oman aundidxe dau les, emen aren besteko errekarie estau, emen erreka txikitxue pai, mendittik bajaten diñak badas, baya ba, orrek estabe eukitten barborik.*

barda, bardie. (BARDA) Rama con espinas o ramitas pequeñas. Ik. *gardastie*. || *Bardie da sepakin daun egur bat. Jeneraliñ esaten da: "Bardias emongo tzudas!", seinde olan egurrek sepak olan dekosenari. Da gardastie be bai. Len orbela be igul gardastie esate tzen batzuk, bestiek bardie.* || *Bardi da egur sartie, egur meye, punti-edo lodidxe barik egur adarra-edo olanik meye dekona asko, egur sartie, egur sartie esateko dxako.*

bardaskie, bardauskie. (BARDASKA) Revoltosa, basta, descuidada. || *Ori da bardauski!* || *Bardaskie: sisprit-sapart, lorriñegaittik, noberari ardure estotzona, esan gurot, edoselan junde ba ardurerik es, jantzitte be esan gurot, bardaskie.* || *Bardaskie umiri esate dxake, drogan-da ibiltten diriñin: "Bardaskok*

alakok!". Jeneralin neskari esate dxake, neskaturi, sosegau esiñik dabixenin saltoka: "Bardaskak!".

bardin, bardiñe. (BARDIN, berdin-bat.) 1. Igual. Ik. *desberdiñe.* || *Adapue geuse bardiñ antzekue da.* 2. Liso, -a, llano, -a, plano, -a. 3. Igual, igualmente, de la misma manera. || *Gixonak nai andriek bardiñ agintzen dau.* || *Egunek jun de egunek etorri te beti bardin.* || *Bardiñ enteniten da.* || *Orrek marti sosuk ilterrik estau. Baya emen jentiek il eitte ittu bardin.* || *Narra ba ixeten da nai bedarra, nai aspiarrixde, nai edoser ekarteko ixeten da narra. Egurre be bardin.* 4. Empate. || *Bardiñin geratu dire.* □ **bardiñin.** En igualdad de condiciones. || *Bardiñin naidxau dot jaidxoterridxen bixi.* □ **bardiñ ixen.** Dar igual, ser lo mismo, ser algo indiferente para alguien. || *Bardin deutzo.* || *Bai, bardiñ ixen biko tzo, niri etxat akordetan-da.* || *Orrantz begire plantau gure bosu, bardin doste.* || *Bardin-bardin deutzo, bat da ori. Amen be bidxetara esaten da.*

bardindu. (BARDINDU, berdindu-bat.) Igualar, alisar, nivelar. Ik. *leutu, laundu.* || *Ori erreminti da sureri satidxeq kentzeku, edo bardintzeku sure. Asuli deko ixena.* □ Ume batek zentzuna edo heldutasuna hartu duela adierazteko, honela esaten da: *Agiñek bardindute dau (umetatik urten dau) edo Agiñak bardindu dxakos.* □ **lurre bardindu.** Allonar, aplanar el piso.

bardingo, bardingue. (BARDINGO, berdingo-bat.) Mediano, de mediana estatura. || *Bardingue? Ba, erdi bardiñe geusiri, "Bardingu dxak". Da goibera gitxi dekonari. Batzuk esate baterako, jenerue solun badau be, batzuk eundidxe bestik... Desbardiñe esaten da, da ori bardin-bardiñ eitten da orregaittik.* || *Bardingue: estature bajukue.* || *Bardingue: ba erdi bardiñe dabillena, ba, bardingu.* □ **mutil bardingue.** Muchacho mediano, de mediana estatura. || *Mutil bardingue: ba umi payo eunditxuauk tire ta ba olgetan dabixenien.* || *Mutiko bardingo bat pasau da.* || *Umik olgetan ibili dire, neska-mutil bardinguek.* || *Mutiko bardingue da or amar, amabi, amalau urteko mutil bardingue.* || *Bardingue? Bueno, ume bateri, mutiko bateri nai neskato bateri esan leixo ba "Bardingu da", es aundidxe ta es txikidxe estala.* || *Mutil bardingue da erdis erdikue.* || *Personatan, ba mutil bardingue. Orrek ya asten dausenñ e, tamaño dausenin, "Ori mutil bardingue dxak", ya bastante asitte.*

bardintasun, bardintasune. (BARDINTASUN, berdintasun-bat.) Igualdad.

bardintzu, bardintzue. (BARDINTSU, berdintsubat.) Más o menos igual, parecido, -a. Sin. *erdi igulak.*

1 barie. (BARE) Limaco, babosa (*Limax*). || *Orrek barien moduen korriten dau.* || *Ori barien moduen dabil.*

2 bare. (BARE) Tranquilo, -a, sereno, -a. Ik. *mantzue.* || *Itxosue bare-bare dau.*

baretu. (BARETU, ematu) Calmar(se), tranquilizar(se), serenar(se). || *Baretu da gausie.*

baridxeu, baridxekue. (BARIAKU, bariku-bat., ostiral) Viernes. || *Astelena, martidxena, eguestena, eguena, baridxeu, da sapatu.* □ **baridxeu santue.**

Viernes santo. || *Aintxiñe matrakie esate dxakon trasto bat, aste santutan jote ben kanpaye gelditzen sanin, eguenes, eguen santus ba onetan erridxetan. Kanpaye eguen santus, kanpaye gelditu eitten da, baridxeu santus estau kanpairik.* || *Ori e len amen be jote san baridxeu satus e, da kirrikarri esate gentzon, kirrikarrie, olan kirrikarra, kirrikarra, baridxeu santus-da, sera Jesukristo il dala ta kirrikarri jote san.*

barik. (BARIK, gaberik, gabe) **1.** Sin. || *Esara jungo, mutil, diruri parik!* || *Diru barik esin leike iñora jun.* || *Kontus, busti barik.* || *Utzik ein barik etorri!* || *Ikusi barik deket.* || *A kakutuas euste tzo a gero. Bedarrak berak euste tzo, sokarik es esebe barik.* **2.** En vez de, en lugar de. || *Olantxik ein bi san, bestera barik.* || *Guk adarra esate tzau, arrama barik.* || *Orrek danak kontuk dire ostin, sorgiñek egote siña ta au selako seorgiñe...! Sorgiñe parik berton lantzen bateri be iguel ikaratzeko deitze tzen.* **3.** Antes de (en contextos temporales). || *Da gero andik denpora asko barik il san gure aitte.*

barketa, barketie, braketie. (BARKETA, brageta-bat.) Bragueta. || *Bueno, gerrikuk ibiltte sirin baya amengo barketako boto bakuk etziriñ ixeten, barketan e danak eukitte ben botoye, baya gerridxen gerrikue.*

barkilla, barkillie. Barquilla, caja de plástico donde se coloca la fruta. || *Frutie eukitten dabe barkillak.*

barku, barkue. (BARKU, ontzi, itsasontzi) Barco. || *Barkuek jo dxok orroye.*

barraban, barrabana. (BARRABAN, barrabas) Barrabás, travieso, -a, malvado, -a. || *Nor ixen da? Barrabana!*

barrabas, barrabasa. (BARRABAS) Barrabás, travieso, -a. □ **barrabasan artue.** Maíz de tamaño pequeño, escaso. || *Arto txikitxue, oraindik ganora bakue danin: barrabas artu.* || *Arturi ba, barrabasan artu bai esan leike, barrabasan artu, igul txikidxe ero eskasa egon eskero.* || *Barrabasan artu be ba esate baterako, e orreri be, ganaduri nai txakurre, barrabasan txakurre esate dxako. Da arturi bardin-bardin, barrabasan artu, eskasa ta dero estana.* □

barrabasan txakurre. Voz despectiva que se aplica al perro que no obedece las ordenes del dueño. || *Deittu*

te igul etorri es-da eitten deun txakurreri esate dxako
"Barrabasan txakurre, etorri es!"

barrabaskeridxe. (BARRABASKERIA)

Barrabasada. || *Barrabaskeridxak pasaten dire emen!*

barrabil, barrabile. (BARRABIL) Testículo.

Pertsonen nahiz animalien kasuan erabiltzen da. Ik. *potrue.* □ **barrabilek euki.** (vulg.) Atreverse, tener cojones. || *Ik dxekosak barrabilek!*

barrabileko, barrabilekue. (BARRABILEKO)

Golpe en los testículos.

barre, barrie. (BARRE) Risa. || *Barre paltzue.* || *Kriston barriek eiñ ittu!* || *Barriek etze gustidxen entzuten dire.* □ **barre algara.** Carcajada. □ **barre estue.** Risa reprimida o disimulada por uno mismo. ||

Asarretute, da jo ta, da igul da negarres umie igul, da negar ein gure, baya negar ein gure es, da barre: "-Barre estuek dabis orrek!" || *Barre estue da an ein gure da eiñ esiñi daunin ba, barre stue.* □ **barre karkaixie.** Carcajada. □ **barre karkaixaka.** Riéndose a carcajadas. || *Barre karkaixaka dabil.* □ **barreka.**

Riando. || *Barreka dabil ori.* □ **barre larridxe.** Risa forzada. || *Barre larridxe: olan barre natural estana-edo.* || *"Barre larridxe ein deu": ba barre larridxe ein lei, nobera larri daunin.* □ **barres.** Riendo. || *Barres dabil ori.* □ **barre purrustadie.** Carcajada. || *Olan, barre eitten daniñ eitten dirin serak, saratak, edo ijuidxek purrustadak dire, barre purrustadak.* □ **barre santzue.** Risotada, carcajada. □ **barre santzoka.**

Riéndose a carcajadas. || *Barre santzoka dau.* □ **kuku barrie.** Risa del bebe. || *Umi leलगotan barretxuk eitten asten danin: "Kuku barriek eitte ittu".* □ **barre ein.** Reír. || *Barre eitteko gogue.* || *An jeusi nintzen, danak barre eitteko.* □ **barre erin.** Hacer reír.

barrealdi, barrealdidxe. (BARREALDI) Acceso de risa. Lekuko baten arabera, 'barrealdi bet' baino gehiago "Barri naiku ein de jun dire" esaten da. || *Barrealdi bet ein du.* || *Barrealdidxe? ba, barreka igul e ekittaldidxe eittosu. "Arek ei ttu barrealdidxek!"*

barregarri, barregarriidxe, barragarriidxe. (BARREGARRI) **1.** Feo, -a, extravagante, ridículo, -a. Barragarriidxe nahiz barragarriidxe esaten da. || *Barregarriidxe guk esate tzau geuse esajereuri.* || *Esajerau bateri barregarriidxe esate tzeu.* || *Ori da barregarriidxe!* || *Barragarriidxe: esate baterako, erropa bat, edo gona bat, edo jantzitte nasaidxei, edo lusiei badeko: "Barragarri deko".* **2.** De mala manera, sin sosiego. || *Andrik barregarri dabil gixona.*

barregure, barregurie. (BARREGURA) Ganas de reir. || *Barregurie: barre ein biar es ta barriek urten ein biar.* || *Barregurie emoteste.*

barren, barrena. (BARREN) Extremo inferior, parte de abajo. Ant. *gona.* || *Baso barrena.* || *Mendi barrena.* || *Solo barrena.* || *Praka barrenak.* || *Erropa barrena.* || *Tripe barrena.* || *Da barrenetik gonera lurre altzate san burdidxen.* || *Motie jeneralien eskiñara datorren satidxe da.* Landie ya aundidxe da; da landin barrena, motie. || *Aspildurie: erropiri eitte dxakona, bai.* Aspildurie a barrena-edo jirete tzena edo a da aspilduri. Ori jostunek eta. || *Arexen barrenxutik pasau nas.*

barrenu, barrenue, barnue. (BARRENU, laztabin) Barreno, instrumento para horadar la roca. || *Barrenue da arridxen sulue eittekue.* || *Barnue da burdiñe bat, arridxe sulotzeko.* || *Kanteran-da palankakiñ eitte san.* Barrenu da sulu eitteku, da palanki da e arridxe mobittekue, suluk olan ein de ereiñ eittekue. Bidxek dekedas.

barrenulari, barnulari, barnularidxe. (BARRENULARI) Barrenero. || *Barnuas arridxe sulatzen dabena barnularidxe da.*

barreñue. Recipiente de cinc de bastante capacidad y más ancho por la boca que por el asiento y que se utiliza para la ropa. || *Barreñue orreri esate tze, orreri, seinde palanka-da modukuri barreñue.* || *Ori e len e, esate baterako, gatzatu edo olako ontzidxe dire orrek.* Gatzatu nai edoser ein gure bosu, ba barreñue.

barreska. (BARREZKA, irriz) Riendo. || *Itto biarrien dau barreska.* || *Itto ein da barreska.* || *Barreska dxak, purruska otzin dxabik a barreska.* || *Ori gastiori beti barreska, burle eitten les.* || *Neu baten Bilbon naturiste bategana jun netzen, da aseri bedarrak egosi tte axe bedarran ure artzeko esausten.* Da ni barreska eon nützen etzera etorritte be. □

barreska gixendu. Desternillarse de risa. || *Barreska gixentzen dabil.* □ **barreska purrustadaka.** Riendo a carcajadas. || *Barreska purrustadaka egon dok.* || *Barre purrustadie? Bai, barreska da purruskadaka barreska.*

barretzu, barretzue. (BARRETSU) Sonriente, risueño, -a. || *Barretzue: barreska-ta dauna.*

barri, barridxe. (BARRI, berri-bat.) **A. 1.** Nuevo, -a. || *Etze sarra esautu nabon ondo, da barridxe ei ben, dirue tokau dxaken Ameriketetik, edo nunundik, da gero barri-barridxe ei ben.* || *Etziri tellak ipintte dxakosenin, tella barridxek ekarritte, lenguk, sarrak kendute barridxek ipintte dxakosenin: erretillie.* || *Urtzara jotan daun etzie dana bota dabe, da barridxe ein bi dabe.* **2.** Recién, nada más, cuando. || *Da a (ide bedarra) emote gentzen beidxeri, txala ein barridxeri, loidxe bota esiñik dausenari.* || *Egosi barri dau.* || *Jan barri nau.* || *Beidxe jatzi barri badau, dana... Lelengotan jatzi tte*

erropie ba utzittute, "Jatzi barri dau". || *Salduteko beidxeri feridxatan, erropa aundidxak jeneralin ba erakusteko; da igul erropa txikidxa bauko: "Eske, jatzi barri dau!"* || *Ein barridxe ixeten da kare bixidxe.* □

Erditu berri den emakumeari edo ganaduari buruz honela esaten da: || *Ume ein barri dxak ori ondiño.* || *Ondiño selan artuko su bierrin ba, ondiño ume ein barriko ganadue?*

B. Noticia. Sin. *albiste.* || *Se barri?* || *Se barri da ortik?* || *Se barri da Nabarris aldin?* || *Or ibilt-ok nun se barri dan jakitten.* || *-Ser barri? -Sarrak barri.*

barriada, barriadie. (BARRIADA) Barriada. Ik. *barridxue, kopradidxe, eusue.* || *Lau etzetik gora bada, barriadie, kopradidxe; orrek ixen bidxek esaten sirin berton.* || *Ori geure barriadeku dok.*

barridxen. (BARRIAN, berritan-bat.) De nuevo, otra vez. || *Barridxen euridxe abidxeu deu.* □ **atzera barridxen.** De nuevo. || *Ori piper bedarra da altu-altutxue ta batzuk klase bat e deko, sustreidxe gorri-gorridxe. Da besti deko suridxe. Da a baten ataten bosu, estator barridxen. Baya a bestie ataten bosu edo apurtu-edo eitten bosu, atzera barridxen dator.* □

barridxen barres. De nuevo, otra vez. || *Barridxen barres ein dxok atzera.* || *Lengun ein, de barriro eittie da ori, barridxen barres. Satorrak pe igul jotan eindde, itxi tzo, ta geruou ostabe igul: "Ka, barridxen barres osta be ein dxok au, biar au!"* || *Satorrak igul eitte ittu pilluk atara, ta isten deu, igul gero ara jute sara, ta: "Kaguen, barridxen barres be ein dxok!"*

barridxu, barridxue. Barrio. Ik. *barriadie, eusue, kopradidxe.*

barrike, barrikie. (BARRIKA, upel) Barrica donde se guardaba la sidra o el vino. Handiagoei *bukoye* esaten zitzaien. || *Bujoye? Ardau-edo, sargau-edo eitte siren arek aundidxek. Barrikak, baya bujoye esate dxakon aundidxeri. Iguel milla litro edo bosteun edo olan. Da bestiri txikidxaure esate dxakon, eun litro edo berreun, barrikak.*

barriketa, barriketie. (BARRIKETA, berriketa-bat.) Chisme, habladuría, murmuración. Ik. *autue, esamesie.* || *Barriketie emen apur bet esate tzaun bestieittik txarto esaten edo olan.* || *Barriketie, ser txarra artzen dxako.* || *Barriketa: andrak eitten dabon moduen, kritiketan dabillena.* || *Orrek barriketan daus.* || *Barriketan dabil.* || *Barriketan orre pe!* □

Pertsona batek asko hitz egiten duenean, era honetara esaten da: *Orrek barriketa asko deko.* □ **barriketan jardun.** Andar criticando. || *Ixiliek egon esiñik-eta, esaten dabixenari kontuk-eta: "Barriketan diardue".* □

barriketan ekin. Andar criticando. || *Barriketan eki tzek.* || *Beti barriketan ekitte tzo.*

barriketalar, **barriketalaridxe.**

(BERRIKETALARI, barriketari-bat.) Charlatán, -ana, hablador, -a. || *Barriketalaridxe: geusa asko esan bi dabena da edoser esaten dabena.*

barriro. (BARRIRO, berriro-bat.) De nuevo, otra vez. Ik. *osta be, barridxen, barridxen barres, atzera barridxen.* || *Lengun ein, de barriro eittie da ori, barridxen barres.*

barristau. (BARRIZTAU, berriztatu-bat.) Renovar. Ik. *barrittu.* || *Etzie barristau.* || *Lengo sarrak barristau.*

barrittu, barritzen. (BARRITU, berritu-bat.) Renovar, reformar. Ik. *barristau.* || *Barrittu: barridxau ipiñi.* || *'Barrittu' da geusa barridxe eittie.* || *Kuartu barrittu.* || *Kuartu barritzen detzeu.*

barritzu, barritzue, barretzue. (BARRITSU, barritsu-bat.) Charlatán, -ana, hablador, -a, parlanchín, -ina. Ik. *berbalaridxe.* || *Ego ixilik, barritzu ori!* || *Barritzu utze da.* || *Barritzue dabil.* || *Barretzu da beti berbetan, da pirri-parra dabillena, barretzue.* || *Barretzu ba beti geusak esan, da besti ein, de kontu asko dekona, barretzu.* || *Barretzu da beti ri-ra-ri-ra-ri-ra, kontue eta abarra esaten deu.*

barru, barrue. (BARRU) **1.** Interior, (lo) de dentro. || *Barrue orittu.* || *Barruko mudie.* || *Sarratue da aintxiñeko orma barrue.* || *“Barru txarra dako etzik” esaten da konpontziñoyen premiñan badau, estue edo gela txikidzek dekoselako.* || *Or ainbeste tunel dau einde.* || *Or be bastante luse ein, de ure topau ben, da gero esin barrurau ein.* || *Irotute dxak barrue.* || *Gastañarrue? Bai, gastañarrue esaten da, gastañiri, barru utze dekonari. Ganie, asala ta ganie, da barru utzik.* || *Tripe barruek estire aprobeixatan, bota eitten dire.* || *Akenak burue aragidxen barrun sartzen dau, odola txupetako.* || *Bat suridxau eoten da, patata suridxe, barrue suridxe dekona. Baya barru oriski dekona a suridxe dekona bayo obi ixeten da.* || *Guriñ estau sillorik, baya batzuk eukitten dabe sabaidxen, da sartzen dabe bedarra, bedarra, da eitten da sartu berdie, da konserbau eitten da ortxe barrun.* || *Umi artu te jute san elixara: elixan sartzie. Ama esin jun ixete san elixara barrure, abadik urtete ban kanpoko atitara, ur bedeinkatontzidxen ondora, da abadik estoli ipintte tzon olanik sorbaldan-edo, da andrie sartze san barrure abadias batera.* || *Gero, arantziñ erregatiban..., neu iñois junda nau Natxitture amendixik, Natxitture, eta an amabidxetan jentie itxeitten euki gendun de bidera urtete-skuen, bertan ingerun urtete eskuen bidera, da elixara barrure jun, de mesi emon, da ba kantau, da gero baskaridxe jan, da gero etzera.* || *Bai, beren buru bota ban, araxe barrura. Da gero bera atara esiñik sekulekuk ein sittuen.* || *Egurre gitxi da arridxe asko, noberan kaltegarri da. Gero ganie erreko dxako baya barru etxako erreten. Frakasu deko.* || *Da oin be, oiñ usteldu*

bari pe igul e kokuk e a asidxe ta janda igul eukitte tzos. Da edeittosu sagarra da barrue ori einde. Da oiñ aurregaitti bota bi dxako botikie. **2.** Dentro de, en (el plazo de), al cabo de. || *Iru urten barru.* || *Bost egun barru ekarri bi da.* || *Denpora gitxi barru.* || *Iru urten barrun asiko da.* □ **barru baltza.** Malas entrañas. || *“Barru baltza deko”:* esate baterako, ardure estetzone-*edo badau kuadrillan, barru baltza deko.* || *“Barru baltza deko”:* Ba garbidxe estala. *“Barru baltza deko”, ba esate baterako, gusurtidxe danari be esate dxako.* □ **barruko ikarie.** Emoción, estremecimiento interior. || *Barruko ikarie: susto bat edo artu eskero.* □ **barruko sikue.** Estreñimiento. □ **barrukue. 1.** Interior, (lo) de dentro. || *Irue ixeten da barrukue usteldute dxakonin.* **2.** Ropa interior. || *Gixoneskunari soñekue, jeneral, etxako esaten, espabese edo prakak, edo arkondarie, edo barrukue, edo olanik.* || *Ori kamixie andraskuk jaste ben. Gixoneskuk arkondarak-edo, barrukuek jaste sittuen. Askotan arkondarak e barruku barik bai, gixoneskuk makiñe bat bider ibilliko sirin.* || *Jugoye? Emen etxako esaten, baya leku batzutan esate dxako barrurenguri. Lelengo jasten dabena gixoneskuek, emen ba barrukue esate dxako. Baya jugoye arixerri esate tze.* □ **barruko danak bota.** Vomitar. || *Barruko danak bota tas.* □ **barruko sikue.** Estreñimiento. || *Barruko sikuas dabil.*

barrualde, barrualdie. (BARRUALDE) Parte interior. Sin. *barrukaldie.*

barrukalde, barrukaldie. (BARRUKO ALDE) Parte interior. Berri-emaile baten arabera, *barrukaldie* gehiago esaten da *barrualdie* baino.

barruntau. (BARRUNTAU, barrundatu-bat.) Enterarse, percibir, sentir. || *Barruntau dosue seoser?* || *Barruntau dosu nundik nora jun dan?* || *Barruntau dosu se ein daben?*

barruratu. (BARRURATU, barneratu) Guardar. || *Barruratu: barrun gorde.*

barrurengo, barrurengue. (BARRURENGO) Lo más interior. || *Jugoye? Emen etxako esaten, baya leku batzutan esate dxako barrurenguri. Lelengo jasten dabena gixoneskuek, emen ba barrukue esate dxako.*

barruti, barrutidxe. (BARRUTI) Terreno acotado. Etxe barruan ere egon daiteke. || *Barrutidxe esate dxako sarratute daun terreno batzuk.* || *Aintxiñen eukitte ittuen ormak eta, bueltan-bueltan da an barruen dana ba, barrutidxe.* || *Barrutidxe esate dxako sarratute daun terrenu sati bateri. Sarratzen da, edo bedarra asteko, beste pataridzek ibilli esteidxen, beste ganaduk, beste batenak-edo. Da ixaten da, edo alanbrias sarratzen da, edo ostantzin..., len antxiñeko modun esta ixeten, len egurras sarratze sirin, egurre estakakin, de untzekin jositte, iñor ibilletterik gure*

estanin, de bedarra asti gure danin be. ☐ Baso izentzat ere erabiltzen da, hau da, toponimotzat. Esate baterako, Ibergunen badago baso bat, *Barruti* deitzen zaiona.

bart. (BART) Anoche, ayer por la noche, esta noche (la que ha pasado). || *Bart ein ttus aixe moduek!* || *Bart emen ixen da.*

bartz, bartza. (BARTZ) Liendre, huevo de piojo. || *Bartza: gero sorrIDXe formau-edo eitten dxakena.* ☐ Txikitxoak direla adierazteko, honela esaten da: || *Bartza lakuek dire.* || *Dios, ser dok? Bartza lakue dok!*

basa, basie. (BASA) Barro, cieno, lodo. || *Basie edo morterue.* || *Basias dana sikindute dao.* || *Basie dau or.* || *Basie batzen da or.* || *Oiñetzak, ero bat pasaute badau, amen sier edurriñ ero basan, "Amen lorrotza badau" esaten da.* || *Mendire bidin ba estau kamiñorik, espabese ba arrisko bidik, eta ba basasko bidik dire.* ☐

basa landarra. Barrizal. || *Da landarra da emen baserriDXen euridxe eitten dabenin-da ba dana basi-tte eoten da, ta basa landarra-edo arixe esate dxako.*

basakatu, basakatue. (BASAKATU) Gato montés (*Felis sylvestris*). || *Katamixarra? Bueno, oinguk katamixarra..., oinguk basakatu geidxau esate tze, baya katamixarra basakatu da. Da ixeten da ei diri tamañun –neu pe estiitut esautzen tamañun– batzuk ixaten ei dire eundixuauek eta beste batzuk txikitxuauek.* ☐

basakatu paparsuridxe. Garduña. || *Iru askonar eta beste basakatu paparsuri bat, basakatu paparsuridxe, erdera garduño, da illadan arrapau nittun.*

basamortu, basamortue. (BASAMORTU) Lugar retirado. || *"Basamortuen bixi da ori", esate baterako, mendixen-edo bixi, etze bakarrien, esaten da: "Basamortuen bixi da ori".* || *Basamortu da "Basamortu garbidixen dxak a!", es serik es esebe-ero, karkabi ero sakona bateri, esate baterako, e Oman a etze txatxarra, nai e Gostidxa ero etze bakarra, olanik basun-ero deunari, "Jode, basamortun dxak!"-eta. Basu da les, esate dxako basa mortu.* || *Basamortu da es etzerik, es esebe, da sikiñe, ta satarriDXe ta illune. Basamortu esate dxake areri.* || *Da esaten da olan etzi alun estekona. "Basamortu dxak au eta!". Au Iturritta, Iturritta amen Gabikera doiña, oin piñartin dau. Len orrek piñurik es ekon. Da ordun ba, jolin, esin leidxen esan basamortu. Da oiñ e "Jolin, basamortu garbidxe plantau ok", se dana tapaute, albo gusti, eser bistan es.* || *A (Iturritta) dau oin ya basamortun. Se aren bueltan basu ein dxako. Len es ekon ak basorik. Da ordun es. Da oin bai, oiñ e "Jo, basamortun dxak!". Da Gostidxa be bakarri dau, an aparte, basamortue.* || *Bai, bai, esaten da "Basamortun dau a". Bakartadien-da dauna, da eskutuen badau, esaten da "A, a basamortuen dau". Ori esaten da.*

basatoste, basatostie. (BASARATUSTE) Domingo anterior al de carnaval. Ik. *tostada egune.* || *Basatoste*

karnabala bayo sortzi egun eurrerau edo olan ixete san, da atostiek karnabaletan, tostadak eitte siren. Karnabal bera. || *Basatostie basora jun, de meridxendie eitte ben, basuen. Oiñ orrek galdute das. Baya aintxiñe artu sartena ta txorixue-edo, da basora jun, da ein sue ta ipiñi eitte san. Da antxe pasau arratzaldie.* || *Lelengo atoste selebreten san emen, tostadak jateko sera, gero basatoste andik atzerau, gero manga esaten san gaba, a ixeten san tostada geidxen jaten san gaba.* || *Basatostie ixete san domekie.* || *Basatostie: basun eitten dan sueri, te basun eitte san e..., len neu be iños junde nau, de basun su ein, esek su artzeko estan lekuen, su ein, da txokolati eiñ antxe, da txokolatie artu, te atostie, basatostie.* || *Basatostie: beres ba eitte san edo tortillie, edo txokolatie, edo dana dalakue, arexe artu.* || *Basatostie: domekan eitte ben, da oiñ estau ainbeste an txabolarik pe baya, txabola batera juen, da su ein, de txokolatie ein, de sarteneku ein, eitte ben, da selebreta sittuen.* || *Basatostetan.* || *Basatoste: asi bi dabeniñ e serak, garixumik asi bi dabeniñ eitte sana.* || *Basatoste: geu be, aintxiñe, txorixu edo seoser artu, mendire jun, de antxe jate gendun. Guk domekan eitte gendun. Eguenin be eitte san. Baya emen, baserriDXetan-da, domekan.* || *Len ba basatoste eitte san e beidxendie, edo beidxendie es, txorixu ero olanik, mendire jun de jan da orrek eitte sin. Len asko eitte san emen olakue. Oin be batzuk eitten dabe. Oin ba eitten dabena, oiñ e tabernatan-ero igul eitten dabe basatoste dala ta. Ba ori, ostantzien paskutan. Da eitten dabe ba, len, edo txabolak eta or badas mendixen, olako txabola baten-ero, beti olakoxe lekutan, "Basatoste eitten jun dire".* || *Basatoste? Bai tte eundixpe pe bai, len bai, len eundixpe pe bai, len ya mutil sasoku pe eitte ben, neskakin junde, mutil de neskak. Eruten bakotxak beri erun, da juerga, a juerga basu-ero einde, orre eitte siren bai.* || *Basatostie da basuen eitten dan jataldixpe.* || *Baya ori basatoste selebrete gendun guk aintxiñe. Ui! Jente! Orrek txabolatxu mendixen ote siñak e. Ein sue, ta erun txorixuk eta patatakin tortillie, gero txokolatie.*

basatu. (BASATU) Embarrar(se), ensuciar(se), manchar(se). Ik. *osalatu.* || *Kamiñue basatute dau.*

basatxur, basatxurre. (BASATXUR, basaitzur-bat.) Azadón. Ik. *jorra atxurre, jorraidxe. Baso atxurre ere esaten da.* || *Baya erute san atxur me bat. Mendire, edo basora-edo doixenien, esate baterako, bidie katittute badau ureas, edo basias-edo, axe libretako, arixeri pasu eitteko. Basatxurre esate dxakon.* || *Basatxurre esta agiñek dekosen, espabese ague dekona, ague naiku sabala dekona ixaten da.* || *Atxurre, da atxur jorraidxe bat be estire, bat be badire. Atxur jorraidxe, ba jorran eitteko ixeten da. Baya atxurre eoten da, basatxurre be badau, seinde mendiko bidiek..., oingo mendiko bidik estire konpontzen, oin kamiñotzak badaus ba. Da atxur sabalak ixeten dire, sabalak; bera atxurre ago sabaluku ixeten da jorraidxetan bayo.*

basatza, basatzie. (BASATZA) Lodazal, barrizal, ciénaga. || *Basatzie, aintxiña emen etzaurrien euen galanta.* || *Basatza aundidxe dau, ta ortik parik ametik jun.* || *Basatzak daus galantak ur posukin.* || *Basatzan sartu de.* || *Txarridxe beti basatzara jun eitten da, beti ur posu daun lekure-edo.* || *Da oñes jun, basatzari basatza. Baso lusie, saku burun artunde.*

basauntz, basauntze. (BASAUNTZ) Cabra montesa. || *Basauntze da etziñ eoten estan euntz bat, basun-edo, basutan-edo ibiltten dan..., edo mendidxetan, beren konture ibiltten dan euntz bat, basauntze.* || *Emen estau abasauntzik.*

baserri, baserridxe. (BASERRI) 1. Caserío. Ikazurietako baserriak: *Goitxi, Oraindi, Mane, Martone, Etxesar, Mutillo, Ane, Itxurritxa eta Gostia.* || *Baserri ederra.* || *Baserriko jenerue.* || *Baserri kaskarra.* 2. Aldea, rural. || *Baserriko kontuek dire orrek.* || *Masandei da baserri baten etziñ ixena.* □

baserri etzie. Caserío (casa rural). || *Bai, baserri etzik, onek. Da bestik, Elixalde, Elixalde bueltakuri, Elixaldekek esate tzeu ba emen baserritik.* □

baserriko katue. Gato doméstico. || *Katanarra da patari bet. Katanarra da katue, baserriko katun antzekue.*

baserritar, baserritarra. (BASERRITAR) Casero, -a, habitante del caserío, labrador, -ora. || *Usaba, baserritarra baya etze onekue.*

baseta, basetie. (BAZETA) Ramas de haya o roble o castaño que sirven de suelas a la narria. || *Narrak eukitte ban espatie. Da gero eukitte itun barak, asturi inketako edo saldidxeri inketako. Da eukitte ban kollarra. Kollarra bakixu ser dan. Da arexe kollarrin sartze sin barak, edo aparaju pe bai. Aparaju batzue eukitte ben katiakin lotute narrari. Da gero erute itun basetak. Basetak. Aspidxen.* || *Baseti san... Egala narrana, eta gero emen beste egur batzuk onan ipiñi, jun deidxen. Basetak arexek.* || *Basetak, an aspidxen eukitte ittunak, olan aspidxen oten diñak. Ein sulo bi, ta baseta, da eukitten dabe punti okerra, enbasurik topau esteidxen. Basetak, narrakin.* || *Bai, basetak. bi eukitte ittu narrak. Olan, arek erruedari barik, kortatik, goistatik eta dana alakoxe-ta. A da ola gastau esteidxen ipintten dana, reforsue.* || *Espatie san narrak erute bana. Da gero arek aspidxen erute ittun basetak. Bakixu kamiñun-de. kamiñu apurtu estaidxen-da.* || *Narrari baseta ipintte dxakona, gabillie esate dxako.* || *Gabillie? Egurre... Narra bakixu ser dan. Narrak aspidxen baseta eruten deu, beran aspidxen gastau esteidxen mateidxala. Se a mateidxala gastetakun ostabe barridxe ipiñi bi dxako. Da es gasteteittik, ba aspidxen geigarridxe ipintte dxako alako sididxekin. Egurresko sididxe bidau, se gastau ein bi dau are pe bestias batera. Beti gastate dxakon. Da gero idxe gastaute dauniñ e, narran egala*

atrapau orduko, barridxe ipiñi. Egurre aretxa ero olako ori, pagu nai e...

baska, baskie. (BASKA) Chabrea, vestidura corta encima de la camisa. || *Baskie: barruti jasten dana. Lenguek, pentzeto nik, baskie neuk esautu dot da ibiltten dabela..., dana..., tela suridxas eitten da, da gerrirañoku ixeten da baskie.* || *Baskie andraskuk ibiltten dabe, baya oiñ estakitt ibiltten badau iñope.* || *Baska suridxe obrako andri-gixonen erropie da.*

baskal. (BAZKAL) □ **baskal sasoye.** Hora de comer al mediodía. || *Baskal sasoye, eberdidxen ordu batetan edo amabidxetan-edo.*

baskalaurre, baskalaurrie. (BAZKALAUURRE) Tiempo anterior a la comida. || *Baskalaurrie: baskaridxe jateko aurreratxau.*

baskaldu. (BAZKALDU) Comer (la comida del mediodía). || *Ederto baskaldu dogu.* || *-Baskaldu dosu? -Legie ein dogu.*

baskalordu, baskalordue. (BAZKALORDU) Hora de comer al mediodía.

baskaloste, baskalostie. (BAZKALOSTE) Después de comer. || *Baskalostie: janda gero.*

baskalosteko, baskalostekue. (BAZKALOSTEKO) Siesta. Ik. *siestie.*

baskari, baskaridxe. (BAZKARI) Comida del mediodía. || *Baskari iski bet.* || *Baskaridxe jan deu.* || *Saspi peseta. Gure Romanek jate ban Goittunen baskaridxe saspi pesetan.* □ **baskari kopae.** Comida ligera. || *Baskari kopae? Ba se esangot neuk? Olan baskaridxe trankil barik e ba apur bet jati-edo.* □

baskari legie ein. Cumplir con la hora de comer (al mediodía). Ik. *legie ein.*

baskule, baskulie. (BASKULA) Báscula.

1 baso, basue. (BASO) Bosque. Lekerikatik Ereñora doan kamioa ardatz legez hartzen badugu, *basue* ezkeraldeko alderdia da, baita *Arrola* ere. Kamiotik eskumaldeko alderdiari, ostera, *mendidxe* esaten zaio, nahiz eta bertan basoak ere egon. || *Baso karkabie.* || *Basutako guardie.* || *Basue bota.* || *Basue matarresan bota.* || *Aintxiñe pastorik ibiltten sirin basori paso.* || *Basue sikiñe dao.* || *Basora jun biau ide ebaten.* || *A da baso utze! Etzeri bakue!* □ **baso atxurre.** Azadón. *Basatxurre* ere esaten da. Ik. *bastar atxurre.* || *Baso atxurre da arek atxur senduk, laburrek, kirten laburras-da. Basun e len piñu sartzen-da baso atxurre bi da. A da baso atxurre.* || *Len orrek e ibiltte siñ e edo egalak garbitzen e, bide egala, arridxe daun lekun-ero olan. Bestik dire atxur normalak, jorraidxak da atxurrek. Baya orre ti baso atxurrek.* || *Ori be bastar atxurre esate tze, da bestik baso atxurre. Gu geuk baso atxurre esate tzeu, bastar atxurre barik. Bastar atxurre orrek esan gure deu bastarrak-eta garbitzen ibiltte da les, len esan dotena, arri artin-da*

ibiltteko ba guk "Baso atxurre ekarri!", ero bastar atxurre. Orrek ba tie. Bastar atxurre ekarrik! □ **baso bidie**. Sendero del bosque. || *Baso bidi ixeten da ba basora juten da edo aspiarritten edo bedarra eitten bada, bedar sikuten be bai, da setako esangot nik? Basora juten da bidi ba, ganadu pasetan din bidi da. || Au lelangos jun san baso bidiean, arik eta Gostidxara arte estau kamiñurik eta.* □ **baso etzie**. Caserío situado en una zona montañesa, a cierta distancias de los núcleos de población. || *Baso etzi dire urrun dagosenak. Esae baterako, Masandei baso etzi da. Arrola pe bardin, baso etzie.* □ **baso larrosie**. Rosa silvestre. □ **basoko lorie**. Flor silvestre. □ **baso lurre**. Tierra del bosque sin cultivar ni labrar. || *Bueno, baso lurre basun oten da, mendixen be bai. Ibili bako lurre, gosatu bakue. Ba esate baterako, mendiko bedarra emoten dabena, ba esate dxako baso lurre. || Baso lurre esaten da... Ser esangot neuk? Oiñ eskatzak eta etartiek-eta lurresekuk jeneral estaus, ba antxiñeko etzen batzuk eukiko dabe baya, olakoxe lurreri, lurre landu bakue... Baso lurre da ibili bakue edo ondute estaun lurre.* □ **baso makatza**. Perucha silvestre. || *Geurin be badau baso makatza. Da makatz txikitxu bat, da kolori eukitten deu... Baya da makatz txikidxe...* □ **baso okana**. Endrina (fruto). *Sasi okana* ere esaten zaio. Orain arte ez da ezertarako ere erabili izan, baina oraintsu bat edo beste hasi da patxarana egiten. Dena dela, erabilera hori nahikoa berria da eta oraindik ere gutxi zabalduakoa. || *Baso okanak txiki-txikitxuk ixeten dire. Baso okanak, e, ba ser esango neuk?, estira aprobetxau eitten. Animalidexek-edo jango itue. || Sasi okanak? Bai, kontixu, bat dire sasi okanak nai baso okanak. Bateri esate tzeu. Batzuk dire, ser esango neuk?, txikitxuauk ixengo dire, batzuk aundidxauek ixengo dire, baya orrek estittu iñok aprobetxaten. || Nai baso okanak esaten da, nai sasi okanak esaten da.* □ **baso pataridxe**. Animal salvaje. || *Baso pataridxe dire aseridxek, askonarrak-eta. Baso pataridxe dire. Baso pataridxe esaten da basuen bixi dirilako, basoko sera dirilako.* □ **baso sagarra**. Manzana silvestre. || *Baso sagarra: estittagak, sagar estittagak. || Baso sagarra da ba e... Or egon san etze baten baso madaridxe basuen artue ixen salako. Baso sagarra da basotik datorrelako. Basoti dator da gero plantetan dosu suk, baso sagarra. Osea an deko sustreidxe, basuen dekolako sustreidxe, baso sagarra.* □ **erri basue**. Monte comunal. || *Erri basuk oin be ongo dire. Oin jaubetasunik esteutzeu eitten, baya erri basuek ixate sirien erridxena beres, baya arek erri basuk ibiltte sittunak ba urtien, segun selako kantidadi dabillen, arek erridxeri pagau ein biar ixate*

dxakosen. □ **baso ein**. Enselvar, embosquecer, ensilvecerse. || *Baso eindde dau terrenue.*

2 baso, basue. (BASO, edontzi) Vaso. || *Lurresku baso bat. || Basotxue. || Basue birrindu ein da.* □

baso bete. Un vaso (lleno) Ik. *basokadie*. || *Len meidak egote siren. Ba kuartillun erdikuk, ba, baso bete. Basue kuartillu erdikuk egote sirinak.*

3 baso, basue. Bazo. || *Básue errementeu tzo.*

basokada, basokadie. (BASOKADA) Vaso entero. Ik. *baso bete*. || *Basokadie edan.*

basollar, basollarra. (BASOILAR) Urogallo, gallo silvestre (*Tetrao urogallus*). || *Basollarra da bestie. Basollarrak e dire gorritxu txikidxek, baya arek estire uretakuk.*

basotar, basotarra. (BASOTAR) Habitante de los caseríos situados en el monte Arrola.

bastante. (BASTANTE, aski, samar) Bastante. || *Bastante sabal. || Bastante asko. || Ori bastante asko egoten da bedar artien. || Sarrasoidxe bastante fuerte daumin, eurrin, amar metrora ikusten gatx egoten da be. || Orandillie madaridxe da, bastante eundidxe. Orandillie bastante sasos etorten da. || Oin be orandillak bastante das, madaridxek. Len asko egon san orandilli. || Ba gerrin ba ainbeste edo bastante il san bertoko erriku pe. Bai. Lantzen bat, lantzen bat.*

bastar, bastarra. (BAZTAR, bazter-bat.) **1**. Rincón. Ik. *egala, eskiñie, txokue. || Bastarra? Eskiñiri. || Kamiño basterra. || Solo bastarra. || Mota bastarra.* **2**. Lugar, región, tierra, alrededor, parte. || *Bastar askotan ibillitxe dau ori.* □ **bastar atxurre**. Azada de dos púas. *Basatxurre* eta *baso atxurre* gehiago esaten da, baina sinonimoak dira. || *Ori be bastar atxurre esate tze, da bestik baso atxurre. Gu geuk baso atxurre esate tzeu, bastar atxurre barik. Bastar atxurre orrek esan gure deu bastarrak-eta garbitzen ibiltte da les, len esan dotena, arri artin-da ibiltteko ba guk "Baso atxurre ekarri!", ero bastar atxurre. Orrek ba tie. || Bastar atxurre ekarrik! || Da au da bastar atxurre. Bastar atxurre da au, sendu da au. Au da basun e... Solun-de barik e, basorakue, piñu sartzekue, bide barridxek eitteko, da dana iguel.* □ **bastarrak bete diru**. Gran cantidad de dinero. || *Bastarrak bete diru deko.* □ **bastarrak diru**. Gran cantidad de dinero. ||

Bastarrak diru ekarri deu. □ **mendi bastarra**. Base o espacio recogido a partir del cual se levanta la montaña. || *Mendi bastarra: Mendidxek kontrastola egalien eukitten deuna, bastarra a da, egala. Esate baterako, au Urruxola ostie ero Airo ostie esati les, bastarrien. Ba bastarrien da egala. || Bastarra emen esate dxako mendi sati bateri, "Mendi bastarra da", edo "Mendi bastarrin dabis ardidxek".* □ **su bastarra**. Hogar, lado junto al fuego. || *Su bastarra, bai, ori da su bastarra.*

Beye. Bai, orixe beyori su bastarra, su bastarra. Baya guk estetzezu ori be esaten, espabese beko sue bayo. Aspaldi esta ixotu be ein de, estaitt ixotzen danin se eingo daben baya. Da oixe esate dxako su bastarra. ||

Su bastarrin dau. □ bastarrrik andar ibilli. Andar de un lado para otro. || Ibilli ortik eta emendik-eta dabixenari, ori bai esateu. Jente tunan dabixanak les: "Orrek or dxabixek bastarrrik andar!" || Erretiru txarrak dekesanak, igul esatet tze ori. Esate baterako, ibilttie boteidxan moduen, goixaldera arte, amen Nabarnixen, Gabiken, da Ereñon, da Gerniken-da: "Bastarrrik andar ibillitte or etorri xak!" □ bastarrak

ikusi. Echar un vistazo. □ bastarrak lorrindu. Enredar, liar, causar jaleo. || "Bastarrak lorrindu" da iguel drogak-eta ipintte ittunari be. Areri be "Bastarrak lorrindu dxosak". Jentartien igul eitte ittus lorriñek, da "Danak bastar gustik lorrindu dxosak ak bastarrak!". Iguel emen be eitte ittu e ganadu batek e jan da gero lorrie ta "Bastarrak lorrindu dxosak". □

bastarrak nastau. Enredar, liar, causar jaleo. □ bastarrrik bastar ibili. Andar de un lado para otro.

bastarrerengo, bastarrerengue. (BAZTARRERENGO, baztarrerengo-bat.) El situado más a la esquina. || *Esate baterako, amen etze illadi badau, bastarrerengue egalín deuna, bastarrerengue. || Bai, bastarrerengu da bastar egalín deuna. "An bastarrin dxak a be", esate baterako, emen e mendi ondun ero olan kontra deuna, emen e mendi ondun ero olan kontra deuna, "A be bastar-bastarrin dxak". Nai e geusa bat e errimeu gure bosu, traktora be. "Eri orra bastar-bastarrera!", kontrara orregeittik. Bastarrin, esan gure dau, egalan.*

bastartu. (BAZTARTU, baztertu-bat.) Apartar, alejar, retirar. || *Olanik badaus geuse batzuk erdidxen, da sokondure eitteko, ba "Bastartu orrek!" (esaten da). || Or egongo da geurin be, bastartute lekun baten. || Arie ta..., oiñ are burdiñesku pe or egongo dire estropiaute, bastartute. Oiñ are pe ainbeste estire ibiltten, len ibiltte siriñ are pe, ariek, ba burdiñeskuk, baya oiñ estire ibiltten arek. || Asto pekotza aintxiñe bakixu setako usete san? Erliri estidxe atateko, keye eitteko. Keye eitten deu asto pekotzak. Erliet keyek e kendu eitten dittu. Guk estidxe euki gendun, da asto pekotzas eitte san erliet kendu. Keye botaten deu, keye satarra, da fuera! A bastartu, erliet bastartu ein bi dabe panalak kentzeko. Axetako usete san*

basto, bastue. (BASTO) 1. Vasto. || *Mando bedarra mendidxen-da asten dana ixeten da. Mando bedarra ixeten da beste motako bedarra bayo bastotxuau. || Bai, egongo esta ba! Txopue asko, or errekondu-tan-da. Ariñ asten dana ori txopu. Bastue egurre. || Geispeko idie bastue da, euskitekue fiñe. || Geispetako idi ixeten da bastue. Da ba personi bastu bada, ori*

esan leidxo. 2. Basto (carta y palo de la baraja española). || Biko bastue.

bastoye. (BASTOI) Bastón. || *Kolpie bauko, bastoye da; da makillie da okerri pakue.*

bastotu. (BASTOTU) Vulgarizarse, volverse ordinario.

basurdie, basaurdie. (BASURDE) Jabalí (*Sus scropha*). || *Ointxe asi dire basurdak. || Arek basaurdin lako ittagiñe dxekosen. || Danak e lorriñe. Basurdik dana apurtu te lorrindu eitten deu. Aseridxe eitten deu artu te erun. Artotzan bertan jan barik artuten deu artotzan da erun. Basurdik bertan jan. Igerten da sein ibiltte daun, ensegida be.*

basure, basurie. Basura. || *Len e basura pa solora-edo botate sirin, baya oiñ e kamioye pasetan da ta kamioyek...*

bat, bata. (BAT) 1. Uno, -a. 2. El uno, frecuentemente opuesto a otro elemento. || *Angailli da olako egur bat, da joste dxakos egur taketak da angailli ba geuk useta genduen, da txal txikidxe geixori daunien edo ba ill-edo eitte basan, ba angaillan erute gendusan enterretako be bai. Batak alderdi batetik eta besti beste alderdittik oratu, da erun, da enterreta san. || Bai bata ta bai bestie, onak dire orrek! 3. Igual. || Adiñe ta sentzune bat da. || Eskatza eta askaurrie bat siren aintxiñe-aintxiñe. || Bai, neiku bat dire orrek. || Esti bat, baya antzerasku die. || Bai, kontixu, bat antzeku tire. Batera be ibili leis bidxek. □ batera ta bestera. A un lado y otro. || Or etorri da bat da or ibil da batera ta bestera. || Batara eta bestera dxabik. □*

batara nai bestera. Tanto de una manera como de la otra. || *Bueno, batara nai bestera esaten da. □ bateko..., besteko... Que si tal que si cual. || Bateko au besteko ori, beti atxekidxe! || Esan gutena 'destartalaute' esaten da dana lorriñin badau be, "Au destartalaute dau"-ta. Amen, esate baterako, onek e bateko silli, besteko besti tte dana jaurtite les egoti, de "Destartalaute dau". □*

baten. Una vez. || *Bilbon baten egon nas. || Egun baten bai tte bestien es. || Emen dunbie, geure aitte sanari be dunbie entzun netzon baten bayo geidxautan. || Bai, entzu ein dot baten bayo geidxauten. □ baten bat, batabat.*

Alguien, alguno, a. Ik. *norbait. || Baten batek esan leike ori. || Bai, batabateri emoten batze saridxe seosegeittik e, ba "Sarittu ein dabe". || Semetzakue? Batan batek umi artute berentzako modun asten dabena, bai, semetzakue. || Batabatek soser txarto ein badeu, ikusi estan geusiegaittik esaten dabena "Bete-betin nau bera ixen dana". || Elisikixune mesie da, nai e batabat illten daniñ e ondrako mesi esateko. || Partikerie? Ondiño gurin batabat nun o nun ongo da. A gerridxen lotute ibiltte san. || Baten bat dator. □*

baten..., bestien... Una vez que si tal otra vez que si cual. || *Baten au bestien ori, beti atxekidxe!* ☐

batera. 1. A una, simultáneamente. || *Denok batera. || Iktuas batera kili-kilidxe artzen deu. || Es, selan jungo san (ama) ba! Umi jaidxo ta batera les erute san elixa. || Kallue iguel eittosu atxurras-edo ibiltte. Kallue da, gogortu eitten da kallue. Da pusli ein de batera eitten dana, puslik urteten deu. Pusli guk arixi esate tzeu. 2.* De acuerdo. Ik. ados, konforme. ||

Orretan batera das. ☐ **bateri bestera.** De un lado para otro. || *Ixerrak dabis bateri bestera. || Laño solti badabil, olan dabilena bateri bestera, "Laño soltik dabis". || Mariartasidxe esate dxako egan ibiltten dan euli antzeko bat, burrun-burrun-burrun-burrun einde, bateri bestera, arboletatik-eta, ba danetatik ibiltten dana. || Gero askanin sue amatetan doiñien, saltoka bateri bestera.* ☐ **bates be.** Sobre todo; en especial,

principalmente. || *Bates be arek au ein dxok!* ☐ **bates beste.** Por término medio. || *Ganadue saltzen badau batek, bata ederra da bestie eskastxuau, bateri ipiñiko tzo presio geitxuau da bestiri gitxitxuau, asike bidxekin bat ein, da txikidxena goratxuau ta aundidxena merketxuau ein da bates beste onexenbeste.* ☐ **bat ein. 1.** Juntar, unir. || *Bat eitten dabe an beyen (errekak). 2.* Unir(se), hacerse compinches. || *Alkarras jun eskero esaten da: "Bat einde jun dosak". Txakurre pe, igul eusokue, ta emengue igul junteu, de jutie les: "Bat einde jun dosak kabroi alakuk nonora!" || Bat eindde daus.* ☐ **bat ixen.** Ser iguales. || *Danak dire bat, edo antzekuk dire danak.* ☐ **es baterako es besterako lakue.** Tonto, -a,

insustancial, lelo, -a. || *Mamalie esan biarrien, beste batzuk esaten dabe mali pakue, es baterako es besterako lakue.*

batel, batela. (BATEL) Lancha pequeña. || *Batela, itxosokue, uretan ibiltten dana.*

batekorre, batekorrie. (BATEKO URRE) As de oros. ☐ **batekorrera bota.** Subastar a las cartas. Ik. *errematera bota.*

1. batu, batun, batzen. (BATU) **1.** Reunirse. || *Aparidxe jan biou, danak batu gara ta. || Etze batera batu, kuadrillie, ta txokolatie ein, edo tostadak ein, selebrau. || Da ordun ba eusoko gustidxe batzen dire erretille bat eitteko. || Asko batzen dire. 2.* Reunir, juntar, unir. || *Errebañu gustidxe batu ot. || Jabonadurie, bai, txikidxe ixete san, da gero erropa asko igul batunde eukitte batera, areri leixibi. || Pillu ein, de pillun eukitte san batute, da ba gero solora botate san. 3.* Rodear, cercar. Ik. *eingerutu. || Batunde daus. 4.* Recoger. || *Ser erein, da axe batu. || Dirue batzen gabis. || Da amen makatzak batzeko modun das. || Sagarrak batute daus, da useiñe botaten das. ||*

Purgatoridxoko arimentzako limosnie geur batuko da. || Len isten san batute eutze. || Nora soyes, maskala batzen? || Ipiskidxe esate gentzon labako eutze-ta batzekuri, da arexas dana batu, da labie garbi-garbi ipiñi. || Dana batzekun dabil": suri berentzako, da dana berentzako, "Dana batu biarrin dabil". || A eskeitte badaus: "Batuixus trastik!" 5. Envolver, liar. || *Umiei len batzen dxakonari deittuten dxako mendela; umien gerridxen batzen dxakona. || Tronpik beyen eukitten deu, sera, bueltaka ebilttekie, da goidxen eukitten deu alako puntatxu bet, eta antxe sartu aridxe, bera bajatu, da batze dxako. || Eitte san dana barik, satitxu bat kentze dxakon, da trapu garbitxu baten batze san, da aixeri ligerra emote dxakon, esniri, eskukiñ-eskukiñ-eskukiñ-eskukin, dana urtu artin. || Ipiskidxe ibiltte gendun. Batu e bedar batzuk e, garidxo bedarrak ixena dekenak eta ipiskidxe ein-de. Batze gendun, dana batu-batu-batu. 6.* Ordeñar. Hitz hau ezaguna da, baina berriemaile baten arabera gehienbat Markina aldean erabiltzen da eta ez Nabarnizen. Ik. *jatzi, eratzi. 7.* Juntar, congregar. || *Kurumiñuk-eta barik, ganaduri eitte dxakos arek tabanuk batun, seinde orrixek e frailleulidxe lantxik. || Samarreridxe, esate baterako, esate dxako begire batzen dan enbasuri-edo, seinde betuli-edo begidxen sartzen danari-edo. || Baba sorridxe da: barie txikitxu danien, ba asko batze dxako, baiñiri be asko batze dxako. 8.* Contagiarse. Ik. *inkeu. || Geixo bat ta odolekue, odol baltza edo estaitt selaku emoten daben, baltzusi-edo, odol lodidxe-edo, bi dan bayo lodidxau-edo. Odoleku seoser ori da. Ori txarridxe eukitten deu, da deskoidu baten personik batu lei.*

2 batu. (BATU) **1.** Recogido, -a, apretado, -a. || *Espan batutxuk dekos.*

batzar, batzarra. (BATZAR) Junta, reunión. || *Batzarra kontzejuen da. || Len or, Muniketan, Ois partien, sorgiñek eitte ben batzarra, antxiñe. || Batzarrin daus.*

batzartu. (BATZARTU) Reunirse, congregarse. || *Batzartu dosak atzo jentie, baya etxok ein bakerik. || Batzartute dau.*

bautismue. Bautismo. ☐ **etzeko bautismue.** Bautismo doméstico. Umea hiltzeko arriskurik bazegoen, etxean egiten zen. || *Bueno, ume bat jaidxoten daniñ e, bixi ixeteko etxurerik espadeko, pentzaten badabe ba "Il ein bi deu, esteu bixi bier", ba etzeko bautismue emote dxako.*

bautixau, bautixeten, bautixetan. (BAUTIZAU, bataiatu) Bautizar. || *Ume bat bautixau barik ill eskeruen, kanpasantun egoten da lekue, da araxe eruten da. || Txingilimañak ordu bistan jote sirin. Da ume bat illte basan jaidxobarridxe, bautixau es eser eiñ orduko, txingilimañak jote tzesan. || Beittu, oiñ nik esiñ esan neixu senbagarren eguniñ eitten dan be. Guk len e umie jaidxo eskeruen, orren eguniñ esin basan, egune*

bautixetan, urrengo eguniñ einbat ariñen erute san, baya oiñ olanik estabe eitten. Ordun ama etzan juten, ama oyen egote san-da, da ba eusokuk-edo, etziñ amuma badau, amumak edo beste batek erute ban umi bautixetan, da aittebitxi-amabitxi jute sirin, da umi bautixete ben. Da ya ba oiñ esta eitten olanik. Oiñ e eruten da domekan edo jaidxegunien, da mesatan bautixeta ittue. || Elixera erun da bautixau.

bautixue. Bautizo. □ **bautixu ein.** Bautizar.

baya. (BAINA) **1.** Pero. || *Etorko sala esausten baya esta etorri.* **2.** Aunque (pospuesto). || *Negu bedarra be oiñ ereitten dabe, aintxiñeko gure denporan es, lenau es baya. || Amen berton beste koba bat badau, orra jente gitxi juten da baya. || Geur gabien eitten espadeu, bidxer euri pixkat eingo deu, asko es baya. || Aren (billotzan) bolari –bai, txarto esanda dau baya–potruk (esate dxake).* **3.** Frecuentemente se utiliza con valor enfático. || *Ba balienti san ori! Bai. Orrek e danetan eitte ban entendidu ondo. Da berori san, ganera, eitteko ori. Bai. Perretxikuten, kasan, danetan, peskan... Danin baya! || Eurretik esan tzo baya!*

baye. (BAHE) Criba, cedazo para la harina. Ik. *galbaye.* || *Bayegas pasau.* || *Bayagas eralgi.* || *Galbaye da beste bat, indarra da orrek eitteko, sulo aundidxe dekona; baye ixeten da sulo txiki-txikidxe dekona, fin-fiñe, ogidxe eittekue.* || *Baye ixeten da urune pasetakue, uruneri saidxe kentzeko. Baye estu-estutxu ixaten da, alanbrada estu-estu ixaten da, da areri urune pasetaxako, ta sairik etxako pasetan. Baya galbaye ixeten da, ba esate baterako, nai indarra pasetako, nai artu pasetako; da botaten deu, ba, se esangot neuk?, berak dekon loidxe, ba galbayeri ba sulutxutik bera jeuste dxako, erain da eraiñ einde.*

bayesko, bayeskue. (BAIEZKO) **1.** Afirmativo, -a. **2.** Aprobación, consentimiento, permiso. □ **bayesko kontue.** En que sí. || *Iguel dudau dau bat, eta geidxaue emoten dau etorko dan kontue, estana bayo, da: "Bayesko kontue ein dxok!" || "Etortekun geratu dok" esan biarrien, ba igul esaten dabe: "Bai, bayesko kontun geratu dok".* □ **bayeskue emon.** Aprobar, consentir, dar permiso.

bayetz, bayetza. (BAIETZ) **1.** Que sí. Azentua lenenengo silaban du. || *Ni payetz pentzetot.* || *Esaidxosu bayetz.* || *Bayetz esan dau.* || *Konfesetaku jute danin, konfesorik –oin konfesorarik estau baya–pregunteten deu ba: "Damutzen sara ein dosusen pekatugaittik?". Bayetz, edo esetz esate dxako.* || *Bai, nik uste dot bayetz.* **2.** A que sí, apuesto a que sí. || *Aren markie ondu bayetz! || Aioko pague esat dxako. Gero bota ebenien, ebaten askolaridxe egon sirin, au Luxia, lau ordun ebai bayetz, de esetz kortie, da es eban ebai.* || *Txingie erutie? Ori plasan eitten dabe. Onenbeste killo erun bayetz da esetz. Oratu andik*

txingetatik-eta. □ **bayetzekue.** Favorable del sí. || *Bayetzekuk irebasi dabe.* □ **bayetza emon.** Dar el sí, dar el permiso, consentir. □ **bayetzin.** En que sí. || *Bayetzin dau: konforme daule esateko modun.*

bayo. (BAINO) **1.** (Más)... que. || *Ni sarrau nok i bayo.* || *Tabanu eulidxe lakoxe, ixeten da eulidxe bayo ba biku edo irukue ixengo da eundidxaue.* || *Beidxeuk eukitten deu esnie meyaue, ardidxeuk eukitten daben bayo.* **2.** Sino. || *Da ori aingeru basan, kampa nausirik etzen joten, txingilimaña payo.* || *Oin be artorik erein be estou eitten apur bat bayo.*

1 be. (BE, ere) **1.** También (en oraciones afirmativas); tampoco (en oraciones negativas). || *Esan be, bakotxi eitten deu orrek! || Oiñ esan bes! || (Eskus joten (garidxe) esautu dosu suk?) Bai ondo be, da jo be bai! || Ipiskidxe? A neu pe ibiltte nablen len.* || *Jentie listu be bai gero!* **2.** Mira que. || *Ein be eittie ori biarra!*

2 be, bei, beye. (BEHE) **1.** Parte inferior; parte baja. || *Beko agiñe.* || *Betik gora.* || *Gixabura partera. Bai, baya beste alderdire be bai. Gomis Bekue esate tze an etze bi. An be-be-beyen.* || *Intxorra, segidu aurrera ta kamiñun goitti dau. Da beste ba tau a bayo arintxuau, kamiñun betik, A Sabalintxorta, Sabalintxaurreta.* **2.** Suelo, piso, pavimento (de un cuarto). Ik. *beyen ganie.* Esaterako, soroan lurrien esaten da, baina etxean beyen. || *Bera jeusi dxat.* || *Beyen dau dirue.* || *Or beyen dau.* || *Gastaña munteidxe, beye leu samarra deun lekuen eitten gendun.* || *Ekarri ittoiñe artzeko ontzidxe, busti esteidxen beye.* || *Arpillerie saku da, sakue, amantal..., sakusko amantal bat: arpillerie. Oiñ ibili be esta eitten ori be. Arenadurak-eta eitte gendusenin len e, ba jantzi axe ta, axe amantal sakusku jantzitte ibiltte san arenetan, goidxe-eta arenetan diriñin-de. Oiñ es goirik eta es berik.* **3.** Poblaciones más bajas que Nabarniz, tales como Mendata, Arratzu, Gernika, Kortezubi, etc. Ik. *baju.* || *Baya emen esta usetan bendejarik. Emen beyetan bai, Urkatik plasara len andrak erute besan otzaratan, burun-de artun, de "Bendejias plasara jun dok". Da emen Nabarnistik esta usetan ixen. Aur beyetatik, Kortasubittik, Artia, orrek esautze dosus, ortik bendejias: "Orko jentie bendejias jun dok plasara".* || *Emen 'artesi' esaten da, baya or Gernike partin, or betik pe 'aspiri' esate tze.* □ **bei jo.** **1.** Decaer la salud. Lagunekin nahiz animaliekin erabiltzen da. || *Total bei jota dxak.* || *Ganadu gustidxe beye jota dxekok.* (Denak argalduta badaude). || *Beye jota dxekosak ganaduk.* **2.** Quebrar, arruinarse. Ik. *kiebre jo, lurre jo.* || *Jo dxok beye are pe! || Bei jota dau.* □ **beko aldie.** Parte baja, parte inferior, abajo. Ik. *bekaldie.* □ **bekue.** De abajo. || *Presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen siriñ angillak.* □ **beko**

partie. Parte baja. Ik. *bekaldie*. ☐ **beko sabaidxe.** Pajar inferior. Etxe batean sabai bakarra badago, *sabaidxe* esaten da beste barik, baina bi badira, *beko sabaidxe* eta *sobre sabaidxe* bereizten dira. Ik. *sobre sabaidxe*. || *Beko sabaidxen itxi!* ☐ **beko sue.** Hogar bajo. *Su bajue* eta *besue* ere esaten dira. || *Beko sue esate dxakon orri, gero txapie, ekonomikie ipiñi san, ekonomikie esate dxakon len.* || *Karnabaletan eitten da txitxiburduntzidxe. Ori da ba urdeidxe, txorixue, edo dana dalakue, ipiñi beko suten, da erreten dana.* || *Adakidxe da ebañeko egur bat, egur lodidxe be-estana, ta meye be-estana, adakidxe, beko suen sartzeko.* || *Beko suen prantxie.* ☐ **be lañue.** Niebla baja, bruma. *Sarrasoye sarrago entzuten da.* Ik. *goi lañue, sarrasoye, lañue, kañe.* || *Be lañu be esaten da, bera bajatzen danien.* || *Da be-be-beyen badau, e "Laño baju dxak". Au lañuau baju-baju-baju esebe ikusten estana, be lañue. Da batzuk sarrasoi be esate tze.* || *Be lañuas tapaute dau.* || *Be lañu dau.* ☐ **betik jota.** Como mínimo, como poco, cuando menos. || *Betik jota onenbeste balidxo deu.* ☐ **beyen ganie.** Suelo. || *Umik txixe ein deu beyen ganin.* || *Beyen ganien jarri saittes!* || *Ittesurako ure beyen ganin sier juten da.*

bealde, bealdie. (BEHEALDE) Parte baja, parte inferior, abajo. Sin. *bekaldie*. || *Bealdi da barrena.*

bedar, bedarra. (BEDAR, *belar-bat.*) Hierba. || *Bermio bedarra; frantzes bedarra; mugitta bedarra; negu bedarra; epai bedarra; ide bedarra; malluki bedarra; negu bedarra; orma bedarra; sapo bedarra; sapedarra; sator bedarra; sekule bedarra; sorgin bedarrak; txider bedarra; urritz bedarra; ustai bedarra.* || *Bedar sikue.* || *Bedar ligorra.* || *Bedar satarreridxe.* || *Bedar fardue.* || *Ugerittu ein dire bedar txarrak.* || *Bedarra noberan ganaduntzako-ta goxu dala pentzaten dan lekuen, "Or dau bedar ederra!" esaten da.* || *-Bedar ederra dekosu! -Bai, au lelengo kortie da ta!* || *Sirrinda bat bedar ebei ot.* || *Serrakada bat bedar.* || *Bueno, bedar klase ona esta egoten or singeran, singeri dan lekuen esta, olanik ganaduk jateko bedarra-ta esta eitten singeran.* || *Udan bedar igerrrik jeneral etzan urteten, denpora txarrak egon esik. Se udan gordete san bedarra, bedar siketunekue, sabaidxen gordete san da negun emote dxaken, galtzun eurretik-edo, da galtzu askanien emote dxaken.* ☐ **bedar ebatie.** Faena de cortar la hierba. || *Se nik esan neixu suri "Su bayo geidxau nas ni bedar ebaten". Da su esetan bes, ta ni su bayo geidxau bedar ebaten nai askoran nai jorra nai atxurren.* ☐ **bedar ebatzaille.** Guadañador. ☐ **bedar epaille.** Guadañador. || *Bedar epaille ona da ori.* ☐ **bedar freskue.** Hierba verde, fresca. || *Bedar freskue esate dxako berde daunin.* ☐ **bedar ispidxe.** Hierba de

pequeño tamaño. || *Emen ispidxe esate dxako olan bedar asi txikidxe. Txikidxe bada asidxe, bedar ispidxe arixerri esate dxako.* || *Ispidxe? Bai, bedar ispidxe. Bedar bateri esate dxako bedar ispidxe.* || *Bedar ispidxe: a siri bedar modun urteten deuna, bedar ispidxe.* ☐ **bedar kodañe.** Guadaña para cortar hierba. Ik. *ota kodañe.* ☐ **bedar lekue.** Prado, herbazal. || *Bedarra leku oniñ asten dana, arin-de: bedar leku.* ☐ **bedar liorra.** Hierba seca. Sin. *bedar satarra.* || *Bedar liorra gosatzu estanari esate dxako.* || *Siketzen itxitte, siketu eitten da bedarra be. Siketzen daun bedarra siketutakun ba axe da bedarra, siku edo ligorra.* ☐ **bedar metie.** Almiar, montón de hierba en forma de cono. || *Gipuskualdin-de metie, bedar meta asko oten da. Emen berton gitxi e. Emen ero bola ero fardue ero olan eitten da oin. Ba ostantziñ e len berton be etzondutan sei tte sortzi meta-ta bueltan egote siren. Barrun kabiten es, da kanpun ein. Eitte basen. Se askok e etze bixitza bikuk sabaidxe-eta txikidxek eukitte ittu ba bintzako.* ☐ **bedar mietza.** Hierba menuda, hierbecita. ☐ **bedar muskiñe.** Hierba que deja el ganado mal comida, desperdiciando mucho. || *Bedar muskiñek? Bai, ganaduk e larran jaten dabenñ e muskiñen ondakiñek iste ittu antxe, bedar muskiñek.* || *Bedar muskiñe? Bedar erdi ganaduk janda dauna edo euntzek edo seosek, ta muskiñe ondakiñ itxi dabena.* || *Bedar muskiñe? Beidxe e isten daben ondakiñe.* || *Bedar muskille da jan es barik lorrindu eitte deunari. Da jateku be bardin, ju eittosu an da "Jateko gusti muskildu dxok, jan etxok ein baya".* ☐ **bedar otzarie.** Cesto para recoger la hierba. *Kinttel otzarie* baino handiagoa da. || *Bedar otzarie oiñ esta usetan. Len sestogiñe esate dxakon, sesterue, etorte san Allustitik ona Nabarrixera sestuk lepun artun, da domeketan saltzen.* ☐ **bedar pillue.** Pequeño montón de hierba que se hacía para resguardarla de la lluvia. || *Bedar pillue, olanik euridxe-ta datorrenien, pillau apur bet eitten dire ta pillue eitten da, bedar pillotxue.* ☐ **bedarretan.** A cortar hierba, a por hierba. || *Etze aspire doye bedarretan.* ☐ **bedar saille.** Gran cantidad de hierba. || *Or dau bedar saille!* || *Bedar sail bat ebaten da bedarra. Len e serrias ebate san da oin kodañas ebaten da.* ☐ **bedar sarie.** Maraña de hierba que cubre el suelo. || *Sari bakixu ser dan. Sari da alanbrakin-de eitten dana, sarie. Da besti pe dana nasti dekona, bedar sarie axe da.* || *Bedar sarie badau. Bedar sarie bedar klase bat egoten da dana sarratzen dana, dan-dan-dana olan lixu or paretan dana. Bedar sarie, bedar sarie arek. Igul indarra ero olako txikitxu igul artu eitten deu bittartin.* || *Bedar sarie da da aulan e sarratute, inkeute daun geusie, bedar sarie.* || *Bedar*

sari ixeten da a liute dauna. Esan gutena, sakatu, katidxute dauna, bedar sarie. || Bedar sari dau. □ **bedar satarra.** Mala hierba. Sin. bedar liorra. || Txakur bedarra esate tze batzuk bedar satarrari. || Mando bedarra asko dau ontan. Bedar satarra da ori mando bedarra. □ **txakur bedarra.** Mala hierba. ||

Txakur bedarra esate tze batzuk bedar satarrari. □ **silloko bedarra.** Hierba de silo. || Silloko bedarra? Oiñ esta eitten sulori pe, da esta eitten bedarri pe sulutan. Siloko bedarra da etziri, esate baterako, sabaidxen, asi goidxeko sabaidxen da beko sabaire eitte dxako sulo bat, sulo bat eta araxe sulora bota, bete artien bedarra botate dxakon. || Silloko bedarra ganaduk estimau jaten deu. || Silloko bedarra da oiñ eitten daben modun barik, bolara barik, len e depositu modun eitte san, da an sartun bedarra. Da a da silloko bedarra. Depositu kanpun-de. Da eitten da librin be, pilleute, tapata euki, orras, plastikukin, arnasarik esteidxen artun. Gu pe len beti eitte gendun amen. Ekarri or da tratorkadi, da sakan, tratoras sakatu. Da sakatu, sakatu, sakatu, sakatu ein kuadrin de gero plastikue ipiñi, da aixerik esteidxela artun albutatik. Dana sarratu. Antxe konserbete san. Da sillue, beres silloku die... Patiñe ero orrek bakixu selan eitten din, patiñek, ba alakoiñ eitte sittuen antxiñe emen. Barrun, jeneralin, sabaidxen-da. Sabai tte kortara. Da kortatik atara. Da sillu a san. Silloko depositu esate tzen. Sillu, sillu esate tzen.

bedarrarte, bedarrartie. (BEDARRARTE) Herbazal. Multzo zentzua hartzen du -arte atzizkia erantsita. Ik. arriartie, sasiartie. || Bedarrartie? Bedar asko daun lekuri. Ebai barik bedarrak.

bedartza, bedartzie. (BEDARTZA, belartza-bat.) Herbazal, lugar de hierba abundante. || Bedar aundidxe daun lekun "Or dau bedartzie!" esaten da. || Landie da esate baterako, saille egotie osuen, landa eundidxe ero...; bedartzie da eundidxe badau, txikidxe badau, ba, esta esaten bedartzie, espabe bedar eskasa dau edo bedartxu dau. Baya bedartzie, an dau bedartzie ixeten da bedar ona badau: "An dau bedartzie!" || Bedartzie da bedar aundidxe. || Bedartzan urteten deu kuku praktik. || Ganadu batek, iguel bedartza ederrera botaten da, or deun lekure, solora, ta ya tripie bete-bete, ta "Ak ein dxok narrukadie!", edo tripekadie, edo olanik. || Kardue da bedar bat, asten da solun, da bedartzan be asten da, da a ixaten da ba beste bedarrak bayo aundidxae, te altuau asten da. Da ba esate dxako arixeri kardue. || Trumo bedarra bedartzan asten da. || Ertza ederra dxekok, a bedartza ederra dxak an!

bedartzu, bedartzue. (BEDARTSU, belartsu-bat.) Herboso. || Arturi be esate dxako (lapan), bedartzu badau. Artu eraiñekutan bedarra edoselaku etorten da, da "Lapan dau bedarras", "Bedarres beteri dekeu"-edo, "Jorratu bierrin dekeu"-edo.

bedasa, bedasie. (BEDAZA, belaze-bat.) Prado, pastizal, pradera, herbazal. Ik. landie. || Bedarra daun lekue: bedasie. || Bedasie da ya landa osue. || Da andiko aldetik, landak dekos, bedasie, da ganaduk-eta dabis. || Bedasie: bedarrak beres urteten dabena, da ebaten dana ganaduntzako. Da erainde be bai, erainde be ba, bedarra, bedar lekue.

bedeinkatu, bedinkatu, berinkatu, berinkatzen, bedeinkatzen, bedeinketzen, bedeinketan, bedeinkatuten. (BEDEINKATU) Bendecir. || Ogi berinkatue. || San Junetan erramilleti eruten da bedeinketzen. || Solun suk esan gure suna da ori, erremus kurtzie ipintte da solun. A da bedeinkatute eruten dan adartxue, sartun, da kurtzie. Len beti solo gustidxetara kurtze bana. Ainbeste solo egote si les, danak kurtze bana. || Erremuetan bedeinkatuten lelungotan elixera erun, da gero andik ekarten dan ereñotz adartxuas e eiñ ori. || Da baitte sue emote dxakonin be. Su emote dxakonin be abadik bedeinkatze ban. Antxe egote san abadie. Geu pe ikuste gendun-de mendire bedeinketzen. || Kotxie berinkatu dxok, suertie euki deidxen. || San Jun egunien elixara besada lorak, erremillotak erute siren. Larrosak-eta eta sorgin bedarra pe antxe, kargan berinkatzen. □ **ur bedeinkatue.** Agua bendita. || Potenteidxe? Elixan oten dan e..., entradan-edo oten dana. Da elixara jute garañin, antxe ur bedeinkatue artu te aittiaren ei tte, da barrure. || Umi artu te jute san elixara: elixan sartzie. Ama esin jun ixete san elixara barrure, abadik urtete ban kanpoko atitara, ur bedeinkatontzidxen ondora. || Potenteidxe arri eundidxe ixeten da, dana biribile ta ur bedeinkatu eukitten dabena.

bedenkasiñue, bedenkasiñue. (BEDEINKAZINO, bedeinkazio-bat.) Bendición. || Orrek san jun bedarrak e, olan, san junetan kurtzik ipintte di emen bedeinketako. Oin be, amen badau geuriñ or agien. Ori san junetan ipintten da, bedenkasiñu artzeko. Orrixek ipintte dxakos san jun bedarrak. || Ori ixeten da bedeinkasiñoye, okerrik ixen esteidxen. Olako, olako geusak. Da oiñ olakorik estau eitten..., batan batek eitten badeu ostantzin. Gu pe beti eitteu. Guk eta onek alboku pe bai, da amen batzu pai.

bederatzi, bederatzidxe. (BEDERATZI) Nueve.

bederatzuirren, bederatzuirrena. (BEDERATZUIRREN) Novena. || Bederatzi eguniñ ixeten da ori, bederatzuirrena. Aintxiñe egote san santu batzuen ixen..., ba San Antonio, esate baterako, ointxe datorren illen dator. Da bederatzi egunin mesie emote ben da bederatzi urrena ein, erresau, elixara junde. Urtin baten, bederatzi egun ariñau San Antonio bayo, San Antonio eguniñ amaitxu: bederatzi urrena. || Persona nausidxeri, bederatzi egunetan, bederatzi mesa emote tzen, da esate dxakon bederatzuirrena.

bee. (BEE) Bee (onomatopeya del balido). □ **bee ein.**

Balar. || *Ardidzek bee eitten dabe.* || *Euntzek bee eitten dabe.*

beeka. (BEEKA) Balandu. || *Ardidzek beeka daus.*

begela, begelie. (BEHE-GELA) Habitación de la planta baja, cuarto del piso bajo. Ik. *gelie, kuartue.*

begi, begidxe. (BEGI) **1.** Ojo. || *Begi argidzek.* || *Begi marroye.* || *Begi baltza da.* || *Begi asule da.* || *Begi asulek dekos arek.* || *Begi biskorrak dekos.* || *Begiko miñe.* || *Gastetan begi bat galdu ei ban da gero tuerto geratu san.* || *Semik begidxe atara ban. Begidxe galdu.* || *Tristiena da begidzek euki te ikusi esin.* || *Guk begidzek trabes dekosenari, iskiribixe.* || *Begidzek minbera deukedas.* || *Samarra sartu dxate begidxen.* || *Begidxen pistak eukitte ittu.* || *Begidzek lausotu dxakos.*

|| *Begidzek espeldute dekos.* **2.** Ojo, cavidad. || *Askoran begidxe.* || *Potiñik eukitten deu..., alderdi batiñ eukitten deu txorrotxue, da beste alderdidxen estau eukitten txorrotxue, olako begitxu eukitten deu.*

3. Brote, yema, renueve. Ik. *mendue.* || *Begidxe menduk dekona da.* || *Begire agostun eitten da. T moduko bat eitten da olanik. Da sartzen dxako estittu gure dosun frutie, altzau asala arbolieri, sartzen dxako begidxe, tapaten dosu, lotu kordel bategas eta ori da udekue, udeku etiketie, agostun.* || *Kortie ein, da sartun begidxe.* || *Patata begidxe? Bai, patatie, eraitteko patatie, begidxe dekonari, ori esaten da.* ||

Babin begidxe. **4.** Vista, gusto. || *Begi ona deko.* □

begi argidxe. Ojo claro. *Begi suridzek baino gutxiago esaten da.* || *Begi suridzek dekos.* □ **begi asala.**

Párpado. *Betasala gehiago esaten da.* □ **begi**

bittartie. Parte que queda entre los ojos. □ **begi**

errrie. Irritación, rojez de los párpados. || *Begierrri, gorridzek onek eskiñak edo.* || *Begi gorridzek eukitte itunari, edo geixo bat begidxetan dekonari, begi gorridzek planteta dxakos, da: "Begi errrik dekos".* □

begi ertza. Borde del ojo. □ **begi espela.** Ojo triste,

caído. || *Begi espelak tekosus.* □ **begi nabarra.** Ojo azul, claro. || *"Begi nabarrak dxekosak orrek", ba begidzek e batzuk e or eukitte ittue suri-batza, ta begi nabarra.* || *"Begidzek nabarrak dekos": nabarra da baltza, da suridxe.* || *Begi nabarra da.* □ **begi okerra.**

Bizco, -a, de mirada torva. || *Begi okerra da.* || *Begi okerrak dekos.* □ **begi suridxe.** Ojo claro. *Begi argidzek baino gehiago esaten da.* || *Begi suridzek dekos.* □ **begi trabesa.** Ojo vizco. || *Begi trabesa:*

begidxe asko sabaltzen estabena, begi erdi txikidxe dekona-edo. || *Begi trabesa, begidzek oker dekosenari bei okerra ero begi trabesa.* □ **begi txotorra.** Orzuelo.

Txotorra ere esaten da, begi barik. Ik . txotorra. || *Begi txotorra, granuek urteten dau begidxen.* □

begiko samarra. Mota, paja del ojo. || *Begiko samarra? Bai, olan apurridxarik begidxen sartu eskerun axik-edo: begiko samarra.* □ **begiko santue.**

Niña del ojo. || *Begiko santue: bueltako marroye, edo baltza, edo berdie dekona bakotxak, oixe, begiko santue.* || *Begiko santue? Batzuk eukitte ittue asulek, beste batzuk baltzak. Ba begidxen barrun egoten dana.*

□ **begi solidxe.** Mirada severa. || *Begi solidzek esaten da, ba asarratute daunin be ba, 'begirekune txarra'-edo, ser esangot neuk?, "Soli begittu ste"-edo.* || *Begi solidxe deko.* □ **begidxen bistan.** A la vista. || *Begidxen bistan, ba aurrien dauna.* □ **begis bera.** Con la mirada

baja. || *Begis bera dau.* □ **eskumeko begittik.** Con buenos ojos. || *Eskumeko begittik? Len esan duna, eskerrekotik txarra da, eskumekotik ikusi eskero ba ona.*

□ **eskerreko begikue.** No predilecto, que no se quiere ver. Gutxi erabiltzen da esakune hau. || *Eskerreko begikue da ikusi gure esteuna.* □ **begi argidxe ipiñi.** **1.** Mirar con buenos ojos, con aprobación. Esaterako, emakume eder bat ikusten denean: *Begi argidxe ipiñi tzek a pe!* **2.** Mirar con enfado. || *Begi argidxe ipiñi tzo orrek.* □ **begidxe bete.** Gustar una cosa, llenar el ojo. || *Begidxe bete-ste ta erosi ein dot.* || *Geuse eder bat dau, esta?, da niri onek begidxe bete-ust.* □ **begi bete-betien ikusi.** Ver perfectamente. || *"Begi bete-betien ikusi dot": erres ikusten dana, edo urretik ikusten dana-edo.* □ **begidxe espeldu.** Caere(se) los ojos a consecuencia del sueño. || *Begidzek espeldute dekos.* || *Begidzek espeltzen asi dxakos.* □ **begidxe euki.** Tener buen ojo. || *Gause onak erosteko begidxe euki bi da..* □ **begidxe jo.** Elegir, echar el ojo. || *Geuse bat gusteten badxatzu: ba "Neuk jo tzet areri begidxe".* □ **begi onas artu.**

Acoger bien. Sin. *ondo artu.* || *Begi onas artu dot.* □ **begi onas begittu.** Mirar con buenos ojos. || *Begi onas begitze tzet.* □ **begi ona deutzo.** Aprobar, mirar con buenos ojos. || *Begi ona deutzo ikasliri.* □ **begi txarra deutzo.** Mirar con males ojos, tener ojeriza. || *Begi txarra deutzo ikasliri.* □ **begi onetik artun.** Caer bien. || *Begi onetik artun deu.* □ **begi onetik ikusi.** Mirar bien (a una persona querida). || *Begi onetik ikuste dxok a pe.* □ **begis jo.** Fijarse, poner los ojos (en, encima); elegir. || *Begis jota deko.* □ **begitten artu.** Tomar ojeriza. || *Begitten artunde deuket ori da*

nik orras estot gure eser. || *Begitten artu: persona txar bat, esta? da ba "begitten artunde dau ori".* □

begi txarra ipiñi. Poner mala cara, recibir mal. || *Abadiak mesatan deittu ban astion etorriko dire etzerreskien da ez begi txarrik ipiñi, arpei txarrik es ipiñi, bakoitzean borondatie emon da aurrera.* □

eskerreko begittik artu. Mirar con malos ojos, tener ojivera. || *Eskerreko begittik artu dxok.* || *Eskerreko begittik artu esteuna da, ba ikusi gure estauna.* □

okerreko begittik sartu. No gustar (algo o alguien). || *Okerreko begittik sartu dxat.*

begibakar, begibakarra. (BEGIBAKAR) Tuerto, -a, de un solo ojo. *Tuerto ere esaten da.*

begikue. (BEGIKO) 1. Simpático, -a, afable, preferido, -a, favorito, -a. || *Seme begikue.* || *Bere begikue deu.* || *Begiku ixen deu.* 2. Enfermedad del nabo. || *Beikue, a eitten dana da usteldu, an orrittik bera trongura deuna. A usteltzen danin, areri esate dxok: "Begikuek urte tzosak".* || *Begikue da nabuen begidxe, axe da, axe urtete tzon orridxe, se andik usteltzen di nabuek.* || *Begikue dxok dana!*

begikune, begikunie. (BEGIKUNE, begirakune-bat.) Mirada. || *Begikune ederra ein tze!* || *Begikune berdie ein tze!* || *Begikune illune ein tze!*

begiondo, begiondue. (BEGIONDO, betondo) Zona junto al ojo, ojera. || *Ikesgiñek, arpi sikiñe! Erropa sikiñe! Ene! Kolorie, afrikanu lakoxe kolorie. Orrek e igul domekan elixara esta? Da onek begidzek, begionduk garbitzen gatak. Iketzin nor dabillen an jakitte san. Sikiñe da iketza.*

1 begire. (BEGIRA) 1. Mirando. Azentua bigarren silabari ezartzen zaio. || *Suri begire nau.* || *Ara begire dau.* || *Onatz begire illun badekesu, arantz begire parau.* || *Ormara begire.* || *Euskidxeri begire dau etzie.* || *Da sue galanta einde, negun-de, eskolatik datosenin be, umiek artu ogidxe, ta ogidxen ganekue, soser, da ortxe makalin paraute eote sirin sueri begire.* || *Orrantz begire plantau gure bosu, bardin doste.* 2. Aguardando, esperando. Ik. *sain, itxein.* Azentua lehenengo silabari ezartzen zaio. || *Seuri begire nau.* || *Baten bat etorteko begire nau.* || *Etorkixunen begire gau.*

2 begire. (BEGIRA) Injerto de yema. Ik. *astillara.* || *Begire estittu.* || *Begire agostun eitten da. T moduko bat eitten da olanik. Da sartzen dxako estittu gure dosun frutie, altzau asala arbolieri, sartzen dxako begidxe, tapaten dosu, lotu kordel bategas eta ori da udekue, udeku etiketie, agostun. Da gero bestie negun eitten da, martidxen, astillara.* || *Begire esate dxako: kentze dxako asala, da asala, begire eitten danari, ba asala sartze dxako beste arbolina, da berak emoten deu sepie. Da bestie da: sartu eitten da, ta mendau, sartu adar bat, edo bi, neguen. Kentze dxako satidxe, da olantxik askorias eñ ebaidxe, da antxe ebaidxen*

barruen sartzen da adar bat, edo bi, antxe sartzen dire, da mendau esate dxako. || *Begire eitten dana, asalera esate dxako, asalera, asala kendu, te bestieñ asala inkau. Da jeneral emen asalekorik esta eitten, da ein be eitten da aprobarako-edo. Baya emen jeneral eitten dire, kendu satidxe, da sartze dxakos ba adartxu bi, an mendetan dan lekuen askorias eñ ebaitxu bet, da antxe arrakalaxun barrun sartzen dire, ta gora bera satitxu ipintte dxake sepie emoteko.*

begirekune, begirekunie. (BEGIRAKUNE). Mirada. || *Begirekune gogorra.* || *Begirekune motza bota tzo!* || *Begi solidzek esaten da, ba asarratute daunin be ba, "begirekune txarra"-edo, ser esangot neuk?, "Soli begittuste"-edo.*

begirune, begirunie. (BEGIRUNE) Mirada. || *Begirune txarra bota deust.*

begisko, begiskue. (BEGIZKO) Mal de ojo. □

begiskue ein. Echar el mal de ojo. || *Begiskorik es ein gero!* || *Begiskue ein tzo da gero geixue inkeu.* || *Arek ein deste begiskue.* || *Persona batek begiskue eñ eskero, esate san, geixotu edo estaipa, begiskue ein dxakola.* || *Aintxiñeko kontuek dire orrek, oiñ estau olakorik baya ume txikitxuk igul, esta?, da baten batzuk jun, ba bixittetan, aik ikusten, da gero umik negarres igul aldetakun: "Begiskue ein tzo!"* || *Begiskue einde itxi dxok, koño!*

begistau. (BEGIZTAU, begiztatu-bat.) Fijarse, echar el ojo, elegir. || *Begistaute deko seiñ erosi.* || *Begistaute deko neskatillie.* || *Begistau deu.* || *Begistaute dxak ori.*

begittandu. (BEGITANDU, iruditu) Ocurrirse, figurarse, parecer, imaginarse. || *Ene, or txakurre doyela begittandu dxate!* || *Begittandu dxat: pentza dot esatie les, nobera pa fijo espadaki.*

begittasiñoye. (BEGITAZINO, begitazio-bat., irudipen) Ilusión, imaginación. || *Begittasiñoye ein dxat.* || *Begittasiñue euki dot antxe seoser pasau dana.*

begittu, begittue. (BEGITU, begiratu-bat.) Mirada, vistazo. □ **begittu baten.** A simple vista. || *Esti igulak e! Es. Igul begittu baten bai.*

bei, beidxe. (BEHI) Vaca (*Bos taurus*). Ik. *bieye, beintxie, iskue.* || *Larra beidxe.* || *Mendiko beidzek.* || *Beidzek jatzi.* || *Beidxe matxorratu.* || *Beidxeri akuluas siki eitten dxake.* || *Erro lusik dekos beidzek.* || *Beidxe bada, emi da, da guk esateu toro iskue.* || *Beidzek murruntze eitten deu, ia se pasaten dan!* ||

Beidxe sentidute dau. □ **bei busterridxe.** Yunta, par de vacas uncidas. || *Oneri (sesturi) katiak ipintte dxakos, emendik edo emendik, da arridzek ipintte dxakos ganien, da bei busterridzek ibiltten deu.* □ **bei esnie.**

Leche de vaca. □ **bei mantie.** Manta con la que se cubre el ganado. || *Bei mantie? Iños probarik ikusi dosu? Ba beidxeri, proban einde, ixerdittute egoten*

diriñin lepun ipintte dxakena. || *Bei mantie? Bueno, kortan esta ibiltten. Bai, otz aundi bat badau, lei aundidxe ta otz aundi bat badau, ba ordun ipintte dxako e txal txikidxe dekonari.* || *Kamañie: idie badau basun, ide siku bedarra, idi ipiñi aspidxen, da ba ganetik e bei manti-edo botate dxakon, da beste manta sar bat, edo bi badas, arixekin tapau, da ba olantxik.* □ **bei nabarra.**

Vaca parecida a la holandesa, pero que no da tanta leche. || *Bei nabarra da suri-baltza, pinttie.* || *Bei nabarra be suri-baltza ixeten da, baya estire ixeten olandesan modun esnetzuk.* □ Hona hemen olandesen eta bei nabarren arteko desberdintasuna: || *Da olandesa estaturan be txikitxau da, da erropatzuau, da esne geidxau emoten dakidxena. Da ostantzeko bei nabarrak e ba, ostantzin be badas, bardin das ostantzin be, da bei nabarrak ostantzekuek, dire bei nabarra pai, baya estire esnetzuk ixeten.* □ **bei sain.**

Cuidando el ganado. || *Bei sain dau mendidxen.* □

busterri beidxe. Vaca que se unce. □ **erri beidxe.** Raza autóctona de ganado. Ik. *olandesa.* || *Erri beidxek dire bei gorridxek, adar ederrakin, adar suriska ederrekin, da arexek dire erri beidxek. Erri beidxek esnetzuek estire jeneral. Okelarako ixaten dire, ba, txalak asteko be bai. Da okelarako be orrek pentzetot okela ona ataraten dabena.* || *Erri beidxek tire, danak gorridxek tirinak, gorridxek, es suridxek eta es baltzak eta es..., dana gorridxe, da eukitten dabe surre be, suridxe edo oridxe eukitten dabe, sur baltzak pe estire, da orixerri esate dxake erri beidxek, bertoko klasi ei da, erri beidxek aintxiñe olakoxik egote ei siren danak. Orrek esne gitxiau emoten dabe, guk eratzi be estou eitten, erosi eitteu esnie.* || *Erri beidxek bertoko ganaduri esate tze.* || *Erri beidxek esate dxake ba, estakipa nik, emengoxe, euskaldunen beidxek diñak-edo.* □ **beidxe iskotu.** Cubrir la vaca con el semental.

bein. (BEHIN) Una vez, cierta vez. || *Astin bein.* || *Oiñ enas neu jun beiñ aspaldidxon. Len bai, Jesus, senbat bider!* || *Bein bayo sarridxau ein dot nik menbrillue, etzien.* || *Bein jun nas bakarrik, da geidxauten juteko gogu be kendu dxaten ikusi nabenin.*

□ **bein baten.** Una vez, en cierta ocasión. □ **bein da barriro.** Una y otra vez. □ **beiñ edo bein, beiño bein.**

1. Alguna que otra vez. Ik. *noixi pein.* || *Beiñ edo beiñ artzen deu moskorra, baya persona ona da.* || *Ni orra enas asko jun kasan, beiñ edo bein juten banas orra, da Arrolara bai, Arrolara sarri jun nas.* || *Beiñobeiñ etorten da Gerniketiek.* || *Emen baserri djetan e esta asko aldatu eitten, baten bat juten bada beiñ edo bein, se emen aldakera asko esta eitten.* || *Esta etziñ eoten, beiñ edo beiñ etorten da.* **2.** Por fin. Ik. *atzenin.* || *Beiñ edo beiñ agertu sara!* || *Beiñ edo beiñ etorko da.* □ **bein... eskero.** Una vez, después. || *Nabuek bein*

loriek urten eskero sartzara juten dire, gogortu. □ **beiñ oneskero.** Ya, para ahora. || *Berandu datorrenari, da etorri es iguel, da: "Beiñ oneskero etorriko dxuan, se ordu pasaute dxak eta!"* □ **beiñ idxoneskero.** Ya, para ahora, a estas alturas. || *Beiñ idxoneskero esta etorriko.*

beingo, beingue. (BEHINGO) Que sucede o se da una sola vez. □ **beingo baten.** Enseguida, al momento. || *Beingo baten etorko nas.* □ **beinguen.** Enseguida, al momento. || *Beingun etorri da.*

beintxe, beintxie, bintxie. (BEINTXE, bigantxa-bat.) Ternerilla. *Bieye* ere esaten da. Jaiotzen denean *beintxie* esaten da. Hala eta guztiz ere, askotan ez dira bereizten. || *Txal jaidxoten danien "Bieye ein deu, bieye jaidxo da" ixete san, da gero asitxau danin bintxie.* || *Jaidxoten danin beintxetxu politxe, sarrau danin biai ederra.* || *Bieye ta beintxie bat dire, emie ixetie da bieye. Arra bada iskue, txikidxe bada iskotxue ero sekortxue.* || *Da urrxi bada, biai ero bintzi esate tze, da bestie, matxo bada, sekorra.* || *-Ser da ba? -Bintxie da / Iskue da.* || *Bintxie txala ein bakue da.* || *Beintxie bieye bayo gastiaue. Beye ein baku ondiño. Beidxe, ya txala eiñeku da.* || *Beintxie jaidxo da.* || *Esate baterako, emen ausuen-da, bei bat edo beintxa bat lelengo txala eitten daunien, la lelengo txala aiñ erresa estabe eitten, da igul ba noberak e allemorik es, norbera bakarrik atrebiduten estanien, ya eusue batzen da, da diar, diarrari ba entzun eitte dxako.*

beintzat, beintzet. (BEHINTZAT) Por lo menos, al menos, cuando menos. || *Emen beintzat ori usetan da.* || *Sortzi bat beintzat.* || *Ari modun esta ibiltten, guk geuk estogu ibiltten beintzet.* || *Emen garaue gordeten da, oiñ artin beintzet, sakutan.* || *Neure denporan bai, beintzet.* || *Satzak estau balidxo ixeten e sererako..., ser esangot neuk? Satzak estau balidxo egurrerako bayo. Da arbola aundidxe esta asten, espabese ba txikidxe ixeten da. Emen beintzat estire eundidxek asten.* || *Onien, onien arregleu eskero, asko be obeto urtengo leuskidxu geusi, baya dana eurentzako gure one pe! Da estai, orrek gerrick beintzet oiñ arte danentzako kalti ekarri deu.*

beinpein, beiñpein. (BEHINIK BEHIN) Por lo menos, al menos, siquiera. || *Guk es, beinpein.* || *Gause aundirik es eben topau beiñpein.* || *Nik alan esate tzet beinpein, de emen alan esaten da.* || *Tentziñoye osatuteko nik estaitt e medikuri esate badxakon be, da ardau gitxiau edan bai beinpein.* || *Eune oiñ estaitx esaten badau te iño padaki. Oingo umik es beinpein.*

beittu, begittu, begitzen, begittuten. (BEGITU, begiratu-bat., behatu, so egin) Mirar, observar, dirigir la mirada. || *Trabes begittu tzat.* || *Begittu emen!* || *Beittuidxok!* || *Beittu selako figurie dekon.* || *Bittu*

selako moskolak inkeu din! || *Neu begittuten nauela, jausi san a.* || *Beittu, oiñ nik esiñ esan neixu senbagarren eguniñ eitten dan be.* || *Beittu orre tabillen moskolie!* || *Soli begitzen deu.* || *Txairo? Bai, jasue.* "*Txairo dxoik a*", *olan elegante-ero, jasue.*

"Beittu areri! Txairo a dxok a, txairo!". □ **albakera begittu.** Mirar de reajo. || *Albakera begitzen dxabik ori.*

bekalde, bekaldie. (BEHEKO ALDE) Parte baja, parte inferior, abajo. *Beko aldie* ere esaten da.

bekarri, bekarridxe. (BEHEKO HARRI) Piedra solera del molino. Ik. *ganeko arridxe.*

bekerreka, bekerrekie. (BEHEKO ERREKA) Riachuelo (nombre con que se llama al riachuelo más cercano a casa). || *Len neu be jute nitzen ara bekerreker, trasti joten-da, ixera joten-da. Olan erropa aundidxe dauniñ e. Baya oiñ estaitt iñor juten bada be estakitt.* || *Bueno, bekerrekie esate tzeu ta esteko apartiñ ixenik.*

bekoki, bekokidxe. (BEKOKI, kopeta) Frente. || *Sapie ipintte dxako bekokidxen, da arek erute ittues bolak, berari dingiliske, begidxe tapetan.* □ **bekoki illune.** Cara sombría. || *Bekoki illune dakar orrek!* || *Bekoki illune ipiñi deu.*

bela, belie. (BELA, haize oihal) Vela.

belaiki, belaidixe, belekidxe. (BELAIKI) Palo largo con una tabla al remate que se usa para esparcir la brasa en el horno. || *Laban su ein, de egurrek erdi erreta dausenin, ba brasatu eitte dire. Da belaidixe esate gentzon, ser esangot neuk?, egur bat, puntan beste olako ipintte dxakon, da aregas ba brasie sabaldu eitte gendun laban, daniñ egon deidxen su, labie berotu deidxen ba ogidxe erreteko modun.* □ *Hona hemen zelan bereizten diren belaidixe eta ipiskidxe:* || *Belaidixe ta ipiskidxe estire bat. Ori labasue eitte saniñ ibiltten san, oiñ estu labasurik pe eitten. Da ipiskidxe da, olan bedar batzuk batze gendus, bedar sabal..., orri sabaltxu deken bedarrak batze gendus, garidxo bedarrak esate gentzen areri, da ipiskidxe eitte gendun arixekin garidxo bedarrakin. Da batze gendun labako eutze, bedarrak itxiñeko eutze ta txingerrak dana batze gendus ogidxe botateko. Da belekidxe da, egur utzesku ixeten da, esaten da se eukitten deu kirtena da alderdi bidxetatik eukitten deu olanik alde batera ta bestera, da erdidxen eukitten deu sulu einde, da palue olan sartute, makillie, da orregas laban eitte gendun, belaidixas, brasie, labako egurrek sartze dxakosenak, erdi erreta daunien, sabaldu danin-danin dana berotu deidxen.*

belarri, belarridxe. (BELARRI) 1. Oreja. || *Oratu belarrittik!* || *Belarrittik tiretu.* 2. Enganche de la herradura. || *Erreduri saldidxena da. Perrie ganaduna. Perri da belarritxuas, belarritxu gora dekona, olan sartu te a belarritxue apatxiñ inketaku ixete san.* || *Bai, belarridxe a ganeku da. Txapie*

aunan bueltan aspidxen da gero an apatxin ganera eitte dxakona. Belarridxe. A belarridxe esate dxako areri. A sarridxen igul apurtu eitte dxako, da "Kaguen, belarridxe apurtu dxakok perriri". Ordun barridxe ein bi dxako. || *Burdiña ba da perrie.*

Bertatik atarate tze belarridxe. □ **belarridxetara.** En el juego de las tabas, posición de éstas con la parte opuesta a la de terceras hacia arriba. □ **belarriko miñen bedarra.** Uva de gato, variedad de planta que se aplica para sanar el dolor de oídos. (*Sedum album*) || *Belarriko miñen bedarra? Bai, entzu ot, da egon be ein san len, gurien, baya oiñ estau, erresturi pe estau.* || *Belarriko miñentzako bedarrak.* □ **belarriko sulue.**

Conducto del oído. □ **belarri ona.** Buen oído. □ **belarri ostie.** Parte posterior de la oreja.

belarrimotz, belarrimotza. (BELARRIMOTZ) 1. De orejas cortas. || *Belarrimotza be esate tze batzuk: "Belarrimotzori!". Estaipa, belarri laburrek, edo txikitxuk dekonari.* 2. Término despectivo a veces utilizado para referirse a las personas no originarias del País Vasco o que no conocen el euskara. || *Belarrimotza erdalduneri esate dxako.* || *Belarrimotzak dosak onek, belarrimotzak!*

belarriondoko, belarriondokue. (BELARRIONDOKO, belarriondoko-bat., masaileko) Bofetada. Ik. *arpeikue, plastadie, sapladie, saplasue.* || *Belarriondokue emon tzo.* || *Salobrie jenidxokue da, da erres belarriondoku emoten dabena, esate dxako salobrie, erres berak pentzaten dabena eitten dabinari.*

belartxikue, belartxekue. (BELARRITAKO) Pendiente. *Arrakadie* ezaguna egiten zaie, baina ez dute erabiltzen. || *Oin mutille pe erute ittues belartxikuk.*

belaun, belaune. (BELAUN) Rodilla. || *Persona bat geixorik daunin, edo geixorik egonda, da altzetan dauniñ-edo, belaunek ikera eitten dabe.*

belaunbiko. (BELAUNBIKO, belauniko-bat.) De rodillas. || *Belaunbiko plantau, parau.* □ **belaunbiko parau.** Arrodillar(se). || *Belaunbiko parau bi da.*

belaunbikotu. (BELAUNBIKOTU, belaunikatu-bat.) Arrodillar(se). || *Elixan belaunbikotu ein bi da. Oiñ estau eitten iñok, baya len danak belaunbikotu eitte sin.*

belaunburu, belaunburue. (BELAUNBURU) Rodilla, rótula, choquezuela. || *Asurre da belaunburue, da dana da belaune.*

bellekatu, bellakatu. (BEILIKATU) Hacerse impotente para la generación una vaca que antes procreaba. Berri-emaile baten arabera, Nabarnizko gaurko gazteek dagoeneko galdu dute hitz hau. || *Beidxek ya txalik esteu artzen, bellekatute dau.* || *Bellekatute deuna egoten da biskor beti tte txalik esteu artzen.* || *"Bellekatute" da txalik artuten es, da beti e*

bestiri ganera saltau-ta eitte tzo ganaduek. || Bai, suse danin beidxek bestiri saltoka-ta ibiltten da, da orrek bellekatutaku beti dau olantxik, da iskue botatie alperrik, estau txalik artzen.

belosidade, belosidadie. Velocidad. || *Orrek kotxiek erun deu belosidadie!*

belosipedo, belosipedue. (BELOZIPEDO) Bicicleta. Berba hau gutxi erabiltzen da gaur egun.

belu. (BELU) Tarde. *Berandu, baina, gehiago erabiltzen da. || Ori frutie belu eltzen da. ☐ belu babie.* Haba tardía. Ik. *gois babie.*

belumendu, belumendue. (BELUMENDU) Tardón, -ona. || *Ori belumendue dok. || Belu ibiltten danari, nai elixara berandu juten danari, "Belumendu da" ba.*

benda, bendie. (BENDA, lotailu) Venda.

bendeja, bendejie, bendajie. (BENDEJA) Productos del campo que son llevados al mercado para su venta. Espainiako Erret Akademiaren hiztegian erdarazko *vendeja* hitzaren adiera hau Bizkaikotzat jotzen da. Emiliano Arriagak *vendeja* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Las verduras y hortalizas que las aldeanas traen en grandes cestas a la plaza del mercado para la venta". || *Plasara ortukaridxe-edo erutie. Baya emen esta usetan bendejarik. Emen beyetan bai, Urkatik plasara len andrak erute besan otzaratan, burun-de artun, de "Bendejias plasara jun dok". Da emen Nabarnistik esta usetan ixen. Aur beyetatik, Kortasubittik, Artia, orrek esautze dosus, ortik bendejias: "Orko jentie bendejias jun dok plasara". Astokin-de len dana jute san ba, bendejie. || 'Bendejie' da jenerue erutie saltzeko. || Bendajie plasara saltzeko eruten danari esaten dxako. || Bendajie dakar orrek. || Bendaja asko eukitten deu. || Plasara ibiltten da bendajias.*

bendejera, bendejerie, bendajerie. (BENDEJERA) Vendedora de productos del campo que acude al mercado. || *Bendajerie: plasara juten dana asko saltzen geusak.*

bendesñue, bendixiñoie. (BENDIZINO, bendizio-bat.) Bendición. || *Bendixiñoie emon.*

beneno, benenue. (BENENO, pozoi) Veneno. || *Sireune, ori da benenurik estekona. || Orrek benenue deko. || Nik pentzetot ainbeste benenurik estabela eukiko orrek berdi orrek. Benenu dekona sube gorridxe da.*

benenoso, benenosue, berenosue. Venenoso, a. || *Bai, oten dire gorbetadun subik-eta. Nik estakitt e benenosu badire espadire. Beres benenosunak dire sube gorridxe esate dxakenak eta eure pe ixeten dire gorridxek-edo, gorriskak-edo. || Subi akabetan daniñ e, berenosue bada, akabou te listo dau. Da berenosue espada be, ba ainke eitten deu-edo, baya berenosu ixen esda be, bakidxe subik ainke eitten.*

benetako, benetakue, benetaskue. (BENETAKO) Verdadero, -a, real. *Benetakue nahiz benetaskue esaten da, bietara. || Benetakue da. || Destañi: ori ba, es esgidxe, ta es gusurre, destañie, ba..., benetasko berbi be esta esate baterako.*

benetan. (BENETAN) **1.** De veras. || *Benetan egidxe da ori. 2.* Seriamente, formalmente. || *Gausie benetan artu biarrien, olgetan asi da. || Olgetan es sara ibilli, benetan bayo. || Olan barik benetan ibilli ai, benetan!*

☐ **bene-benetan.** De veras, firmemente. || *Esaixu bene-benetan!*

benganie, mingaña, mingañie. Cierta variedad de manzana. || *Mingañak dire sagar gogorak, sagar ederrak. Oin mingaña asko dau. Ori kanpoko sagarra da. || Bengana asko estau.*

bengantza, bengantzie. (BENGANTZA, mendeku) Venganza.

bengau. (BENGAU, mendekatu) Vengar. || *Orrek bengau ei tzo.*

benta, bentie. (BENTA, salmenta) Venta, acción o actividad de vender. || *Benta eundidxe euki deu. || Orrek euki deu bentie!*

bentana, bentanie. (BENTANA) Ventana. Ik. *leidxue. || Edeik ori bentanie, argittasunik etxak emenda!*

bentzidu. (BENTZIDU, bentzutu-bat., garaitu) Vencer. Ik. *geidxau ein. || Bentzidu dxok.*

bera. (BERA) El, ella, ello. || *Bera etorri da. || Gela baten sartzen basara, ta argi illuntxu badau, e beras konpondu!*

bera. (BEHERA) Abajo. || *Berau. || Goittik bera. || Sois berau! || Berau ju adi! || Gixaburuatik erreka aundidxe doye, da Oixeti bera bajatzen dana dala esaten dabe Allustittik sier.*

berakada, berakadie. (BEHERAKADA) Baja, bajonazo. Esaterako, prezioei buruz honela esaten da: || *Berakadie ein dau.*

berakatz, berakatz. (BERAKATZ, baratxuri) Ajo (*Allium sativum*). ☐ **berakatz atala.** Diente de ajo. || *Berakatz atala bayo sintzueue da. ☐ berakatz burue.*

Cabeza de ajo. ☐ **berakatz garaune.** Diente de ajo. || *Berakatz garaun bat ekarrixu! ☐ berakatz kordie.*

Ristra de ajos. ☐ **berakatz landarie.** Diente de ajo.

☐ **berakas saldie.** Caldo de ajo. ☐ **berakas sopie.** Sopa de ajo. || *Goixin gibela jaten da. Ba berakas sopi eitten da jeneral, da gero gibela. Baya ori ixeten da txarridxe il da ya segidxen. ☐ berakatz txortie.*

Ristra de ajos. || *Berakatz txortie enbrak eitten dabe.*

☐ **berakatz ure.** Infusión de ajo. || *Bueno, ori berakatz ure umiri bayo nausidxaui geidxau emote*

dxaken. Nausidxari ba emote dxaken ori berakatz ure, bixidxuk illteko.

berako, berakue. (BEHERAKO) □ **berako baiñak.**

Vainas que crecen sin un palo por el que trepar. || *Berako baiñak beyen geratzen dire; berakuk esteke palorik.* □ **berako indarrak.** Alubia que crece a ras de

tierra, sin trepar por un palo colocado al efecto. □ **-ti berakue.** Menor a cierta cantidad. || *Suk esate baterako, ogeta bost urte dekesus, "Arek ogetasak urti dxekosak", baya oiñ e ogeitti berakuri esiñ esan ixete dxako ori, se estau emoten. Ba beiñ ogei pasau eskero, dana "-tas", 'ogetasak'.*

berandu. (BERANDU) Tarde. || *Berandu satos.* ||

Pentzau gendunien etzera etortie berandu ixen san. ||

Berandu ein bi dxaku eta mobidu adi. □ **berandu ein.**

Hacerse tarde. || *Berandu ein dxakok, eta estok jun.*

beranduko, berandukue. (BERANDUKO) Tardío,

-a. || *Gabon madaridxe beranduko madaridxe da.* ||

Txarbi sagar ba ta, beranduku dana. || *Aleman sagarra? Sagarra ba ederra ixeten da, bestin modukue, da jateko esta txarra ixeten. Bai, apur bet beranduku da, bai, esta goixetiku-edo.*

berantz, beratz. (BEHERANTZ) Hacia abajo.

berasko, beraskue, beruskue. (BEHERAZKO,

beherako-bat., beheitiko) Diarrea, descomposición. Ik

pirrilerie, pirripirridxe, siriñe. || *"Txapeldu dok bedarra, koño, bedarra!" esate gentzon guk areri.*

"Txapeldute dxak" eta a txapela es san ona isten e,

ganaduntzako, siriñe eitte tzon asko emon eskero,

ariñau, beraskue. □ Adibideotan ikus daitekeenez,

beraskue nahiz beruskue esaten da. Dena dela, lekuko

bati zein den erabiliena galdetu ondoren, Berasku oboto

esanda dau erantzun zidan. □ **beraskue euki.** Tener

disentería. Ik. *beraskuas ibili, pirrilerie euki,*

pirripirridxe euki, siriñetan ibili, tripetatik egon. ||

Beraskue dauket. || *Beruskue deko.* □ **beraskuas**

ibili. Tener disentería. Ik. *beraskue euki, pirrilerie*

euki, pirripirridxe euki, siriñetan ibili, tripetatik egon.

|| *Beruskuas dabil.*

beratu, beratzen. (BERATU) 1. Ablandar, poner a

remajo. || *Indarrak beratzen ipiñi.* || *Gatzas deun*

okelie nai arraiñe-edo, uretan ipintten da. Orreri

deittuten dxako beratu. Da ekarri eitte gendun, da gero

uretan beratu, da emote dxaken beratunekue. Igul ba

artu botate dxaken nastaute, edo saidxe be igul, birriñe

be igul nastete dxakon, da nastaute ba emote dxaken

ganaduri. || *Baya ostantzin busterridxe eitte ben,*

eitten erresau eukitteko, posun beratzen. Iguel

illebetiñ edo geidxau. Beratu uretan, bigundu

deidxela, askorias gero erres eitteko. 2. Empaparse,

hundirse. Ik. *uidxeldu.* || *Euridxe eindde, ure*

daridxola, "Bustitte dxatok" ixeten da normalen

bustitte, da iguel dana euridxe bota ta bota ta, "Dios,

majo beratute dxatok!" || *Olanik, iguel jake bat*

kampun dekosu, te ure deidxola igul dakasu, te esate

su: "Au majo beratu dok!" 3. Emborracharse. || *Ondo*

beratute dxak ori be! || *Ori beratu-bustitte dxak!* 4.

Desalar. || *"Beratu ein biok" esateu guk gatza*

kentzeko. □ **beratue artu.** 1. Calarse. 2.

Emborracharse.

berau. (BERAU) Este mismo, esta misma, esto

mismo. || *Gero andraiñ okana be badau, garratz-*

garratza da berau. □ Sagar mota bat erakusteko

asmoz, sagarrak zeuden ontzitik sagar bat eskuan

hartuta honela esan zidaten: || *Au berau esta.*

berba, berbie. (BERBA, hitz) Palabra. || *Jangoikuen*

berbie. || *Berba panparroyek.* || *Ganora bako berba*

gangarrak esan dire. || *Es eik olako barbarik aittetu.* ||

Berba batetik bestera kanbidxu ein dxok. || *Berba*

batetik bestera agirike asi dxate. (Gauza bat esan eta

gero beste bat). || *Berba dotorik esate ittu baya!* ||

Usue da euskerazko berbie, da palomi ba, erderas be

paloma esate dxako, da erderasku ixen biko deu. Oin

palomie esaten da bai, baya usú be palomigeittik. □

berba baten. En resumen. □ **berba eikerie.** Forma de

hablar. || *Orrek deko berba eikerie!* □ **berba eikunie.**

Forma de hablar. || *Ori da berba eikunie!* □ **berba**

labana. Embuste. □ **berba lagune.** Interlocutor, -a,

contertulio, -a. || *Berba lagune da beste lagun bat*

berbetako. || *Berba lagune euki eskero.* □ **berba**

loidxe. Grosería, palabrota, indecencia. || *Berba loidxe*

esaten daki! □ **berbas.** De palabra, hablando. || *Berbas*

aittuko gara. □ **berba tropekue.** Vasto, -a al hablar. ||

Berba tropekue? Berbetan liorra-edo, estaipa (...) Ariñ

eitten dabenari es. Edoser geusa esaten dabenari. ||

Berba tropeku (d)ok. □ **berba txarreku.** Malhablado,

-a. || *Berba txarreku da.* □ **berba utze.** Parlachín, -

ina, charlatán, -ana. Ik. *txaliñe.* || *"Berba utze da":*

berbaldune danari, berba ta berba ekitte tzonari. □

asarre berbie. Palabra de enfado. || *Berbaratu:*

asarratzen diriñin, ba, asarre berbak esaten dirinin, ba,

berbaratu. || *Asarratzen daniñ asarre berbak esaten*

dire. □ **berbie bete.** Cumplir lo prometido. □ **berba**

ein. Hablar, conversar. || *Neurris eixu berba!* || *Berba*

altu eitten deu. || *Berbi naiku eitten deu.* ||

Aspaldidxon estu barbarik eitten. || *Esiñ esana dxekok*

orrek, eta etxok ein gure barbarik. || *Soli eitten deu*

berba. || *Mutue barbarik eitten estabena da.* || *Eiñ*

eitten deu berba geure moduko ganorabakukin de. ||

Berba naiku eitten deu. □ Inork bere kautan hitz

egiten badu, honela esaten da: || *Bere modure eitten*

dau orrek berba. ☐ **berbatik kolpe ein.** Cogerle la palabra. Zentzua honela azaldu didate: *Erresoi atrapeti-edo.* || *Bieye: txalik ein baku ondiño, eurrako dauna.* || *Berbatik kolpe ei tzet.* ☐ **berbatik jeusi.** Atrapar mintiendo. || *“Berbatik jeusi da”?* Ori be bai. Ori ba gusurre esaten dabenien, ba berbatik jeusi da, berbatik atrapau lei. ☐ **berbatik oratu.** Cogerle la palabra. || *Gobernuk-eta agintzen dabenin seoser da gero emon es, berbatik oratu tze.* || *Estabaidan dabixenin, ba berbatik oratu dxako.* ☐ **berbie emon.** Prometer. Ik. agindu. || *Ori eitteko berbi emon deu.* ☐ **berbie jan.**

Incumplir la promesa, faltar a la palabra. ☐ **berbiri eutzi.** No faltar a la palabra. || *“Eutzi berbiri!”: esate baterako, basois plasara fruta saltzen, da “Eutzidoxosu berbiri!”.* Suk eskatzosu, por ejemplo, bost peseta, killoko, edo amar: *“Eutzidoxosu berbiri!”.*

berbaketa, berbaketie. (BERBAKETA) Conversación, diálogo. || *Guk oiñ amen detzeu, esta? Ba ‘berbakixune’, baya olan serin badabis, onen edo orren goraberan, “Berbaketan egon dire”, “Arek berbaketi euki dabe”, “Berbakixune euki dabe an”.*

berbakixun, berbaxixune. (BERBAKIZUN) Conversación motivada o que ha dado lugar a algún enfado. || *Berbakixune asarratute modun ibiltten dabena. Guk ori be gitxi useteu.* || *“Berbakixune euki dxueu”, da ori da asarren modure ya eukitti soser.*

berbako, berbakue. (BERBAKO, hitzeko) Persona de palabra, que cumple con lo prometido, que mantiene la palabra. || *Ekarriko ittu, berbaku da ta!* || *Ori esta beti berbakue, bai esan da eiñ eitten espadeu.*

berbalari, berbalaridxe. (BERBALARI) Hablador -a, charlatán, -a, parlanchín, -a. Ik. *barritzue.*

berbaldi, berbaldidxe. (BERBALDI, hitzaldi) Discurso, coloquio, conversación. || *Berbaldidxe ba berbaldidxe da, esate baterako, ser esango tzu pa? Mitin bat-ero eittie, esplikasiño bat, “Berbaldidxe dxuekek an”.* || *“Berbaldi bet e ein dxue an” da, predikasiño bat esati les.* ☐ **berbaldidxe ein.** Enfadarse. || *Orre pe berbaldidxe ein dxuek.*

berbaldun, berbaldune. (BERBALDUN) Hablador, -a, charlatán, -ana. Ik. *txirritxorru.* || *Esta berbaldune, ak berba gitxi eitten deu.* || *‘Berbaldune’ da ixildu barik, ser asko, klase askotara berba, ta ‘berbaldune’.* Denporie pasetako, olako berbaldune pe onak ixeten dire denporie pasetako. Bestela ixil-ixilik danak badaus, geuse tristie da. || *Berbaldune da ... que sabe, baya barritzue inportantzi gitxiko serak esaten daunari: “Ego ixilik, barritsuori!”* || *“Berba utze da”:* *berbaldune danari, berba ta berba ekitte tzonari.*

berbaleku, berbalekue. (BERBALEKU) Motivo de enfado. || *Berbalekue: esate baterako, erresoye topeti les. Seinde, esate baterako, itxaten, ya deskuidetan*

bada falletan, ba berbalekue. || *Ori berbalekue topetan dxabik.* || *Berbalekue euki dxok eta!* || *Berbalekue? Bueno, berbalekue bat. asarratzeko motibo bat eukitti edo motibo bat emotie.*

berbaratu. (BERBARATU) Enfadarse. Ik. *asarratu, artuemonak itxi.* || *Berbaratu ein dire.* || *Berbaratu: asarratzen diriñin, ba, asarre berbak esaten diriñin, ba, berbaratu.*

berbaro, berbarue. (BERBARO, berbots) Rumor, ruido de voces. Sin. *satie.* || *Berbarue entzuten da, alboko etzekue.* || *Berbarue ixen da.*

berbati, berbatiidxe. (BERBATI) Charlatán, -ana, locuaz. || *Berbatidxe berba askokue da.*

berbena, berbenie, berberenie. (BERBENA) Verbena, hierba sagrada (*Verbena officinalis*). || *Berbena bedarra.* || *Berbenie: probetxu bako bedar bat.* || *Berbena bedarrak amak asko ibiltte ittu enplastu eitten.* || *Berberanie: orregas eitten da enplastue, sinositixenzako-ta. Erresa da berberena topetan.* || *Oridxu botate sus kollarakada bi edo olanik sarten baten, da eitten dosu berberanie apurtxu bet oridxotan pasau, bigundu deidxen; da eitte tzosu gero arrautza suringue, a punto de nieve, arrautzin suringue, goringue kendute, da nastau eittosu, tortilla moduko bat eittosu beragas; da gero apur bet epel daunin, ipiñi trapu baten ganien, da lau egunin diño orrek naturistiek, lau eguniñ euki bi xule gabas, gabas ipintte bekokidxen.* || *Oridxue berotute daunien, bota sartenera berberena orritxuk, buelta batzuk emon antxe apurtxu bet, apurtxu bet ibilli antxe, bigundu deidxen. Da gero ba arrautza suringuas nastau, da eittosu tortillie beras, da a ipinttosu bekokidxen.* || *Berbenie? Ori bedar ba ta, da estaitt oin badau baya oin be urrun esta egongo.*

berbera. (BERBERA) (El, lo, la) mismo. || *Berbera etorri da.*

berbertan. (BERBERTAN) Aquí, allí mismo.

berbertako, berbertakue. (BERBERTAKO) De ahí, allí mismo. || *Berbertakue da.*

berbetaldi, berbetaldidxe. (BERBALDI) Discurso, plática, conversación. || *Berbetaldi bet ein deu.*

berberton. (BERBERTON) Aquí mismo. || *Berberton da.*

berbeta, berbetie. (BERBETA, hizketa; hizkuntza) Habla, lenguaje. || *Emengo berbetie da “pastorie”* || *Amen berbetie tropi da ta!* || *Berbeta tropi dekosu!* || *Oiñ erridxen be eskolarik estau les, da Gernikera jute diri les, ba ango berbetie-edo ekarten dabe.* || *Gure lengo berbetan olan esate san.* || *Jenidxo geistoku bada, berbeta satarrekue, “Ago berue da”, esaten deu edoser, da ago bero bat da.* || *Emen esta ibiltten ori berbeti ori.* || *“Ño, ori personi ok edukasiño gitxikue!” edo “Ño, etxekok berbeta ederra!”.* Bakixu berbeta santarrekue edo *“Edukasiño gitxiku ok!”.* ☐ **berbetako modue.**

Modo de hablar. □ **berbetan.** Hablando. || *Niri olantxik erakutzi doste berbetan.* || *Berbetan atzerie da.* || *Berbetan biskor dator.* || *Neu bakarrik berbetan egon nas.* || *Labana da berbetan.* || *Berbetan igerten dxako nungue dan ori.* || *Alkarregas berbetan egon dire.* || *Mara-mara berbetan pareu de.* || *Beti berbetan egoten da.* || *Sen barik berbetan ekitte tzo.* || *Txatxalie: olanik e, se esangot neuk? Sustantzidxe barik les berbetan ekitte tzonari bai esate dxako.* || *Mara-mara? Berbetan ekiñin dabixenari esate dxako mara-mara.* “Mara-mara dabil”. || *Ixildu erain tzet (erreso barik berbetan diardunari, egidxe esanda).* || *Gogaikarrixde? Bai, a berbetan da berbetan da berbetan da gogaitsu ereitte tzona.* □ **berbetie ibilli.** Tratar, discutir sobre algo. || *Berbetie ibilli dxuek aren ganien.* || *Berbetie ibilli gendun atzo.* □ **berbetie euki.** Tener una discusión. || *Berbetie euki dxok eta!*

berbikin, berbikiñe, birbikiñe. (BERBIKIN, birabarki-bat.) Berbiquí. Ik. *latrue, ginbeleta.* || *Berbikin puntie.* || *Oin berbikiñe dau, taladro modure.* || *Orrek egon es sinin, ginbeleta egote san.* || *Orrek oin barridxek dire.* || *Oin ginbeletik ikusi be est-eitten.* || *Ginbeleta da egurreri sulue eittekue.* || *Ginbeleta da eskus eittekue, arek aintxiñeko klasie.* || *Oiñ arek, arreskerokuk birbikiñe esate dxako.* || *Birbikiñe da olan ereinde eittekue.* || *Birbikiñe: eskus eitte dxako.* || *Da taladru da elektrisidadias, korrintias.* || *Da latru da e taketa sartun, goidxen ou arek eukitten deu, sartze su an taketa ta auxe emon buelta.*

berdatu, berdatzen, berdetzen. (BERDATU) 1. Reverdecer(se), enverdecer(se). || *Orridxe berdatzen asitte dau.* || *Dana berdetu da.* || *Berdetzen asi dok eta jarritte dxak.* || *Bedarra berdatute dau.* 2. Enfadarse, montar en colera. Ik. *berotu, asarratu.* || *Ori berdetu ein da, diskusiño baten.* || *Berdetute dau.* || *Ernegeute sataka-ta asittakun: “Berdetu dxako orreri be.”* 3. Empeorar el tiempo. || *Denporie berdetu ein da.*

berde, berdie. (BERDE, orlegi) 1. Verde. || *Berde argidxe, illune.* || *Berde antzekue da.* || *Da beste batzuk oten dire, berdetxuek ixeten dire arek, txiki-txikitxuk ixeten dire.* || *Berde baltzuskí ixeten da.* 2. Verde, fresco, no seco. Heldu barik dagoen frutari buruz hala esaten da: *Berde dau.* || *Artue, gustora jaten dabe berdetan.* || *Artue berdetxu daunin, ondo eldu barik daunien, ba batzen gendun -aspaldidxon estu batzen, oiñ erein gitxi bayo esta eitten baya-, batze gendun axa arto berdetxue, da labasu einde gero, ogidxek-eta atarata, labi ba bero-bero egote san oindiño, da sartze gendun.* || *Orretarako (sesto edo otzara eskuak egiteko) jeneral ibiltten da gastañie, gastañie... ser esangot neuk?, siketunekue es, berdie, oboto urteten deu te berdi ixeten da gastañie.* || *Oin be tratorien bedar berdie badau kargaute, berdie, ta ustute esposu egun erdidxen, a gero berotute dau, esta ona.* || *Ota-*

bedarra useten dau... Askarako be bai. Askarako, berdie tte txikidxe badau. Da ostantziñ asko usete ben len esan dotena, aspiarrixde eitteko be bai. 3. Enojado, -a, irritado, -a, enfadado, -a. Ik. *ernegaue.* || *Ori berde dxabik!* || *Berdie dok ori!* || *Begikune berdie ein tzek!* 4. Crudo, frío, desapacible. || “*Berde dau*” esaten da *ernegaute badau gixonari be. Da denporiri be bai. Denpori be txarra badau: “Dios, denpora berdie dxak oin!”* 5. Alholva, planta leguminosa de hojas vellosas y con semillas amarillentas de olor desagradable (*Trigonella foenumgraecum*). Ik. *allurbie.* || *Bedar berdie allorbie da.* || *Oiñ estaitt erein be eitten dan.* || *Guk allorbie esate gentzon, da bestik berdie esate tzen.* || *Guk allorbie esate gentzon jeneralien.* || *Ba emen be esate tzen berdie.* || *Berdie oiñ iñok esteu eitten, se ya ori, berdiek emote tzo okeliri be, okeliri, emon txalari jaten, il bi duna, segidun il bi dunari esin leidxo emon.* || *Se ori geu paseute gas.* || *Gu pe eskegidxen inkete batzon okeliri useiñik.* || *Berdie emen beyetan, da Mungidxaldin-de, orretan berdie.* || *Da emon netzon, da karneserue kejau jakun: okeliek usiñe artzela.* □

artaberdie. Maíz verde cortado para forraje. || *Berdetan ganaduri emote dxakona, a da artaberdie.* || *Artaberdie da landara gastie, ganadueri emotekue, buruek urten orduko ebatekue.* || *Artaberdie, ganadueri emote dxako, lelengo bedarrak ta serak emonda gero, ganetik postre moduen.* || *Udabari bueltan ereitte san da gero emote dxakon ganaduri ori, arta berdie.* || *Ori sarratue egote san.* || *Da gero ebate san serrias da kargau burdidxen, lepuen be bardiñ ekarte san da ganaduri emote dxakon askara.* || *Koño, gure sekorrari agiñek txakildu dxakos artaberdias.* || *Artaberdik oratu eitte ban arridxe.* || *Bai, ori eitte ban.* || *Gero ein bixate san arridxe altzau, pikias a ori kendu, da atzera barridxe be ipiñi.*

berdekeri, berdekeridxe. (BERDEKERIA) Obscenidad. Sin. *loikeridxe.* || *Bai, berdekeridxe esaten danin be bai, satarkeridxek edo berdekeridxak esaten da.*

berdel, berdela. (BERDEL) Caballa, verdel (*Scomber scombrus*).

berderik. (BERDERIK) Verde, fresco, no seco. || *Ta gero askanengo ortzak eruten deu burdiñi olan altuau goitti bera sartzeko eskue.* || *Aresku esate tzon ari.* || *A eitten da berderik e jun de sepi artu, da euki olan lotute.* || *Batzuk amarrau esaten dabe.* || *Da gero artzen deu jitxe antxe.*

berdeska, berdeskie. (BERDEZKA, berdexka-bat.) Verdoso, -a. Baita *berduskie* ere. || *Arek ainbeste kolore eukitten deu, berdeski-edo ixaten da, da areri, e, ri-ri-ri-ri satie eitten deu te, areri mariartasi esate tze.* || *Gero andraiñ okana be badau, garratz-garratza da berau.* || *Berdeska pintta gorritxukin.*

berdedunekada, berdedunekadie. Porción verdosa. || *Birgitxiñe ixeten da: sagarrak eukitten deu onako...*

barruen ainka einde, barruen olan berdedunekadi-edo, arixerri berdedunekadiri esate dxako birgitxiñe.

berdurie. (BERDURA, barazki) Hortaliza. || *Ortuko berduriek, ortuaridxek.*

berduske, berduskie. (BERDUZKA, berdexka-bat.) Verdoso, -a. Baita *berdeskie* ere.

bere, berie. (BERE) De él. || *Ori geusie berie da. || Basatoste? Bai tte eundidxe pe bai, len bai, len eundidxe pe bai, len ya mutil sasoku pe eitte ben, neskakin junde, mutil de neskak. Eruten bakotxak beri erun, da juerga, a juerga basu-ero einde, orre eitte siren bai.*

berebixikue. (BEREBIZIKO, berariazko, bikain) Apropiado, -a, idóneo, -a, excelente. || *Berebixiku: laguntzaille bat badeko, edo badabil beragas, "A berebixiku dau egalak erakusteko", edo esateko. □ Ondo edo egoki datorrenean esaten da: || Bai, "Berebixiku da" be esaten da, geuse bat ondo jeusten danin.*

beregandu. (BEREGANDU, bereganatu-bat., beretu) Apropiarse (él). || *Beregandu ein dau.*

beren, berena. (BERE) 1. De él. Sin. *borrena.* || *Ori geusie berena da. || Or deko etzie. Esan gutena, berena deu, baya esta egoten emen. Gitxitten.* 2. Lo suyo; su creencia o forma de pensar. || *Ixilik euen, baya arek berena goguen. || Berena eiñ artin lagungiñe da. || Temosie? Ba, berenetik urteten estabena. □*

berentzako artu. Juzgar un comentario referido a su persona. || *Berentzako artu dxok.*

berengo, berengue. (BEHERENGO) El más bajo, inferior, -a.

beres. (BEREZ) Por sí, de suyo, naturalmente. || *Sarrasoidxe beres des eitten da. || Malluki salbajiek beres urteten dabe. || Lur seye egoteko, lurre prestau ein bi da. Amengo lurrek estires beres setzen. || Sator bedarra beres asten da. || Artue, solun artzen dana, aixias siketzen da beres, baya taluk-eta eitteko, ba laban sartzen da. || Leku urtzu da ure gelditzen dana, leku umela beres dana. || Uxoki da ta, beres da uxoki ta.*

1 beresi, beresidxe. (BERESI) Bosque espeso de árboles jóvenes. Ik. *sepadidxe.* Pinudiekin ez da hitz hau erabiltzen. || *Beresidxe basue da. Sepa asko daunin be, metxuek, alakuri be beresidxe. || Beresidxe? Sepie eta... gastaña sepie, a sepie, iguel dana sepi daun baso bateri esate tzeu ori beresidxe. || Beresidxe basue da, sepak eta olaku dauna. Ta guk aurreri, beti ixena deko orrek aintxiñe, kontixu, sepeidxe-edo ixengo san, landie, oin piñu dau, baya len..., da oin be ixena beresidxe dau an. Piñuk egon arren be, beresidxe. || Beresidxe jeneral esate dxako –oin bedarri pe estau, da oiñ esebe estau-, beresidxe bedar ebaten dan..., esate baterako, baso mendi barrenien edo etzetik urruntxu daunari beresidxe.*

"Beresitik bedarra ekarri deu". || Gixon batas ibilli nitzen beresi baten apiak eitten. || Beresidxe satidxe da. || Guk estekogu geur beresirik. || Arek dekes ortxe beresidxek. || Sepak, esate baterako, klase gusti badaus be, sepa asko badau beresidxe esate tze batzuk. Ba sepadidxe. || Emen gurin dau len ixendaku beresidxe, garbittu te piñu sartute. □ Hona hemen zelan bereizten diren beresidxe eta txarakadidxe: || Beresidxe diferenti eitten da, se txaraki da sikiñe, sasidxe ta dana dauna. Areri guk esate tzeu txaraki "Emen txarakias dana dau txarakias tapaute". || Txarakadidxe: sikiñe, da ori sepie, eta dana sasi ta dana txarakadidxe. Ta bestie, beresidxe, diferenti da. Beresidxe egon leike garbi be, beresidxe. Sepie. Sepi ba guk esate tzeu landariri.

2 beresi, beresidxe. (BEREZI) Aparte, particular, especial. || *Leku beresidxe. || Leku bet beresidxe da orretarako ba, apartau dala esateko.*

beresko, bereskue. (BEREZO) 1. Natural, propio, -a, por naturaleza, nato. || *Landarie be, seuk ipiñi ein barik, a beres etorten dana, axe da bereskue. || Geidxau ikuturik es ein, bedarra datorrela bereskue.* 2. Sin esfuerzo. Sin. *kostabakue.*

beridxenda, beridxendie, berientie, beidxendie, meidxendie. (MERIENDA, arratsaldeko askari) Merienda. || *Beridxenda kopau bet. || Beridxenda iski bet ein du. || Beridxendie deko jateko. || Meidxendie emon deutzo. || "Kopau jan": beidxenda apur bat-edo jaten dani edo, amaiketako apur bet-edo: kopau jan. || Baya ori (madari saltzie) be ba segidxen jateko ta ba, ondo eoten da, ta atan be ume kuadrilli dauniñ e umiri e ogidxen ganiñ emoteko beidxenda modun-da ondo eoten da. || Len ba basatoste eitte san e beidxendie, edo beidxendie es, txorixu ero olanik, mendire jun de jan da orrek eitte sin. || Ordun jun Gernikera ta erresiñoi, gixau erresiñoie peseta bat eta bigaittik. Beidxendie. Peseta bigaittik beidxenda ona. □*

berienti-aparidxe. Merienda-cena. || *Eingo dxuau berienti-aparidxe?*

beridxendau, beridxendetan. (MERIENDAU, meriendatu-bat.) Merendar. || *Beridxendau deu. || Beridxendetan diardu.*

beriala. (BEREHALA) Enseguida.

Bermio. (BERMEO) Bermeo. □ **bermio bedarra.** Acederilla (*Oxalis latifolia*). Nabarnizen *lekitto bedarra* eta *txomin bedarra* ere esaten zaio. || *Bermio bedarra txarra da. Ori solun sartu eskeruen gatxa da kentzeko. || Bermio bedarrak ariñ erneten dire da beti jorratzen egon biar.*

bermiar, bermiarra. (BERMIAR, bermeotar-bat.) Bermeano, -a. Bermeon *bermiotarra* esaten da.

berna, bernie. (BERNA) Pierna desde la rodilla hasta el tobillo. Ik. *sankue, txankie.* || *Bernie: orkatilletik*

belaunerakue da, belaunetik berakue. || *Bernak uletzu dekos.* ☐ *Lehen beti bernie esaten zen, baina gaur egun pantorrillie ere hasi da entzuten:* || *Bernie len, baya oin pantorrillie jeneral. Bernie bai esaten da.* ☐ **berna artie.** Parte interior de las pantorrillas. ☐ **berna asurre.** Tibia. Ik. *kañerie.* ☐ **berna sankue.** Pantorrilla. || *Orrek dekos berna sankuek!* ☐ **bernako kañerie.** Tibia.

bernixe, barnixe. (BERNIZ) Barniz (producto para barnizar).

bernutzik. (BERNUTSIK, berna-hutsik-bat.) Sin calcetines. Ik. *ankautzin, kaltutzik, oiñutzik, ortosik.* || *Bernutzik: kaltzerdiri parik.*

bero, berue. (BERO) Calor, caliente. || *Euski berue.* || *Bero eundidxe jo.* || *Bero eundidxe dabil, bero larridxe dau.* || *Ur berotan euki.* || *Bero-beru dau sopie.* || *Bero sargoridxe da.* || *Bero galanta dator.* || *Bero aundidxe dau.* || *Beru dator eundidxe!* || *Egun beru dator.* || *Trumonada bat eitteko moduku beru dau.* || *Au kafte epela dau, nik berue gurot.* || *Berue udan da neguen otza, da bier eitteko gogorik es.* || *Ori sekule bedarra be txarra san, asko emoteko. Sekule bedarra berun emoten badxakon pustu eitte san ganadu.* || *'Egostu' da seinde berun beruk eitten deuna, egostu. Beruk eitten dau egostu. Nai andik nai emendik, otza badau, esta esaten egosturik, espabe beruk eitten dau egostu.* || *Kanpue egosten dau beruk.* || *Onako beru da txarra bier eitteko. Dios! Ba atzo goixien radidxuk esate eki tzon rekorra iako irurogetasak urtetaku ein deula. Olan esate eki tzon. Berue! Egon be egon san berue!*

☐ *Dirua ugari daukanagatik ere esaten da:* || *Poltza beru dxok orrek!* ☐ **bero-berun.** En caliente. || *Bero-berun edoser eingo deu orrek!* ☐ **bero galdie.** Calor abrasador. || *Bero galdie dau.* ☐ **ago berue.** Bocón, -ona, bocazas. || *Jenidxo geistoku bada, berbeta satarrekue, "Ago berue da", esaten deu edoser, da ago bero bat da.* ☐ **bero egon.** Hacer calor. || *Bero dau.* ☐ **bero-bero ein. 1.** Ac calorarse, alterarse, ponerse furioso. || *Bero-bero einde dau. 2.* Dar una paliza, zurra. || *Bero-bero eingo saittut!* ☐ **bero ein.** Hacer calor. || *Egunek badarois, bat edo bi edo iru: "Beruk eitte ittu" edo "Bero eitten deu" (esaten da). Bat eitten badeu, ba: "Bero dau".* ☐ *Nabarnizen esaera hau erabiltzen da: "Askordiñek gari lorik kentzen dittu". Bertan azalpen hauxe ematen da: klaro, gari loriek urtete dabenien, bero eitten deu da beru estao askordiñik.*

beroaldi, beroaldidxe. (BEROALDI) Ac caloramiento, racha de calor. || *Beroaldidxe paseu dxok.* || *Beroaldi bet emon asunekin.* || *Beroaldidxen etorri bes!* || *Beroaldidxen jun nas.*

berogarri, berogarridxe. (BEROGARRI) Lo que calienta. || *Berogarridxe: sue einde berotzen dana, edo sue eitteko ekarten dana-edo, berogarridxe, egurre be bai. Ganetik jasten dan jersi, erropi, abrigu be bai: berogarridxe.*

berori. (BERORI) **1.** Ese mismo, esa misma, eso mismo. || *Ori berori. 2.* Usted, vos. || *Berori aintxiñe esate dxaken abadiri-tte, maixuri tte aundidxeri. Oin gitxi. Abadias bes oin. Oin su esaten da. Len bai berori. Medikuri be bardin, da ba olan gixon aundidxeri berori esate dxaken.*

berotasun, berotasune. (BEROTASUN) Calor. Ik. *lamadie.* || *Emen dau berotasune!* || *Olan udegonien, arto sarrak akabetan diriñien edo akabaute dasenien, alakoxe otzarakada bat edo bi, labako su ein, da ogidxek-eta atara labatik, da labi da beru egoten da ondiño, da alakoxe otzarakada bat edo otzarakada bi bota, da gero andik egun bire-edo atarate gendusen, ya labiri berotasune junde.* || *'Egostu' da a seinde usteltzera doiñ indarrari esate dxako, soluen alkarren ganiñ-ero badau, "Egostu ein dok". Egostu berotasunek eitten deu. Alperrik galdu, alkar ondun itto. Larrei egon alkar joten, da itto, egostu.* || *Ara sartzeko serak, onan e serak egurresko... Onan, urkulak. An sartu de barrure sartu bi ixate san, asta lusekin. Berotasun eundidxe eukitte ban ba.* || *Karie, berotasunik estekona. Eutze. Ille deuna. Se iguel lurren ganien lusero badau itto, eitte san karie, ille, ildu. A berotasunik es.*

berotu, berotzen. (BEROTU) **1.** Calentar. || *Arek berotu eitten deu a ardatza.* || *Oridxue berotute daunien, bota sartenera berberena orritxuk.* || *Euskidxek asko berotzen deu geur.* || *An luresko ontzidxen ure esta berotzen.* || *Txintxortak? Bai, brijidu, brijidu te gelditzen sirien apur bet gogortute, da koipie aparteta san, aparte, da arek satitxu-satitxu einde ipintte san, da arek apartau eitte sirien. Len jan eitte gendusen. Berotu sarteniñ-edo berotu te jan eitte gendusen arexe pe. 2.* Enfadar, enojarse, irritarse. Ik. *berdetu.* || *Berotu ein dxak iri!* **3.** Golpear. Ik. *keye atara.* || *Lepue berotu.* || *Berotuko saittut!* || *Da beste batzuk igul e paluas ero manduri nai ori, da "Kaguen, are ba atzi ori berotu tze!", "Atzeko otzik etxok pasau!" areri be. 4.* Calentar(se), excitar(se) sexualmente. || *Ganadu selun sartzan danin, olan ba, ya bakiñ esiñ egoten danin ya, "Berotute dau" esate dxako. 5.* Ac calorarse por efecto del alcohol. || *Edaten danin, berotute ibiltten dire. 6.* Calentar(se) (la hierba apiñada). || *Sabaldu barik estekosu, kargan badau, berotu eitten da. Bedarra dana e! Oin be tratorien bedar berdie badau kargaute, berdie, ta ustute esposu egun erdidxen, a gero berotute dau, esta ona.*

beroune, berounie. (BEROUNE) Momento de calor intenso. || *Berounie da aurkidxek gunatan eitten deuna, laño bittartetik.* || *Berounak ederrak eitte ittusak!*

berreun. (BERREHUN) Doscientos. || *Len e ba afusillas kilometro batera es ein. Oiñ e berreun kilometrora jo ta garbi. Bai.*

berro, berrue, borru. (BERRO, iturri belar) Berro (*Nasturtium officinale*). || *Berruek: orrek e ortun-edo, solo egaliñ-edo asten diñak. Solo egaletan-da ipintten diñak, orrek egositte jaten diñak. || Leku batzutan, or Gernike partin-de, bórruk esate tze, bórruk, da bai neu pe iñox patatias, iñois-iñois neu pe ipiñi ttut ta, arek eukitten dabe orri sabaltxue, trukustxuas, da a orri sabala kendu, se arek orri sabalak e..., se esangot neuk?, apur bet arantza les-edo eukitte ittu, da axe trukustxu apartau, da axe patatias neu pe iñois ipiñi dot. || Orrek e beste bedar batzu dagos, amen posun asten diñak, orrek ensaladi-eta jateko-ta. Berrue. || Jaten da, jaten dabe emen batzuk baya amen kostunbrerik estau amen erridxen berru jateko. □*

berruten. Recogiendo berro. || *Emen e or e aintxiñe-ta oten san kinkilleru, esta? Or Munttibarren bixi san, da a orra berruten etorte san. Neguen jateko di orrek.*

berrogei. (BERROGEI) Cuarenta. || *Altzauko neuko berrogei bider arri astune. || Berrogei eguniñ e ganadurik esiñ eidxen atara kanpora. Da es e txakurrekiñ onekiñ animalidxeekin kuidau itzela! One pe soltau bes. Ta gero erropak, noberen erropak e ezetik sartukeran, kanbidxeu ta kortara ta bierrak ganadunak beste erropa batzukiñ ein, inkeu esteidxon orreri, kontajidxau esteidxen.*

berrogeigarren, **berrogaigarrena.** (BERROGEIGARREN) Cuarenta. || *Asentzidxuk? Ba asentzidxuk segun nois datosen. Jeneral mayetzin ixeten dire. Axentzidxuk ixeten dire, ba garixumie akabau, paskotik jeneral ba berrogeigarren egunin ixeten dire asentzidxuk. Jesukristok serure igo bana, esaten dabe.*

berrogetabi. (BERROGEITA BI) Cuarenta y dos. || *Kontau ausnarra pe: ogetamasortzittik berrogetabire eitten baittu, ganadue ondo dau, da ogetabat edo ogetabi te eintte eisten batzo, seoser nobedadie.*

berrogetamar, berrogetamarra. (BERROGEITA HAMAR) Cincuenta. || *Bai, oin dala berrogetamar urte. Or gerra ostien eitte san asko (iketza). || Ontzu ondio ganera! Arek ondio karabidxan daula berrogetamar urte esta ixengo. || Lau arruk kinttela eukitten deu. Da arrobi amabi killo terdi. Da ogetabost killo arro bi. Da berrogetamar killo. Kinttela esate dxako.*

berrogetamabost, **berrogetamabosta.** (BERROGEITA HAMABOST) Cincuenta y cinco. || *Berrogetamar urteti gora.*

berrogetamasei, **berrogetamaseidxe.** (BERROGEITA HAMASEI) Cincuenta y seis. || *Berrogetamasei urte, amasapi be igul a bota sala. Airoko etzatzen. A olan san, arrañe san.*

berrogetasak. (BERROGEITAZAK) Cuarenta y tantos, -as. Ik. *ogetasak.* || *Berrogetasak lagunek etorri dire.*

bertako, bertakue. (BERTAKO) Autóctono, indígena, propio de otro lugar. Ik. *bertokue.* □ **bertako ein.** Naturalizarse, avecindarse, establecerse en el lugar (en otro lugar). Ik. *bertakotu, bertako ein.* || *Ori bertako ein da (an Gerniken).*

bertakotu. (BERTAKOTU) Aclimatarse, integrarse, acostumbrarse al lugar. Ik. *bertakotu, bertako ein, ekandu, errikotu.*

bertan. (BERTAN) Aquí o ahí mismo. || *A etze barridxe pasetan danien, apurtxu arantzatxauu junde, olan artzen da apurtxu bet, baya bertan das. □ bertan bera. 1.* Estacionario, -a, postrado, -a. || *"Bertan bera dau geixue": esteko onik, eta txarrauri pes, da antxe. || Personie iltten danin be: "Bertan bera geratu da!" || "Sisko einde dau" esate dxako ba esetako ganorarik estekonari-edo, ya bertan bera les egoten danari-edo. 2.* Sin tener dominio de sí mismo. || *Esate baterako, noberen gorputzeko orrek eitten baittu be: "Bertan bera eitte ittus. Dana bertan bera eitten deu." □*

bertan bera itxi. 1. Dejar, abandonar. || *Bertan bera istie da kasurik ein barik istie. || Da "bertan bera itxi" da ba golpiñ istie, egun batetik bestera: "Bertan bera itxi dxok" || "Bertan bera geldittu da": esate baterako, edo konbertzasiño bat ibilli, tte gero erresorik emon barik, e ba, bertan bera geldittu. 2. Desechar. || *Da geuse bat iguel dau usteldute, edo ondo estauna, da artzeko jun, de: "Bertan bera itxi dxok"**

bertoko, bertokue. (BERTOKO) Autóctono, indígena, propio de este lugar. Ik. *bertakue.* || *Ortiko jentie ganera bolaka!, emen bertokue es, es ainbeste, baya or bolaka, bueno! || Kiputze ixen san a be, bertoko-bertoku barik, Gipuskuatik etorrineku. □*

bertoko ein. Naturalizarse, avecindarse, establecerse en el lugar (en este lugar). Ik. *bertakotu, bertako ein.* || *Ori bertoko ein da (Nabarrixen) || Berbeta au bertokue da.*

bertokotu. (BERTOKOTU) Aclimatarse, integrarse, acostumbrarse al lugar. Ik. *bertakotu, bertoko ein, ekandu, errikotu.*

berton. (BERTON) Aquí o ahí mismo. || *Emen berton. || Nabarnis askanengo erridxe ixen da. Kamiñue berton amaitzen san, Gerniketik Nabarnixera. || Amen berton beste koba bat badau, orra jente gitxi juten da baya. || -Gerniken? -Es, berton! || Kanpo artu bai. Ori almasenatik ekarte san artue, berton artzen sana barik almasenatik ekarte san. || Emen eukera aundidxe dxak. Emen ure berton dxak. Egurre be urra dxak. Eukeri dxak emen!*

bertzin, bertziñe. (BERTZIN) Raza de ganado. || *Onk dire okelarakuek: asturianak, pirenaikak, eta*

bertziñek. || Bertziñe da..., kolore bat selaku esango tzut dala bertziñe? Gorridxe be esta, bai gorridxe da geidxau, ba olako ser esangot neuk?, bertziñe. A gorri-gorridxe esta, da baltzau-suridxau. Bertziñ asko esta ikusten. Oñ estaitt oin be badau, baya len geidxau eote sirin bertziñek oin bayo. || Bertziñe bai. Beidxek egote sin len, bertziñek. Olako pintta... ori dekenak, bertziñe, bei bertziñe. Pinta gorritxu eta orrek pintak eukitte ittuena bertziñe. Gorri-suriska, baya es nabarra e!, espabe bertziñe.

bertzo, bertzue. (BERTSO) Verso, copla, grupo de versos. Ik. *koplie. || Arexen andriñ aistiri atara tzosan bertzuek. Arexe san nobidxi, nobidxue itxi bana. || Bertzue bota. □ bertzo papela.* Hoja suelta impresa conteniendo versos. || *Ori, bertzo papelak, eta orrek e Gerniketiek ekarri biar ixate sirin. □ bertzutan.* Haciendo versos. || *Bai, Elorza edo olako serbait. Ba, morrosku itzela! Bertzutan jo!, ondo eitte ban ak. || Bu! Bai, bai, bertzotan da berbetan be egokidxe! Bai, bai, famosu san.*

bertzolari, bertzolaridxe. (BERTSOLARI) Bertsolari. Nabarnizen bertsolari bat egon zen, Luzio Elortza, Arrola baserriko izenarekin ezagunagoa. || *Arrola il san aintxiñe. Kiputze ixen san a be, bertokobertoku barik, Gipuskuatik etorrineku. || Arrolan nik bixi ixeten esautu naben Arruskillu euki ban beren ixena eta axe bera ixen bertzolaridxe. || Oñ e badaus oin bertzolaridxek ona daus, baya len e gorako ak bertzotan e estudidxo barik e eitteko, pastore bat..., leiten estakit takidxen arek! || Abadiiek, abadiiek erute basen orrek. Abadiiek, erriko abadiiek. Ori Iberrenguluko semie, Etxandia, Don Jose Etxandia san, da ak eitte ban, ak eitte tzen influentzidxe, afesiño edo olan bertzutan da amen e ori gixon bat ori etorri san, Bilboko, Gasetako sera, diretori ekarri ban baten, errire, beran laguna dala ta. Da bat aixe ixen san bertzolaridxe, plasan ei ben. Da bat aixe ixen san Lusio, pastorie. Da besti ixen san Oñiskue, gastia. Da an alkarras, batera seriñ eitten. Da Bilbora erun, ba Bilbora erun axek, erriko Don Josek.*

besada, besadie. (BESADA) Brazada, una carga de helecho u otra hierba sostenida entre los brazos. *Kargie ere esaten da: Egur kargie. || Egur besadie. || San Jun egunien elixara besada lorak, erremillotak erute siren. Larrosak-eta eta sorgin bedarra pe antxe, kargan berinkatzen.*

besadatu. (BESADATU) Hacer carguillas de helecho o hierba. || *Burdidxe kargetako besadatu bi dabe.*

besaka, basaka. (BESAKA) Carga que los animales de tiro se hacen mutuamente. || *A be ixete san, burdidxek goitti bera etorteko, ganaduri besaka aundidxe emote tze. □ besaka ein.* Apoyándose un animal de tiro sobre el otro para rehuir la carga. ||

"Besaka eitten deu": alkarrereri sakaka les ibiltten diriñak.

besakada, besakadie. (BESAKADA) Brazada, movimiento vigoroso de los brazos. Esaterako, pelota jokoan honela esaten da: *"Arek emon tzo besakadie!"*.

besanga, besangie. (BESANGA) Rama o ramas principales de un árbol, principalmente las más bajas. *Besangue ere esaten da. || Besangak lodidxek ixeten dire. || Orrek besanga asko dxekok, e! || Besangie: esate baterako, beko adarra pe badire, besangie goiko adarra pe badire. Arbolik eukitten deu ba, adarrak-adarrak urte tzen lekue, eukitten deu ba ya altuan, apur bet altuen beintzet. Da ba besangie esate dxako arixerri, adarrak dasen lekuri. || Oñ arbolari ausi dxako besainkie. || Orrek arbolari orrek besanga galantak dekoso.*

besango, besangue. (BESANGO) Rama o ramas principales de un árbol, principalmente las más bajas. || *Tantaidxe ixeten da susen badau gora. Da bestik besanguk ixeten dire albora eitten dabenak. || Besangue da trabesera deuna.*

besarkada, besarkadie. (BESARKADA) 1. Abrazo. 2. Brazada. || *"Arrastadi deko ona!", au besarkada aundidxe botaten badeu, "Arrastada aundidxe deko!"*.

besarkatu. (BESARKATU) Abrazar(se), rodear con los brazos.

besaspi, besaspidxe. (BESAZPI) Bajo el brazo, sobaco. Ik. *galtzarpie.*

besatire, besatirie. (BESATIRA) Acción de rehuir la carga (el animal de tiro) empujando contra el otro animal. || *Besatirie? Ganaduk e busterridxen bata bestiri tireka ekitte tze, olan plantau ankak eta alkar joten. Txarra da ori. Ankak olan ipintte ittue, da beidxek tireka orra ekitte tze. || Besatirie deke. || Besatiran dabis. || Besatiri da besaka eitten dabena, bata bestiri sakaka ixeten da besatie. Da arek eukitten dabe, an partikie esate dxako areri erdidxen dekenari, besatie. Da areri ipintte tze, olan egoten da, da besati eiñ esteidxen eukitten dau olan, akulun ganakin, da ipintten da trabes.*

besatireka. (BESATIRAKA) Rehuyendo la carga (el animal de tiro) empujando contra el otro animal. || *Besatireka? Bai, ganaduk eitten dabe besatireka, olan e karga aundidxe dekeniñ-edo. Gitxiau danak... geidxau dana badeko busterridxen e, gitxiau danak bajatu bier ixeten deu.*

beseridxe. (BEZERIA) Clientela. || *Ba bokosu suk e esni partiduteko "Beseridxe dxekoatek" eta beseridxeri emon bi tzat lenau. || Ak beseridxe ona dxekok.*

besero, beserue. (BEZERO) Cliente. || *Beseru da, esate baterako, niri kasteta-stasu suk geusie. || Beserue ixete san beti fijo etorten dana. || "Beseru dxok a", geusa erosi-saldun dabillena. || Erosi eitte tzos areri geusak. Bere beseru da.*

besigue. (BISIGU, arrosel) Besugo (*Pagellus centrodonatus*). *Bixigue* ere esaten da.

beso, besue. (BESO) Brazo. *Besue apurtu* nahiz *Besue eusi* esaten da. || *Besuek sabaldu.* || *Umie besutan artu.* || *Besue lo geratu dxatek.* || *Orrek dekosen urtekiñ ondiño aman besutan dabil.* || *Atzamarragaittik besue kontate dxok.* || *Emen gixon bat euen besuek sabaltzen beti, fanfarroyek eta esatenda, arranue areri esate geuntzen guk: "Arranue, ori arrano ori!"* || *Mantxúe besori baku da, beso ba tekona. Oiñ e bidxek baukos falta dittuna, neu be mantxu esango tzu, baya bat falta deunari mantxu esate tze.* || *Besori paku bada, mantxu esate tzeu guk. Manku be esate tze, baya guk e beti mantxu, beso bakarra dekonari.* □ **beso palie.** Homoplato. □ **beso paletie.** Homoplato. □ **beso sabala.** Generoso. || *Beso sabala san.* || *Beso sabala, frankue, asko emoteko dekona, borondate onekoa.* □ **besuek batu.** Cruzarse de brazos. || *Besuek batute egoten da.* □ **besuek lotu.** Cruzarse de brazos. □ **besutan artu.** Apadrinar. || *Umie besutan artzera jun nas.*

bespera, besperie. (BEZPERA) Víspera, día que antecede a otro (especialmente a uno de de fiesta o de celebración). || *Erregen besperie.* || *Santageda besperie.* || *Besperan etorri san.* || *Txikilimañak ixete siriñ arek kanpa txikidxek. Orrek jote sin len jai besperetan beti, ordu bidxetan.*

bestalde. (BESTALDE) Al otro lado. Ik. *andikaldin.* || *Bestaldekuek.*

beste, bestie. (BESTE) 1. Otro, -a. || *Bata nai bestie.* || *Besterik espok, ba eiñ ein biko da.* || *Da letxadi da kari. Onek ormak-eta suritzeko len es san besterik ikusi-ta.* 2. Tanto como, tan. Ik. *lein.* || *Falta deuna, estekona bidan besterik, beti goses.* || *Dekedan beste urteas umi klasera ibilli!* || *Ni be banas edosein beste.* || *Ori neu beste altu dok.* || *Orrek ni peste alturie badxekok.* || *Orrek jan deu anaidxen beste.* || *"Erruki emoteko das": edo diru falta dxakenien, edo jateku falta dxakenien, edo bi dan beste ogi estekenien, edo ba, edo ume kuadrilli daunien, da bi dan beste estekenien manteniduteko edo ba, "Erruki emoteko das".* □ **beste ainbeste.** Otro(s) tanto(s). || *Baya len emen kopradixen egote giñen e a sortzi-amar mutil, da neska pe beste ainbeste, da olan txalik eitten ebenin, abiste ben juteko, esne murgille daula, da sarataka.* □ **beste barik.** Sin más. Ik. *geidxauko barik.* || *Beste barik, agur!* □ **beste lein.** Tanto como, tan. Ik. *lein.* || *Bustitzeko beste leiñ ein deu.* □ **besterik esin.** A falta de otra cosa, por no poder otra cosa. || *Besterik esin, au ingo dxuou.* □ **besterik es lakue.** Excepcional. Ik. *apartekue.*

besteko, bestekue. (BESTEKO, adinako) Tanto ... como, tan como (partícula comparativa de igualdad que expresa cantidad). || *Badau beste txori bat pe, arranun besteko aundidxe estana, olan subik-eta jate ittuna: saidxerrie.* || *Gure plasie suenan bestekue bada.* || *Traktora jutun da, lengo bidin kabiten dan les, se lengo bidiek dire traktortxuk kabiteko bestekuk, baya kamioi-eta estire kabiten.* || *Soso baltza: beste sosun antzeku ixeten da tamañu be. Se bata da apur bet gorriskatxuaue, da besti da baltza, da kontixu, alkarren bestekuk tire bidxek.* || *Errekie Oman aundidxe dau les, emen aren besteko errekarik estau, emen erreka txikitxue pai, mendittik bajaten diñak badas, baya ba, orrek estabe eukitten barborik.* || *Baya emen, an beko errekatxu-da..., an igeri eitteko besteko urik estau.*

bestela, bestelan. (BESTELA) 1. De otro modo. || *Eiñ au olan, edo ein bestelan!* || *Bestela eingo du.* 2. Si no. Ik. *ostantzien.* || *Gure orma sarrak sulue deko ta sarratu ein bigu, bestela axe otza sartzen da ta.* || *Bestelan ju adi ara!* || *Eurres botatie: soltau, botau ganadu noberak eta doixela, "Eurres botadxsak".* Ta *bestela ixeten da nobera aurretik, da ganadu ondorik.* 3. De otra suerte, mejor, fenomenalmente. || *Bestela gaus!* || *Ni jun mendire, nai basora, ba busti-busti-busti einde etorri, tte gero amen su ondun, nai ona etorritte: "Jo, bestela dxak amen!", "Amen epeletan bestela dxak!"* □ *Esaterako, pertsona bat hilzorian penaz egon ondoren, hiltzen denean, egoera hobera igaro dela adierazteko honela esaten da: || Bestela dxak! □ bestela ein.* Tomar la decisión de dejar de hacer algo proyectado, y que a la postre resulta ser la decisión más acertada. || *"Bestela ein deu" ba erresoye emoti laku da ori. Nik ara jutekun e emendik eta se ein dot? Buelta artu te jun es. Da bestik esaten deu "Bestela ein dxok ara jun es eittie".* || *Su basois e kotxias ametik e Gabiketik jutekun, da Gabiken pentzetosu buelta ein, da atzera Nabarrixera etorri bixule, ta Ereñon kamiñu sarrate. Da esango tzue urrengo egunin. "Koño, bestela ein dok andik buelti eitti, se jun baintzan, estok euki pasurik eta".* || *"Bestela ein deu": Alde ein deu, ba bestela ein deu. Bierra gogorra euki badeu ba. Itxi ein deu, abandonau ein deu, ba bestela ein deu.*

bestelako, bestelakue. (BESTELAKO) 1. De otro modo, diferente. || *Lagun bi badaus, ona bata ta bestie txarra: "Bestelakue dok ori".* 2. De otra suerte, mejor, fenomenal. || *Bestelako baskaridxe!*

bestera. (BESTERA) De otra manera. || *Olantxik ein bi san, bestera barik.* || *Ernaridxe bai, esate tze batzuk, baya guk e geuk e bestera esateu.*

besterako. (BESTERAKO) □ **besterako ein.** Acostumbrar(se).

besu, besue. (BEHESU) Hogar bajo. *Su bajue eta beko sue* ere esaten dira. Ik. *txokue.* || *Mukurre ba sueri albuñ ipintteko-ta, besueri, aintxiñe besue eitte*

san, dana bekue, da ba mukurrek, mukurrek sartun. Mukurrek albutan ipiñi tte gero egur seye erdidxen ipiñitte su eitteko. □ **besue.** Hogar, fuego bajo.

besutako, besutakue. (BESOETAKO, ponte) Ahijado, -a. || Mokotza iru musturreko ser bat ixeten da, arrautzie ganin, ya labatik atara ta gero, Amabitxik erregalaute euzon bere besutakori pasko egunien. || Aittebitxik-eta eitte tzen erregalu e orreri, besutaku esate tzen len ba. Ba len ori usete san, mokotza. Oiñ esta mokotzik usetan.

besutzik. (BESUTSIK, beso-hutsik-bat.) Sin nada, con las manos vacías. || Besutzik da eskutzik esati les.

beta. (BETA) Veta, filón. || Arridxe astiltzen barik betara juten da. || Betara? Ori beti eukitten deu arridxe pe au les, da bestela pikorra egoten da igul bestera, da betara apurtzen dala erres.

betaldi, betaldixe. (BETEALDI) Hartazgo. Ik. betekadie, narrukadie, tronkadie.

betar, betarra. (BEHETAR, beterritar) Habitantes de las zonas bajas, como los de Belendiz o Gernika. || Goitarrak esaten san mendixen bixi siñak, da gero gu emen bixi giñiñak betarrak. || Belendiskuek edo gernikarrak egoten badire emen: "Betarrak, kuadrillie etorri dok". || Betarrak bajukuk dire. || Nabarrixen, da Belendixen, da ba oin be probie ein da, kaballukin, Nabarriskuek eta Belendiskuk. Da ba betarran alde, bestiek goitarran alde.

betasal, betasala. (BETAZAL) Párpado. Begi asala baino gehiago esaten da.

1 bete, beteten. (BETE) **1.** Llenar. || Bueno, gure eskatza bete bi da jentes, beste gixonesko bi datos. || Patiñe: ure atarateko sulo bat, ures beteten da beres, da ba andixik ure artu. || Da alderdi batetik eukitte ban txorrotxu, olan edateko. Da bestetik eukitte ban bera uras beteteko..., bueno eukitte ban olan sulo biribiltxue, da andixik bete eitte san iturridxen. A sulo biribille ixete san beteteko, ures beteteko. || Itusuran galdari ipiñi, galdari itusurik beteko dxok eta! || Da gero eitte gentzon e garbittu a, atxurras, da egurres bete. Egurres bete ta antxe altzau. **2.** Saciar(se), llenar(se). Ik. asetu. || Sitz beteta nau, da estot gure. || Ederto bete nas ointxe. || Ondo geratu nas, bete nas. || Usena inketen danién, txupau-txupauten egoten ei da garatu barik, sekule es ei da beteten. || Se inkeute geratzen dii (akenak), da dana odoles betete dire arek, txupau eitten dabe. **3.** Cumplir. || Esteu beteten orrek legerik. **4.** Agotarse. || Arnasie bete. || Barrue bete. || Beteta dau. □ Pertsona beharrean edo kirolen batean gehiago egin ezinik geratzen denean, honela esaten da: || Arnasas bete da. □ Nekearen nekez arnasarik hartu ezinik gelditzen denean, beste honetara esaten da: || Arnasas bete esiñik dau. □ **bete-bete ein. 1.** Saciarse, llenarse. || Bete-bete ei ñok jatekuas. || Berak nauku

jan, da gero kunantzako bete-bete eitten danin, susen-susen doye abidxera. || Bete-bete einda nau. **2.** Emborracharse. || Moropidxo esate dxakon, selan esangot? Bete-bete einda badau gixon sar bat: "Moropiodxas dau ori". "Moskorra deko orrek" es esatiaittik.

2 bete. (BETE) **1.** Lleno, -a, colmado, -a; harto, -a, saciado, -a. || Asal urdiñek esan gure deu ba garbidxe, betie, asal betie. Betie ta argidxe, ondo janeku-edo: "Orrek asal urdiñe deko". || Jun san da plastikue bete-beterik ekar ban. || Beidxe, txala eikeran, ur sorrue eitten deu lelengo, txala bayo ariñau; a ures beterik etorten da. || Alderdi gustidxe adarres beterik daus. || Atxes beterik dak. || Arrautze abidxe beterik dau. || Botillie beterik dau. || Bete-beterik etor da autobusie. || Maskales beterik dator! || Tximurres beterik dana euki dxok ori! || Geur elixi bete-beterik egon da. || Jentes beterik dau elixi. || Garidxe dana salgas beterik dau. **2.** Un, -a (en expresiones temporales sustituye a bat). Ik. aste betie, ordubetie. || Ordubete eskero itxi biarrari! **3.** Un, -a ... de (con términos que expresan longitud o capacidad. || Atie beteko gixona. || Arrolan idi narru bete urre ei dau. || Artzakadie? Artzakadie bai, ixer lei garidxe, artza bete gari, ixer lei artza bete arto be bai, artue..., ixer lei indarra be. Artzakadie, ba artzi bete labore. || Bastarrak bete diru deko. **4.** Completo. || Ago bete agin deko umiek. || - Senbat agin deko umiek? - Ago bete deko. □ **bete-betin. 1.** De lleno, justo-justo. || Bete-betien atrapau du! **2.** En plena forma. || Bete-betiñ egon. || Sasoi bete-betin dau. **3.** Totalmente. || Bete-betin siñistuten deu. || Geusa bat e ein gure estabena eitten dabeniñ edo, da ba "Ni bete-betiñ nau bera ixer dana". || Batabatek soser txarto ein badeu, ikusi estan geusiegaittik esaten dabena "Bete-betin nau bera ixer dana". □ **bete esiñe. 1.** Insaciabilidad, voracidad. || Orrek deko bete esiñe! **2.** Insaciabilidad, avaricia. □ **kali betin. 1.** Siempre en la calle, de calle en calle. || Ori beti dau kali betin. || Beti sabis su kali betin! **2.** Ocupando toda la calle. || Kali betin: bai, albalboka badabil, kalin doyela, "Kali betin dxoik ori", moskorras. □ **lurre betien.** Plenamente, rebosante, sin obstáculo alguno. || "Landarie dator lurre betien": dana erneten dauela bedarra, ona, nai eskasa, ba etorri biar estaben bedarra, etorten dala, da etorri bi dana be bai. Aberatza datorrenin, oparo datorrenin. || "Landarie dator lurre betien": Ori be bai. Ori ondo datorrena ta sarratu. Ondo datorrena, erni olan datorrena, "Dios, lurre betin dxatok!". Da falta badaus, esta esaten 'lurre betin', espabe ba faltan edo bestie, baya an ondo datorrena, olan noberak gure daben modun de fresko datorrena esate dxako 'lurre betin'. || Lurre betiñ e, lurre betiñ e, atxurre sartutie be lurre betiñ ixeten da arek eta arridxe topau arte. || "Lurre betin sartu dxusek

postik”, se igul onako lekuen beyen arridxe dau, da lurre dana eitten da les... a beraiñun ein badeu, “Lurre betiñ ipiñi dxusek beintzet”. ☐ **eukera betin.** En abundancia, sin necesidades. || “Eukera betin bixi da”: franku bixi danari esaten dxako, geusias franku bixi danari. ☐ **begi bete-betien ikusi.** Ver algo claramente. || “Begi bete-betien ikusi dot”: erres ikusten dana, edo urretik ikusten dana-edo.

betegarri, betegarridxe. (BETEGARRI) 1. Leña que se echa al hueco central de la pira para avivar la combustión en la carbonera. || *Betegarridxe da bai karabidxeri tte txondorrari emote dxakena. Sulotu eitten da igul, a sulu tapau ein bi ixaten dxake egosteko, iketzari, da a betegarridxe.* || *A betegarridxe bota orduko, botate dxako odoldidxe, odoldidxe edo bedar sarra ta olako satarreridxe.* || *Betegarridxe goidxaldiñ emote dxakon.* || *Betegarridxe emote tzen seinde txondorrari lantxik.* || *Da onen anaidxik euki ban txondorra Mugiren. Ointxe sekule etxat asten. Da esan tzon. “Eingo tzesu txondorrari kargu?” Sapatu gaba-edo ixan san. Da bai. Jun san tio. Kargu eitte on san, da jun san, da betegarridxe bi ban, da “Se pentzetan deu orre pa! Arridxas ingo tela betegarridxe, arridxas? Mekaguen sandios!” Es eban preparau esebe arek. Arek e eskapau erromeridxa-edo.* 2. Relleno para hacer cal. || *Iru ordutik iru ordure emote gentzon guk betegarridxe esate tzeuna. Eitte gentzen kari tiretu betik, da a uekue gero egurre lelengotan ta gero arridxe. Da a gero egurrek erreten siñin, a bera bajete san. Da ostabe betik atara. Betik olako atakaxue. Andik tiretu atxurras da kanpora karie.* || *Karie bajatu eitten da, da bajatutekuen egurre lelengo, da gero arridxe, ta a da betegarridxe.* || *Karabidxen betegarridxe botata, arku ein. Sulu eundidxe ixete san, da ak ertza, esta? Da arku imintte su. Da gero arkure kargau, da andik gero. Da an beyen ueku dau, andik arkuti bera. Da andik betegarridxe ota sarragas. Bier gogorra a be.*

betekada, betekadie. (BETEKADA) Hartazgo. Ik. betekasune, narrukadie, tronkadie. || *Betekadi da ba neurritti fuera jan dosun betekade.* || *Betekadie ein dxok orre pe makala!* || *Betekadie deuket.*

betenaidxue. (BETERINARIO) Veterinario. || *Se betenaidxuk esate tzu “Eusnarra eitten deu?”.* Da ordun e ba “Estot ikusi ba”. “Se eske kallenturi ero ori deko ta”. Gero erremedidxuk emon tzos. || *Biriki da granue, barruen, apatxen barrun urtete tzena. Da a ein bi da garbittu de orrek betenaidxuk... Erradori pe bai. Erradori berak eitten deu. Garbittu dana, ta a ebei, te gero botiki ein, erreteko.*

betetasun, betetasune. (BETETASUN) Hartazgo. Ik. betekadie, narrukadie, tronkadie. || *Betetasune da gero miñ antza edo. Asko jan da ostien: “Betetasune dekot”.*

beti. (BETI) Siempre. || *A beti berandu dator.* || *Beti berbetan egoten da.* || *Beti esautu dot.*

betiko, betikue. (BETIKO) 1. Eterno, -a, de siempre; continuo, -a. ☐ Batek miseriak edo gaisotasunak beti ahotan erablitzen dituenan, honela esan ohi da: || *Orrek betiko kantiñerie!* 2. Para siempre. *Betirako ez da esaten.* || *Nik au emote tzut seutzat betiko.* || *Betiko asarratu nok.* || *-Noix arte etor da ba? -Betiko.* || *Betiko itxitte tzo.*

betittiko, betittikue. (BETITIKO) De siempre. || *Da untxe be etze bat erre eskeruen, nik pentzetot ori len, lendiko da, beres estau eukitten iñok obligasiñorik, baya lendiku da, ba, etzie errete dxakonari, edo etzias orma bat jeusten badxake, edo suerte txar bat pasetan bada-edo, eusun-edo ba laguntzen juen, seoser emon. Da ba ori betittiku su.*

betondo, betondue. (BETONDO) Zona junto al ojo. || *Betondue: dana begidxen bueltie.* ☐ Lagun bati jo ondoren begi bueltan beltzunea egiten zaionean, honela esaten da: || *Betondue ederra ipiñi tzek!*

betondoko, betondokue. (BETONDOKO) Bofetada. || *A betondokue, dana betondue baltzittute.*

betosko, betoskue. (BEKOZKO, beltzuri) Ceño. || *Orrek deko betoskue!* || *Betosko illune deko.*

betule, betulie. (BETULE, betile-bat.) 1. Pestaña. || *Samarreridxe, esate baterako, esate dxako begire batzen dan enbasuri-edo, seinde betuli-edo begidxen sartzen danari-edo.* 2. Ceja. || *Betulak.*

bi, bidxek. (BI) Dos. || *Bueno, sue bidxok soix esta?* || *Bidxetara esate dabe.* || *Guk bidxok ipintten badu amarretan ordue.* || *Erdu ona bidxok!* || *Ondo esanda dau bidxetara be.* || *Guk e urte bireko kari eitte gendun. Ein biarriñ urtaro, urte biri paten ein.* || *Nai kalterako nai mesederako, bidxetarako ixa lei.* ☐

bidxek bidxetara. Los dos a solas. || *Bidxek bidxetara geldittu dire.* ☐ **bidxen bittartien.** Mientrás tanto. || *Bidxen bittartien juen seittes su ara.* ☐ **direnak eta bi esan.** Cantar las cuarenta.

1 biar, bi. (BEHAR) Tener que, deber, haber de, deber de. || *Sue emon da erretekuek igerrak ixan bi dabe.* || *Kinttuk soldau jun bi dabenak tire.* || *Eutzi au badaespada. Anera jun biot, Karinak deittuste ta ensegida etorko nas neu atzera baya.*

2 biar, biarra. (BEHAR) 1. Deber, tener que. || *Jun biarra deket-eta!* || *Antxe euki deu il biarra.* || *Etorri biarra euki deu.* || *Seoser ein biarra dekot.* || *Ankak altzau biarra dekeu.* || *Selako miñ emoteste aldiro pagau biarrak!* || *Iñusi biarra deko.* || *Ba bierrin kantzauten daun personik e neurridxe artu biarra eukitten deu.* 2. Precisar, necesitar. || *Ser biosu?* ☐ **biar estana.** Inconveniencia, despropósito. || *Biar*

estana ein deu. □ **bi dan modukue**. Como es debido.

|| *Baya ordun ondiño egon san etzie bi dan moduku.*

3 biar, biarra, bierra. (BEHAR, lan) **1.** Trabajo, labor. || *Bierrera!* || *Bier baltza.* || *Bier nekosu da ori.* || *Jan gitxi, da biarra sendo.* || *Bierretik ator?* || *Biarrera doye.* || *Gure artien arek beste biarrrik ein dabenik estao.* || *Neure amak biar asko ei eban ortan.* || *Oin Bermion orras (galipotas) biarra sano!* || *A garbitzie bier ederra!* || *Bier gatxa ixen da.* || *Beste biar bat eitteko arorik estau.* || *Gogo bako biarra ein deu te!* || *Burus eurre dabil bierrin!* || *Kaguen, senbat biar galaso bistasun!* **2.** Acción, labor, obra. || *“Esgauserik atrapetan badeu, ba estau isten, jan eitten deu”.* *Da umik eitte ittu olako biarrak.* **3.** Penalidad, molestia, trabajo; dificultad. || *Aridxe eitten da. Eitten da ardi lanias. Arek bier eundidxe eukitten deu.* || *Biarran biarras esaten da jeneralien ori e, emen. biar asko dabilenak: “Bai, biarras total etenda dxak morroidxe!”.* □ **biar txarra.** Incurrir en infidelidad

conyugal. Ik. *engañau.* || *Ei ban biar txarra!* □ **bier eittaldidxe.** Acometida de trabajo. Ik. *bierraldidxe.* || *Bier eittaldidxe: bier asko eitti-edo, “Eittaldidxe ein, de kantzauter itxi ein deu”.* □ **bier ekittaldidxe.** Acometida de trabajo. Ik. *bierraldidxe.* || *Bier ekittaldidxe da bierraldidxe eundidxe ein danien, bier ekittaldidxe.* □ **biarrin.** Trabajando. || *Biarrin dabil.*

|| *Biarrin dao.* || *Errotiek boutzo biarrin.* || *Peotzan asi san bierrin.* || *Lorriñe da bierrin.* □ **bier sietza.** Trabajo minucioso, preciso. || *Da arik eitten dabe bier sietza. Bailariñek esteu eitten bier sietza.* □ **dobleko bierra.** Doble trabajo. || *Dobleko bierra eitten dabil.* □ **biar ein.** **1.** Trabajar. || *Areas bierrrik esin lei ein.* || *Areas bier eittie san txarra.* || *Modu onetan bier eitten bayu, il ein bi dxuou.* || *Bi dan modun eixu biarra!* || *Biarra ein taidxus!* || *Tripi deko galanta, bier asko eitteko!* **2.** Funcionar. || *Estau biar ein gure.* □ **biar erein.** Hacer trabajar. || *Oiñ estau olakorik. Oiñ e kanpun dabixen les geidxenak, ba apatx bittartekorik esta. Da ordun biar, biar ereitte dxakon, da biarrin-de obligete si les, alan eitte dxakon, apatx bittarteku.* □ **bierra eurrera atara.** Progresar, avanzar el trabajo. || *Eiñalak einde be, biarra eurrera esta ataraten.* □ **bierrak itto.** Agobiar el trabajo. || *Bierrak ittota dau.*

biarbada, bierbada. (BEHARBADA) Acaso, quizás. Ik. *arenbaten, igul.* || *Bierbada leku batzutan trangadi be igul esan ingo tze, emen berton es, emen mukitte.* || *Biarbada au ein bikot.* || *Ak biarbada eukiko ittus berreun urte.* || *Orre pe ordu erdi bierbada eskentzon eraingo, astute nau aidxe selan eitten dan be.* || *Txikoririk estau. Kaferik-eta eman*

esta olakorik eitten. Len-len-len-len aintxiñe bierbada ingo ben baya ostantziñ e txikoririk e... □ *Berriemaile batek zaharragotzat dauka berba hau, iguel baino:* || *Baya nik pentzetot ‘iguel’ bayo, ‘bierbada’ lengo berbiau dala.*

biargiñe, biergiñe. (BEHARGIN, langile) **1.** Trabajador, -a, obrero, -a. || *Biergiñek sindikatutik logreu ben jornal obie.* || *Biergiñek akabau dabe geurko euren tarie.* **2.** Trabajador, -a, hacendoso, -a, laborioso, -a. Ik. *fiñe.* || *Fiñe da gitxi gastau te alaku ixeten dxakonen: persona fiñe dok ori; biargiñe da ya abilidadie dekona.* || *Severina biargiñe san, fiñe.* || *Biargiñe: a beti eitteko listu dauna, asko eitten dabena.*

biarleku, biarlekue. (BEHARLEKU) Ocupación, trabajo, faena; carga, pena. *Bierlekue* ez da esaten behar egiten den tokia izendatzeko. Horretarako, *biarra* esaten da beste barik: *Biarrera doye.* || *Bierleku txarra dok ori!* || *Selako biarleku emoten deu!* || *Geuse bat esin konpondu danien modu batera: “Bierleku txarra deko konpontzen”.* || *Artu daben biarlekue!* || *Bueno, a be bierleku ederra! A txapel ori eldu-eldu eindakun artun de onantzik rast! asidxe ta ra! baldara edo sestora.* □ *Pertsona batek lan asko daukanean, honela esaten du: Nik dxekat biarlekue!* || *Nik dxekat biarlekue ori eitten!*

biarresko, biarreskue. (BEHARREZKO) Necesario, -a, imprescindible. || *Bier-biarresku da.* || *Derrigor ein bi dan geusie, ori dok biarreskue, bi dana dok-eta, derrigor bi dana.*

1. biarrin. (BEHARREAN) **1.** Necesitado de, necesitando, a falta de. || *Arturi be esate dxako (lapan), bedartzu badau. Artu eraiñekutan bedarra edoselaku etorten da, da “Lapan dau bedarras”, “Bedarres beteri dekeu”-edo, “Jorratu bierrin dekeu”-edo.* **2.** A punto de. || *Itto biarrin dau barreska.* || *Ikutu biarrin pasau da.* || *Loratu biarrin das.* || *Jeusi biarriñ aulan badabill au: “Dios, esbaidxen dxak, jeusi ein bi dxok!”.* || *“Dana batzekun dabil”: suri berentzako, da dana berentzako, “Dana batu biarrin dabil”.* || *Punteleti da, au jeusi biarrin badau, emetik ipinttie, da punteleu.*

2. biarrin. (BEHARREAN) En vez de. || *Gausie benetan artu biarrin, olgetan asi da.* || *Dirue eskatu bierrin, abilidadie eskatze ban.*

biarrixen, biarrixena. (BEHARRIZAN) Necesidad. || *Selako biarrixena dau!* || *Euridxe ein biarrixena.* || *Siketie ein biarrixena.* || *Siketie egon da, uren bierrixena dau.* || *Euridxe ein bierrixena dau. Euri apur bet ingo baleu, kanpuk presketako-edo!* □ **biarrixaniñ egon.** Estar necesitado, -a. || *Biarrixanin dau.*

bibolin, biboliñe. (BIBOLIN, biolin-bat., arrabita) Violín. || *Biboliñe soñu bateri esate tze. Baya ori soñu ori emen nik estot pentzetan usetan danik.*

bibolinttero, bibolintterue. (BIBOLINTERO) 1. Violinista. || *Ori joten dabenik emen egon be-stau les, ba bardin da..., bai bibolintteru biboliñe joten dabena.* 2. Hona hemen X. Amurizak (*Bizkaiko Bertsogintza: Izengabeak I.* 44. orri) berba honezaz dioena: "Bigolineru: bibolintero, bibolintari... forma asko hartzen ditu hitz honek. Eta herri hizkeran gehienez ez dauka bibolinarekin zerikusirik. Haurrei *handitan zer izango zara galdetzean, bibolintteru* erantzuten genuen, horrek barregura emango zuela jakinik. Musika tresnaren bat. Gauza alai eta informal samarra behintzat". || *Bibolintterue: olanik persona onajie-edo etxako esaten, espabese ba aintzat estaunari-edo: "Bibolintteru alaku!"-edo. || Bai, berba modun bai esaten da. Umiri be, olan mutil tamañuen... "Bibolintteru alakue!". Olan igul erristan ibiltten diriñin, edo estabaidan dabixenin-edo.*

bibote, bibotie. (BIBOTE) Bigote. || *Surpin deko bibotie.*

bibotedun, bibotedune. (BIBOTEDUN) Que tiene bigote.

bide, bidie. (BIDE) 1. Camino. Lehengo bide zaharrei *bidie* esaten zaie, berriei, asfaltatuei, ostera, *kamiñue*. || *Burdibidie. || Narbidie. || Ur bidie. || Irri-orroka dau bidie. || Aratona doye bidie. || Kamiñuek dire kotxiak-eta dabixenak, ostantzin, propidixue da lengo bidie. Onek bestiek esaten dxakue eskabadoriek-eta eindeku ori, ba pistak. || Oin pistie ein dabe lengo bidetik. || Traktora juten da, lengo bidin kabiten dan les, se lengo bidiek dire traktortxuk kabiteko bestekuk, baya kamioi-eta estire kabiten. || Ori da bide pendixe! || Leku batzutan e mendire bidien be ba bide erripa badas. Da beste leku batzutan be leune das. || Erratuneko bidie. || Erratu ein nas bidiegas. || Bide erdire urtengo tzat. || Gero, arantziñ erregatiban..., neu iñois junda nau Natxiture amendixik, Natxiture, eta an amabidixetan jentie itxeitten euki gendun de bidera urtete-skuen, bertan eingerun urtete eskuen bidera, da elixara barrure jun, de mesi emon, da ba kantau, da gero baskaridxe jan, da gero etzera. || Bide eitti dau. || Bide erosue? Ba bidie, norbera ibiltteko be bidie, ba erosu ixetie, bide erosu. Leune, ta ba bide erosu. || Bidi, ba le esan dotena, Gerniketiek eta ori, Nabarrixerak, angoxe arridixas, Loittidixako arridixas einde. || Txaboli or badau ba, arexen beratxuaun, antxe asten di garatxuk. Omakarteidixen be bai, ara Omara bidin be bai. || Peskan afesiñoi kasan lantxik egoten da. Nik ikustotas an Bittoridixara bidiñ a subidixen. 2. Camino, distancia, trecho. || *Andik ona iru orduko bidie dau. || Ordubeteko bidie dau.* 3. Medio, procedimiento. || *Alegiñe eitteko bidie badau.* □ **bide adarra.** Ramal, tramo de carretera que arranca de la*

principal para llegar a los caseríos. Ik. *erromala.* || *Bide adarra goraiño doye.* □ **bide bates.** De paso. || *Nire anaixde tratante ibiltten da, da txala erosi ban, da ba, bide bates ekarteko esan tzon txala onantze. Da arek esan tzon: "Maurixio, trena be bide bates jutok Bilbotik Gernikera, ia de balde eruten bok". || Aintxiñe Nabarrixen be egon san (tribulidixe), astuas ibiltte ben, da iru, edo lau (persona) erute sittun, da bide bates berak etzeko errekaduk eitten jute san. || Emen gas gu, euskidixe artzen bide bates. □ **bide egala.** Borde del camino, orilla del camino. || *Nabarrixerak gatosela be bide egaletan-da badau, baya amen bertan ori aseri bedarra estau.* □ **bide erripie.** Camino empinado. || *Leku batzutan e mendire bidien be ba bide erripa badas. Da beste leku batzutan be leune das.* □ **bide ertza.** Borde del camino, orilla del camino. □ **bide ganie.** Porción de terreno sobre el camino. || *Bide ganie: esate baterako, au da bidie, da amen dau motie, bide ganie auxe. Osea, alture bat, bidetik alture bat, esate dxako bide ganie.* □ **bide komuna.** Camino comunal. || *Oiñ etzera bidi ba kamiñotxu einde dekeu, te beste asko pe alan deke, da mendire bidin ba estau kamiñorik, espabese ba arrisko bidik, eta ba basasko bidik dire, da ibili lei edonor, ibili lei esate baterako, emengue, ibili lei Eriñukue, ibili lei Gernikekue, ba bide komuna, ba danen bidie.* □ **bide konpontzie.** Trabajos de reparación del camino. || *Eusun artiñ ixete san, da pasu dekonak, ba a be pasetan da, a be bai, a be bai tte danari emote dxaken parte, "Bide konpontzi dau", da ba etze bakotxetik lagun bat e beti ta olanik urrun estekonak eta bide txarra dekosenak-eta, bi be igul jute sirin. || Bide konpontzie? Baya ori bide konpontzie nos akabo te san? Oiñ esta biderik konpondu eitten.* □ **bide kurtzerue.** Cruce, encrucijada (de caminos). || *Bide kurtzerotik pasau nas.* □ **bide leune.** Camino llano. || *Bide leune da erriperi bakue. Esan gutena aldatzik es olakorik estekon bidie. Leue.* □ **bide-sadorra, bide sidorra.** Sendero. *Bide sidorra nahiz bide sadorra esaten da Nabarnizen. || Bide sadorra da lagune pasaten dana, esate baterako, bidie doye amendik, da lagune pasetako, urrau artzeko, sadorra. || Bide sadorra da olako bide estutxue, nobera oiñes ibiltteko bidie. || Olako bide txikidxeri, olan oiñes pasetan dan bide txikidxeri, ganadurik-eta ibiltten estanari bide sadorra esate dxako. || Bueno, alkar utz eittie esta geusa gatxa. Bata bide sidoretik jun bada, ta besti bide normaletik jun bada, arek utz ein dabe alkar.* □ **arridixe botateko beste bidin.** A tiro de piedra. || *Amentxe eingerun egon bi deu orrek, Eperditurrik. Ure altzetako Kantera aspidixen dau da arridixe botateko beste bidin dau te.* □*

bidi artu. Encaminarse, tomar el camino. || *A pe bidi artu deu andik.* || *Albora artun deu bidie.* □ **bidie ein.** Abrir camino. || *A bidie einde dau barridxe, a bidie einde topeuko deu.* || *Bidik ein ttus.* || *Bai, suentzako bidi eitten da.* || *Sueri be bidi ein bi ixete dxako, se biderik espouko, esi lei es bonberorik jun es ese be esi lei jun. Da bidik ein tzes.*

bidealdi, bidealdixe. (BIDEALDI, bidaldi-bat.) Caminata, marcha, tirada. || *Bidealdi itzela ein deu!*

bidegin, bidegiñe. (BIDEGIN) Caminero, -a, vecino que se encuentra reparando los caminos. || *Erribidiek konponduten doixenak bidegiñek dire.* || *Bidegiñek dabis an.* || *Bidegiñek kamiñuk eitten dabixena.*

bidegiñe, bidegiñie. Trabajo de hacer o arreglar los caminos. || *Sarritten domekan mesi jutekeran kanpai jote ben tanga-tanga, kanpai jo ta: -Koño, se bando ete deke? -Datorren astien, eguen arratzaldien egongo da Argiarrotik Arrolara bidegiñie. A san bidegiñie, etxe baktotetik gixon bat. Egun bat ipiñitte egote san, orduen denpora ona baueu, arratzaldien ixete san ori de ara estatorrena, ordun len be, peseta bi edo multie eukitte ban, kastigue eukon.* || *Ara bidera, ain lekutera bidegiñie dau de etorri!* || *Au ganera urtaro eitte san. Bidegiñi ixete san, da arrikuk e urtiñ e arratzalde bat oixe arregletan. Asi Nabarrixen, Elixaldin, da San Kristobalera.* || *Bidegiñi a ixete san. Gero erridzek e ori emote ban, ardaue. Errasiñoye esate dxakon. Da asko moskortute. Bai, aprobetxetan, da gero moskortu. Bueno, len bidegiñetan-da moskorrakin jentie. Usau bes ardaue edaterik! Baserridxetan-da pentzau bes ardaue edaterik! Baten batek ardaue edate baban! Baya pentzau bes! Ure.* □ **bidegiñen.** Haciendo o arreglando las caminos. || *Ori ibiltte san biergiñekin bidegiñen.*

bidegintze, bidegintzie. (BIDEGINTZA) Trabajo de hacer o arreglar los caminos.

bidekurtze, bidekurtzie. (BIDEKURTZE, bidegurtze-bat.) Cruce de caminos, encrucijada. || *Bidiek kurtzietan badire, or beyen ba bidekurtzi eitten da, ona gora dator bat, da beste bat kopradixera doye, da bide kurtzie.* || *Bidekurtzera jun nas.*

bider. (BIDER) **1.** Vez (precedido de numeral) Ik. *aldis.* || *Burun uletan dekon beste bider.* || *Senbat bider saus eskondute?* || *Oiñ enas neu jun beiñ aspaldixon. Len bai, Jesus, senbat bider!* || *Arteka? Bai, arteka esaten da, da oin bayo lenguek, se nik neure ama sanari ainbet bider entzun netzon "Arteka nau", edo ba "Arteka sas"-edo ba, baya oinguek e, arteka be estau esaten, es.* **2.** Vez (en comparativas). || *Eukitte ban bolantik e ba kargatan erute ban burdidxe lako lau bider geidxau. Akorten nas burdidxen, ba geidxen be, amabi kinttel, tonelada erdi pasautxu ortxe. Da orrek erute sittuen lau tonelada be bai.* □ **biderres.** Vez, ocasión. || *Ontzurengo biderres.* || *Deidzek eitte*

sirin, iru biderres botate sirin, iru domeketan, edo iru jai egunetan. || *Txakur emie alta sartu da ta laugarren biderres euki bittu kunak.* || *Lelengo biderres entzu dot.* || *Biarren bierres.* □ **biderren.** Vez. || *Iru biderrin.* || *Iru biderren galdu dotas libruiek.* || *Semeordie da ba, esate baterako, ba alargundute dau ama-edo, da bigerren biderren eskontzen da beste gixon bategas, da arentzako gixonentzako a semeordie da.* □ *Bat zenbatzailearekin ez da bider erabiltzen.* || *Baten bakarrik, Jangoikueri eskerrak.*

biderdi, biderdidxe. (BIDE-ERDI) **1.** Mitad del camino, mitad del trayecto. || *Biderdi etorri seittes seu!* || *Osea esan gure deu, ni jungo nas emetik arantz, da su etorriko sara andik onantz, biderdi, ni arutz, da su onantz. Biderdi esate dxako orreri.* **2.** Mitad del camino, centro del camino. || *Atzera jeurt eindde etorri nas bide erdittik.*

bidxamon, bidxamona. (BIHARAMON, biharamun-bat.) **1.** Día siguiente (al día del que se habla). || *Bidxamon goixien.* || *Bidxamonien etorri giñen etzera.* || *Enterrau te bidxamoniñ-edo ortusantun emote ben mesi.* **2.** Malestar, efecto de la borrachera. Ik. *atzokon ostie, jai ostie.* || *Orrek deko bidxamona!* || *Au dok bidxamona!* || *Jai ostien, bidxamona.* || *Astelenetan beti eukite ban bidxamona.* || *Bidxamona pasau dxako.*

bidxer. (BIHAR) Mañana. || *Ixen leike bidxer etortie.* || *Bidxer edo etzi etorriko dok.* □ **geurti bidxarrera.** De hoy a mañana. || *Geurti bidxarrera euridxe ingo deu.*

bidxotz, bidxotza. (BIHOTZ) Corazón. || *Bidxotzeko atakie.* || *Bidxotzeko golpiek.* || *Bidxotza taupadaka dxakat.* || *Bidxotz bakue.* || *Bidxotz gogorra.* || *Bidxotz onekue da.* || *Ori bidxotz bigunekue da, borondate oneku da.* || *Bidxotzak sart ein deutzo.* || *Bidxotzari guk e olanik e apur bet ariñ ein, edo estutu-edo eitte dabenin ba,* "Bidxotza be tauke-tauke deket". □

bidxotzagas. Bondadosamente, tiernamente. || *Bidxotzagas eixu!* □ **bidxotz bakue.** Cruel, inhumano, -a, deslamado, -a. □ **bidxotz sabala.** Generoso, -a, dadivoso, -a. □ **bidxotza erdibittu.** Conmover, partir el corazón, disgustar profundamente.

bidxotzeko, bidxotzekue. (BIHOTZEEKO) Enfermedad del corazón. || *Bidxotzekue deko.* □ *Bihotzekoak joz gero, honela esatan da:* || *Atakie emon tzo.*

bidxotzerre, bidxotzerrie. (BIHOTZERRE, erremín) Ardor, acidez de estómago. Ik. *erretasune, garrastasune.* Erdaratiko hitza ere, *ardorie,* erabiltzen da batzuetan. || *'Bidxotzerrie' da erretasune, gora eitte dabeni.* || *Orrek bidxotzerrie emoten deu.*

bidxurkada, bidxurkadie, biurkadie. (BIHURKADA) Torcedura. *Bidxurkadie* nahiz *biurkadie* esaten da. || *Bidxurkadie ein deu.*

bidxurkadaka. (BIHURKADAKA) Tambaleando, ladeando, zigzagueando. || *Bidxurkadaka: jeusi bai, es.* || *'Alderdike' da alderdi bet, txoridxeri egu apurtzen bautzesu esaten da: "Alderdike dxoik". Egu apurtute alde batera. Da bidxurkadaka doina, batera, da bestera, bixtara doina.*

bidxurkeridxe, bidxurkeridxe. (BIHURKERIA) Torcedura, esguince. || *Santiretu: okertu, ori eitten dana, bidxurtu. Ankan-ero eitten bosu bidxurkeridxe, santiretu esaten da. Apurtu-te barik, santiretu. Txarrau ondiño apurtzi bayo esaten dabe askok dala, sanieu nekes.*

bidxurreridxe, bidxurreridxe. (BIHURRERIA) Torcedura, esguince. || *Bidxurreridxe? Bidxurtu esku edo anki-edo, da arbola adarra nai edoser.*

bidxurtu, biurtu. (BIHURTU) Torcer, retorcer. *Bidxurtu* nahiz *biurtu* esaten da. || *Bidxurtute atara tzat ure erropiri.* || *"Botie ikoldu dok": utzittuten danin, bidxurtute.* || *Bai, gorue. Da liñue tiretu olan, da biurtu te biurtu.* □ *Anka trokatu nahiz bidxurtu egiten da, baina eskuturre beti bidxurtu: || Trokatu ankiri esate dxako, ainkie bidxurtu, edo ori eitte badxako, ba "Anki trokatu", baya "Esku trokatu" esta esaten.*

biei, bieye. (BIGAI, biga-bat.) Becerra, ternera. *Bintxie* ere esan daiteke. || *Txal jaidxoten danien "bieye ein deu, bieye jaidxo da" ixete san, da gero asitxuau danin bintxie.* || *Biaye ala iskue ixen da? || Txala emie bada bieye esate dxako, bintxie ero bieye, bata nei bestie, bidxek esaten dxakos.* || *Urrixi bada, bieie ero bintzi esate tze, da bestie, matxo bada, sekorra.* || *Bieye: txalik ein baku ondiño, eurrako dauna.*

bierraldi, bierraldidxe. (BEHARRALDI) Acometida de trabajo. Ik. *biar ekittaldidxe.* || *Bierraldi galanta ein dxuat! || Bier ekittaldidxe da bierraldidxe eundidxe ein danien, bier ekittaldidxe.*

biestune, bistune. (BEHAZTUN, behazun-bat.) Hiel. || *Personik, nai animalidxek, nai danok dekoguna da, biestune. Biestune pulmoitan egoten da, pulmoi punte baten.* || *Biestune egoten da gibelién.*

bietz, bitz, bitza. (BEHATZ) Dedo del pie. Berriemaile baten arabera, lehen sarri esaten ei zen *eskutako atzak* nahiz *ainketako atzak*, baina oraingo gazteek *atzamarra* edo *bietza* esaten dute: || *Oneri atzamarrari, tte jeneral ainkako bitzari-tte, oingo gastiek ainbeste estabe esaten, baya jeneral 'eskutako atzak', edo 'ainketako atzak'. Bietzak esate dxake jeneral-da, ainketako atzak, edo eskutako atzak. Len asko ibiltte san, lengun-da, oingo gastiek atzamarrak, edo bietzak.* || *Eskukuek dire atzamarrak, da ankakuek bitzak.* || *Bitza deket ondaute.* || *Burutik bitzera labor dxok.* ||

Bitzetik burure luse dok ori. □ **bietzan ganin.** De puntillas. || *Bietzan ganin dabil ori.* □ **bi bittarteku.** Glosopeda, enfermedad epizoótica de los ganados, que se manifiesta por fiebre y por el desarrollo de vesículas o flictenas pequeñas en la boca y entre las pezuñas. Ik. *apatxartekue.* || *Pataridxek eukitten dabe ori, bitzan bittartien eukitten dabena: bi bittarteku. Ganaduk eukitten deu.*

bigerren, biarren. (BIGARREN) Segundo, -a. || *Bigerren tandie.* || *-Bedar eskasa dekosu! -Bai, au biarren kortie da ta eskastxueu dau.* □ **bigarren aittitte.** Tatarabuelo. || *Bigarren aittitte? Bai, aittittetute, biarren aittittetu eskerun. Birriten aittittetute badau, bai.* □ **biarren bierres.** Por segunda vez. □ **bigarren lengusue.** Primo segundo. || *Biarren lengusue? Nik lengusu karnal bat deket da aretatik umitatik etorten dana biarren lengusue.*

bigun, bigune. (BIGUN) 1. Tierno, -a, blando, -a. || *Okela bigune.* || *Artue bigun dau ondiño.* || *Bigun-bigun dau.* || *Troskie da arridxe barik, bigune, or, troska arridxe esate tze askok, apurtu erres eitten dana.* || *Morokil siriñe da urun gitxias einde, bigune.* || *Da otz eitte dabenien, olan negu te eurre, ta denpora otzak eitte dabenien emote dxako osalie arto urunas, da berotxue emote dxakon. Ori ain bigune-ta barik, nauku siku emote dxakon olluri.* || *Baba sorriddxek ortun geuse bigun gustidxe jaten deu.* || *Da gastañakiñ eitte sittuen otzarak, oiñ estaitt eitten baittue baya, onenbeste urte biar ixeten deu, lau-edo, olanik bigun egon deidxen bera.* || *Idxeltze? Ori lelengo sertzen daniñ e esta gogorra ixeten, bigune ixeten da.* 2. Blandamente, con suavidad. || *Biguntxu artu deu.* 3. Fácil de digerir. || *Gogorra dire arek. Gogorak esan gure deu e, sera, dijestiñorako gogorra. Txarra, ba estire onak. Ure ixen bideu... Bigune ixen bideu ure, bai.*

bigundu, biguntzen. (BIGUNDU) 1. Ablandar(se), reblandecer(se); suavizar(se). Ik. *samurtu.* || *Sumie biguntzen da.* || *Oridxu botate sus kollarakada bi edo olanik sarten baten, da eitten dosu berberanie apurtxu bet oridxotan pasau, bigundu deidxen.* || *Makiñie ligorra badau, koipik gosatu eitten deu, bigundu.* || *Artuek umedadie artzen badeu, ba artagaraune ba samurtu, edo bigundu eitten da.* || *Sapaldu lurre, ta satittu, satittu, sati-sati ein, da lurre biguntze ban, da artu erain-edo eitteko sestuas paseta san.* || *Baya ostantzin busterridxe eitte ben, eitten erresau eukitteko, posun beratzen. Iguel illebetiñ edo geidxau. Beratu uretan, bigundu deidxela, askorias gero erres eitteko.* || *Bai, iños jan dot. Baya gogorra da kaskallu bera be. Ondo ipiñi eskero, ba dana biguntzen da baya.* 2. Ablandar(se), enternecer(se). □ **denporie bigundu.** Amainar el mal tiempo. || *Bigundu ein da denporie.*

bigungarri, bigungarridxe. (BIGUNGARRI) Cojín, acolchadura. || *Bigungarridxe ipiñi, ori eurkidxe gogorra da ta.* □ Botilak edo hauts daitekeen beste edozer gauza eraman behar denean, botilen edo direnak direlakoan artean ipintzen denari ere *bigungarridxe* esaten zaio.

biguntasun, biguntasune. (BIGUNTASUN) Suavidad, blandura.

bigunune, bigununie. (BIGUNUNE) Zona blanda. || *Bigununie dxak or.*

bigur, bigurre, bidxurre. (BIHUR) **1.** Torcido, -a. || *Onek eskiña gustidxe bigur-bigur geratzen sin.* || *Arbola bat bada bigurra, da olako adar txiki asko dekona: adapu asko deko.* □ Erdi oker ibiltzen diren lagunei ere *bigurre* esaten zaie. **2.** Atadura que se hacía en el monte retorciendo ramas o lianas. Jotzeko ere erabiltzen zen. Ik. *sumie*. J. R. de Iturrizak honako hauxe diosku honi buruz: “En tiempos antiguos, como los caminos eran más angostos y fregosos, solían conducir de las caserías los cadáveres a las parroquias en narrias tiradas con belortas, que son ramas o zurriagos de árboles retorcidas, llamadas vulgarmente biurrac, por los amigos más queridos de los difuntos, hasta que se inventaron los feretros.” (Historia General de Vizcaya, 149. atala). || *Bigurrek eiñ eitte siren basun aintxiñe, da ba mimenak egon eitte siren berton be, da arek bigurtu, da sokak eitte sirin.* || *Guk orreri esate tzege bigurre. Emen bigurtu eitten dire sepa gastiek, se atrapai eitten dire ostantzin, ba sepa gastiek diriñak, anka aspidxen artzen da, eta asken ebaten dan sati lodixau, da gero bigurtu eitten da eskuas, bigurtu-bigurtu-te, ba txikitxu bada, bat, ba bi eitten dire, alkarreri lotze dxakos, da bigurre esate dxako. Len asko ibilte sirin bigurrek bedarretakoa.* || *Oiñ esta usetan ori be. Len eitte san, egur berdie ixen bi deu, egur berdikin, da lodidxek estiriñakin bigurtu eitte san, da bigurre esate dxakon areri.* || *Arexas eitten di bigurre pe. Aintxiñe sokatzat ibilte sirin bigurrek.* **3.** Travieso, -a, malo, -a. Ik. *geistue, txarra, bidxurre, okerra.* || *Bidxurre: persona okerra.*

bigura, biura, bigurie. (BIGURA, mihura-bat.) Muérdago (*Viscum album*). || *Bigurak orman urteten dabe. Sartute daunin sagarra pe eukitten deu, baya bigurie jeneralien, orman geidxau eoten da. Sagarrak e, untzorridxe-ta bai eukitten deu, baya biguri ainbeste estau eukitten. Da biguri asten da orman, arrisko ormi daun lekun, de jeneral sustreidxe eiteko lurrik espadeu, arek topaten deu.* || *Bigurie aprobetxeten da, ganadu batek, bei batek txala eitten dabenien, da beidxe garbittu esiñik dauenien loidxas, garbittu esiñik dauenien, ba egoste dxakos, orrixen bigurak, orrixen atziek, orren, orrixen ormiri atzie apartau, da egosi, da axe ure emote dxako beidxeri, garbittu deidxen.* || *Bigura pe arbolan gora igoten dabe.* || *Biura sagarrak eukitten deu. Ori be txarra da, esta ona arbolantzako.* ||

Durdurak etorten dire... Orrek sagarren bigurak jate ittues arek. Bigurie bakixu ser dan? Sagarrari urtete tzen arek. Arek sagarra txupeten dabe dana. Da orrek bigura jaten etorten di durdurak.

bigurrune, bigurrunie. (BIHURRONE) Parte retorcida.

bigurtu, bigurtzen. (BIHURTU) **1.** Torcer, retorcer. || *Erropie bigurtu.* || *Sumi da ori palue, bigurtzen dana.* || *Guk orreri esate tzege bigurre. Emen bigurtu eitten dire sepa gastiek.* **2.** Convertir(se), transformar(se), volver(se). || *Aren esanetara bigurtute dau.*

bije, bijie. (BIJA, bidaia-bat.) Viaje, visita. Ik. *ostera.* || *Geur tokaten dxaku alarguneri bije bat eittie nobenie amaittu orduko.* || *Bije lusie euki dot.* || *Tomas errotarridxe kaballu bias astin bija bat eitte ban.* || *Bijara doye.* || *Bai, eskondu te bijan juten diriñin: “Diadekanpo jun dire”.* || *Jornadi da burdidxe kargeten dabe bedarras, jornada bedarra. Edo jornada aspiarridxe. Osterie, bijie.* || *Australian kamioyas nik ainbeste bija eitte naben ollo korotzetan granjara. An granja ikeragarridxe!*

bijilidxe. (BIJILIA) Vigilia. □ **bijilidxe ein.** Hacer abstinencia.

bijutz, bijutze. (BIJA-HUTS, bidaia-huts-bat.) Viaje en balde. || *‘Bijutze’ da jun, de alperrik etortie: “A, bijutze dxuatek oin be!”*

biki, bikidxe. (BIKI) Gemelo, -a, mellizo, -a. Ik. *bikotxa.* || *Orrek bikidxe dire.* || *Jaidxokerakuk-eta bai, badire, bikoti barik ordun bikidxe (esaten da). Da iru badire irukotxak.* || *Laukidxe da bikidxe ixeti les. Lau ume jaidxoten badi, laukidxe. Da bi jaidxoten badi, bikidxe. Da iru badi, irukidxe. Olan esaten da. Bateri etxako esaten bakidxe, espabe bateri ba, umie.*

biko, bikue. (BIKO) **1.** De dos, doble; binario, -a. || *Arrautza gorringo bikue.* || *Banaku: ba banan-banan datosena, fruti nai e..., ba sagarra be jeneral banan-banan egoten da. Madaridxe be, bai madaridxe bikue eoten dire. Baya banan-banan daun geuseri esate dxako ba banaku, banan-banan.* || *Tabanu eulidxe lakoxe, ixeten da eulidxe bayo ba biku edo irukue ixengo da eundidxaue.* **2.** Dos (en el juego de las cartas). || *Biko espatie, urrie, kopie, bastue.* **3.** Doble, dos veces (más). || *Tabanu eulidxe lakoxe, ixeten da eulidxe bayo ba biku edo irukue ixengo da eundidxaue.*

bikote, bikotie. (BIKOTE) Pareja. Ik. *parejie.* || *Bikotie? Bai, dantzan-edo ibil eskerun, bikotie.*

bikotx, bikotxa. (BIKOTX, bikoitz-bat.) **1.** Doble. || *Busterri bikotxa.* || *Da sagarrak jeneralin bat ero bi. Da iguel eukitte ittus e sagarrak bi-ero, bakotxin bik eta, “Jo, bikotxak dxekosak!” sagarrak.* **2.** Gemelo, a, mellizo, -a. Ik. *bikidxe.*

Bilbo. (BILBO) Bilbo.

bilbotar, bilbotarra. (BILBOTAR) Bilbaíno, -a.

bildril, bildrille. (BILDRIL) Jirón, pingajo, piltrafa.
|| *Selako brildrillek!* || *Sebo brildril batzuk? Bai, sebue ganadu iltten dabeniñ e sesiñek eukitten deu. Bildril batzuk e sati txiki batzu tire.* || *Brildrillek? Geuse apurrek-edo, ondakiñek-edo.*

bildur, bildurre, bildurre, billurre. (BILDUR, beldur-bat.) Miedo, temor. || *Ikusteko bildurre.* || *Bildurre emon, euki, sartu.* || *Bildurre deutze.* || *Nik bildurri parik edaten yuat au.* || *Andik nator bildurres beterik.* || *Orrek esteko bildurrik.* || *Suek artuko daben bildurre deko.* || *Jan! Jan billur parik!* ☐ **bildur**

bakue. Valiente, intrépido, -a, sin miedo. ☐ **bildur ixen.** Temer, tener miedo. || *Bildur da iñok ikusteko.*

bildurgarri, bildurgarridxe. (BILDURGARRI, beldurgarri-bat.) Terrible, temible, aterrador, -a, espantoso, -a. Ik. *ikeragarridxe.*

bilddurti, bilddurtidxe, billurtidxe. (BILDURTI, beldurgarri-bat., izuti) Miedoso, -a.

bilddurtu, billurtu. (BILDURTU, beldurtu-bat.) Atemorizar(se), aterrar(se). Ik. *uxokau.* || *Bilddurtu ein nas.* || *Bilddurtute dabil.*

bilinbolo, bilinbolue. (BILINBOLO) Renacuajo. || *Posu eoten dana, bilinbolu, olan. Da gero sapotu eitten dire, lusero dauseniñ ainkatxuk urtete tze, da gero ba bustena be jeusi eitte dxako, da sapuk paretan dire.* || *Bilinboluk, eta sapaburuk bat tire. Aintxiñekuek, lengo personak..., guk bilinbolu ikesi gendun, da esan dot bai, baya, sapaburuek oinguk bayo geidxau esate ben.* || *Sapaburu be esate dxake sapo kuna payo eumditxuauk tiriñin. Da emen sapaburu bayo geidxau esate dxake bilinbolu.*

bilin-boloka, billin-bolaka. (BILIN-BOLOKA) Dando volteretas. Ik. *kakalamuxke.* Bietara esaten da, *bilin-boloka nahiz bilin-bolaka.* || *Bilin-boloka: burue ipiñi beyen, da buelta emon.*

billafranka. Cierta variedad de manzana.

bille. (BILA, xerka) En busca de. || *Bille ibilli nas, da lortu dot.* || *Kaixak-eta bille etorri dire Pamplonatik.* || *Ardidxe kortan dekegus gordeta, da etorri bille.* || *On bille dabil, obie topetan.* || *Pittin-pittiñ etorten da seosen bille.* || *Ur bille uren galde doiñari esate dxako: "Ur bille jun da".* || *Gu jute gara san junetan ormen ipinteko. Elorri suridxe daus, lantzin leku baten, lantzin bat e! Gitxi e! Da arexen bille, kurtzieri sartzeko, elor suridxe.*

billosik. (BILOZIK, biluzik-bat.) Desnudo, -a. Ik. *narru gorridxen.* || *"Arbolie sostortute gelditzen da": Arridxe ein de ba... ser esangot neuk...?, arbolie isten deu ba billosik les-edo. Orridxe kentze tzo, orridxe ta adar kimutxu pe iguel, olan e denporali dauniñ e, denporale txarra dauniñ e.*

billostu. (BILOZTU, biluzik-bat.) Desnudar(se).

billotz, billotza. (BILDOTS, axuri) Cordero. Ik. *artxue.* || *Urteko billotza.* || *Emen usete ben billotzen sera (taba).* || *Danok egon giñen adurretan billotz tostae jateko.* || *Billotzak iltten ittusanin, aren estikas-da eitten dana da tripotxa.* || *Urte billotza-edo, eurrerako dauna-edo, apartaute dauna-edo, se billotzak jeneral ardidxeri kentze dxakes urti-tte bayo ariñau, asko be, beiñ e ba lau illabete, bost illabete, geidxenes sei illabete, da urteko billotzik, ya urtera jutun danien, ya billotza, ya billotza artzeko sasoi deu berak.*

binagre, binagrie. (BINAGRE, ozipin) Vinagre.

binke. (BEINKE) Ciertamente, así es. Entzundakoa baieztatzeko esaten da. Emiliano Arriagak *bienque* batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Expresión socarrona de asentimiento, que equivale a *jya lo creo!*". || *'Binke' esan eitten da, erresoye topetako lekun, erresoye..., erresora juteko modun daunin-edo binke be, "Erresoi deko"-edo.*

biokie. (BEHOKA) Potra, potranca. || *Biokie? Bioki bai, biorrari. Bigor gastiri biokie.*

bior, biorra. (BEHOR) Yegua. || *Da oneri kaballuri, biorra, emie, da bestie da..., kaballue danak dire, kaballue da emie, biorra da, da bestie enterue.*

birgixin, birgixiñe, birgitxiñe. (BIRGIZIN, bergizen-bat.) Enfermedad de las manzanas. || *Sano estaunin sagarra, garaune, "Birgixiñe deko" esaten da.* || *Birgixiñe sagarrak eukitten dabe barruen, seinde, leidxe pasatu balego les; esaten da: "Birgixine deko."* || *Birgitxiñe, sagarrak egote dire, garauek sagar arboliek, birgitxiñe esaten danak eukite itu garauek, ure geidxen eukite dabe arek, ta mutikotan-da posik jate gendusen arek. Beste sagarra pe posik jate gendusen, ur askokuek. Da birgitxiñe esate geuntzen areri.* || *Birgitxiñe ixeten da: sagarrak eukitten deu onako..., barruen ainka einde, barruen olan berdedunekadi-edo, arixeri berdedunekadiri esate dxako birgitxiñe.* || *Birgixiñe da sagarrari eitte dxakona, barruen.*

biri, biridxe. (BIRI) Pulmón. || *Biridxetako gatxa.* || *Aintxiñe sesiñe eitte sanin be, ya biridxe esan gure ixeten jateko.* || *Biridxe: ganaduk eukitten deu, ori eukitten deu, ba se esangot neuk..., orrek partik-edo, gibela ta biridxe-ta, orrek alkarren urrien eukite itu.* || *Biridxe? Bueno txarrixena da beidxena jeneral txakurreri emote dxako. Geuriñ emote tzeu behintzat da beste leku batzutan be emongo dxako.*

biribil, biribile. (BIRIBIL) Redondo, a. || *Arri biribilek.* || *Piñuek erdidxen eukitten dabena? A, olako makillatxu lako biribiltxu bat? Bueno..., nik arerixe estaitt gidxerik esate badxako, baya ba bakitt ser eukitten daben, a biribiltxu goitti bera.* || *Orrek e olan biribilleniñ asten diriñ olakuek? Seinde orreri muittak esate tzeu e.* || *A sakutu da. Jeneraliñ e, oin be one*

biribillin dausen geusak sakutu esate tzeu guk. || Kantori parik, biribil.

biribildu, biribiltzen. (BIRIBILDU) Redondear(se), tomar o dar forma redonda. || *Kirikidxolatza biribildu eitten da, eser estrapesurik, da eser topau eskerun, da eser ikusi eskerun, a biribildute gelditzen da, arantza utzin. || Baya kirikidxolatza bakitt selan biribiltzen dan, ikusitte dekot. Uretan sabaltzen da, uretara botata. || Kirikidxolatza biribiltzen da, dana arantzia.*

biribilke. (BIRIBILKA) Dando vueltas, rodando, girando. ☐ Esate baterako, aldapan behera harri biribila edo gazta edo dena delakoa botaz gero, honela esaten da: || *Biribilke doye.*

biribilketa, biribilketie. (BIRIBILKETA) Corro.

biribileka. (BIRIBILEKA) Dando vueltas, rodando, girando. || *Sorabidxau e biribileka dabillega be eitten da.*

biridxetako, biridxetakue, birixtakue. (BIRIETAKO) Enfermedad de los pulmones. Berba hau animaliekin erabili ei da eta lagunekin *bularretikue*. || *Biridxetaku ainbeste etxako esaten, pulmonidxe.*

birike, birikie. (BIRIKA) Carne maleada que brota de un miembro llagado. || *Biriki da granue, barruen, apatxen barrun urtete tzena. Da a ein bi da garbittu de orrek betenaidxuk... Erradori pe bai. Erradori berak eitten deu. Garbittu dana, ta a ebei, te gero botiki ein, erreteko. || Biriki: an urtete tze or, da tontor eitte dxakue, da gero kojo oten die beidxe pe. || Baya au apatxetakue, birikie ta orre pe eukitte ittue apatxetan.*

birjiñe, birjiñie. (BIRJINA) Virgen. ☐ **ama birjiñie.** Virgen María. || *Begoñako Ama Birjiñie. || Erregutu tzet Ama Birjiñiri.*

birtute, birtutie. (BERTUTE) Virtud, don. || *Birtute oneku da.*

biro, birue. (BIRO) Buche de aves. || *Birue bete. || Birue da olluk eukitten dabena, iruntzi, tte olanik amen.*

birrin, birriñe. (BIRRIN) **1.** Salvado de la segunda criba. Ik. *saidxe*. || *Birriñe seidxen antzekue da, uruneri eralgittekun apartaten dxakona. || Garidxeri lelengo saidxe kentzen dxako, errotan idxota, gero birriñe, da gero eitten dogu ogidxe. || Birriñek das saidxen klase lakue. Birriñe da, xeyau isten da birriñe. || Birriñe urun ligorra da. Pentzureko. || Saidxe san atal aundidxaue. Da birriñe san seye. Da oiñ e saidxe eskatzen dxako danari. Oin birriñik iñok e aittetu bes.* **2.** Brizna. || *Galtzu botate dxako osaliri, soltie, gero dijestiñoyen plantau deidxen. Galtzue. Galtzo birriñek, galtzu botaten badetzesu ba, gero besti, osali bera, masi da les, dijestiño laguntzeko.*

birrindu. (BIRRINDU) Deshacer(se), hacer pedazos, destrozar, destruir, hacer añicos. Sin. *triskau*. || *Basue birrindu ein da. || 'Triskau' da dana birrindu eitti, apurtu. Trisketi da satittu, "Triskau dxok dana!". Da gero erreten danien satza, olanik geuse, se esangot*

neuk?, arturi botate dxakon, baya ortutarako-ta satza jo eitte san, jo, da birrindu. Da satz seye.

birrittekaldis. (BIRRITAKO ALDIZ) Dos veces. Sin. *birriten*. || *Birrittekaldis esan deu.*

birritten. (BIRRITAN) Dos veces. || *Birritten egon nas Durangon. || Birritten ikusitte deket orrek, olanik kasan junde. || Anbotoko señorik berritten urteten deu andik, beren atxegi sulotik. || Neu baten Bilbon naturiste bategana jun netzen, da aseri bedarrak egosi tte axe bedarran ure artzeko esausten. Da ni barreska eon nitzen etzera etorritte be. Da tire ba, baten edo birritten artu naben, baya enaben geidxau artu.*

birrotxa, birrotxie. (BIRROTXA) Vieja, estropeada, floja; soltera vieja. || *Birrotxie da, sarra da ta. || Birrotxiori! ☐ Hazi ez den animaliarri ere horrela esaten zaio: || Birrotxa garbidxe ixen bi da, esta asten da.*

birsai, birsaidxe. (BIRZAH) Moyuelo, salvado muy fino, el último que se separa de la harina. || *Birsaidxe? Orrek itxi ban e... urune, gero birsaidxe, ta saidxe atzenengo etorte san. Birsaidxe da fiñauue saidxe bayo.*

biskai. (BIZKAIA) Bizkaia. ☐ **biskai gastañie.** Variedad de castaña de pequeño tamaño. || *Ori biskai gastañi esan dosuna, ori be bai, txikitxu ixeten da. || Biskai gastañi besti payo txikitxuuu ixeten da.*

biskaiko, biskaikue. (BIZKAIKO) Vizcaíno, -a.

biskaittar, biskaittarra. (BIZKAITAR) Vizcaíno, -a. || *Biskaittar euskerie.*

bisker, biskerra. (BIZKAR) **1.** Lomo: parte inferior y central de la espalda. || *Lepo asurre biskerrari esate tzeu. || Asur sati bet ekarrixu biskerrera! 2.* Loma, colina. Ik. *espaldie*. || *Mendi biskerra.*

biskerrasur, biskerrasurre. (BIZKARREZUR) Espinazo. Hezurrari *biskarrasurre* esaten zaio edo *biskarra* bakarrik. Ik. *errosaridxoko asurre*. || *Biskarrasurre etxequat ondo! || Biskarrasurretik sufriten nak. || Biskerrasurre ekarrixu! || Da iños entzu dosu beidxek eskillatan gora igon leidxenik? E? Bai! Antxe mendidxen, Airo bakixu nun daun? Antxe alde ein de gero, beidxek igon eskillatan gora, eta gero koltzien, esan tzutena, eta apurtu ben kakiolak eta bera jeusi, ta biskerrasurre apurte ilde topau ben.*

bisko, biskue. (BIZKO) Bizco, -a, bisojo, -a, persona que padece estrabismo. || *Seinde biskue, begi okerra dekosenari bisku esate dxako, emen jeneralin beintzet.*

biskollara, biskollarie. (BIHOTZ-KOILARA) Boca del estomago. || *Biskollarie? Ba estaitt ser dan, biskollarie lengo andrak esate ben, baya estomangu... e nik estaitt ser dan biskolari ori. Gure ama sana pe esate ban "AI, biskollarako miñe deket!", baya nik estaitt nun eoten dan bes, biskolari ori. Ori lengo berbi da.*

biskor, biskorra. (BIZKOR) **1.** Pronto, temprano, prontamente. Esate baterako berbetan goiz hasten den

umeaz esaten da: *Berbetan biskor dator*. **2.** Ágil, rápido, -a; listo, -a, despierto, -a, vivo, -a. || *Begi biskorrek dekos*. || *Len biskorra ixen dok, baya oin sortute dxak*. || *Nagi bakue biskorra danari esate dxako*. || *Trastie? "Au dok trastie!" igul esaten da. Se e... igul pataridxe biskorra ero ajille-ero bada be, "Jo, auri dok trastie!"*.

biskortasun, biskortasune. (BIZKORTASUN) Fortaleza, vigor.

biskortu, biskortzen. (BIZKORTU) Fortalecer(se), avivar(se), animar(se); (hacer) recobrar la salud; agilizar(se), acelerar(se). || *Biskortzen bada: "Efetue ein tzek orreri be edaridxe"*. || *Apurtxu bet biskortute daunari esate tze "Txolindute dabil"*. || *Alakuk (aseri bustenak) pa neu pe iñois batu tzet, da egosi, da aixen ure edan, nerbidxuk kalmetako ixeten dire, baya nik pentzetot ori nerbidxuk kalmetako barik, nerbidxuk biskortzeko ixengo da*. □ Patxadan dabilenagatik honela esaten da: || *Biskortu saitte!*

bistatu, bstatzen. (BISTATU) Aparecer a la vista. || *Bistatu: bide baten jun, de iksuten estan geusi-edo agertzen bada, ba bistatu. Bistatu ein du mendidxe-edo, solu-edo*. || *Baya euskialdixek eitten deu lañopiñ egon, da gero bistatu, atzera lañu, atzera bistatu, da ori da euskialdixek*.

biste, bistie. (BISTA) **1.** Vista. || *Bisti galdu deu*. || *Biste gitxikue da*. || *"Begidxe lausotu dxakos": ba bisti galdu, gitxiau ikusi-edo, lausotute*. **2.** Panorama. vista. || *Geur biste laburre daket, geur kañe dak*. □

bistakue. Que salta a la vista. || *Ori bistakue da*. □

bistan. A la vista. Ik. *agiridxen*. || *Bistan ipiñi*. || *Bistan ibilli*. || *Amendixek bistan dau ba!* || *Masandei baserrixek da, emendixi be bistan dau*. || *Geusie bistan dao ikusi gure dabenentzako*. || *Amen e bistan estau, se ostantzin selaku dan erakutziko neuskisu*. || *Bistan ein, eskutuen barik!* || *Begidxen bistatik kendu ori!* || *Otz sanin, beres ilte sanen gorpue, a ilte sanin, orduntxe gabiñ eitte dxaken gaubelie*. *Baya gorpue jentin bistan e san egoten. Gorpue egote san beren kuartuen*. || *Aren (Iñuidxako leixie) ondue estau bistan*. || *Da ernamiñin dauna ya eoten da lurriñ apurtxut, es-bai, olan bistan eoten da, artu ba alantxik eoten da, da "Ernamiñin dau" esate tzeu*. || *Tximinidxe be ojalatias sarratute dekeu. Emen bistan esteko, baya ojalati deko goitxuen, da estau su eitteko modun be*. || *Bai, ba ser dala esangot? Umiri, igul ibiltten dire erdi praka barik, prakakin be igul, baya ba "Or dabil e eperdidxe bistan"-edo*. || *Len orrek piñurik es ekon. Da ordun ba, jolin, esin leidxen esan basamortu. Da oiñ e "Jolin, basamortu garbidxe plantau ok", se dana tapaute, albo gusti, eser bistan es*. || *A be sami bistan eukitten dabenak? Badaus ollo klase batzuk, au burun asi ta samie dana bistan eukitten dabena, lumeri barik*. □

biste-bistan. Que salta a la vista. □ **bistera.** Aparecer, mostrarse. || *Allegau da bistera*. || *Bistera etorri da*. || *Bistera eldu da*. || *Autortu esaten da geusa ixilleko bat agertzen danién, urtetén dabenin bistara, ba "Ixilik on da, baya autortu deu", autortu da, agertu da*. □

bistetik kendu. Quitar de la vista. || *Bistetik kendu!*

bisteratu. (BISTARATU) Manifestar(se), hacer(se) patente. || *Paguk aste ittu, ser esangot?, paguna, esate baterako, bi les eitten dire, da sabaldu eitte dxako eskurre bisteratute*.

bistu. (BIZTU, piztu-bat.) **1.** Encender(se). Ik. *ixotu*. || *Beko sue bistu*. || *Da iguel istosu brasie mendidxen: "Kaguen, bistu ein dxok atzera!" Amataute deula bistu ein ddok atzera*. **2.** Enfadar(se). Ik. *bixittu*. || *Bixittu personie eitten da. Igul seoser esan, da gustau es: Bistu ein da, bixittu*. **3.** Fortalecer, reforzar, reavivar (una planta). || *Ollo korotza onena! Edosetako, jeneru e... artzeko, baya urridxe. Ollo korotza modukorik estau esebe jeneru bisteko. Au beste... simeurren aldiñ ona*. □ **sorri bistue.** Nuevo rico, enriquecido de repente. Ik- *sorri aberastue*. || *Ori da sorri bistue!*

Bitturidxe. Vitoria-Gasteiz. || *Bituridxe aldien*.

bittarte, bittartie. (BITARTE) **1.** Intervalo, espacio intermedio. || *Bittarteko atie*. || *Bittarteko satidxe*. || *Kale bittartie*. || *Etze bittartien*. || *Arto bittartie*. || *Bittartitan euskidxe urtetén deu*. || *Ate bittartetik begire dau*. || *Iferraixie Frantzi partetik dator, nortetik estera bittartetik*. || *Gerniketiek Nabarnixera bittartie*. || *Karrajue da bittarte bat, olan, sein de, tunelaren antzera deuna, karrajue esate tzau. Etze bin bittartien iguel egongo dire iru metro ta karrajue areri*. || *Ori auresku, korrún eitte sana, da bat e lelengo ta bestí askanengo, ta beste danak bidxen bittartin. Atzesku da auresku bik eitten dabe. Da batac auresku eitten deu, lelengo eitten deunak. Da gero bigarena, atzeskue*. || *Bost eguneko bittartie deko*. || *Arrola Goikue (baserrixek) Mendata da, bertan deu bittartie, baya ya Mendata da*. || *Sirrikillue bittarte bat da*. || *Apatxetaku bai, apatx bittarteku te esateu, bittarteku esate tzeu guk. Olan igul ganadu len egote sin, bittarteku, eitte dxakon olako bitterti solittu, da bittarteku deko ta kurau eitte san, erun perratokire ta. Perradori esan, guk perradori esate tzeu, erradori beste batzuk*. || *Or sarri eitten deu urek ondatu. Arri bittartie kontixu topeten deu, da ure korrienten datorrenak, aspittiek datorrenak gero kabeten tzo bera da goidxe bera, sulue bera*. || *Bittartiek e onexen tamañoko sabaleri eukitte ban*. || *Aska sarrak-eta dekesenak, ganbeli beti len usete san. Oiñ e guk geu pe porlana dekeus, da porlanie, bota arren pentzue, ondo batze ittue. Baya lengo aska sarretan, danak bittartiek eta karkabi te orrek da ganbeli imintte dxakuen*. **2.** Intercesión. || *Aren bittartes*. □ **arri bittartie.** Lugar entre piedras.

|| *Pendixe da, leku txarra da ori, leku txar bat, biar eitteko leku txarra da pendixe. Biar eitteko baso bat-edo txarra dauna, pendixe. Peligrosue. Goitti beran, edo leku altu-bajuek edo arri bittartiek edo miñ eitteko moduko leku dauselako.* ☐ **mujo bittartie.** Terreno acotado por mojonos. || *Lugana ein dabe mujo bittartie jakitteko. || Igul beittu, esta? Ta "Bueno, orreri soki be bota leidxo!". Aintxiñe esate san. Susen es. Bakixu mujo bittartie da andik ona susen. Da kodaña barru ebeitte. "Orreri soki be bota leidxo!". Aintxiñe esakeri. Ondo estaulako ebeitte. Oker ebeitte, subi moduen.*

bittarteko, bittartekue. (BITARTEKO) Glosopeda, enfermedad epizootica de los ganados, que se manifiesta por fiebre y por el desarrollo de vesículas o flictenas pequeñas en la boca y entre las pezuñas. Sin. *apatxetakue, apatxartekue, apatx bittartekue, bi bittarteku, porrilla..* || *Bittartekue da ganaduk eukitten daben e... geixo bat, apatxetan eukitten daben geixo bat.* || *Apatx bittarteku esate tzeu orreri. Apatx bittartiñ eitte dxakue solittu. Da len e ganaduek udebarridxen eitte dxakon ori asko ganera. "Kaguen, se pasate dxakok?", "Apatx bittarteku dxekok". Apatx bidxen bittartie eukitte ben, au bittartiau emen ebeitte, solittu, apatx bittarteku.*

bittartien. (BITARTEAN) Entre, entre medio (de). || *Gu len mutikotan jun orra, beko kobara, da arri bittartien atrapatzen gendusen orrek sagusarrak.*

bitxue. (BITXO) Bicho. || *Ori da bitxue!*

bitz, bitze. (BITS, apar) Espuma, espumarajo. || *Esne bitze. || Bitz txikidxen. || Bitze atara. || Bitz askoko ardaue. || Bitze deko. || Bitze ein dxako. || Bitz ederra ein dxako. || Bitze botaten deu ardidxek. || Bitze lelengo sertzen dana, a bitze kendu. Esnie egote san latzinen len da a bitze kollarias kendu ta katuri emon, da gero kipurrie formate san, kipurre ederra. || Bitze da serbesiek ataraten deuna: "-Bitze ederra dxekok onek". || Bitze: edoser gauzeri erein, da bitzek urteten deu. || Pikorra musturrien (naparreidxas). Da bitze botaten dabe. Ba argaldu eitten dabe. Ill estire eitten.*

Guri etxakun bape il. ☐ **bitze atara.** Consumir, exprimir. || *Bei sar bat, beidxeri, ya sartute, dana ondo txupeute eitten danari, orreri be: "Bitze atarata dxak ori be!". Ondo aprobetxante.* ☐ **bitzen ganin.** Muy contento, -a. Hau ez da nahasi behar *bietzan ganin* formarekin. || *Bitzen ganin dabil ori. || "Uren ganeko bitzien dabix arek": ondo bixi diriñagaittik-edo ba esaten da ori.* ☐ **bitzetan. 1.** Echando espuma por la boca. || *Bitzetan egoten di ganaduk. || 'Bitzetan' da adurretan egoti les. 2.* (Muy) contento, radiante de alegría. || *Poskaridxas bitzetan dxak!*

bitzadorie. (BITSADERA) Espumadera. Gaur egun *pasadora* esaten da gehiago. || *Esnie pasau ixu bitzadorin!*

bitzokol, bitzokola. (BEHATZ-OSKOL) Uña del pie. Ik. *atzokola.*

bitzuk. (BITZUK) Dos, un par. || *Praka bitzuk. || Antioju bitzuk. || Arik, guriñ oin be badas bitzuk sabaidxen.*

biurkeridxe. (BIHURKERIA) Torcedura. Ik. *santiretue.*

bix. Voz para llamar a los gatos. || *Bix-bix-bix-bix!*

bixer, bixerra. (BIZAR) **1.** Barba. || *Bixerra kentzeko makiñie. || Orrek esteko bixerrik. 2.* Pelo del cuerpo. || *Ankako bixerrik. || Besoko bixerrik. 3.* Cerda, pelo del cerdo o jabalí. || *Txarridxen bixerrik. 4.* Barba, arista (de vegetales). || *Arto bixerra. || Bueno, bai, ori emen esta ixeten ori ser ori, garidxori, burun e bixerra lakuk botate ittuna. Baya amen esta ori eraitten. || Bueno gari gorridxe badau eta ser esangot neuk? Are pe estau e bixarrik ibiltten gari gorridxe pe. || Mispilli da, ba se esangot neuk?, aundidxe be esta, olanik, olakoxi pai; eukitte itue bost... bixertxu esate gentzen, olantxik bueltatxu, eukitte ittunak olako pistatxu lakoxik, txikitxu batzuk eukitte sittuen, aren parien eukitte ben asurtxu, bost asurtxu, bost bixartxu, da bost asurtxu. Da eurek aundidxek estire, txikidxek dire.* ☐

bixer bakue. 1. Sin barba (referido a cereales). **2.** Imberbe, que no tiene barba. ☐ **gari bixar bakue.**

Tipo de trigo sin argaya. ☐ **bixerra kendu.** Afeitar(se).

bixerdun, bixerdune. (BIZARDUN) **1.** Barbudo, -a. || *Guk e bixerra dekonari, bai, bixerdune esate tzeu. 2..* Que tiene barba (referido a cereales). || *Gari bixerdune.* ☐ **gari bixardune.** Tipo de trigo con argaya. || *Gari bixardune ligorra ixate san, da eskutan be inkau eitte san. Da bixar baku ibiltte san jeneral onetan. || Amen geidxen despresiate dana bixerdune sala pentzatot nik. Ligorra ixate san a.*

bixertzu, bixertzue. (BIZARTSU) **1.** Barbudo, -a, que tiene mucha barba. **2.** Cerdudo, -a, peludo, -a. || *Bixertzue da txarridxe.*

1. bixi, bixi ixen. (BIZI IZAN) Vivir. || *Bixitzeko gogue. || Urte askotan bixi nas emen Nabarnixen. || Bueno, ume bat jaidxoten daniñ e, bixi ixeteko etxurerik espadeko, pentzaten badabe ba "Il ein bi deu, esteu bixi bier", ba etzeko bautismue emote dxako.*

2. bixi. (BIZI) **1.** Vida. || *Olanik ixen da emengo bixidxe. || Bixidxas pagauko su ori! 2.* Vida, existencia. || *Etxuat ikusi gixon txarraurik nire bixidxen. || Karakola bixi laburrekue dala pentzetot.*

3 bixi, bixidxe. (BIZI) **1.** Vivo, que tiene vida. **2.** Vivo, intenso, vigoroso, fuerte, rápido. Ant. *pattala.* || *Gorri bixidxe. || Su bixidxe. || Kare bixidxe. || Ur bixidxek. || Bixidxe danari odolberokue esate dxako. || Karabidxek sue bi deu bixidxe, garra, a arridxe*

erretoko. || *Ardillak dire bixidzek!* || *Odol bakue illeri, personi bixidxe barik, ille, "Odolik etxekok orrek odolik!"*. || *Urek bixi dabis.* || *Egurrek errete siriñin be brasie ya, brasie bixidxe egon barik, makaldu ein bi deu.* || *Jagi bixidxe dxok orrek (pelotiek)!* || *"Bos lodidxe deko": solidxe da altu-edo, Edo "Soli eitten deu berba", baya berba bixi eitten dabenari, solidxe.* **3.** Vivo, -a, de sabor fuerte. || *Esta gasi be (goraberie), a garratza be-esta, baya apurtxu bixitxu da bai.* || *Baya garratza esate dxako jeneralien, ardaue mingotxa badau, esate dxako garratza. Bai, garratza sagarrari be. Da beste batzuk esate tze mingotza. A bixidxe, garratza.*

bixi-alargun, bixi-alargune. (BIZI-ALARGUN) Persona que vive separada de su cónyuge. || *Bixi-alargune? Ba eskondunekuek, apartaute dasenak, bixi-alargunek.* || *Bixi-alargunek tire.*

bixi-alargundu. (BIZI-ALARGUNDU) Separarse (los esposos). || *Bixi-alargundute? Bai, baya alargundute beres, normalin barik, eurek bata bestias ba ser esangot nik? Alargundute-edo, moteldute-edo, alkarrengana juten estiñak-edo.*

bixibide, bixibidie. (BIZIBIDE) Sustento, modo de ganarse la vida o de alimentarse. || *Esta an bixibiderik.*

bixidxen, bixidxena. (BIZIEN, minbizi) Cáncer (enfermedad). *Kanserra* be esaten da. || *Bixidxena deko.* || *Bixidxenas il da.* || *Bixidxenas dau geixorik.*

bixidxo, bixidxue. (BIZIO) Lombriz intestinal. || *Umik bixidxuk eukitte ittunin, guk e len mantzeliñ ure emote gentzon.* || *Bueno, ori berakatz ure umiri bayo nausidxauroi geidxau emote dxaken. Nausidxauroi ba emote dxaken ori berakatz ure, bixidxuk ilteko.* □ Ondoren azaltzen da umei zer ematen zaien *bixidxuek* hiltzeko: || *Bai, berakatz be bai, uretara botata. Berakatz surittu, da uretara bota, ta axe ure edan erain bi xate dxakon umiri.*

bixigu, bixigue. (BISIGU, arrosel) Besugo (*Pagellus centrodontus*). *Besigue* ere esaten da.

bixikleta, bixikletie. (BIZIKLETA, txirrindu) Bicicleta. Ik. *belosipedue*.

bixikletero, bixikleterue. (BIZIKLETERO, bizikletari-bat.) Ciclista.

bixileku, bixilekue. (BIZILEKU) Morada, vivienda, domicilio. || *Etzi topetan dabixenak esaten dabe: "Bixilekutxu bet".* || *Aintxiñeko bixilekuk topau sittuen Arrolan, baya es idi narru bete urre.* || *Euren bixileku an deke.*

biximodu, biximodue. (BIZIMODU) Vida, modo de vivir, estado. || *Biximodu txarra.* || *Oingo biximodue lengue bayo trankillaue edo, jentie... diruas, jantzidxas da janas obeto gabis danok.* || *Emon tzo arraiñen biximodue ikisteri.* || *Biximodu latza ixexok a pe!* || *Eser faltarik esposu, "Orrek etxok etziñ e esik", "Latz estok bixi ori". Da beste bat ba bixi bada*

txarto-edo, "Ño, biximodu gogorra dxok orrek!", "Latza dxak orrek biximodue!". || *Biximodu eskasa sabillek.*

bixirik. (BIZIRIK) Vivo. || *Bixi-bixirik.* || *Batzuk bixirik urtete dabe, baya gitxik.* || *Papardue arraindunek ekarte ban. Bixiri pe es ittun ekarten, baya seinde bixirik balego les, arek atrapau te, itxosun atrapau te segidxen les ekarte sittuen.*

bixitasun, bixitasune. (BIZITASUN) **1.** Mal genio, colera. Ik. *odola.* || *Bixitasunik esteko.* **2.** Acidez. || *'Gasie' da ille, 'gasie' esate dxako a bixitasunik, mingostasunik estekonari. Batzuri gasi gustaten dxake, bestiei mingotza.*

bixitau, bixittetan. (BISITAU, bisitatu-bat.) Visitar. || *Bixittetan jun.* || *Bixitau dot.* || *Aintxiñeko kontuek dire orrek, oiñ estau olakorik baya ume txikitxuk igul, esta?, da baten batzuk jun, ba bixittetan, aik ikusten, da gero umik negarres igul aldetakun: "Begiskue ein tzo!"*

bixitte, bixittie. (BISITA) Visita. || *Geur bixite bat ein bi tzagu amari.*

bixittu. (BIZITU) **1.** Avivar(se), hacer(se) más vivo. || *Mendixen sue artu esinde badau, gasoliñie edo...: "Bixittu idxok!"* **2.** Enfadar(se). Ik. *bistu.* || *Bixittu personie eitten da. Igul seoser esan, da gustau es: Bistu ein da, bixittu.*

bixitze, bixitzie. (BIZITZA) Cada una de las viviendas de una casa. || *Bixitze biko etzie.* || *Bixitze bi daus emen.* || *Ba ostantziñ e len berton be etzondutan sei tte sortzi meta-ta bueltan egote siren. Barrun kabiten es, da kanpun ein. Eitte basen. Se askok e etze bixitza bikuk sabaidxe-eta txikidzek eukitte ittu ba bintzako.*

bixutz, bixutze. (BISUTS) Ventisca, llovizna. Ez da asko entzuten Nabarnizen eta inon entzun dutenek zailtasunak izaten dituzten definitzeko. || *Euridxe, da aixi nastin direnien: "Bixutze dau".* || *Bixutze esaten da, bixutze, seri esate dxakon esangot, bixutze... Eur eitten dabenin, arek botaten daben lañuri-edo, arek botaten daben euri apurre-edo, "Bixutze dau", aixe botaten daben lañuk-edo botaten dabena, euri apurreri bixutze.* || *Bixutze bakixu ser dan? Ointxe, basoix olan Gabikera, da axias etorte dxatzu eurre.* || *Eurre dator axias fuerte: bixutze.* || *Bixutze da garu be bai, esate tze garuri be. Bixutze a garu-ero. Bakixu garu ser dan. Ori be esate tze bixutze.* || *Bixutze ba garuri be esate tze, alan gau euri lanbru daunin "Bixutze itzela" esaten da, bustitte.* || *Bixutze: garue a be. Batzuk bixutze esate tze da guk garu esate tzeu.*

blasta-blasta. (BLASTA-BLASTA) Voz onomatopéyica que expresa la idea de deshacerse. || *Arri gogorra barik, samurre, apurtu eitten da, blasta-blasta.*

blaust. (BLAUST) Voz onomatopéyica que expresa la idea de deshacerse. || *Ikola: ueku les, ser esango tzut pa, olan sakau, te blaust eitten da ikule.*

blaustada, blaustadie. (BLAUSTADA) Golpe. || *Blaustadi emon tzo.*

blauste-blauste. (BLAUSTA-BLAUSTA) Voz onomatopéyica que expresa la idea de sacudir o golpear. || *Sue amatako, gardastias amatau esaten da, jo blauste-blauste.* || *Jo blauste-blauste, ta su amatetan.*

blin. (BLIN) Onomatopeya del hervir. || *Ordu erdin bat edo olaku bi dau blin-blin-bliñ egosten, baya eraiñ ein bi dxako, eraiñ-eraiñ-eraiñ-eraiñ euki bi dau arek eta atara artien.*

blis-blast. (BLIST-BLAST) Onomatopeya de la bofetada. Ik. *txiplist-txaplast, blis-blas, sipli-sapla.* || *Blis-blas emon tzat.*

boda, bodie. (BODA) Boda. Ik. *eskontzie, estegue.* Ezkontzeko kontratua egiten zenean, *estegue* ospatzen zen eta hara familiakoez gainera, barriadako zaharrak ere joaten ziren. Geroago, ezkontzen zirenean, *bodie* egiten zen. Gaur egun, *bodie* entzuten da gehientsuenetan. || *Estegue eitte benak..., kontratue eitten sanin, da gero bodie, eskontzen sirenin bodie.* || *Oiñ estegurik esta esaten, baya ostantziñ estegu ori da, bodie.* || *Bodiri igul esate tze estegue. Da jan, da olanik, igul jan eder bateri igul esate tze: "Arek euki dxuek estegue!"*

boka, bokie. (BOKA) Boca del calero. || *Kaleru da oixe posti lako bi-iru bueltan, sera, bokie. Da areri bota biar ixate dxakon egunaro egurre ta orretarik, egurre ta geusie.*

bokau, bokaue. Bocado, parte del freno que entra en la boca de la caballería. || *Bokaue da burdiñi eruten deuna. Au barrun. Da andik tirak eukitte ittus an bueltara. Da gure bosu erun trallan –tralli bakixu ser dan–, ba andixi erute su bardin.*

bol. (BOL) Onomatopeya de la ebullición. || *Askok esaten deu "Ebeitte dau". Guk esateu e jeneralien "Esní galdute dau". Guk e gastetatik "Galdú ein dok esnie". Esni galduek estau gora igoten. A bol-bol-bol-bol, da igon es.*

bola. (BOLA) **1.** Bola (del juego de bolos). || *Bolak eta txirluk.* **2.** Bola, grumo. || *Morokilliñ eitten dire bolatxuk, arin-arin makillias ereiñ esik. Baya lelungun eiñ arren arek bolatxuek, rasta-rasta-rasta-rasta eraitten badxako, gero segidxen gogor-gogor, arek kendu eitten dire.* || *Morokildu ein da, bolatxuk ein dxakos.* || *Bolakin dau morokille.* **3.** Bola de forraje. || *Gipuskualdin-de metie, bedar meta asko oten da. Emen berton gitxi e. Emen ero bola ero fardue ero olan eitten da oin. Ba ostantziñ e len berton be etzondutan sei tte sortzi meta-ta bueltan egote siren. Barrun kabiten es, da kanpun ein. Eitte basen. Se*

askok e etzebixitza bikuk sabaidxe-eta txikidxek eukitte ittu ba bintzako. □ **bolatan.** A bolos.

bolada, boladie. (BOLADA) **1.** Oleada, soplo, bocanada, golpe. || *Boladi da onek golpik botate ittu ba aixik, "Boladak dxekosak aixik", Buuuu! eitten deu ba, da ori da boladak.* || *Selako aixe boladie dabil!* || *Bueno, olanik uste barik axe bolada bat datorrenien, ba axe buruxidxu esate tzegu.* **2.** Emanación de algún olor. || *Larrosa boladie.* || *Ein deu boladie!* || *Esaterako, larrosa useiñe badau esate su: "Selako boladie da!"*

1 bolaka. (BOLAKA) Jugando a los bolos. || *Bolaka goixan!* || *Bolaka or be eitten dabe, Santa Eufemian oin be. Santa Eufemia egunien bolaka diru jokutzen dabe sano.* □ **bolaka ein.** Jugar a los bolos. || *Geu pe eitten gendun bolaka-ta.*

2 bolaka, bolakie. (BOLAKA) Boliche, juego de bolos. || *San Migel egunien erromeridxe eitte ben, bolakak-eta egote ei siren.*

bolaleku, bolalekue. (BOLALEKU) Bolera, lugar donde se juega a los bolos. Sin. *bolatokidxe.* || *Nabarrixen estot esetu bolalekurik.*

bolandera, bolanderie. (BOLANDERA, suziri) Cohete.

bolau, bolaue. **1.** Alero delantero del tejado. Ik. *ittesurie.* || *Ittusurie? Ittusuri es. Ittusuri da egala. Egal bidxe di ittusurak. Da onek dire eurriek, bolaue ta bolaupie.* || *Bolaue au da, eurrie. Da bolaupie, au aspidxe.* || *Eurreri bolaue. Esate baterako, amen bolaue aixik-edo apurtu badeu, "Bolau apurtu tzo". An eitten badeu, ittusuratik dxako ure jeusi edo bestie jeusi.* || *Bolauko egurre.* **2.** Parte delantera del caserío que se encuentra bajo el alero del tejado. Ik. *ittesurie.* || *Au aurrie bolaue da, eurrie, arpeidxe onena etzina bolau esate dxako, orreri eurri danari. Da bolaupie, au aspidxe. Bolaupien, or tellatu eurrerau, te or aspidxen daua amen eurrien, "Bolaupin dau", sikupiñ esate baterako. Da ittusura, ittusurie esate dxako or jeusten da tellatutik, ormatik kanpo daun orreri.* || *Orrek tejamani orre pe ori estau atrapetan ittusurerik, eta ba, ori be bolaue da, bolau esate dxako urik sartzen estan lekuri. Da etarti pe olantxik bolaue.*

bolaupe, bolaupie. Espacio que está cubierto por algún elemento que sobresale de la pared. || *Ormatik kanpora urteten daben tellatuerei bolaupie deitzen tzeu.* || *Ittusurie da tellatuko bolaupie.* || *Bolaupie da, esate baterako, guk etartie esate tzeu, kanpue, ori ate eurrie, da bolaupie esate dxako ortxe etartin sartueriri: bolaupie. Jeneral, etarte eurriri-edo esate dxako bolaupie.*

bolotoki, bolotokidxe. (BOLATOKI) Bolera. *Bolalekue* baino gehiago erabiltzen da. || *Nabarrixen estau bolotokirik, Ereñon bai, Ereñon elegante dau bolotokidxe.*

boltu, boltue. Bulto. || *Or seosen boltu dxak.*

boltza, boltzie. (BOLTSA, poltsa-bat.) Polska. || *Boltzie itxi or!*

bona, bonie. (BONA) Buba, barro, granillo en la piel. Ik. *gonie.* || *Naparraidxe da! Da miñiñ urtete tze olan, bona eundi batzuk urtete tze, bonak urtete tze, da arixek errementau artien, ganadu sufriduten dau, de gobernau bier ixeten dabe ba espesial.* || *Bonak urteten dabe.* || *Bonak ixeten dire..., bonari eitte dxake..., asten dire pinporta payo aunditxuauek da puntan eitte dxake materitxu.* || *Granue eitten da asi, da eundidxe eitten da, bonie. Da pinportie es, pinporti da geusa txikidxe.*

bonba, bonbie. (BONBA) Bomba. || *Bonbakin, bonbak botata erre ben etzie.*

bonbatxo, bonbatxue. (BONBATXO) Bombacho. Gizonetzkoek erabiltzen zituzten fraken gainetik. || *Bonbatxuk prakan ganien jasten diñak dire.*

bor-bor. (BOR-BOR) A borbotones, en ebullición. || *Bor-bor urten tzo.* □ **bor-bor ein.** Borbotar. || *Bor-bor eitten deu urek.*

bordau. (BORDAU, bordatu-bat.) Bordar.

borla. (BORLA, mortxil) Borla que se colocan en el yugo de las vacas. || *Begi ganitan ipintte dxakesan borlak; sapie, da arek sapiek eukitte sittun orrek biribilek, borlak.*

borondate, borondatie. (BORONDATE, nahimen) Voluntad, intención. || *Ori mutille ona da baya, borondate onekue, baya esiiñ eldu, esta eltzen.* || *Bier eitteko esteko borondaterik.* || *Borondate barik eitte itu bierrak.* || *Kridxadentzako naiku borondati euki ban.* || *Ori borondate asko dekonari "Franku da ori personie!".* || *Beso sabala, frankue, asko emoteko dekona, borondate onekoa.* || *Esku ariñe? Ba borondate gitxi dekona.* □ **borondate gitxikue.**

Tacaño, -a, rácano, -a, avaro, -a. Ik. *lukerrerue, sekene, eutzidxe. ligorra.* || *Geuse askori esate tzeu liorra, seinde garratza esati les, liorra, garratza, da orre pe. Da iguel e borondate gitxiko morroi bada be,*

"Ori be liorr-ok". □ **borondates.** Voluntariamente, de

buena gana. || *Berak beren borondates ein deu.* || *Geur borondatis etorri di.* || *Beran borondates etor da. Nik esan barik, "I, etorri adi!" esan barik, "Beran borondatie, beren konture etorri dok".* □ **borondatin**

kontra. Contra la voluntad. Baita gogus kontra ere. □

borondatie emon. Dar lo que cada uno estime oportuno. || *Eskin datosenai arpei txarrik barik bakotxak dekon borondatie emon.* || *Abadiiek deittu ban ontzungo be, ixengo dire bost bat urte, abadiiek mesatan deittu ban: astion etorriko dire etzerreskien da ez begi txarrik ipiñi, arpei txarrik es ipiñi, bakotxan borondatie emon, da aurrera.*

borragoma, borragomie. (BORRAGOMA) Goma de borrar.

borren, borrena. Lo suyo. Sin. *berena.* || *Su ondoko burdiñi da, baya orrek borren ixena deko, etxat akordetan.* □ **borrenak ein.** Acabarse. □ Behinola grabagailuko zinta amaikeran zarata entzun eta honela galdetu zidan berriemaile batek: || *Ein deu orrek borrenak?*

borrue. Tipo de cebolla blanca que se recoge temprano. || *Borrue? Nik pentzetot e borrue dala, goixetik etorten dana kipule suridxe esate dxakola, baya kipulie, orrek erdaldunek-eta ibiltten dabena, gorridxe baya geidxau ibiltten dabe oriskie, suri-oriskie.* || *Ba nik estaitt senbat klase dasen baya emen guk geidxen ibiltteuna kipula gorridxe da, da suridxe be oten da. Da lelengotan kastetan dana..., ba ser esangot nik? Areri lelengotan kasteta danari ser esate tzeu? Borru-edo, olako ixen bat esate tzeu baya ba kipulak goixetik urtete ban lekue, axe ibiltte gara gu te.* || *Borrue entzu ot. Baya kipulek borrue esate dxako..., len esate gentzon kipule suridxe ariñ etorten danari.*

borron, borrona, beorrena. (BERORRENA) Lo de ése, ésa, eso. || *Kontu asko esaten deu orrek, ixildu esta eitten-da. Aintxiñekunak be, amuma olakoxi euki ban orrek, amuma borrona. Da arek esanikuk-eta.*

borruntzakue, borruntzakue, beorrenztzakue. (BERORRENTZAKO) Egoista, acaparador, -a. || *Borruntzakue: berentzako dana dala.*

bortzegi, bortzegidxe. (BORTZEGI) Borcegui. || *Bortzegidxe gorako sapatak dire.* || *Bortzegidxe narruskuek dire.* || *Koipe asie txarri sebue da, txarridxen koipe asie. Txalana sebue, bortzegidxei-te emoteko sebue ixate san.* || *Bortzegidxe sapatak dire, aspidxen untzak dekesanak. Euridxe asko danin-de.*

bos, bosa. (BOZ, ahots) Voz. || *Urrunetik esetu ban beren lagunen bosa.* || *Bos altue eitten dabenin: "Ori da txaliñe!"* □ **bos lodidxe.** Voz grave. *Bos grabie ere esaten da.* || *Bos lodidxe deko.* □ **bos solidxe.** Voz, aguda, alta. || *"Bos lodidxe deko": solidxe da altu-edo. Edo "Soli eitten deu berba", baya berba bixi eitten dabenari, solidxe.*

boskantoi, boskantoye. Cierta variedad autóctona de manzana. Sagardoa egiteko erabiltzen da. || *Boskantoyek bost kantoi dittus. Aintxiñeko sagarra da ori. Galdute egosan emen, da gu ibilli giñen topetan, sagastidxe ipintteko. Seanuriraiño jun giñen topetan. Da Oman topa gendun boskantoi, aintxiñeko-aintxiñeko sagarra.* || *Boskantoi gitxi dau oin, bost kantoi sagar ederra da.* || *Boskantoi be goixetiku da.*

bost. (BOST) Cinco. || *Bost ogerleko.* || *An topau ben abidxie, bost kuneas.* || *A posturi einde, estai senbat posture einde. Bost mille ogorloko-edo posture einde.*

|| *A il sala ya ixengo dire bost-sei urte.* □ **bost ogerlekokue.** Moneda de cinco duros.

bostarku, bostarkue, bustarkue. (OSTARKU, ostadar) Arco iris. || *Bostarkue egon da.* || *Bustarkuan!*

bosteko, bostekue. (BOSTEKO) 1. Mano. || *Botakue bostekue!* 2. Naipes: el cinco.

bosteun. (BOSTEHUN) Quinientos.

bostortz, bostortza. (BOSTORTZ) Rastra, rastrillo de cinco púas. *Bostortzekue* ere esaten da. || *Bostortza ekarrixue!* || *Bostortzekue atxurre lakue da.* *A beidxeikiñ ibilttekue.* || *Aintxiñe esan egoten markadorik, eta artue ereitteko be, da arexas marketa san, lauortza da bostortza.* || *Bostortza pasaute ba bedarra soltau eraitte dxako, gosatu eitten da solue.* || *Mamindu? Arie bakixu selaku dan? Ortzak eukitte ittuna. Ba arias be mamindu lei. Da len bostortza be, bost ortz dekosena, beidxeikiñ ibiltte sana. Ba a asko ibiltte san, da lauortzeku esate dxakona be, lau ors dekosena be, a be beidxeikiñ ibiltte san, da artu eraitte san markara, lauortzekuas olanik. Da oiñ estire ibiltten es bata, da es bestie. Arta-pur bet eraitten da.*

bota, botaten. (BOTA) 1. Echar, tirar, arrojar, botar. || *Arridxe bota.* || *Gatza bota.* || *Burue bota.* || *Utze bota.* || *Txingorra botaten deu.* || *Ganetik bota.* || *Piñuek botaten dau brie.* || *Bost erroi bota nittun eskopetias.* || *Ide bedarra emote dxake loidxe bota eraitteko, loidxe bota esiñik dasenien. Ba ostantziñ e esteutzeu emoten, baya loidxe bota esiñi dasenien, batu bedarrak eta egosi, ure otzitzen daniem emote dxake.* 2. Echar, derribar, echar abajo. || *Basue bota.* || *Arbolie askoras bota ban.* || *Guk e basun usete gendun, pago botaten-da ibiltte giñenin, sididxe sartzeko, porrie.* 3. Vomitar. Ik. *errebesau, gomitteu.* || *Botateko gogue.* 4. Abortar. || *Kunie bota deu.* || *Txala bota deu gure beidxek.* 5. Decir, soltar. || *Ño, ak bota dxok parabolie!* || *Orrek bota ittu botatekuk!* □ *Gezur edo exagerazio bat botatzen denean honela esaten da: Orrek bota dxok botatekue! edo Arek bota dxok ederra!* 6. Llover, nevar. || *Baltzunie dxatok, ondiño bota bi dxok.* 7. Enviar. || *Berari eskatze dxakosan, denderuri, aretan dediketa sanari. Da ak botate ebasan.* 8. Pasar, dedicar (una cantidad de tiempo). || *Atzo egun gustidxe bota dxuau Gernikan.* 9. Estimar, considerar. || *Artina, da atxana alkarren antzekuk dire, igul-igultzat pe bota lix, alkarren antzekuk dire baya. Paguk estiitu asten alakuk.* □ **botakeran.** Al echar, al arrojar. □ **bota kontra!** En los juegos de competencia, reto con que se emplaza al contrario. || *Su Atletiken alde saus de ni Realen alde. Da ba, posturie eittie pentzaten du: "-Ia bota kontra dirue!"*

□ **iskue bota.** Cruzar el toro con la vaca, echar el toro. || *Idisku bota bi tzeu, txala artu deidxen.* || *Bai, suse danin beidxek bestiri saltoka-ta ibiltten da, da orrek bellekatutaku beti dau olantxik, da iskue botatie*

alperrik, estau txalik artzen. □ **tellie bota.** 1. Arrojar una teja. 2. Poner teja a la casa. || *Tapetan, ya tellatu barridxe-edo ori: "Bota tzeu tellie areri etziri be".*

bota, botie. (BOTA) 1. Bota de vino. || *Saragidxe aundidxe ixeten da. Botie ixeten da txikidxe, eskutan ibiltten dana.* || *"Botie ikoldu dok": utzittuten danin, bidxurtute.* 2. Bota hecha de cuerno. || *Gu pe euki gendun botie, da ostu eskuen. Olako ididxen adarras einde, dana konpleto, gero aixie artzeko atzien orras, tirafondotxue.* || *Bótie, adarreskue. Geu pe euki gendun, da geuri ostu eskuen. Ganadun adarrak, olako ididxen adar aundidxas eitte tze... botik bakixu selako bokillatxu eukitte deun? A tornuas antxe puntan, da axe bokille fiñe puntie.* || *A atzie, orras e... esan gutena, ipintte tze an seinde narru gogorra les, inkeute, bueltan, da boti einde. Gantxu bi sartun, lepun artun, da Sanpedumiara-ta len olakukiñ elegante.*

botagure, botagurie. (BOTAGURA) Ganas de vomitar.

botaka. (BOTAKA) 1. Tirando, arrojando, lanzando. || *Bota-botaka dabil dirue orrek!* 2. Vomitando. □ **botaka ein.** Vomitar. || *Botaka ein deu.*

botala. (BOTA AHALA) A más no poder. || *Botala euri da.* □ **botalan.** Echando a más no poder. *Botalin* ere esaten da. || *Botalan da euridxe.* □ **botalin.** Echando a más no poder. || *Botalin da.*

botasiñoye. (BOTAZINO, botazio-bat., hauteskunde) Votación. || *Ba asi dire botasiñoyek eta telebisiñue be esta ixilduko.*

botatzaillie. (BOTATZAILE) El que derriba. □ **arbola botatzaillie.** Cortador de árboles. || *Ori be arbola botatzaillak ibilli siren baten, de a be arbolak bota, ta es posure badois, da espadoyes, geuk eskendun apurtu, baya barririk es eben ein, da arbolie botakeran egala apurtutzen da, ba apurtu san.*

botau, botou, botaten. (BOTAU, botatu-bat.) 1. Enviar, echar, despedir. || *'Bota' da jeurti, da 'botou' da ba soltaute doila.* || *Txala botou du errapera.* || *Umiek eskolara botou bi dus.* || *Andafuera botau dot.* || *Kartie boto.* || *Botou palomie Gernikera!* || *Botau ein dogu.* 2. Echar el macho para el apareamiento. || *Biorrak eitten dabena, astue botau, da biorrak artzen daben kunie, axe kuni da burriñue.* □ *Inori errekadu bat egiteko agintzen bazaio, honela esan daiteke: Andrie boto dot.*

botika, botikie. (BOTIKA, farmazia; sendagai) 1. Farmacia. || *Botikara jun san botikien galde.* 2. Fármaco, medicamento. *Medixiñe* ere esaten da. || *Botikie artu bi da bost ordurik baten.* || *Orrek piñu kokuk, bai! Jolin, orrek egoten dire..., oiñ es ainbeste, oin botikie botaten dabe.* || *Ori jeneralin botiki eiñ*

eskero, estau arridxorik. Ba, botikarik etxekon len eitten. Da oin bes, ya asko geratu da botiki eittie. || Botate dxako sera, botikie, da gorriñe be kendu eitte dxako. || Osatu eitten da. Berrogei egun. Da gero ba emote tzesu botiki edo seoser. Sotala da onena. Beyenda eitti sotalas kortie garbittu-te. || Da oin be, oiñ usteldu bari pe igul e kokuk e a asidxe ta janda igul eukitte tzos. Da edeittosu sagarra da barrue ori einde. Da oiñ aurregaitti bota bi dxako botikie.

botikaridxae. (BOTIKARI) Farmacéutico.

botille, botillie. (BOTILA) Botella. || *Asunbreko botillie.* || *Botilla kaskue.* || *Ene, apurtu da botille!* || *Sardaeu botillan sartu dot.* || *Txal txikidxeri esni emote dxakon botillatik, da larrei botaten bosu, Klu! da "Kaguen, kusune ein dxok!". Larrei batera jun.* || *Da epeldu ensegida eitten da botillan artute.*

botillero, botillerue. (BOTILERO) Botillero; consejero, ayudante del jugador.

botiñe, botiñie. Bota de goma. || *Botiñek e dire onek gorako botiñek. Gomaskuk, botiñek. Goma utzeskuk. Amendik e katiuska pe esate tze batzuk. Ba katiuskak. Guk e botiñek, botiñek jeneralien..*

boto, botue. (BOTO) Voto. || *Politikuok batos botuen galde.* || *Or dabis boto eske.* □ **botue bota.** Votar. || *-Ik señeri botu bota tzak? - Euk eseik lelengo, euk señeri bota tzek?* || *Banoyek botue botatera.* □ **botue emon.** Votar. || *Estau setan jakin nok nori emote tzen botue.* □ **botue eskatu.** Pedir el voto. || *-Botue eskatuste Pedrok.* || *-Txo, Pedro etorri botue eskatzen iri? -Bai lenguen gurera etorri suan.*

boto, botoye. (BOTOI) Botón. || *Bueno, gerririk ibiltte sirin baya amengo barketako boto bakuk etzirriñ ixeten, barketan e danak eukitte ben botoye, baya gerridxen gerrikue.*

bouri, bori. (BERORI) Ese mismo, esa misma, eso mismo. || *Ori bouri.* || *Oixe bori.*

brandi, brandidxe. (BRANDI) Marca que se pone a las ovejas. Ameriketean ibilitako artzainek ekarritakoa ei da berba hau (ing. *brand* "marka"). || *Brandidxe Ameriketatik etorrineko gausie da.* || *Brandidxe betiko itxi eu.* || *Ardidxeri, nai beidxeri, nai larran dabixenei eitte dxake markie, da eukitten deu noberen etzeko numerue. Numero bat eukitten deu. Da a eitten da..., kirtena lusetxu eukitten deu kolpeteko, da eukitten deu olako plaka bat, da eukitten deu arixek numerue, da axe eitten da berotu, suten, berotu, de gorritu eitten da, da aixe inkete dxake larran dabixen ganaduri, noberen ganaduek numerutatik esautzeko.* || *Nik estaitt Ameriketatik ekarrikue bada, nik beti aittegandik, edo gurasugandik brandidxe entzu dot eta.* || *Brandidxe jota dau.*

brasa, brasie. (BRASA) Brasa. || *Brasan erre.* || *Brasie batu.* || *Brasie tiretu.* || *Karabidxek garra*

bideu, baya kaleruek brasie bideu. || *Metxeru guk esate gentzon areri. Alan einde, metxa gorridxe, da an ixotu te gero brasias sigarrue nai purue.*

brasatu. (BRASATU) Hacer(se) brasa. || *Laban su ein, de egurrek erdi erreta dausenin, ba brasatu eitte dire.*

brasatza, brasatie. (BRASATZA) Montón de brasa.

brasero, braserue. Brasero.

bridxel, bridxela. (BRIAL) Brizna. || *Ogi brintzi: alako sati bet, bridxel batzuk..., bridxel bat bada, "Ogi brintzie jeusi dxakok ona", edo olan esaten da.* || *Bridxela? Bai, erropa bat apurtzen daniñ e, "Dan-dana bridxelak dabis, apurtute dau te".* || *Egur bridxela? Egur sati txiki bet.* || *Bai, egur bridxela ta astillie, kontixu, alkarren antzeku tire.* □ *Bridxela eta brintzie bat ote diren galdetu ondoren honela erantzun didate:* || *Bridxela be, ba kontixu erdi igula. "Ogi bridxel bat jeusi dok" edo olanik. Egur bridxel bat, bardin. Begidxen sartzen badxatzu, igul seoser, olako sarameridxe esateu: "Dios, egur brintzie sartu dxatek!".*

bridxeldu. (BRIALDU) Hacer briznas. Ik. *apurtu, birrindu, satittu, txikittu.* || *Bidxeldute? Apurtutako gausi dane, "Bridxeldute dxak".*

bridxurie. Ambiente muy frío. Ik. *fiñe.* || *Bridxuri da otza, leidxe ero a bridxuri deuna. Otzak eitten deuna bridxuri. Da aixi be olan... Fiñe be igul esate dxako, aixe fiñe otzari esate dxako. "Bridxuri dxak ona bridxuri!" aixias deunari.* || *Bridxuri da otza... Nik, esate baterako, mendire-ero jun Illunsarrera da "Emen jote dxok bridxurie!". Otza, aixik, aixe fiñe. Aixie fiñe batzuk esaten dabe. Beste batzuk "Bridxuri dxak ona bridxurie!".* || *'Bridxuri' da olan denpora sera, axie ta euridxeekin de bridxurie esate dxako.* || *Bridxuri dau.*

brie. (BREA) Resina de los pinos. Osterantzeko arbolek botatzen dutenari ure esaten zaio. || *Piñuk-eta botaten dauna da brie. Da arek, a pospoluas e emote tzesu, da da! su artzen deu ak, brik. Da onek e, emen asko esta topetan, baya piñu deko ori, brie danak. Gu Ameriketean e ekarte gendun, mendidxen topaten gendusen egur takuek, dana brie eukitte benak.* || *Brie ipintte san urtute.* || *Brie arboletan-da egoten da, indurri kaka esate geuntzon aintxiñe.* || *Piñuk brie eukitten deu.* || *Ba beste noberak gure dabena mendau, arexek adartxuk sartze dxakes, gero botate dxake ba..., eitten da..., brie esate tzeu, unteu, da axe botate dxake, a irrikittutxue tapau, da, igertu esteidxen, ya gora urten deidxen.* || *Da olako lekun baten edo olako bat eitte danien e..., da sarte dxako mendau gure dan e..., ser esangot neuk?, beste mendu bat, gure dana, ipintte dxako. Da gero botate dxako brie, tapetako, arek irrikittutan tapetako ba brie, da artzen deu e, loratu eitten da gero.*

brijidu, brejidu. (BRIJIDU, frijitu-bat.) Freir. || *Urdei brijidue.* || *Arrautze brijiduek.* || *Txintxortak?*

Bai, brijidu, brijidu te gelditzen sirien apur bet gogortute, da koipie aparteta san, aparte, da arek satitxu-satitxu einde ipintte san.

brillue. Brillo. || Ondo labanduneku da en jeneral brillue botate dabena. || Eskupetieri brillue atara. || *Ño, orrek bota deu brillue!* || Euskidzek brillue dxekok. || Kotxiri brillue emon bi tzet.

bringel, bringela. (BRINGAL) Piltrafa, resto menudo. || *Bringela be geusa gitxidxeri-edo bringela esate dxako.* || *Bringela: satidxe ixengo da ori, sospala esati les. Egurrena.*

bringeldu. (BRINGALDU) Hacerse piltrafas. || *Emen olanik daunin tela bat, edo saku bet, edo seoser ba, dana satittute, edo dana sulotute, "Dana bringeldute dau" alakoxiri esate dxako.*

brintze, brintzie, printzie. (BRINTZA, printza-bat.) Brizna, cosa menuda. || *Da geuse se bat ixeti les da ori. Geuse se-se-seye danari brintzi esate dxako.* || *Brintzi sati txiki-txiki ba ta, brintzie.* || *Brintzak askorik atarate itunak dire, ta ba brintzak esate dxake ba askorik atarate itun sati txikidxeri.* □ *Brintzie eta astillie berben artean zer desberdintasun dagoen galdetuta, hauxe erantzun didate: || Astillie da ya ba, egalak dekosen da astillie. Astilli da apurtuten dan satidxe, an osorik deuna es, nai tte txikidxe ixen. Txikidxe bada, ba brintzi esate su, baya bestiri esate dxako, an satitxuk igul, astilli.* □ Ume txikiei ere horrela deitzen zaie: ||

Ño, onek brintziona ser dabil emen? □ **egur**

brintzie. Rajadura, brizna, punta de leña. || *Ño, egur brintzie sartu dxatek eta au dok miñe!* || *Dios, egur brintzie sartu dxatek!* □ **ogi brintzie.** Brizna de pan. || *Iñurrientzako ogi printze bat dok naikue..., gutzako ogi sati eundi bat bayo.* || *Ogi brintzi: alako sati bet, bridxel batzuk..., bridxel bat bada, "Ogi brintzie jeusi dxakok ona", edo olan esaten da.* || *Ogi brintza daus.*

□ **brintza-brintza ein.** Hender(se), rajar(se), cascar(se), agrietar(se). || *Brintza-brintza einde dau.*

brintzetu. (BRINTZATU, printzatu-bat., pitzatu) Hacer(se) briznas. || *'Brintzetu' da apurtu, ya satittu dana eittie les: "Brintzetu dok dana."* || *Egurre brintzetu, dana sati txikidxe.* □ *Edontzia jausiz gero: "Brintzetu dok."*

briskan. (BRISKA) Brisca (juego de cartas). || *Briskan ein.* || *Da musin be iru jokora. Musiñ esate baterako, laure, bire nai batera eittosu ba, jokutara. Nai briskan, nai edosetan. "Joko bire ingo dxuau au". Jeneralin musin ba iru jokutara ixeten da. Ba iru joku orniduti da ori da, iru klasetara.*

briskelari, briskelaridxe. (BRISKALARI) Jugador, -a, de brisca. || *Ni ixen enas bape briskelaridxe. Beti musin-de. Da briskelaridxe beti esango tzu: "Fue!"*

broka, brokie. (BROKA) Broca. || *Broki ostantzin beittu se eitten deun. Amen espokosu e sulotxu einde, broki lelengotan esta an katitzen, olan ibiltten da bata nai besti. Amen sulotxu einde boukosu ori punteruas, punterutxuk eitten deu olakoxe igul-igula. Da gero an sulotxun inketen da brokie.*

broma, bromie. (BROMA) Broma. Ik. *olgetie.* || *Brometan.* || *Broman esan deu.* || *Arek broman ein dabe ori.* || *Bromatan abil?* || *Baya bier asko aintxiñekuk. Txondorra, txondorra kargeti be bromi es san e!*

bromantie. Bromista. || *Bromantie: ori beres txisposue-edo dana.* || *Bromantie? Bai, jorgosu ero juergan dauna ba bai bromantie.*

bronkidxutako, **bronkidxutakue.** (BRONKIOETAKO, bronkitis) Bronquitis. || *Bronkidxutaku deko.*

bronko, bronkue. Salvaje. || *Katanarra da mendiko ori, patari bat. Katue, katu bakixu, baya katu bronkue, mendikue. Onek e esi bako katue, eskure etorri bako katue.* || *Katanarra, da au askonarra... Askonarra jakingo su ser dan... Da aseridxe... Orre danok mendiku dire, mendiko bronkuek.* || *Osasun bedarrak useiñ itzela botaten deu. Lori esta. Bronku da. Arek estot pentzan lorarik ataten dabenik.*

brontze, brontzie. (BRONTZE, burdinori) Bronce. || *Ori brontzesku da.* || *Aspiko txoridxe brontzie ixete san, fundidunekue.*

brote, brotie. Brote. || *(Paguek) es aben broterik botaten, da brotie botate baben be, txikidxe, laburre.*

brus, bruse. (BRUSA) Blusón, blusa larga y suelta. Gizonek janzten zuten, baseritarrek; andreek mariñerie janzten zuten. || *Tratantiek brusie ibiltte ben, brus baltza.* || *Txikitten-da? Eskolara-ta jutekota? Elixara-ta? Brustxukin, onañoکو Brustxukin jaste sirin.*

buelta, bueltie. (BUELTA) 1. Vuelta, alrededor. || *Munteye, len ardidxek eta basurdak, ba, jan esteidxen, ormien bueltan, arridxeekin.* || *Elis txoridxe elixien bueltan eitte itue abidxak.* || *Etze bueltan gabis.* || *Etzaldie: etze bueltan dauna.* || *Buelta gustidxen untzak joste dxakos beidxeri, da perrie olantxik e, e an goidxen eukitten daben gantxue okertute ipintte dxako.* || *Ba meti ixeten da, gari meti ixeten da..., buelta aundidxe artzen deu, da antxe pillaute dasen garidxe metatute oten dire.* || *Da esaten dabe... soluri edo motari buelti eitteko batzuk "Ebeidxok bueltie!" esaten dabe, da bestik esaten dabe "Ertzak ebeidxosak!", egalak.* 2. Voltereta. || *Bai, garragarra. Astuk eta manduk eta danak eitten dabe. Astuk igul buelta osuk eitte ittu de manduk estabe ainbeste eitten, manduk e alderdi bata lelengotan, gero beste alderdidxe. Astuk buelta osu ein de beste alderdiitik eta ostabe bestera. Len astu egon san emen dana.* 3. Vuelta, paseo. || *Gernikera buelta bat ein bi*

dxuat. 4. Casi, cerca de, poco más o menos. || *Ortik bueltan*. || *Saspirek bueltan*. || *Baserri bakotxien, berrogei ardi bueltie*. || *Paguek tardaten i xun ogetamabost urte bueltie adarra asten*. || *Ba ixengo dire ba berrogei e...*, *geidxau, irurogei urte buelti bai, orrek etor sirela ona, emen beintzet berton*. || *Ya mutil kaskondu, amabost urte bueltie, ortik e dabillena*. || *Bueno, ori asko, idxe irurogei urte buelti*. 5. Vuelta, regreso. || *Bueltan jango dosu*. || *Seu bueltan etorri*. □ **emen bueltan**. En estos alrededores. || *Koba aundixde da bai (Ondarokue), Nabarrixen kobarik aundixena. Ta emen be, ori Lesikekuori ixen esik aundixena emen bueltan be*. □ **buelta artun, etorri**. 1. Dar la vuelta. || *Onek amen puntan, onek e emen estutzen bosu, a buelti esin lei artun*. 2. Recibir su merecido. || *Buelta artun deu*. □ **buelta ein**. 1. Volver(se) atrás. Ik. *buelta emon, jeurt ein*. || *Su basois e kotxias ametik e Gabiketik jutekun, da Gabiken pentzetosu buelta ein, da atzera Nabarrixera etorri bixule, Ta Ereñon kamiñu sarraute. Da esango tzue urrengo egunin. "Koño, bestela ein dok andik buelti eitti, se jun baintzan, estok euki pasurik eta"*. 2. Volcar, dar la vuelta. || *Olan kargetan bosu narra, gero etzera jukeran buelta eingo tzu*. || *Eskilaretik bera jausi da ta buelta eiñ deu*. || *Da goldi pe, goldatzen danin, ba goldi pe soidxe, buelta eitten dau goldik lurre, da golda soidxe*. || *Aidesko bueltie eiñ deu*. || *Burdidxek buelta ein deu*. □ **buelta emon**. 1. Volver(se) atrás. Ik. *buelta ein, jeurt ein*. || *Oin buelta emon*. || *Nobera falta danien katuk buelta emon esteidxuen be bai (prantxie)*. 2. Volcar, dar la vuelta. || *Burdidxek buelta emon deu*. || *Atxurkulie lurreri buelta emoteko usete san*. || *Emaidxok orreri buelta erdi*. || *Alderdi bat sikatzen da bedarra, da buelta emote tze siketzeko*. || *Bilin-boloka: burue ipiñi beyen, da buelta emon*. || *Eote san an burdiñe okertxu lapikuri ipintteko, da beko su eitten danin ba, katuk-edo buelta emon esteidxuen*. || *Makille bat artu, sakun sartu artaburuek, da makilla bat e artu da jo sakue, da gero alderdi batetik e ondo daula pentzetan danin buelta emon beste alderdire ta jo ostabe*. || *Aintxiñeko ikesgiñek iru astiñ e arkontarie soiñetik kendu barik euki dxuasen. E pentzau! Da buelta emon ei tzon, irugarren astin. "Ño –esan ei dxuan– ño, garbidxe dekon beran antza!" esan ei dxuan. Beste iru astin buelta emonda*.

bueltaka. (BUELAKA) Dando vueltas. || *Emen dabis miruk bueltaka*. || *Aixie bueltaka dabil*. || *Erruberie bueltaka dator*. || *Geurin be txanklo bat egon san, da a bueltaka ibilli xan, da estaitt askanin ser ei eutzon*. || *Oyen bueltaka lokartu esiñik ibiltten da*. || *Goru ipintte san, jeneral paparriñ ipintte san, jeneral paparriñ ibiltte ben, olan paparrin, da amuri esku batas kolpe, da bestias tiretu, da bueltaka-bueltaka, ardatza bueltaka-bueltaka-bueltaka dala, aridxe itte san*. ||

Tranbu an bokosu, bueltaka juteko peligrun, "Sartu idxok tako bat or bekaldin!".

bueltau. (BUELTAU, bueltatu-bat.) Volver, regresar.

bufarda, bufardie. (BUFARDA) Martillo dentado para picar las piedras del molino. Iñaki Gamindek Meñakan eta Bakion ere batu du berba hau. || *Bufardie? Orrek kanalak atateko ta gero pikau bixate san, da piketako, arridxe*.

buitre, buitrie. Buitre. || *Ildeko pataridxek jaten dabe buitriek*. || *Emen bai, batzuk esaten dabe buitri. Buitri tire orrek aundixdek, da orrek e buitri esate tze orreri. Amen e... Burgos aldin-de orrek ibiltten dire asko. Emen guk e orrei gabilloi nausidxe edo olaku esate tzeu*.

bukoye, bujoye. (BUKIOI) Bocoy, barrica grande donde se guardaba la sidra o el vino. Txikiagoei barrikie esaten zitzaien. || *Bujoye? Arda-edo, sargau-edo eitte siren arek aundixdek. Barrikak, baya bujoye esate dxakon aundixeri. Iguel milla litro edo bosteun edo olan. Da bestiri txikidxaure esate dxakon, eun litro edo berreun, barrikak*. || *Bukoye: sardau eukitteko*. || *Da eitten dabe sardaue doladi dekonak, makiñi dekonak ba sardau eitten deu. Bukoyek artzen dire*. || *Bukoye geurin be badau bat an kortan, da usau be estou eitten*. || *Orrek garbitzeko orrek, egurresko serak ixete siñak, orrek e egurresko galdara modure, orrek e bukoyek. Bukoyek deittuten di ba*. || *Bukoye: sera, erropak-eta beratzen eukitte siriña. Gero sulu eukitte ben aspidxen da andik ure sera atara-ta*.

bular, bularra. (BULAR) Pecho. Ik. *titidxe*. ||

Bularrak ederrak dekos! □ **bularreko miñe**. Dolor de ubre. □ **bularreko umie**. Niño de pecho, lactante. Ik.

titikumie. □ **oin bularra**. Empeine del pie, metatarso. || *Sapatak sartu esiñ ixan eskerun, "Oin bularra deket aundixde-ta!"*. || *Oin bularra da ganie*. □ **bularra emon**. Amamantar. Ik. *titidxe emon*. || *Aña seki da bulerrik emoten estetzon añaie, aña dabillena, aña jantzitte ibiltte siriñ emen, da "Aña seka dabil", umi saintzen aña seka*. □ **bularritik egon**. Padercer tuberculosis. || *Bularritik dau*.

bularretiko, bularretikue, bulerretikue,

bularritikue. (BULARRETIKO) Tuberculosis. Berba hau lagunekin erabiltzen ei da; animaliekin, ostera, *birixtakue*. || *Bulerretikue pulmoitako geixu da*.

bulartzu, bulartzue. (BULARTSU) Pechudo. Ik. *papartzue*. || *Bulartzue ixen bi deu orrek!* (neska bati buruz ari da). || *Ori bulartzue dok*.

bulda, buldie. (BULDA) Bula. || *Buldak erosi*. || *Oiñ estau buldarik*. || *Buldak papelak sirin*. || *Len elixik emote ban buldie. Paper batzuk emote sittusen, Aitte Santuk emonikuk, edo nik estaitt selan ixete sirin, barau e gordetekuk-edo, karidade eittekkuk-edo*.

burdi, burdidxe. (BURDI, gurdi-bat., orga) Carro movido por bueyes o vacas. Ik. *karrue*. || *Igul burdi bi-edo usete sin len. Bat usete san satzetako, kajias. Da besti usete san e asparritteko. Idie. Idie bakixu ser dan suk. Idetako-ta. Da gero ein biste san kanbidxau. A satzetakue iste sendun kortan edo tejamanan, da inkete sentzon bestie, da gero a antxe burtartzin sartze san, da gero eitte sendun orrasidxein-de estutu, da gero taketak, da beidxentzat listu ote san a.* || *Burdi kirriñek.* || *Karrue esate tzau kaballeridhan serari ta beidxenari burdidxe.* || *Burdidxeikiñ eruete san arriue.*

□ **burdi bidie.** Camino carretil. || *An burdi bidi dau ta narra pasako da.* □ **burdi bolantie.** Carro mayor.

|| *Burdi bolantie: burdi bat, burdi normal bat, ganadun burdi bat, da ixete san –oiñ tejamanan estau burdirik, kendu sirin, ortxe ote sirin burdidzek eta– da ixete san burdi normala, ganadun burdi normala bayo eundidxaue, da beidxekin burdi bolanderik eskendun ibiltten, euki be eskendun ein burdi bolanderik eta. Ididzek dekesenak-eta eukitte ben burdi bolantie, karga aundidxe kargetako-ta, serak, surek, mendittik suretan ein bi dabenin-da, burdi bolantik ibiltte sittuen, e serak, surek bajatzeko-ta.* || *Burdi bolantie esaten da baya ori emen esta ibiltten se orrek emen, emengo biditan ibiltteko bayo eundidxauk ixeten dire.* || *Burdi bolantie? Orrek e trasporterao ixet siñ orrek.*

Edoser, egurre-ta. || *Nabarrixen burdi bolanterik es san on neure esaueran, berandun. A, Ormetze, Ormetze, or Eleuterio. Eleuterio bakixu sein dan, anki ebeitte deuna, Lekeriken. Arexen aittek bolanti euki ban. Bestela, emen iñok es eban eukitten bolanterik. Gerniken bai, e! Gerniken e Sandalio ta orrek famau sin. Ididzek euki sittuen. Ta arek trasportie eitte ben dana bolantekin.* || *Orrexek erosi ban, akordun deket, egurrek panadixara eruteko, Nabarristik Gernikera. Egurre eruteko. Eukitte ban bolantik e ba kargatan erute ban burdidxe lako lau bider geidxau. Akorten nas burdidxen, ba geidxen be, amabi kinttel, tonelada erdi pasautxu ortxe. Da orrek erute sittuen lau tonelada be bai. Orre burdidzek. Orreke radidxuk itzelak! Eta ugel e burdiñesku negargarridzek! Eta klik-klok-klik-klok ibiltte sin. Orrek, bueno, burdi bolantie.* □ **burdi burpille.** Rueda del carro. *Burdi burpille nahiz burdi erreillie esaten da.* □ **burdi erreillie.** Rueda del carro. *Burterreillie ere esaten da.*

|| *Burdi erreillako sulue esate dxakon. A be ixete san, burdidzek goitti bera etorteko, ganaduri basaka aundidxe emote tze, da asparritten-da ibiltte giñenien, ba sarte dxakon..., selan esangot?, estaka bat, estaka sendotxu bat sartze dxakon, da axe ipintte dxakon burdi erreilliri lotute, lotute ta sulun sartze dxakon, antxe burdidzek erreillan dekon suluen sartze dxakon, da beste alderdidxe artu sokias, da lotu eitte dxakon gora, goiko burdidzek e arasak eukitte ittu olan albutan, erreillan paritan, da araxe, ixeten dire*

egurrekuk arek arasa te ixete sirin, da araxe lotze dxakon, soka batas lotze dxakon, burdi erreillik e eukitte ban, ipintte dxakon serari goitti bera, ganaduri saka aundidxeidxe emon esteidxuen, ipintte dxakon, sokias lotute ipintte san, da an burdi erreillik sulu dekon lekuen antxe sartze dxako alderdi bat, da beste alderdidxe, ba egurren puntetik araxe burdidzek e goitti bera sartute eukitte ban taketin-edo lotze dxakon, burdidzek e abidxada aundidxe goitti bera artu esteidxen, da ganaduk sostenidu deidxen. □

burdi ganie. Cama del carro. *Burkane ere esaten da.* || *Beittu, burkani da arek e burdidzek erute ittun ganeko..., lau ganeko, arek olak, burgani edo burdi ganie, axe.* || *Burdidxen kajie, axe kajie, ta gero arexe darois orrasidzek.* □ **burdidxen kajie.** Parte del carro donde se coloca la carga. || *Burdidxen kajie, axe kajie, ta gero arexe darois orrasidzek.* □ **burdi sokie.**

Cuerda fuerte que se utiliza para atar la carga del carro. || *Burdi sokie lodidxaue, da eundidxaue da, se burdidxe aspigarris beterik lotzen dabena da, batetik bestera.* || *Burdi sokie: Burdidzek eukitte ittu olan sartute taketak, goitti bera sartute. Sulu pe eukitte ittu egaletan, egal bidxetan, olanik-olanik. Aretan taketak sartze dxakos. Da gero sokie, gibilidxe, sartze dxako..., emen sartu, da taketak lusetxueu bi deu, da antxe taketan lusien sartze dxako gibilidxe. Beste partera. Beste partin deuna pe taketari inkete tzo, taketari buelta artu, da botaten deu beste partera. Da ostabe emen egongo da beste taket bat, ba emengo taketari olantxik artu, da beste partera. Da burkadie akabu artien, olantxik lotze san burdidxe.*

□ **burdi subille.** Travesaño de madera del carro. || *Orrek burdi subillek... Subille esate dxako burdidzek arek... Onako lodidzek eitteko, lagun bi oten di bi, da goidxen bat. Arpana esate dxako. Aundidzek ixeten di arek.* || *Burdi subillek onek... Kaji-eta eitten di ba? Burdidxen kajie? Are burdidxen kajik erute dxuan ori, ointxe suk esan dosuna. Subille. Da gero eitte dxuen ba kajie. Gero arek subilleri eitte tzesen ba suluek, da gero an ipintte tzesen arek e...* □ **burdi taketa.**

Estaca que se coloca en los laterales del carro. || *Burdidzek eukitte ittu olan sartute taketak, goitti bera sartute. Sulu pe eukitte ittu egaletan, egal bidxetan, olanik-olanik. Aretan taketak sartze dxakos.* || *Es, burdi sozak es. Burdi taketak guk esate tzeu se sozak meyek ixeten dire ta ba onek lodidxau dire.* □ **burtoldun burdidxe.**

Carro dotado de tablas laterales que forman la caja del carro. || *Burdidxen kaji burtoldun burdidxe esate tzeu. Guk burtolduneri burdidxen kaji esate tzeu. Alan oten da les, burdidxen kaji guk. Ba beste askok esate tze burtoldun burdidxe. Burtola dire egaletakuek. Burtola dire arek, burtol-ola. Ola bakarrik esan barik, burtolen... Burtolak.* □ **lurgoratako burdidxe.** Carro que se utiliza para la labor consistente en acarrear la tierra desde abajo hasta arriba en los terrenos en

pendiente. || *Guk e ba ori. Burdidxek, lurgoratako burdidxek. Lurgorataku e da kaji e txiki-txikitxuas. Orre tie esku-eskue. Orrexe eta eure sidi bi, errilla nonun, kaja laburre. Axe lurre beteta solun barnetik e gora lurre altzetan. Estosu sekule ikusi? Ta gero a lurre tra! a gora erun eta bru! jeusten da.*

burdidun, burdidune. (BURDIDUN, gurdidun-bat.) Dueño, -a del carro. || *Burdidune ba jaubi da, edo dabillena ganadukiñ-edo.*

burdiñare, burdiñarie. (BURDINARE) Cierro apero de labranza, metálico, que tiene las púas en forma circular. Sin. *bailariñak, are burdiñeskuek.* || *Araketu ba, burdiñarias eitten da araketu.*

burdiñe, burdiñie. (BURDINA) Hierro. || *Suteko burdiñie.* || *Burdiñe sati bet.* || *Burdiñesko palie.* || *Burdiñesko tubuek.* || *Burdiñe sarra.* || *Burdiñe galdan dau.* || *Ugerras jositte dau burdiñie.* || *Ugertzue? Ugerra dekon geusa bat, burdiña bat, uger asko dekona.*

burduntzi, burduntzidxe. (BURDUNTZI, burruntzi-bat., gerren) Asador, broqueta. || *Burduntzidxe oiñ esta usetan, esta ikusten. Burduntzidxe san diferentie: anka bidxek gora olan, da txorisuek-eta erreteko brasanda. || Burduntzidxe? Txarridxe il, de txarridxen urdeidxe suten e koipi bota eraitte dxakona, ta gero ogidxen barrun sartu ta jaten dana. Da axe burduntzidxe, burdiña bat ixeten da. || Emen burduntzidxen gastik-eta, sarrak e ainbeste estabe, estu ibiltten, baya suten, sarriten ba txorixu badau eskeitte, txorixu satidxe kendu te antxe suten pasaten da burduntzikue. Da okeli be pasaten da. Gure ixen eskerun e okelie satidxe ba pasau e suten, da ba “Burduntzidxe pasaute”.*

burkada, burkadie. (BURKADA, gurkada-bat.) Carretada, carro lleno, carga de un carro. Ik. *tratorkadie.* || *Burkada idie.* || *Burkada bedarra.* || *Da ostabe emen egongo da beste taket bat, ba emengo taketari olantxik artu, da beste partera. Da burkadie akabu artien, olantxik lotze san burdidxe.* || *Burkanién, ganiñ ipintten da kargi. A egurre bera utzik, burdidxek dekon egurre, bera utzik..., -esteko sera-, da a ipintten dan kargie burkadie da. Edo nai egurre dala nai..., “Burkada egurre ekarri deu”, ba burkadi da. || Jornadi? Burkada aspiarridxe be esate gentzon guk e, jornada bedarra, burka bedarra, burkada bedarra esati les.*

burkane, burkanie. (BURKANE, gurdi gain-bat.) Base del carro sobre los travesaños. || *Burkanie da a ganie, erreillan ganie.* || *Burkanie da burdidxek dekon aspiko ola, edo ganeko ola, ba bedarra, edo aspiarridxe, edo bota bi dxakona artzeko egote sana. Batzuk sulu eukitte ben, batzuk olantxik taketak eukitte sittuen inkeute, ta ba sulu eukitte sittun batzuk, beste batzuk lixo-lixo egote sirin, burdidxen. Da arixeru, nai sulodune ixen, nai lixu ixen, sulo baku ixen, burkanie*

esate dxakon. || *Burkanie esate dxako arixeru beyen daun olari, arixeru lixu-lixuri.*

burle, burlie. (BURLA) Burla, escarnio. || *Burle moduen esaten da ori.* || *Burletzat artu deu.* || *Espeloidxe da..., espeloi esate dxako olan ri-ri-ra..., eser..., “Espeloiari!” esate tze, normala estana laku, burletzat esate dxako ori.* □ **burle ein.** Burlarse. || *Berak gure eutzola esan tzonin, burle ein tzon barreska.* || *Beti burle ein guran ibiltten da.* || *Burle ein tzek.* || *Destañosue: ba berak dakidxela bestiri burle eitte tzona.* □ **burletzat esan.** Decir de bromas, para burlarse.

burleka. (BURLAKA) Burlándose.

burlelari, burlelaridxe. (BURLALARI, burlelari-bat.) Burlador, -a.

burpartike, burpartikie. Pértigo, lanza del carro. Ik. *partikie.* || *Partiki da beidxen busterridxen sartze sana. Adaburuen. Adaburuk erute ban e onakoxe sulué, da antxe sartze san ori, burpartikie. Da adaburuas.*

burpil, burpille. (BURPIL, gurpil-bat.) Rueda. Ik. *burterillie, erregurie, erreillie, erruberie, erruedie.* || *Burdidxen burpillek.* || *Len ibiltte sirin burdidxek. Da arixen erreillari esate dxaken burpille. Oiñ estau, alakorik iñok estau eukitten-da.* || *Ba burpille, beidxek ibiltten daben burdidxeri, arixeru esate tzeu guk e, arixen erreillari esate tzeu burpillak.* || *Arrastadora deko kable bat, kablie. Da ba ondo preparaute dau, burpil itzelakin, agiñ itzelakin.* || *Orrasidxe? Arek e... Burterillie? Burpille esate tze askok, burterillie bestik, erregurak...*

burpildun, burpildune. (BURPILDUN, gurpildun-bat.) Provisto, -a de ruedas. || *Burpildune ixete san trakulu. Burpil bi eukitte sittun, baya ganen laburre eukitte ban, se axe sujetetako besteko gani eukitte ban.*

burriñue, burreñue. Burreño, burdegano, animal híbrido hijo de caballo y burra. Ama zaldia eta aita astoa izanez gero, arra bada, *mandue* da eta, emea bada, *mulie* da. Ama astoa eta aita zaldia izanez gero, *burriñue* da, arra nahiz emea izan. Ik. *mandue, mulie.* || *Burriñu da astu dekona ama. Da mandu saldidxe dekona.* || *Bueno, burriñue esate dxakona da astue..., se esangot neuk?, da beres astue, baya... ser esangot neuk?, biorrak eitten dabena, astue botau, da biorrak artzen daben kunie, axe kuni da burriñue. Da selan esangot neuk? Asturi botate dxako saldidxe, astu botau biarrin, kuni eitteko, saldidxe, saldi enterue, da axe astuandik jaidxoten dan saldidxen kunie da burriñue. Bueno, mandue ixeten da, ser esangot neuk?, mandu antz-antzeku da. Saldidxek eitten daben kuni da astu botaute ala mandue? Da besti da burriñue. || Burreñu estakixu ser dan? Burreñu mandue. Burreñu da astun umi, da saldidxena da mulie. Burreñu da astuk eitten deun umi, ama astue. Da bestik deko ama saldidxe, biorra, biorra esate*

dxako saldidxeri. || Burriñue ero burreñue, bata nai besti ba. Gu geuk burreñu esate tzeu, burreñu.

burruke, burrukie. (BURRUKA, borroka-bat.)

Lucha. || *Katu burrukie. □ burruken.* Peleando. || *Burruken dabis. || Askonarrak anak eukitte ittu onakoxe lodidxe, senduk. Txakurreri geidxau eitte tzo burruken. Koban-da. Askonarrak eitten deu, ankas gora plantau, da txakurreri dale emon! □ burruke ein.* Pelear. || *Ganaduk eitten daben erridxetiri murrue esate dxako. Ostera gixonak, edo personak eitten daben erridxetiri "Burruke ein dabe".*

burrukulari, burrukularidxe. (BURRUKALARI, borrokulari-bat.) Combatiente, peleón, -ona. || *Ollar burrukularidxe.*

burruko, burrukue. (BURKO) Almohada. Gaur egungo gazteek, ordea, beti esaten dute *almudie* edo *almodie*. || *Da mis erropak esate dxaken, da oin be batzuk esango tze, oyetako erropari, ixerari. Olan burruko asalari, da orruxeri esate dxaken mis erropak.*

burrundada, burrundadie. (BURRUNDARA, burrunba) Ruido, estruendo. || *Burrundadie atara. || Burrundadie saratie da. Burrundadie da, seinde, kotxiek atarate dau burrundadie, nai edosek, lagune pe bai. || Orrek dabil burrundadie!*

burruntzari, burruntzaridxe, burduntzaldixe, burduntzaldixe. (BURRUNTZALI) Cazo, cucharón. || *Da gero eitten da..., ure ipintte dxako aspidxen e kasulie edo palankani edo soser da urtu te artu burduntzalias edo sosegas da araxe uretara bota. Gero a siketzen danién koipe opille einde gelditzen da.*

burruntzaldikada, burruntzaldikadie. (BURRUNTZALIKADA) Contenido de un cazo o cucharón.

burtarasa, burteresa. (BURTARASA, gurtarasa-bat.) Parte lateral de la cama del carro. || *Burtarasak dire egalak. Erdiku da partikie. Arasak dire albutan, da gero trangak, da aretan arasetan daus suluk, taketak sartzeko. Taketak eusteko bedarrari-edo. || Orrasidxe? Arek e... Burterillie? Burpille esate tze askok, burterille bestik, erregurak... Arek goitti bera doixenak di burteresak. Da astue an trabes dabixenak, an beti gora... Arek kargete diñak ardatzari, burdi ardatzari. Ta estutu, da nasaittu eitte sus are sididxe kin.*

burtardatz, burtardatza, burtartza. (BURTARDATZ, gurtardatz-bat.) Eje del carro. || *Orrasidxe trabes doin burtartzari sartzen dxako. || Burtardatza eitte san beti paguas. || Da gero areri burtartzari sartze dxakos an burdidxe, astuek, estutzeko. Ta orrasidxe. Orrasi, onan goitti bera, ta gero estutzeko, onek sididxe. || Errueda dekosenari burtardatza esate dxako. Erruedan are bidxen eje. || Da arek, a orrasidxe edo a burtartzin senbat estu ipinttosun, ba txirriñe geidxau deu arek.*

burtede, burtedie. (BURTEDE, gurtede-bat.) Agujero que se hace mediante correas para introducir la pértica al yugo. Ik. *edie.* || *Partikie esate dxakon areri, burdidxen partikie, nai narran partiki sartzekuri. || Edak beidxeri busterridxe inkeute lotzeko ixeten dire. Da burtedie burdidxen partikintzako eitten da burtedie, eitten da erdidxen suluas, burdidxen partiki sartzeko moduko suluas, da eitten da burtedie, serakiñ e, narruk e alegiñes ataram se esangot neuk?, sabal barik estu, narruk estu atara, da burtedi eitte san burdidxen partiki sartzeko. || Burtedie biribile ixete san.*

burterreilla, burterreillie. (BURTERRAILA, gurrerail-bat.) Rueda del carro. *Burdi erreillie* ere esaten da. Ik. *burpille, erregurie, erreillie, erruberie, erruedie.* || *Orrasidxe? Arek e... Burterillie? Burpille esate tze askok, burterille bestik, erregurak...*

□ **burterreilliñ asala.** Llanta, cerco metálico exterior de las ruedas de los carros. || *Egurras eiñeku ixeten san barrue esaten da se..., aren e barruek esaten da... a biribile ixete san da arek e..., arek burdidxe eukitte ban ganetik areri, burterreilliñ asala esate dxakon. Da a burdiñesku ixete san kanpoko partie. Da bestie egurres eiñekue, barrun. || Burterreilliñ asala beres e... se esangot nik? Ixeten da burdiñesku-edo, burdiñi dana. Da erreillatan buelta gusidxe eukitten deu.*

burtol, burtola. (BURTOHOL, gurtohol-bat.) Tabla lateral del carro (tablas que se añaden al carro para sujetar la carga). Ik. *tapie.* || *Burkanie da a ganie, erreillan ganie. Gero burtolak dire arek sarratak, simeurre-ta eruteko. || Burtolak albotan ipintten dxakos, atzien de eurrien. || Burtolak etziñ ibiltten aspiarri eitteko. Burtolak ibiltte sirin satzetako. Sartu goitti bera, olantxik sulotxun, taketakin-taketakiñ egote siriñ are pe, da sulotan-sulotan sartze dxakesan. Da arexe burdi barrure sartze san satza, solora eruteko, nai motara eruteko be bardin. || Burtolak, bai, oin dekosenai pai. Ostantziñ e bestik e taketak. Taketari sididxe... e or daus lekuek, lau sulo dekos, da gero atzin bi dekos. Ba batzuk lauas ibiltte itue, beste batzuk sei...*

burtoldun, burtoldune. (BURTOHOLDUN, gurtoldun-bat.) Dotado de tablas laterales del carro (tablas que se añaden al carro para sujetar la carga). □

burtoldun burdidxe. Carro dorado de tablas laterales que forman la caja del carro. || *Burdidxe kaji burtoldun burdidxe esate tzeu. Guk burtolduneri burdidxe kaji esate tzeu. Alan oten da les, burdidxe kaji guk. Ba beste askok esate tze burtoldun burdidxe. Burtola dire egaletakuek. Burto-ola dire arek, burtol-ola. Ola bakarrik esan barik, burtolen... Burtolak.*

buru, burue. (BURU) **1.** Cabeza. Ik. *kaskarra.* || *Buruko giltzek. || Buruko pañelue. || Burue apurtu. || Ori buru andixori floju da. || Orrek deko burue! || Burun deko kargie. **2.** Memoria, talento, inteligencia; sentido común, sensatez. || *Buruko kantzakixune. ||**

Buru gitxikue. || Ikesten-da erres eitten deunari esate dxako buru argidxe. || Buru argikue dok a. || Buru onekue da ori. || Ori estau ondo burutik. || Onek umik faltie deko buruen. || Buru ona euki bi da ortako, ori gause ori eitteko. || Esate baterako, geusak aste dxakosena-edo, da ba alakuri be igul esate dxako ba "Ai, are teko buru erie!". || Burue ondo esteko. || Orrek burun fallue dxekok. || Orrek esteko bururik! || Burun dabil pentzamentue. || Buru maritan dabil. || Setan euki dosu burue kontun es jeusteko? **3.** Personalidad, uno mismo. || Asten dana olanik e atxegi ondun-edo, da aidxen eskerra esate dxako. Esta ixeten geuse beren burue sosteniduteko, ta juten da arbola bateti bestera-edo, botate ittu adarrak, aidxen eskerrak. **4.** Cabeza, parte extrema de una cosa. || Gari burue. || Berakatz burue. || Arbolien goiko burue. || Ongor buru baltza. || Orratz buru baltzak burutxue biribil-biribile eukitten dabe. || Limias gastau eitte dxako burue, da punti esarten da egurrien, da buru dana gastau eitte dxako limias, da ba gana sorrostute, olan gantxu bat eukitten deu ganak, beidxeri siki eitte tzo. || Orratz buru suridxe auxe da, burutxu dekona. Onixen antzeku ixeten da buru baltz-baltza, one payo eundidxau eukitten deu, buru baltz-baltza eukitten dabena. || Prantzesak burue gorri-gorridxe asten deu, da gero apurkan-aurkan a gorritasune be asittu eitten da. || Ori mallue da eundidxena. Burdiñesku burue. Seinde porri edo masi esate tze ba, igula baya alderdi bidxek karak, sorrotzak, onen tamañoko sabalerakuk. **5.** Jefe. || Buru ixen. **6.** Carrujo, copa de un árbol. Ik. adarburue. || Burue ixeten da adarrak emote dittuna alako lekun; da andik eta berakue, tronkue. || Burukiñ eitte san. Bestelakue saldu eitte san. Ustela espauen, a saldu eitte san, da erute besen serrara, gero olak einde muebleterako, mueble fabriketarako. || Araburue aren bururi. Araburue esaten da. An trongu dau, andi gora eitten deuna araburu esate tze adarrari be. An gora dasen adarrak, "Araburu itzela dxekok ak!". Iguel goidxen dausen adarrak. Baya bera trongu barik, a bueltatik aste dxakosena gero, se pagu jeneral jeneraliñ iñustu bada, ba sabaldu eitten da, arek adarrak ebeitte dxakonien buru eitte dxako an itzela, da andik ainbeste adar emoten deu. Da pago burue. **7.** Repollo. || Asie? Oin buru bat atarateko bayo estot eraitten. || Geuk estou eraitten, baya ba txakur asi da asa aundidxa asten dana, ta ainbeste orri eukitten dabena, da bururik asten estabena, da orridxek e ba gordiñik jateko txarridxeri emote dxakos. **8.** Espiga. Sin. txapela. || Ori len soluen nabartien prantzesa eraitte gendun. Da buruk urtete tzonien, prantzesa "Txapeldu ein dxako", arixeri esate dxakon txapela. || Buru asten da, da gorridxe, asidxe gorritzen da, txapel gorridxe. □ **-n burure.** Al cabo de, en el plazo de, al fin de. || Baya andik sei ordun burure asten bada, edo bost ordure beren benenue edo sera eitten, ya estau

solusiñorik. □ **burun.** Al cabo de. || Iru urten burun asiko da. □ **buru ariñe.** Ligero de cascos. □ **bururi pakue.** Insensato, -a. Ik. gatzi bakue, txonta burue. || Kaskallu: erdi txoriburu, estan tipoko bat, "Kaskalluori!". Se kaskallu bakixu one erreketan selakuk oten din. Axe esate tze askori. Esan gutena "Kaskallu garbidxok ori!". An erdi bururi pako, or detzonari esate dxako kaskallu. □ **buru gogorra.** Terco, obtuso. || Ikeste esteunari buru gogorra esate tzeu, eskolarik ikisi-tte es eiñikue. □ **buru gorridxen.** Al cero. || Emen umiri-tte esate dxake, uli xi-xi-xi-tte ebeitte eukitten badabe, sorridxek dekoselako, edo seosegaittik: "Buru gorridxen itxi dabe". || Buru gorridxen garatu da. □ **buruko miñe. 1.** Dolor de cabeza. || Buruko miñas dau. **2.** Obligación, compromiso, carga. || Lorrak? Ba esate baterako, pentzamentu edo buruko miñ asko dekonari "Orre pe badxekosak lorrak, esin dxok ein de!". □ **buruko sapidxe.** Pañolón para la cabeza. || Buruko sapidxe eitten daniñ emen esta usau... Pañelo bat esangot, pañelo aundi bat ixeten dala, da ipintten da iru pikure. □ **burus bera.** Del revés, con la cabeza para abajo. || Burus bera arbolan eskegi. □ **burus buru.** Frente a frente. Ik. eures-eures. □ **burus eurre.** De bruces. □ **burus eurrera. 1.** De bruces. || Burus eurrera jeusi da. **2.** Duramente, aplicadamente. Sin. gogor. || Burus eurrera dabil biarrin. □ **burutik bitzera.** De los pies a la cabeza. || Burutik bitzera lusi dxok. □ **arri burue.** Piedra, canto. || Arri burue: arri bidiñ-edo, estrepesun-edo topetan danari, "Arri buru bat estrepesau dot". □ **burue arindu.** Volverse casquivano, -a. || "Burue arindu dxako": geusak astute itxi. □ **burue bat ein.** Comprometerse con, unirse a, andar conchabado. || Orregas buru bat einde sabis. □ **burue berotu. 1.** Calentar los cascos, incitar, instigar. || Buru berotu tzu. **2.** Preocuparse. || Buru berotzen dabil oin. □ **burue bota.** Suicidarse. Ik. burue il, burue urketu. || Ara gixon batek burue bota ban. || Merikeku pe buru bota ban Leixaranera. || Bai, beren buru bota ban, araxe barrura. Da gero bera atara esiñik sekulekuk ein sittuen. □ **buru ein.** Simular, hacer(se) el... || Geixo eitten deu ak beren burue. □ **burue eurrera atara.** Salir adelante, progresar. || "Burue eurrera atara" da pobriek ixen, da diru eittie. Famelidxe eundidxe ixenda be, ba jutie ondo: "Burue atara dxok orre pe!" □ **burue galdu.** Perder la cabeza, enajenar(se). || Ya buru galdu dxako.

□ **burue ondatu.** Perder el juicio. Sin. *burue ondatu.*

|| *Burue ondatu dxakon.* □ **burue il.** Suicidarse. Ik.

burue bota, burue urketu. || *Beran burue il deu.* □

burue jaso. Recuperarse. || *Burue jasoko deu orrek,*

sorrrak ainbeste artute? □ **buruen artu.** Aprender,

memorizar, retener en la memoria. || *Burun artu astu*

es eittie da. Ikestie da beste gausa bat, ikestie

momentun ikesten dosu. □ **buruen sartu.** Meter(se)

en la cabeza. || *Burun sartu dxakok, oiñ etxak*

ataraterik. || *Burus ikesi bi dan geusa bateri ba: "Erres*

sartze dxako", edo "Gatx sartze dxako buruen". □

burue urketu. Ahorcarse, suicidarse. Ik. *burue il,*

burue urketu. || *Beran burue urketu deu.* □ **buru**

gogorra euki. Tener poca capacidad para cierta cosa.

|| *Buru gogorra deko musikerako.* □ **burure etorri.**

Venir a la memoria, recordar. || *Etxet etorten burure*

selan ixen san. || *A, bai, bai, bai. Ointxe, ointxe burure*

etorri dxat selaku dan. □ **bururi itxi.** Abandonarse,

descuidar uno sus aseo, compostura y obligaciones. ||

Esate baterako, persona bat, jastiri be itxi, garbitzeri

be itxi, danari itxi tzola esateko: "Bururi itxi tzo". □

burus eurre ibilli. Matarse a... || *Burus eurre dabil*

bierrin! □ **buruti bera jo.** Dar una buena paliza. ||

Buruti bera jo deu. □ **burus ikesi.** Estudiar de

memoria. □ **burutik kendu.** Quitar(se) algo de la

cabeza. || *Burutik kendu esiñik dabil.* □ **burutik ein.**

Írsele a uno la cabeza, perder la cabeza, delirar,

perturbarse el sentido o la razón. || *Burutik einde dau.*

|| *Soratutie da ya dana apurtzen dabilena. Burutik*

eitten deuna da ser esaten deun estakidxela esaten

deuna. Diferentiek dire orrek, geuse bi dire orrek.

Soratutie da bat ta bestie burutik eittie. Geixuk burutik

eitten dabe, soratu barik, geixuk, esate baterako ya

memoridxe, kalenturias-da burutik eitten deu. || *A be*

ondo... Apurtxu bet e badabill or e burutik-ero, ori be

esan eitte da "Destartalaute dau". □ **burutik ibili.**

Estar loco, estar mal de la cabeza. || *Buruti dabil.* □

burutik ondo egon. Estar en su sano juicio. || *Personie,*

burutik ondo estauna, bai, naiku atrapaute dau. || *Estau*

burutik ondo, estaki ser eitten daben. || *Burutik estau*

ondo, berak deritxena esaten deu. □ **buruen uletan**

dekon beste bider. Tantas veces como pelos en la

cabeza. || *Buruen uletan dekon beste bider damutu*

dxako orreri.

buruarin, buruariñe. (BURUARIN) Casquicano, -a,

de poco juicio. Ik. *kaskariñe.*

burudun, burudune. (BURUDUN) Listo, -a. ||

Burudune da.

burueuste, burueustie. (BURUHAUSTE)

Quebradero de cabeza, preocupación. || *Lorra? Ser*

dala esangot? Lorra, burueustie, "Axe lorra artu

dabena!". Biar gogorra bada, ba lorra.

burugaldu, burugaldue. (BURUGALDU) Insensato,

-a, loco, -a.

burugin, burugiñe. (BURUGIN) Vividor,

calculador, previsor, que mira por sí. || *Burugiñe da*

kargu ondo eitte tzona noberan bururi. || *Burugiñe da*

gixona bierra gitxi da gorputze ondo jaboten dabena.

Ori da burugiñe. Guretzako e! Guretzako ori da.

Biarra eta gitxi areri e... itxi ta noberan burutxu ondo

jabon eitten dabena, burugiñe a da. || *Burugiñe da...*

Ondo kargu eitte tzesu ba bururi, bakixu, busti be ein

gure es, edo pintxu es, da arexe persona esate tzeu guk

"Ño, ori dok burugiñe!".

burugogor, burugogorra. (BURUGOGOR) Cabeza

dura, terco, -a, obstinado, -a; duro de mollera. Baita

honela ere: *Buru gogorrekue da ori.* □ Lagun bati

ikastea kostatzen zaionean: || *Ori da buru gogorra!*

buruki, burukidxe. (BURUKI) Trozo o carne de

cabeza (para comer). *Buruko okelie* ere esaten da. ||

Burukidxe buruko okelie da. Len eitte san, oiñ esta

aprobetxatzen burue. Aintxiñe, ba, oin bayo gose

geidxau egon san berton be. Da etziñ iltte sanin txala,

orreri eitte dxakon burue oso-osorik lapiku baten edo

galdaran sartun, egosi de dana okela jan berton,

buruko okelie.

burumakur, burumakurre. (BURUMAKUR)

Cabizbajo, -a. || *Burumakur dabil.*

burumotz, burumotza. (BURUMOTZ) Pelado, -a,

rapado, -a. Ik. *kaskamotza.* || *Burumotza: ulerik*

estekonari esate dxako, uli ebei-ebei, de buru motza,

kaskamotza.

buruorratz, buruorratza. (BURUORRATZ)

Rascamoño, aguja larga que las mujeres se ponían en la

cabeza. || *Buruorratza pañelun erute san.*

burutasiñoye. (BURUTAZINO, *burutazio-bat.*)

Ocurrencia, capricho, idea, pensamiento. ||

Burutasiñoi da ya geuse bat pentzetie "Axe ein bi dot".

|| *Burutasiñoye etorri dxakok areri au eitteko.* || *Orreri*

etorri dxakok burutasiñoye ta!

burutasun, burutasune. (BURUTASUN)

Ocurrencia, capricho, idea, pensamiento. ||

Burutasiñoye, da burutasune, nik pentzatot, nitzako bat

tire. || *Orreri be etorri dxakok burutasune, a eitteko.*

burutu, burutzen. (BURUTU) **1.** Espigar, echar

espigas (trigo...) granar. Sin. *txapeldu.* || *Artaburue*

burutu. || *Garidxe burutzen dxoik.* **2.** Vencer, ganar,

superar. || *A burutu dok.* □ Azkeneko esaldi hau

azaltzeko honela esan zidan: *A da kanpeoye, geidxen*

burutzik. (BURUTSIK, buru-hutsik) Con la cabeza descubierta, sin sombrero. || *Burutzik dxoik.*

burutzu, burutzue. (BURUTSU) Ingenioso, -a, listo, -a. || *Burutzue? Sientzidxe asko dekona edo asko aittuten dabena edo ba asko ikesiñeku edo ba.*

buruxa, buruxie, buixie. Residuo de grano, paja. || *Buruxie? Garidxe len eskun jote san, garidxe be, ta jote san da soltete dabene burue, soltete itun buruek, jota, arixe esate dxako buruxie. Da a batu eitte gendun, a buruxie. Jote san e, eitte gendun jotaldidxe ta ba buruxak soltau eitte dxakosan galtzuri. Da axe soltete dxakosen serak ixete sin buruxak. || Garaune dekona ixete san buruxie. Garaune barruren dau. Da arek eitte sirin batu, buruxak. Batu te eskukadatzu eindakun, ba... Oiñ astute deket selan eitte san be. Buruxak batu da are buruxak eitte sirin jo barridxen, batute. Batu eitte sirin da gero jo eitte sirin. || Ori da garauek dekon lakatza: buruxi. Makiñik onek antxiñeko trilladora agindunek a ebei eitte tzon, garandute a burue ebeite tzon, a botate ban aparte, jeuste dan a. Eskubaratu gero. A sabaire ta ganaduri emon. Buruxi. || Buruxie: an punti soltete dxakona. A punti solteu te bera jeusten da. Da bestie, galtzue, asaue juten da orra. Da besti da buruxi. Jaten ganaduri emoten dxako, buruxi. || Buruxie len eitte sana onetan, buruxi galtzune ori. Guk areri esate tzeu. || Garidxe jota gelditzen dana da buixie.*

buskentz, buskentza. (BUZKANTZ) 1. Tripa, panza, barriga. Ik. *tripie.* || *Ori dok buskentza dekan ori! || Buskentza urtenda dxekak. || Buskentza, esate baterako, txarri bat iltzen da, da txarridxen tripiri esate tze batzuk buskentza. || Persona bat tripetzu danari ba "Buskentz galanta deko"-edo esan eitte dxako. || Txarridxen tripiri buskentza esate tze, baya murtzilliri be, batzuk. 2. Morcón (morcilla hecha con el intestino grueso). Jangoiko ere esaten zaio. Ik. *odolostie, murtzillie.* || *Emen ya esta olan buskentzarik eitten. Guk geuk sekule bes. Buskentza ixeten da este nausidxe bete. Ardidxena nai txarridxena nai txalena. || Guk esteutzegu esaten buskenti paya, buskentza batzuk esate tze murtzillari. Emen murtzillak, edo ganaduri eitte dxakesanak odolostiek. Txarridxeri eitte dxakesanak, murtzillak. || Nik batzuk buskentza esate tzela pentzetot murtzilleri. Batzuk, guk geuk esteutzegu..., guk geuk murtzillie esate tzeu. || Buskentza eta jainkue bat ixango dire. Jainko, guk jangoiku esteutzegu esaten, jainko bayo, este lodidxeri jainko.**

bustantz, bustantza. (BUSTI ANTZ) Humedad. || *Bustidxe..., bustantza daunari, edo olan siku-siku estaunari umela esate dxako.*

busten, bustena. (BUZTAN, isats) Cola, rabo. || *Ori katue busten bakue da. || Oratu bustenetik! || Mikie, txoridxe ixena da ori, mikie. Mikie orrek nabarra dira arek, busten lusias ibiltten diñak. □ || Posu eoten*

dana, bilinbolu, olan. Da gero sapotu eitten dire, lusero dauseniñ ainkatzuk urtete tze, da gero ba bustena be jeusi eitte dxako, da sapuk paretan dire. □ aseri bustena. Cola de caballo, espadaña (*Esquisetum arvense L.*). Sin. *aseri bedarra.* || *Aseri bustenak, ori da ona garmuntzako, prostatantzako. || Aseri bustena da..., ori be asi eitten da mendidxen, edo basuen. Piñun antzeko orritxu eukitten deu, da jeneral mendidxen, emen mendidxen olako asko esta asten, baya bai leku batzuk eoten dire. Jeneral Gernike partiñ ori asko asten da. Alaku pa neu pe iñois batu tzet, da egosi, da aixen ure edan, nerbidzuk kalmetako ixeten dire, baya nik pentzetot ori nerbidzuk kalmetako barik, nerbidzuk biskortzeko ixengo da. Se nik pentzetot, nik neuk beintzet, edaten asi neitzenin, bai, edateko be ba esta ain txarra, ori asukerie bota, edateko, ta ba kalmetako esaten dabe, baya nik esango neke kalmetako barik nerbidxosa ipinteko ixengo dala. || Aseri bustena amen tamaño ingeruku asten da, da se esangot neuk? Orridxe piñuk eukitten dabene orridxen antzeko orritxu eukitten deu da piñu bayo berdetxuau da, da olan bai Nabarrixerak gatosela be bide egaletan-da badau, baya amen berton ori aseri bedarra estau. Ur ondutan-da eoten da. || Aseri bustena da etxure baten piñutxu lakoxi da, nagosiñ e asten dire, da danak a emendik-emendik-emendik-emendik-emendik-eta ba beres seres beterik oten dire, ser esangot neuk?, aseri bustena, da aseri bedarra kontixu bat tire, Da eukitte itue ba olantxik, piñutxu les eukitten dabe sera.*

bustenikera, bustenikerie, bustenkerie. (BUZTANIKARA) Aguzanieves, chirivía (*Motacilla alba*), especie ornitológica del país, que habita cerca de los ríos y se caracteriza por su cola temblona. Emiliano Arriagak *eperdicara hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Aguzanieves, nevatilla; pastorcilla. Pájaro que frecuente mucho las orillas de los ríos, moviendo constantemente la cola. || Bustenikerak dire a busten lusie dekenak. || Bustenkeri da olan ibiltten dana, a busten lusi eukitten deu, esta' Da beti olan ibiltten deu. □* Por extensión también se le aplica al ganado que está inquieto: *Bustenikerie esate dxako ganaduri, geldi egon esiñik eta badabil: "Ori da bustenikerie!"*

bustenkada, bustenkadie. (BUZTANKADA) Coletazo. || *Kaguen, bustenkada bat emo-stek begidxen!*

bustergin, bustergiñe. (BUZTARGIN, uztarginbat.) Fabricante de yugos. || *Bustergiñik? Bai, egon san amen Nabarrixen, bat. Gero serri ipiñi ban. Egon san. "Busterri" esate tzen, Jesus "Busterri". || Ein laurena, da busterrigiñera be saltze siren.*

busterri, busterridxe. (BUZTARRI, uztarribat.) Yugo. || *Busterri bakarra, da bikotxa. || Arek busterridxegas lotuten dizenak ediek dire. || Eurreridxe? Bai. Beidxeri karga eundidxe dekeniñ e*

beste busterra bat ipintte dxake, ta busterra bigas-edo erun eraitte dxake. Eurreridxe eurretik doin busterridxe. □ **busterra ganie**. Cubierta de cuero que se colocaba sobre el yugo. Ik. *adaburuko narru*. || *Adaburu narru ixeten da, busterridxen ganiñ ipintten dana, adaburuko narrue*. □ **busterra beidxe**. Vaca que se unce. || *Busterra beidxe: busterridxen ibili bi dana, busterra beidxe. Busterra beidxe da..., ididzek ibiltte ittunari be esango tze, busterra ididxe*. □ **busterriko narrue**. Cubierta de cuero que se colocaba sobre el yugo. Ik. *edeganekeue*. □ **busterridxen ipiñi**. Uncir, atar o sujetar al yugo bueyes, mulas u otras bestias. || *"Esi bakue da ori!": esate baterako, ganaduk busterridxen ipinttosus, de leलगotan ipintten danin: "Esi barik dau oindiñogarren!"*. □ **bei busterridxe**. Yunta, par de vacas uncidas. || *Oneri (sesturi) katiak ipintte dxakos, emendik edo emendik, da arridzek ipintte dxakos ganiñen, da bei busterridzek ibiltten deu*. □ **ganau busterridxe**. Yunta, par de vacas uncidas. || *Ganau busterridxe amar ogorlokun*. □ **idi busterridxe**. Yunta, par de bueyes uncidos.

bustertu, bustertzen. (BUZTARTU, uztartu-bat.) Uncir. || *Aintxiñe baserriko beidzek bustertuta ibiltten siren*. || *Geu be beidxe kiñ ibiltte giñen. Oin traktorak ibiltten da, oin beiri pe esta bustertzen-da*. || *Len ganaduk bustertzen siriñien, edo solun araketan eitteko, edo sestoketan eitteko, edo goldaketan eitteko, nardeki ipintte dxaken*. || *Oiñ e beiri pe esta ibiltten e busterridxen da ein kontu! Se geu pe estous bustertzen-da, oin makiñak ibiltten dire ta ba*.

1 busti, busten. (BUSTI) **1**. Mojar. Ik. *melau, uidxeldu*. || *Ekarri ittoiñe artzeko ontzidxe, busti esteidxen beye*. || *Bustitte etorri nas*. || *Ixerdis bustitte dau*. || *Ixerdidzek dana bustitte dau*. || *Orrek erropak mudeu ixek, bustitte sak eta!* || *Denpora maskala? Ointxe daunari. Euri apur bet, da maskala, busti eitten dabena*. || *Bai, gero kortan-da badau, busti eitte dxakue a dana (apatxa), da bigundu*. || *Magala? Erropa-edo, gona bat-edo, euridxe einde, busten danin ba, erdi bustitte daunien, ba magala arixeri esate dxako. Maskala be bai*. **2**. Emborracharse. || *Ondo bustitte dxak!* || *Ori beratu-bustitte dxak!* □ **busti-busti ein**. Empapar(se). Ik. *melau-melau ein*, || *Ni jun mendire, nai basora, ba busti-busti-busti einde etorri, tte gero amen su ondun, nai ona etorritte: "Jo, bestela dxak amen!"*. || *Busti-busti eindde allegau da*.

2 busti, bustidxe. (BUSTI) **1**. Mojado, -a, humedo, -a. || *Bustidxe dau*. || *Busti-busti einde*. || *Guk solun, iguel busti egoten da solue, lurre, artzen deu erremintie, atxurre ero, da astertu eitten deu siketu deidxen, arue plantau deidxen*. || *Singeri da ure eitten dan leku bat, singerie leku busti bat ta, bustidxe. Ba*

bertan, singeran, singeri da leku umel bat, leku busti bat ure oten dana. || *Lurre bustidxe dauniñ-edo, euridxe einde daunin nai ein barik daunien, ba labankadie ainkias eitten dana da*. **2**. Humedad, liquido. || *Maskala batzen: garu-edo, bustidxe batzen*. || *Egualdi umela da, untxe gaur daune laku be umela da, garu eitten dau te. Da bustidxe, euridxe-ta eitten dabenin, ba euridxe, "Dios, bustidxe!"*. *Baya umela da... Lañuk e, sarrasoi pe umedadi botaten deu. Umela*.

bustialdi, bustialdidxe. (BUSTIALDI) Mojadura, mojada, remojón. || *Bustialdidxe artu dot emen*.

bustiñe, bustiñie. (BUZTINA, buztin-bat.) Arcilla. Ik. *lurre*. || *Bustiñi gorridxe lur txarra da*. || *Bustiñie amen e berton geure terrenuko solun be ba barrure goldatu ero onan eiñ eskero, barrutik satarra ataraten da, bustiñi. Lur satarra dire orrek bustiñak. Gogorrak*. || *Telleridxe da aintxiñe tellak eitten siña. Bustiñi, bustiñi ixen bi deu telli eitteko. Antxe dau berton*. □ **bustiñe lurre**. Tierra arcillosa. || *Arrolan da ortan ari lurre dau, ta emen es. Emen goitti dau... au bustiñi esate tzeu, bustiñi lurre, bustiñe lurre. Karatxan lurre dau emen. Da an ari lurre esate tze Arrolakuri. Arrolakue, arridxe be ari arridxe da, gorriski*.

bustiune, bustiunie. (BUSTIUNE) Parte húmeda. || *Bustiunie dau amen be*.

dale. ☐ **dale emon.** Pegar, dar una tunda. || Askonarrak anak eukitte ittu onakoxe lodidzek, senduk. Txakurreri geidxau eitte tzo burruken. Kobanda. Askonarrak eitten deu, ankas gora plantau, da txakurreri dale emon!

dama, damie. (DAMA) Dama. Ik. *señorie.* || Anbotoko damie.

damaka. (DAMAKA) Jugando a las damas.

1 damu, damue. (DAMU, garbai) Arrepentimiento. || Oin deko damue. || *Damu barik ju adi ara.* || *Damu barik ei dxok apurtu.* || *Orrek esteko eiñen damurik.* || *Atzokun damurik estakar egualdidzek.* || *Ondo einde daunin bierra, noberan gustora einde daunin: "Eiñen damurik estau".*

2 damu. (DAMU) Arrepentirse, lamentarse. || *Damu dot esana.*

damugarri, damugarrix. (DAMUGARRI) Motivo de arrepentimiento. || *Damugarrix da: geuse bat ein, de gero ba ondo ikusi es-edo, "Penagarrix ixen da olan eittie", damugarrix.*

damutasun, damutasune. (DAMUTASUN) Arrepentimiento. || *Oiñ etorri dxako damutasune.*

damutu, damutzen. (DAMUTU, garbatu) Arrepentirse. || *Odol beruen ein, da gero damutu.* || *Damutu ein dxako eskontzie.* || *Bere bixi gustidzen damutu dxako eskolara es jutie.* || *Oin damutu da.* || *Damutute nau.* || *Damue da, selan esango tzut?, esate baterako, konfesetaku jute danin, konfesorik –oin konfesorarik estau baya– pregunteten deu ba: "Damutzen sara ein dosusen pekatukaittik?". Bayetz, edo esetz esate dxako. Da orixe da damue, noberak artzen daben sentidu-edo. || *Damutze sara ori pekatuas?**

dan, dana. (DANA, dena-bat.) Todo, todas las cosas. || *Ori dok geuse gatxa, itxosoko ure dana kentzie les.* || *Edo dana gure deu edo bapes.* || *Daniñ igula da.* || *Dana nastau!* || *Da aregas ba brasie sabaldu eitte gendun laban, daniñ egon deidzen su, labie berotu deidzen ba ogidzek erreteko modun.* || *Gero jote ben arimena, beranduau, aremaitteku bayo beranduau, da ordun purgatorioko arimari aitteguri erreseten san. Oiñ orrek e geusa danok tas astute, aiiii!* || *Katanarra, da au askonarra... Askonarra jakingo su ser dan... Da aseridxe... Orre danok mendiku dire, mendiko bronkuek.* || *Emen txondorra eitten etxak gatx. Emen berton dxak dana ta.* ☐ **danetara.** En total. || *Dana saldidxe oin. Oiñ astorik e..., Nabarnixen e dan-dan-danetara be iru asto estaitt ongo din.*

dana dala. (DANA DALA, dena dela-bat.) Sea lo que sea, en cualquier caso, de todos modos. || *Dana dala enas juen.* || *Pagau dana dala!* || *Len erregenetan kanteta gendun: "Erregiek tatos, erregiak tatos, limosnia batzen, limosnia batzen, gugenen gatos, gugenen gatos...", astute deket, baya dana dala, kanteta*

gendule. || *Sardiñerak: olan arraiñe saltzen dabenaritte, sardiñerak, olan etzerik etze etorten diñari-tte. Oiñ etorri be estire eitten, baya dana dala. Len etorte sirin, bai.* || *Txorixuk ordun eguniñ estire eitten baya, dana dala, orixe da txarri gobernue.*

dana dalakue. (DANA DALAKO, dena delako-bat.) Sea lo que sea. || *Etorte san abadie estoriegas da dana dalakoas.* || *Karnabaletan eitten da txitxiburduntzidxe. Ori da ba urdeidxe, txorixue, edo dana dalakue, ipiñi beko suten, da erreten dana.* || *Dana dalakue eidxosu!* || *Eskuretzi da noberen esanetara ipinttie, eskuretu, noberen esanetara, umie, edo nausidxe, edo dana dalakue noberen esanetara ipinttie, ba eskuretzie.* || *Orrek suk len esan dosun orreri saldarra esate gentzen, olanik urtete ben e..., ser esango tzet nik? Dana dalaku, da arixentzako-edo, arixeri ein, jabo be eitte dxakon, jaboye, koipie, da beste geusa bat seoser be eitte dxakon.* || *Agintzaridxe? Ba agindu onenbeste. Diru edo dana dalakue.*

danagureko, danagurekue. (DANAGURAKO, denagurako-bat.) Ambicioso, -a. || *Ori personiori da danagurekue.*

danbada, danbadie. (DANBADA) Estruendo, portazo. || *Ate danbadie.* || *Danbadie? Estaipa, atik artzen daben golpi-edo.*

danbarrada, danbarradie. (DANBARRADA) Estruendo, ruido, alboroto. || *Tamañoko danbarradie ixen da!* ☐ *Esate baterako, trumonada dagoenean: || Selako danbarradie ixen da!*

1 dandarres. (DANDARREZ) A rastras, arrastrando. || *Dandarres ekarri deu egurre.* || *Marroskillue esate tzeu, karakola-nai barik, marroskilluk, dandarres dabixenak.* || *Len eskatzin be eurkidzek ibilte gendusen, jarritte eoteko-ta, umik olgete ben an, eurkidzek naiku dandarres ibilite.* ☐

dandarresin. 1. A rastras, arrastrando. || *Dandarresin dabixen gausari, orrek, orrek sienpiesek ankatxuk eukitte ittu, ankas beterik egoten da. Da orreri be bai, tte areri dandarres ibiltten dan areri kokuri be bai, lupu esate tzeu. 2. (Trabajando) duramente. || *Bueno, "Dandarresin dabil" ba bierrin e sendo dabilenari be esate dxako "Dandarresin ibiltten da biarrin", baya.**

2 dandarres, dandarresa. (DANDARREZ) **1.** Tierra arrastrada por un torrente. || *Dandarresa urek eitten dabena da, errekatik urteten daben urek-edo atrapatzen dabena, dandarresa. Eitten deu solotik pasetan bada, solun eitten deu lurre eurretik eruen, da olako errekatxu bat eitten deu, te dandarresa arixe esate tzeu.* || *Urek eurretik daroin lurre da dandarresa.* || *Dandarresa da esate baterako, euri asko daniñ edo ure sartzen dan leku baten, urek botaten daben..., lur zatidxe pasetan bada, urek botaten daben lurreri esate dxako dandarresa.* || *Dandarresa bai. Bakixu, sa mendidzek emoten daun e luperidxe, bakixu arek lurrek eta*

arridxe ta dana, ta gero errekkik eruten deu igul. 2. Desaliñado, -a. Sin. saskille. || Beste batzuri persona dandarresa esate tze, erdi tatarres-ero... Bestik ondo jantzitze, ta susen, da: "Dios ori jagidx-ok!"

danerako, danerakue. (DANERAKO, denerako-bat.) Que vale para todo. Ik. *gustirekue. "Gustirekue da" baino gehiago esaten da "Danerakue da". || "Ori personie daneraku da": edosetara moldetan dana. || Daneraku: esate baterako, erropa bat ba danerako jantzi lei.*

danetariko, danetarikue. (DANETARIKO, denetariko-bat.) De todas clases. || *Danetariku ikusi du. || Klase gustitakue! Olandesa, da Irlanda... Danetariko jentie dabil orretan e! Danetarikue!*

danga-danga. (DANGA) **1.** Onomatopeya que expresa rapidez, resolución. || *Danga-danga edan, jan. || Danga-danga jun dok. 2. Onomatopeya del tiro. || *Danga-danga bota itue.**

dantza, dantzie. (DANTZA) Baile. || *Dantza soñue. || Euskal dantzak. || Jota dantzan. || Dantzi dau. || Palukiñ eitten dantzie ixengo da ori. □ dantza soltie.* Baile suelto. || *Oin be Santa Eufemia egunien ainbeste jente juten da ara. Len diferente. Len jentetan eskandalu te danak dantza solti te erromeidxak. □ dantzan ein.* Bailar.

dantzaleku, dantzalekue. (DANTZALEKU) Lugar de baile.

dantzari, dantzaridxe. (DANTZARI) Bailarín, -ina.

dantzatu. (DANTZATU) Bailar.

dardada, dardadie, dardarie. (DARDARA) Temblor, vibración, palpación, trepidación. || *Dardadie deko. || Eskutako dardadi: jeneralin sarra edo edadekuk eukitten dabena, bai, eskutako dardadi.*

□ **dardadan, dardaran.** Temblando. || *Otzikeriakin dxabik dardaran. || Dardaran egon dok.*

dardadaka. (DARDARAKA) Temblando. || *Da gero arridxe oten da ba arridxen apur bat onan, da saposaltue esate gentzon. "Saposaltu emoidxok ori!". Dardadie, bakixu. Dardadaka. "Emoidxok e dardadie! Saposaltun eik!". Ta-ta-ta-ta-ta, da irebasidxe emoten dau.*

dar-dar. (DAR-DAR) Temblando. □ **dar-dar egon.** Estar temblando. *"Dar-dar nau" nahiz "Dar-darka nau" esaten da. || Bueno, dar-dar be egoten da estutasun baten.*

dar-darka. (DAR-DARKA) Temblando. || *Dar-darka dabil ixerra. || Dar-darka dabil bonbillue. || Dar-darka dabil argidxe. || Dar-darka nau.*

daridxola, daidxola. (DARIOLA) Manándole. || *Moku daridxola. || Kantiñetik daridxola daroik. || Kandela negarra, an daridxola dana. || Dana keye, dana negarra daridxola. || Negarra daridxola dxak*

piñue (briek urtete tzek). || Keye daridxola. || Negar anpulu daridxola egon da. || Negarres anpuluk daridxola egon da. || Len materidxelako beti ilberan bota biste san, da ostantzien ure, ure daidxola egoten da ilbarridxen. || Erropa sar daidxola dau ori. || Sokias lotu alderdi bistatik trontziri, da arrañe sa les, trontzie, da jan ein tzen asko, da sokakin batetik amar lagun igul, da bestetik beste ainbeste, da ondias ebei san, keye daridxola trontzian.

debalde. (DEBALDE) De balde, gratis. || *Debalde emon. || Ori debalde da. || Ori debalde emon tzun.*

debaldeko, debaldekue. (DEBALDEKO) Gratuito, -a. || *Kosta bakuk esan gure detzu debaldekue.*

debekau. (DEBEKAU, debakatu-bat.) Prohibir. Ik. *galaso. Debekau ez da Nabarnizko berba, oraintsu ikasitako berba da. || Bai, 'galasota' esaten da, da 'debekatute' be bai, ori berbi be entzu dot, batzuk, sarrak diriñak, nire modukuk diriñak-eta 'debekatute' be igul esango dabe. Ori 'debekatu' ori idxe desaparesidute daula pentzetot nik.*

debildu. (DEBILDU) Debilitar. || *Gorputzerako txarrena, debildu eitten deu orrek puñetik.*

defendidu. (DEFENDIDU, defenditu-bat.) Defender(se). || *Defendidu? Bueno, 'defendidu' bai. Se esangot neuk? Olan e gusurre esaten dabenari-edo, "Defendiduko da"-edo.*

defunta, defuntie, difuntie. (DEFUNTA, defuntu-bat.) Difunta.

defuntu, defuntue, difuntue. (DEFUNTU) Difunto. || *An aitte defuntu gurie jaidxo san lekun be on san metal ure. || Difuntue? Bai, illekugaitti pai. Difuntie edo difuntue illekugaittik esaten da.*

dei, deidxe. (DEI) **1.** Llamada. **2.** Amonestación (matrimonial). Ezkondu aurretik *deidxek* izaten dira. Ik. *elis deidxek. || Eskontzeko deidxek. || Deidxek eitte sirin, iru biderres botate sirin, iru domeketan, edo iru jai egunetan. Mesa nausitten botate sittuen deidxek. || Deidxek bota itue. || Elixako deidxek aste dixerinien len, ba esate san. Deidxek aste siriñina: "Asi dxakos sayetzak eusten". □ deidxes.* Llamando. || *Deidxes dabil. || Deidxes dau.*

deike. (DEIKA) Llamando. || *Deike dabil.*

deittu, deitzen, deittuten. (DEITU) **1.** Llamar; convocar, avisar, citar, invocar; invitar, convidar. || *Telefonotik deittu neutzen. || Maire deittu. || Eutzi au badaespada. Anera jun biot, Karinak deittuste ta ensegida etorko nas neu atzera baya. || Abadiiek deittu ban ontzugo be, ixengo dire bost bat urte, abadiiek mesatan deittu ban: astion etorriko dire etzerreskien da ez begi txarrik ipiñi, arpei txarrik es ipiñi, bakotxan borondatie emon, da aurrera. 2.* Llamar a voces, gritar, vocear. || *Deittu te igul etorri es-da eitten deun txakurreri esate dxako "Barrabasan txakurre, etorri es!" 3.* Llamar(se), tener por nombre. || *Gatzas*

deun okelie nai arraiñe-edo, uretan ipintten da. Orreri deittuten dxako beratu. || Orrek danak kontuk dire ostin, sorgiñe egote siña ta au selako sorgiñe...! Sorgiñe parik bertan lantzen bateri be iguel ikaratzeko deitze tzen. || Konpidxentzidxe euki eskero bai, baya konpidxentzidxe espadau, txartzat artu igul, ori ya motza, olan kanpokuk deittutie. Kanpokuk deittu leidxo ori konpidxantzadune bada, baya olan etorritte edonor, "Atzue!" deittu, asarratuko litzeke. || Orrek garbitzeko orrek, egurreko serak ixete siñak, orrek e egurreko galdara modure, orrek e bukoyek. Bukoyek deittuten di ba. || Are burdiñeskuk e beste batzuk egon siñ orrek. Guk deitzen gentzon baillariñak.

deja, dejie. 1. Deja. || *Dejie deko bentanik (arrakalie edo bittartie dekonien).* || "Bentanik dejie deko": Bai, olanik seoser falta dabenin-edo, sekoniñ e, se esangot neuk?, falti-edo, egur sati baten falti-edo dekonin, dejie deko; ba eukitten badeu olanik, sulu be esta dejie, dejie da ba geusetxu bat, olako sati bat falta dabena-edo. || *Bentanan dejie: amen igul ondo jun ori barik, justu bari tau, bittartetxuas, da "Koño, dejias geatu dok!"*. 2. Defecto al hablar. || *Dejie? Esiñ esana deitzen tze, deja apurtxu be dekonari, dejie, "Deji dxekok orrek"*. || *Da ori besti be miñes aspidxen-ero ori eukitten dabe ta "Deji dxekok". Esiñ esana esate tze batzuk, minpeku be beste batzuk.* || *Dejatzue, berba eikeran, dejatzue.* 3. Dejada (de los pelotaris). Ik. *dejadie.* || *Da pelotaka be deji da, "Deji ein tzek". Eitten batzo tantue olan, "Jo, eske deji ein tzek"-eta. Da beste batzuk e, igul e pelotari batzu teke... deje asko dekona: "Ak dejak eitte dxusak".*

dejada, dejadie. (DEJADA) Dejada (de los pelotaris). Ik. *dejie.*

demanda, demandie. (DEMANDA) Pleito, riña. *Atie baino gehiago erabiltzen da gaur egun.* || *Ori beti dak demandan, orrek sekule etxok dirurik eurreratuko.* || *Abogaduek dausen arte, demanda geidxau ixengo da.* || *Pedro ta Mikel demandan asi dire.* || *Demandan dabixek Jon ta Josu.* || *Demandie emon tzo Josuk ari.*

demandasale, demandasalie. (DEMANDAZALE) Pleiteador, -a, litigante. || *Demandasalik dire, beti demandan dabis.*

demas, demasa. (DEMAS) 1. Enorme, grande, exagerado. Ik. *galanta, itzela.* || *Demasa ixen da! || Ori demasa dok gero! || Demasa dok ori be!* 2. Grande, fuerte. Ant. *eskasa, txatxarra.* || *Demasa au da!* 3. Grande hecho. Ik. *eittadie.* || *Demasak eitte ittu orrek!*

demoniñu, demoniñue. (DEMONINO, demonio-bat.) Demonio. || *Ori demoniñuori!* || *Uxikaue da despistau esati lakue. "Uxikau garbidx-ok ori!"*. *Beidxeri be esate tzeu guk ori. Beidxeri, an badabil ganora barik eta, "Uxikau demoniñue!", "Uxikaue, beti uxikaue!"*.

demontres, demontresa. (DEMONTRES, demontre-bat.) Forma atenuada de demonio. ||

Demontresa? Umiri agirike eitte dxakenin ba esate dxake "Demontresa!".

denaniñu, denaniñue. (DENGANINO) Forma atenuada de demonio. Gaur gutxi erabiltzen da hitz hau. Lehen zaharrek erabiltzen zuten, gehienbat umeei zuzenduta. || *Ori denaniñuori!* || *Ori denaniñuori oiñ or dabil.* || *Ori denaniñue badoye.*

denda, dendie. (DENDA, saltoki) Tienda. || *Judidxu asko dau aretan e. Judidxuk negosiantik. Orrek dendak eta orrek judidxunak geidxenak. Emen judidxu txarrari esate dxako. Emen bai. Estosu entzuten? "Ori judidxori! Kaguen dies!". Da an judidxuk, ostera, denda itzelakin.*

dendero, denderue. (DENDERU, dendaribat.) Tendero, -a. || *Dendero karue.* || *Berari eskatze dxakosan, denderuri, aretan dediketa sanari. Da ak botate ebasan.*

denpora, denporie. (DENPORA, denborabat.) 1. Tiempo (cronológico). || *Denporie pasau, emon, euki.* || *Denpora sati bet ein gendun.* || *Galdatxue estai guriñ e oin badau. Makiña bat denpora egon san geldi.* || *Oin dala denporie pasau san.* || *Sure aman denporan pasau san.* || *Neure denporan bai, beintzet.* || *Gure txiki denporan, bat. Kantera, Kantera ingeruen. Kantera bakixu nun daun. Antxe goidxen, mendixen. Axe esautu dot neure txiki denporan.* || *Denpora gitxien euri asko jeusi de.* || *Ordutik ona denpora asko jun da.* || *Da gero andik denpora asko barik il san gure aitte.* || *Bakixu, Pedro erreteru ixen da beren denpora gustidxen. Da etze erdidxe bestik saldu banin, ba erosi ein dau.* 2. Época, temporada. || *Beda denporie.* || *Arto denpori esta oin.* 3. Tiempo atmosférico. Ik. *arue, egureldidxe, sasoidxe.* || *Denpora argidxe.* || *Denpora epela, floye.* || *Estabadako denporie.* || *Denbora goibela, txarra, eskasa, txakurre, illune.* || *Denpora ona etorri.* || *Denporiek onaldidxe deko.* || *Bidxer be denbora ona ingo deu.* || *Geur denporatxu politte e!* || *"Marigorri txiripiri, esaidxosu Jangoikuri bidxar denpora ederra eitteko".* || *Denporiek kanbidxo ein bi deu.* || *Denporik e bariasiñoye abidxe dau.* || *Denporie txartuten danien, gabiotak etorten dire.* || *Onegas denporias iñorako eskas.* || *Otzittu ein deu denporik.* || *Denpora txarra egon da ta eusittu ein deu.* || *Denpora ederra dator.* || *Mariorratza ser dala esangot? Olan euskitten da denpora ederra danin burrun- burrun- burrun- burrun ibiltten dan koko bat. Lusetxu ixeten da.* □ **denpora jagidxe.** Tiempo atmosférico airoso. || *Denpora jagidxe da airosue, onera, ona. Denpora jagidxe, e, iruntzik es olan, eser estaunien ixeten da jagidxe, aixi dabilienien, da aixi ixen bi deu jagidxe ixeteko; es a euski berue, etxako esaten, denpora ona egonda be, euski beruri, denpora jagidxe danik. Ordun esaten da "Denpora beru dxak". Ba an aixie badabil, aixetxu-ero bastante aundidxe badabil, "Denpora jagidxe dxak geur".* || *Denpora jagidxe da ba, denpora*

ona, euskidxas. ☐ **denpora kakie**. Tiempo lluvioso. || *Denpora kakie: denpora txarra, euridxe-ta, denpora kakie. Kaskarra dalako kaki esate dxako.* ☐ **denpora ligorra**. Tiempo seco. || *Soidxe be, soloko soidxe be iguel, igul e ereiñ orduko..., kendu orduko..., selan esangot nik?, soidxe kendu orduko lakartu, siketu, denpora ligorrek siketu, da siketute itxi.* ☐ **denpora lorriñe**. Tiempo revuelto. || *Denpora lorriñe da: euridxe goixien ein, da euskidxe gero amaikak, amabidzek, ordu batak ta euskidxe ta. Atzera bardiñ arratzaldien euridxe da: "Au dok denpora lorriñe!"*.

☐ **denpora maskala**. Tiempo lluvioso. Ik. *denpora umela*. || *Denpora maskala? Ointxe daunari. Euri apur bet, da maskala, busti eitten dabena.* || *Denpora maskala dau.* ☐ **denporas**. A tiempo, con tiempo. ||

Denporas etorriko da. ☐ **denpora umela**. Tiempo húmedo, lluvioso. Ik. *denpora maskala*. || *Denpora umela dau.* ☐ **gorrin denporie**. Tiempo nublado y desagradable en el que hay mayor probabilidad de aparecer la enfermedad llamada *gorriñe*. || *"Gorrin denporak dire onek!" esaten da olako denporak dausenin. Gorriñe, lañopi-te.* || *Ointxe be gorrin denporie!* ☐ **ordun denporan**. En aquellos tiempos. ||

Da ordun denporan, lengo denporan oingo modun ba okelarik-eta e-san ekarten karneseridxatik. ☐ **denporie bigundu**. Amainar el mal tiempo. || *Bigundu ein da denporie.* ☐ **denporie jaso**. Mejorar el tiempo.

Ik. *eusittu*. || *Denporie jasoten doye.* ☐ **denporie gordindu**. Empeorar (el tiempo). || *Denporie gordindu? Bueno, denporie txarrera juten danién e, gogortzen danién, denporie... se esangot neuk?, gogortu eitten da, denporie gogortu eitten da, ta gordindu, denpora gordiñin, gogortu eitten da.* || *Denporie gordinduti da esate baterako, igul denpora ona dau da ensegidako baten mudau deu denporie, da otzittu ein deu, da orixe da denporie gordindutie.* ☐

denporie obarantz juen. Mejorar el tiempo. || *Denporie obarantz doye.* -Esaldi hau beste honetara ere esaten da: *Denporie mejoretan doye.* ☐ **denporie onera juen**. Mejorar el tiempo. || *Denporie onera doye.* ☐ **denporik txarrera ein**. Empeorar. || *Denporik txarrera ein deu.*

denporada, denporadie. (DENPORADA, denborada-bat.) Temporada. || *Denporada baten akordau eskara ingo.* || *Denporada baten etorri barik egon da, baya atzera etorten asi da.*

denporale, denporalie. (DENPORALE, denborale-bat.) Temporal, tempestad, tormenta. || *Denporali dator.* || *Denporale gogorra itxosuen eite banien.* ||

Karga eundidxe tomatik, da etorri sen denporali, tte parrela bera. || *Axete baten, denboralie egon san baten axik (mimosie) jaurti ban, da kittu!* || *Denporali ein bi dauniñ etorten dire orrek, negun, txonti.* || *Negu txarra bada "Negun erdidxen gas da!". Otza badau, da denporali badau.* || *Gu ara bajatu eskero, an esateskue "Amen datos koko txarrak! Goidxen denporalie da ala?"*

denuntzidxe, denuntzidxie. (DENUNTZIA, salaketa) Denuncia. || *Denuntzidxie ein.* || *Denuntzidxe sartu tzo fulanori.*

deposittu, deposittue. (DEPOSITU, andel) Depósito. || *Onek tellatuk dana deke egaletara. Atzin bes. Egal bidzek da besterik esteko etzik. Ur gustidxe doye egal bidxetara. Da len askok eitte ban, ure aprobetxetako depositturik eta olan manentialik-eta estekona, eitte besen deposittu eundidzek eiñ or, da araxe ipiñi, ittusurako ure esate dxakon areri.* || *Silloko bedarra da oiñ eitten daben modun barik, bolara barik, len e deposittu modun eitte san, da an sartun bedarra.*

derrepente, derrefente. (DERREPENTE) De repente, de súbito. *Derrepente nahiz derrefente entzuten da. Sin. derrot.* || *Derrefente etorko nas.* ☐ **derrepentien**. De repente, de súbito. Sin. *golpera*. || *Derrepente etorko da.*

derrigor, derrior, derrigorra. (DERRIGOR) Forzosamente, a la fuerza. || *Derrigor ein biarra euki deu.* || *Gure nai gures derrior ein bi da.* || *Derrigor ein bi dan geusie, ori dok biarreskue, bi dana dok-eta, derrigor bi dana.* || *Obratarako biosu karie. Kari bi da derrior. Aintxiñe eitte san itxosoko landarras da karias morterue. Da gero obran ormi eitteko porlana apurtxut bota.* ☐ **derrigorres**. A la fuerza. || *Derrigorres ein deu.* ☐ **derrigorrien**. A la fuerza. || *Guk tragi esate gentzon (...)* *Antxe ganadu jute sin lekun, ba tiran ipiñi sokie. Arek e burpille tatarres erute ban, erdi tatar derrigorrien. Ganaduk titze tzenien, ona jun biarrien, ba tatarres.*

derrot. (DERROT) Enseguida. || *'Derrot' da arin jutie.* || *Derrot etorri da.* || *I, bai, derrot etorriko nok.* || *Derrot gitxi esaten da emen. Esan eitten da, baya gitxi.* || *Derrot ixen biko deu!*

des, desa. (DES) Polvo, desgaste, deshecho. || *'Des' da eutz, eutz biurtu.* || *"Desa da ori": Bai, geusa bat apurtu leidxena: "Ori des ein lei", ori ba "Des einde be, estau ardurerik"-edo ba, "Des eitteko geusi da".* ☐ **des ein**. Deshacer(se). || *Pastilla bat botaten bosu uretara, da urtzen danin, "ein da des" esaten da, "pastilla urtu da" nai "pastilla desin da".* || *Botaten dosu ure, da siiiisssh eitten deu, des eitten da gero, ure botata. Orreri kare bixidxe esate tzeu.* || *Urtu-edo eitten dan geusa bat: "Ein da des".* || *Pustillak: euridxe asko, indertzu eitten dabenin saparradie, orrek beyen ganin,*

tanti jeusten dan lekun, gero ba des eitten dire. || *Ardi txabolak des einde das.*

desafidxu, desafidxue, desapidxu. (DESAFIO) Desafío, reto. Joko edo apustura bultzatzeko *desafidxue* esaten da beti, ez *erronkie*. *Erronkie* destaina lakoa da. Desafio egiteko honela esaten da: *Badau?*, hau da, hari aurre egiteko inor ba ote dagoen. || *Desafidxu bota dxok.* || *Desapidxu ein tzo.*

desafidxuka. (DESAFIOKA) Desafiando. || *Desafidxuka abil!*

desautxeu. Despreciar. || *Siderra san a, siderresko ogorleku sin danak. Ogerleku siderra. Arek balidxu euken. Arek e naitte desautxeute be, arek balidxu. Siderrak balidxo ban. Arek, askok arek, tontomendi geuk entregau gendusen, pilluk euki etzin-de. Estabela balidxoko, desautxeu eitte sittula danak eta, besti-tte. Ya tonto egon, da entregau.*

desberdin, desberdiñe, desbardiñe. (DESBERDIN, ezberdin) Desnivelado, -a. Ik. *bardiñe*. || *Landie apurtxu desbardiñe dau, erripa antzeku dau.* ☐ *Gauza batek gora jotzen badu eta hurrenekoak behera, orduan erabiltzen da hitz hau. Adibidez, asto bati zama ezartzen zaionean, alde batean bestean baino gehiago geratzen bada:* || *Desberdin kargau dok, eta selan egongo do pa susen!* || *Gustis desberdin dau ori.* ☐ *Behi bi uztartu eta bata bestea baino handiagoa denean esaten da sarri.* || *Beidxe pe, bata txikidxe ta besti eundidxe badire, igul bidxek batera ipiñi te "Desbardintxu dxabixek".* || *Desberdiñek dosak.*

desberdindu, desbardindu. (DESBERDINDU, ezberdindu) Desigualar. Esaterako giltza edo erreminta sail bat nahastuta badago, honela esango da: || *Danak desberdindute daus* (edo *Danak nastaute daus*). || *Desbardindu. Esate baterako, desbardiñe ixeten da altu-bajuk-eta dausena, desbardiñe. Desbardindu, esate baterako, "Desbardiñe dxak a eta desbardindu" ba planeu eitti les. Bardinddu. Dana sulu eta orre dausena, desbardiñe. Altu-bajuek, txikidxauk, eundidxauek, ta olan.* || *Desbardindute das, danak nastaute.* || *Igul danak alkarras egon biarrin, danak banan, ta desbardindute.*

desberdintasun, desbardintasune. (DESBERDINTASUN, ezberdintasun) Desigualdad. || *Desberdintasune deke.* ☐ *Dena dela, diferentzidxe hitza askoz erabiliagoa da.* || *Diferentzi itzela dxek eta!*

desenpate, desenpatie. Desempate. Ik. *enpate*. || *Desenpate bat ein dabe.*

desente, desentie. (DEZENTE) Bastante, abundante. || *Ure desente doye.* || *Jenerala senbat e txondorrak? Mille... Mille killokue txondorra politte. Da iru mille killo txondor desentie. Segun selako lekue ta.*

desgustu, desgustue. (DESGUSTU, disgustu-bat.) Disgusto. || *Desgustu galanta euki deu orrek.*

desiau, desitan. (DESEAU, desiratu-bat.) Desear. || *Desitan nau.* || *Desiau ser ixengo da? Gure ixetie.*

desiu, desiue. (DESEO) Deseo. || *"Egarridxen egarris" esaten da, baya ori egarridxeri etxake esaten. "Egarridxen egarris" ba geusa baten desiu eundidxe dekonari-edo.*

deskantzau. (DESKANTSAU, deskantsatu-bat.) Descansar.

deskantzu, deskantzue. (DESKANTSU) Descanso. || *"Deskantzun dau": geldi egoti-edo, biarrrik es eittie..*

deskoidau, deskuidu, deskoideten. (DESKUIDAU, deskuidatu-bat.) Descuidar(se). || *Fumau? Bai, fumau bai, naiku asko eitten dabe. Umi pe bai, deskoidau eskerun.* || *Isidro, Illunsar mendire es sara jutun ba deskuidute be. Elixaldera beti, onaxe beti!* || *Bei bateri be bai. Adarra apurtzen badxako, igul jeusi-edo, deskoideten basan-edo, jeusi txarra-edo eukitten badeu: adarmotza.*

deskoidu, deskoidue. (DESKUIDU) Descuido. || *"Akordu barik ein dxuat nik au be": jakin barik ein deula da deskoidu bat ixen da esatie.* || *Puntxeta esate dxako ganaduk ta deskoidun aixi-edo eitten badire, axe sulotzeku da puntxeta.*

deskomen, deskomin. Fuera del alcance, en malas condiciones de poder recogerse fácilmente. Ik. *komenentzidzen*. || *Deskomen dxauk.* || *Ba urrun badau, estau komentzidxan. Komenentzidxan ixen bi deu urran. Da ori esate dxako egurre nai geusie... Guk esate baterako, or e urran dekun solotik e ekarri bier bidu geusie, esango deu batek "Jo, komentzidxe itzela dxok andik!", "Urran dxek eta". Urran deke, ta komentzidxe. Komentzidxe da geusie erres ekarteko modun dauna, urran dauna. Urrun badau, "Bai, arek e andik ekarteko urruidxak, deskomin dxauk". Urrun.*

deskomenentzi, deskomenentzidxe. Fuera del alcance, en malas condiciones de poder recogerse fácilmente. Ik. *komenentzidzen*. || *Ño, txondorrik eitten fasille etxak emen, se emen e deskomenentzidxan dxak geusi eta.* || *Deskomenentzidxen dxak eman geusie, emen urrun dxak.*

desmonta, desmontie. Desmonte, porción de terreno desmontado. Ik. *lugana*. || *An desmonta aundi baten aspidxen dauna.* || *Igul e desmontak e aintxiñe ein biste dxuasen e lurre jun esteidxen be.* || *Desmonta itzela dxak emen! Emen, emen esi lei jun be ein goitti bera.* || *Lugana da desmontie.*

desora, desorie. Deshora, hora intempestiva, destiempo. || *Desoran ibilli de.* || *Desoran etor da.*

desosigu, desosigue. (DESOSEGU) Desosiego. Esate baterako, kalentura edukitzen denean. || *Desosigue da, esate baterako, kalentura aundidxe daunin, edo ba artekau gorputze dauenien, ba "Sosigu barik dau", "Desosigu dau"-edo bai esaten da.* || *"Desosigu badxekok onek" esaten da, "Etxak gustora".*

despedidu. (DESPEDIDU, despeditu) Despedirse. || *Guk lagun bet despedidu du, Amerikara doina, Bilbon.* || *Danak despedidu gure nittun baya denporarik enaben euki.* || *Tristie da despeditie.*

despidide, despididie. (DESPEDIDA) Despedida.

destartamentu, **destartamentue.**
(DESTARTALAMENTU, destartalamendu-bat.)
Embrollo, desorden, caos. || *Destartamentu neusidxe!* || *Destartamentu dau an.*

1 destartalau. (DESTARTALAU, destartalatu-bat.)

1. Romper(se), revolver, embrollar, desordenar. Ik. *apurtu, lorrindu, matrasau.* || *Destartalau ba trastu ixati les da. Esan gutena 'destartalau' esaten da dana lorriñin badau be, "Au destartalau" -ta. Amen, esate baterako, onek e bateko silli, besteko besti tte dana jaurtite les egoti, de "Destartalau" -ta.* || *Destartalau da telebisiñoie.* || *Destartamentue? Seinde dana destartalau esaten da, jeurtite eukitti les, ori esate dxako.* || *Destartalau gelditu da.* **2.** Írsele a uno la cabeza, perder la cabeza, delirar, perturbarse el sentido o la razón. || *A be ondo... Apurtxu bet e badabill or e burutik-ero, ori be esan eitte da "Destartalau" -ta.*

2 destartalau, destartalau. (DESTARTALAU, destartalatu-bat.) Descontrolado, -a, torpe. || *Destartalau ba kontrolik estekona geusiri esate txakona, destartalau. Kontrolik esteunari. Ba, esate baterako, edoselan geusek ein de batiñ arin de bestin geldi tte ser, kontrolik es.* || *Destartalau garbidzek dire!*

desteña, desteñie. (DESTAINA, erdeinu) Desdén, desprecio, pulla. || *Desteñak bota dittus.* || *Desteñak bota tzos.* || *Erronki da desteñak botati lakue; erronkie, da desteñie bat dire.* || *"Alperrontzidxori!": Beti enbasun-ero dabillenari-tte, alperrontzidxe, ba ori da desteña bat eitti les. Ostantzin, alperra.* || *Orre dana tie desteña bat eitti les di danak.* □ **desteñas.** Con desprecio, burlándose. || *"Flauti joik gure bok!": igul esaten da desteñas edoser eitteko.*

1 desteñaka. (DESTAINAKA, erdeinuka) Burlándose, zaheriéndose, desdeñando, lanzando pullas. || *Desteñi da seinde erreso bat esati, eitti lakue, seinde txungan besti adar joten eitte dxako ba, da alan esaten da: "Desteñaka, desteñaka!"* || *Desteñaka dxabik.*

2 desteñaka, desteñakie. (DESTAINAKA) Burla, pulla. || *Desteñakak eitte ittu arek.*

desteñatzu, **desteñatzue,** **desteñetzue.**
(DESTAINATSU) Burlón, -ona. || *Desteñetzu dana, ba... beti etxako ondo erantzuten.*

desteñoso, **desteñosue,** **desteñosue.**
(DESTAINOSO, destainari) Burlón, -ona. || *Desteñosue: ba berak dakidxela bestiri burle eitte tzona.*

destinu, destinue. (DESTINU) Destino. || *Antxe euki dxok destinue ta il dok.* || *Esin leio eskapau destinuri.*

deuntada, deuntadie. (DEUNTADA) Golpe. Ik. *golpie.* || *Deuntadie: esate baterako, errementaridzek ingudan badetze, "Deuntadi emon tzo", "Golpi emon tzo", "Deuntada aundidxe emon tzo".*

deuntadaka. (DEUNTADAKA) Golpeando. Ik. *golpeka.* || *Deuntadaka detzo.*

deutzela. (DEUTSALA, deutsola) Pegado, -a, unido, -a. || *Kanpasantue elixiri deutzela egon san.* || *Elixiri deutzela egon san len, elixiri segidxen deutzela.*

diabru, diabru. (DIABRU, deabru-bat.) Diablo. || *Da ori matxorritie ixeti da, esate baterako, gogorra ixetie. Orren neska tamañuk eta "Matxorritie diabru gogorra!".* || *Diabru? Bai, diabru, umiri be esate dxake asarratute, "Diabru lakoxi sara!" -ta.* || *Torretxoridzek one bestik artu-eta jaten daben diabru.* Amen ollotokidxetan-da orretan txi-txi-txi-txi de orma sulutan-da abidxak eitte ittunak di torretxoridzek.

diabrukeridxe. (DIABRUKERIA, deabrukeria-bat.) Diablura.

diadekanpo. (DIADEKANPO) Viaje de novios. || *Diadekanpora doyes.* || *Bai, eskondu te bijan juten diriñin: "Diadekanpo jun dire".* || *Bai, alan esaten da diadekanpo. Baya oiñ estaitt esaten bada be diadekanpori pe.*

diar, diarra. (DIAR, deiadar-bat.) Llamada en alta voz. || *Jaubetu: diarres daunari entzun, edo "Ser gurosu?" edo "Ser biosu?" ba preguntu ein, gure dabena, edo laguntzi gure badau. Esate baterako, emen ausuen-da, bei bat edo beintxa bat lelengo txala eitten daunien, la lelengo txala aiñ erresa estabe eitten, da igul ba noberak e allemorik es, norbera bakarrik atrebiduten estanien, ya eusue batzen da, da diar, diarrari ba entzun eitte dxako. Jaubetutie orixe da.* □

diarres. Gritando. || *Diarres dabil.* || *Emen 'oyuke', baya 'diarre's esaten da geidxau, "Diarres dau".* || *"Diarres dau": se bi daben-edo ba, ia sek sek falta eitte tzon, edo ser gure daben, edo laguntzarik gure badau-edo olan diarres daua olanik jaubetute dxako, ia ser gure daben.* □ **diar ein.** Gritar, clamar, dar voces. || *Da gero etziñ ama edo eote sanak e esni egosi ta armosu ipiñi eitte banin diar ein de, ba ebataldidxe inde garidxeri itxi te bera armosu jate san.*

di-da. (DI-DA) Zis-zas, onomatopeya del acto de golpear. || *Di-da emon tzo!*

diferentzi, **diferentzidxe.** (DIFERENTZIA) Diferencia, desigualdad. Ik. *aldie, desberdintasune.* || *Estau diferentzidxerik eukitten.* || *Anaidxe batetik bestera deken diferentzidxe esin leike esan.* || *Laban erreten sin len artuk, emen ogidzek eiñ eitte siñin, artu pe arixen artien. Baya ogittik artora difentzi eundidxe dau. Bata artuas eitten da, da besti garidxas.* || *Da*

ainbeste pagete ben gero. Ogorleko bat pagete ben amar ogorleko gero. Da orduko, entregau bi sanien, ogorleko bat bost peseta. Ia se diferentzidxe! || Diferentzi itzela! Ya jentie an bertan be ya biarra gitxittute ta es ebillen jenti ondo. Len egon giñenetik gerora diferentzidxe, bueno! || Diferentzi itzela dxeuk eta!

diferente, diferentie. (DIFERENTE) Diferente. || Arkasatza da sasidxe, ba orrek arantza gogorak eukitte ittune. Sasittik diferenti da.

dijestiño, dijestiño. (DIGESTINO, dijestio-bat.) Digestión. || Gogorra dire arek. Gogorak esan gure deu e, sera, dijestiñorako gogorra. Txarra, ba estire onak. Ure ixen bideu... Bigune ixen bideu ure, bai. || Galtzu botate dxako osaliri, soltie, gero dijestiñoen plantau deidxen. Galtzue. Galtzo birriñek, galtzu botaten badetzesu ba, gero besti, osali bera, masi da les, dijestiño laguntzeko.

dilin-dalan. (DILIN-DALAN) Onomatopeya del tañir de la campana, del sonido del cencerro.

dinbi-danba. (DINBI-DANBA) A zancadas. || Dinbi-danba? Dinbi-danba, "Salta-salta jun da", pausu lusiñ-edo.

dinderrri, dinderridxe. (DINDIRRI) 1. Colgante, pingajo. || Moko dinderridxe daridxola. 2. Bolsa o moquilla del feto en el parto. Ik. umeloidxe. || Txala einde daunin-de, txala eiñ orduko be, dinderridxe atzien eukiten deu. || Dinderridxe: atzetik dingiliske urtete tzonin, umeloidxe urtete tzo, alako poltzias urtete tzo ba lelengo, da areri ba: "Umeloidxek urte tzo". 3. Hilachos que cuelgan de la ropa raída.

dinderrittu. (DINDIRRITU) Deshilachar. || Dinderrittute dau.

dingilin-dangalan. (DINGILIN-DANGALAN) Andando torpemente, atropelladamente. || Dingilin dangalan dabil. || Dingilin dangalan: pausu tropiñ-edo.

dingiliske. (DINGILIZKA) Colgando. || Kandeloyek tellatutan dingiliske egote sirin. || Sapie ipintte dxako bekokidxen, da arek erute ittues bolak, berari dingiliske, begidxe tapetan. || Erbi txakurre: ba an belarri aundidxek dingiliske dekosena. || Eskeitte jun dan gausa bateri emen dingiliske esate dxako. || Marrasa? Ondo jantzi barik eta erdi or dabilenari, erdi dingiliske erropak eta olan dabixenari marrasa esate tzeu. Ondo konpondu baku.

dir-dir. (DIR-DIR) Brillando. || Begidxek dir-dir deketas. || Bueno, begidxe dir-dir eitten da be bai noberak gogo txar bat tekonñ-edo: "Begidxek dir-dir deko". □ **dir-dir ein.** Brillar. || Begidxek dir-dir eitteste.

diru, dirue. (DIRU) Dinero. || Soridxoneko dirue! || Dirue prestau. || Diruas pagau. || Urre surisko dirue. || Dirue irebasi, ein, eurreratu, ipiñi, gorde. || Diru

batzen gabis. || Dirue parra-parra dabil. || Bota-botaka dabil dirue orrek! || Or ainbeste diru gastau ben! || Dirue artuko dot seoser pasauko balitxuas. || Orrek dire len egon siren diruk. || Orrek diru pillue deko. || Diru faltarik esteke. || Ondo ornidute dau diruas. || Bastarrak bete diru deko. || Bastarrak diru ekarri deu. || Diru satzes deko. || Artze ben dirue ta areas pagau ben aparidxe. || Diru gitxikuk dire. || Diruas txarto sabixek. || Dirurik estabe ibiltten. || Esteko dirurik. || Diru baleuko! || Diru guran dabil. || Diruen galde dabil. || Mille peseta ordun diru eundidxe san. || Diru apurrek asko balidxo ban gero! || Diru gitxik balidxo ban asko. || Da oñes jun, basatzari basatza. Baso lusie, saku burun artunde. Da sortzi peseta irebasi. Diru eundidxe! □ **diruas gogortu.**

Adinerarse. || "Dirues gogortute dau": bai, diru asko dekona gogortute egoten da. || Ori ondo gogortute dxak diruas! □ **diru eske.** Pidiendo dinero. || Diru eske etorri dire. □ **diru gorridxe.** Monedas de oro. || Amaseiko gorridxe? Diru gorridxe. Diru gorridxe? Ba neu pe asko estakit ser dan, se neuk estot ikusi ganoras-da. Ba ser dala esangot? Amaseiku da... Len ibiltte ei xiriñ amaseikuok, baya oiñ amaseikorik estou usau, nik estot esautu. □ **diru gosie.** Codicia. Diru inbididxe ere esaten da. || Orrek diru gosie deko. □ **diruten.** Cantidad de dinero, dinero a raudales. || Ameriketa, or atarate dxok diruten, Ameriketa!

dirualdi, dirualdidxe. (DIRUALDE) Diner al, caudal. || Dirualdidxe irebasi deu. || Ameriketan dirualdidxe ein deu.

dirudun, dirudune. (DIRUDUN) Adinerado, -a. || Esta ain bakue a, dirudune da. || Dirudunek dire. || "Eskurre dxekok orrek, eskurre!" esaten da dirugeittik. Diru askokuri-tte, ba "Eskurdune dok ori, eskurdune!". Aintxiñeko sarrak esate ben ori, eskurre: "Eskurdune dok ori, eskurdune!", da ba esan gure deu dirudune, dirudune esan biarrien, eskurdune.

dirugure, dirugurie. (DIRUGURA) Codicia. || Dirugurie? Bai, dirue danori gustete dxaku te ba.

diruguretu. (DIRUGURATU) Volverse codicioso, -a. || Oin diruguretu da.

dirusale, dirusalie. (DIRUZALE) Codicioso, -a, avaricioso, -a. || Dirusali da.

dirusaletu. (DIRUZALETU) Aficionarse al dinero. || Dirusaletu da.

dirutu. (DIRUTU) Enriquecer(se), hacer(se) rico, -a. || Ori dirutu da.

dirutze, dirutzie. (DIRUTZA) Diner al, gran cantidad de dinero.

dirutzu, dirutzue. (DIRUTSU) Rico, -a, adinerado, -a. Ik. aberatza, aundikidxe. || Dirutzuk dire. || Batzuk esate tze aberatza, baina geidxenak esate tze dirutzuwe.

Da bidxetara esaten da. Oin jeneraliñ esaten da aberatza. Baya ostantzin dirutzue, lengo berbete klasin, jeneralien, dirutzue: "Beti ixen dok ori dirutzu!"

diskordidxau. Quedarse sin sentido. || Diskordidxau? Ba, se esangot neuk?, bat marietan danin-edo, "Diskordidxaute dau". || "Diskordidxaute dabil": ba "Beren senetik, erresotik urtenda dau" esati les. || Diskordidxaute geldittu da.

dixipule, dixipulie. Disípula, erisipela, inflamación microbiana de la dermis, caracterizada por el color rojo y comúnmente acompañada de fiebre. || Nik pentzetot ori dixipuliori lengo..., gure amumak-eta, esate baterako, ama pe, baya asko es baya, amumak-eta... Ori, "Dixipuli deko", lendiko berbi dala pentzetot nik, eta oiñ ori berbiori entzun be esta eitten. || Dixipulie: ori nik estakitt selaku ixeten dan, sarni moduku-edo, neuk olanik dixipulurik eta olanik estot esautu, olanik umik-eta dekenik.

doba, dobie. (DOBA) Costra de los conductos de agua. Nabarnizen *dobelie* ere esaten da, baina gehien korritzen duen berba *dobie* da. || Bidxetan esaten da. Da *dobie* bayo esango neuke *dobie* geidxau ibiltteula. || Bai, itturridxen *dobie* egoten da, urek ekarten deu, alan, arek alako satitxuk botate ittuniñ-edo. || *Dobie* da..., ixeten dire urek ekarte ittun arek, granotxu lakuk-edo. || Dobi deko. || Dobi dakar asko. || Bueno, *dobelie*, emen bertan *dobelie* esteutzegu esaten, dobi esate tzeu. Da *dobeli* igul esango tze beste erri baten.

dobatzu, dobatzue. (DOBATSU) Lleno de costra (los conductos de agua). || Dobatzu dau.

dobela, dobelie. Costra de los conductos de agua. Ik. *dobie*. || Ure pasetan dan lekuen eitten da *dobelie*. Ur danari etxake eitten *dobelie*. Ur klase batzuri eitte dxake *dobelie*. Da itturridxe be *dobelik* sarratu eitten deu e, oneri gururi etxake eitten, baya *dobeli* ba urek eitten daben gogortasune, ser esangot neuk?, olako geusa bat ta. || Itturridxen inkau eitten deu, inkau eitten deu, da *dobeli* arixerri esate dxako. Da ur gustiri etxake eitten, oneri etxake eitten da. || Metal ureri be etxake eitten *dobelarik*. Bueno areri metalas, a metalas sarratzen da, metala eitte dxako ta. Da *dobelie*..., metalak eukitten deu ba, gorrittasuntxu-edo eukitten deu, baya *dobelik* estau gorrittasuni pe eukitten, eukitten deu..., bueno, ixeten da, se esangot neuk?, olan grix illune-edo ixeten da *dobelie*, olaku ixeten da. || *Dobelie* da urek eitten daben a..., arridxen moduku-edo, urek eitten daben... *Dobeli* da..., ser esangot neuk da arridxen antzeko gogorra, urek eitten dabena. || Ure botata gero des eitten da *dobelie*.

doblau, dobleten. (DOBLAU, doblatu-bat.) Doblar(se). || Ba garatzuk ostantziñ e bakixu setarako usete gendusen guk? Matxukie, matxuki arridxe jotekue? Matxuki esate dxako a, malluki barik. Da aren kirtena, ba, auxe atzamarran tamaño lodieraku da. Da egur gogorra ta dobleten dana ixen esik, apurtu eitten

dire onek gastaña eta aretxa ta one beste gustik danak apurtu eitten dire. Garatzu es.

doble, doblie. (DOBLE) Doble. || Bueno, esango tze batzuk kinttel otzari be igul baya oneri jeneral kinttela esate dxako, da otzarie da onen doblekue edo eumdidxaue. □ **doble bidxen.** Dado dos vueltas. || Doble bi ixeten dire, au da doble bat, da emen beste bat eitten basu, doble bi. Ori normala da e! Se au esate tzu onek "Doblaute dau", "Doble ba tau". Da beste bat eitten batzazu amen, ostabe, olan, onek doble biri, amen bat eta amen beste bat, bi, doble bidxen. Ori senduau egoteko da. || Soki sarritten, baten esaten da "Dios, apurtu eingo dok doble baten. Ein doble bidxen!". || Sarri esaten da ori ba. Soki iguel soser tiretu biar badxako, tratoras-ero, "Kaguen doble baten apurtuko dxok! Ipiñi doble bidxen!" || "Doble bidxen lotu bidxako gero, baten barik!". Se soki be es san ba alako lodidxe be. Lotu ban doble bidxen, da atara ban. || Saku bat edo doble bidxen, saku bat botate dxako (saldidxeri). □ **doble bi einde.** Agotado, -a. || Doble bi einde dxak ori be! □ **dobleko bierra.** Doble trabajo. || Dobleko bierra eitten dabil.

dolada, doladie. (DOLARA, dolare-bat.) Lagar para sidra, prensa de sidra. || Doladie? Da ori seri esate dxako, sardau egoten dan lekuri? Bai, doladie. || Da eitten dabe sardaue doladi dekonak, makiñi dekonak ba sardau eitten deu. Bukoyak artzen dire. || Doladie? Bai, doladie sardau eitten dana ixeten da. || Doladako sardau.

domau. (DOMAU, domatu-bat.) Domar. Ik. esi. || Orretarako (sesto edo otzara eskuak egiteko) jeneral ibiltten da gastañie, gastañie... ser esangot neuk?, siketunekue es, berdie, oboto urteten deu te berdi ixeten da gastañie. Da ixeten da ba auxe bayo loditxuau-edo, olanik, au be gastañi ixengo da. Au olan dometako gastañi ixeten da.

domeka, domekie. (DOMEKA, igande) Domingo. || Domekan etorriko dire ididxekin proba eitten karreterurik onenak. □ **domeketako jantzi.** Vestirse de domingo. Ik. jaidxeguneko jantzi. || Domeketako jantzi nas.

domiñe, domiñie. (DOMINA) Medalla. Medallie ere entzuten da. || Domiñie? Bai, alan medallatxuri.

domiñeu, domiñau, domiñetan, domenetan. (DOMINAU, dominatu-bat.) Domar. Ik. erakutzi, esi, mantzotu. || Saldidxe domiñau dogu. || Idisko bat e gangartu, edo santartu eitten danien e, da emakumik domenetan estabeni, gixoneskuk biar ixate ittu. || Seosek badeko efetue, noberak gure estaben modun-edo eitten badeu, "Domiñau ein bi da", edo ba "Domiñetako dau". || Efetue? Ba berak e dekona, esin domiñau dana-edo.

domistiku, domistikue. (DOMINISTIKU, usin, urtzintz) Estornudo. Domistikue nahiz domistikune

esaten da. || *Domistiku deko.* ☐ **domistiku ein.** Estornudar.

domistikuke. (DOMINISTIKUKA, urtzinzka) Estornudando. || *Domistikuke dabil.* || *Ori domistikuke dau.* || *Su domistikuke saus, gripie atrapau dosu?*

domistikun, domistikune. (DOMINISTIKU, usin, urtzintz) Estornudo. *Domistikue nahiz domistikune esaten da.* ☐ **domistikun ein.** Estornudar. || *Domistikun ein dosu.*

domuru santuru. (DOMU SANTURU) Día de Todos los Santos. Honela baino gehiago *domu santue* esaten da. || *Denborada baten akordau eskara eingo.* || *Domuru santu egune.*

domu santu. (DOMU SANTU) Día de Todos los Santos. || *Domu santun asten gara batzen.* || *Domu santutan Gernikera goyes.* || *Errenta egune?* *Domu santu eguneri.* *Errenti len, errenti pageta ei xan domu santu egunin, edo sortzi egun aurrerau edo sortzi atzerau, antxe eingerun.*

donini, doniñe, dodiñe. (DONIANE) San Juan. Dena den, *San Jun* ere esaten da. ☐ **doniñe bedarra.** Variedad de helecho de color pálido y que viene antes que el helecho común. *Doniñe idie* ere esaten da. || *Doniñe bedarra ixeten da..., ide baten antzeku ixeten da doniñe bedarra.* || *Doniñe bedarra ta doniñe idie bat tire.* || *Doniñe bedarrak errete siriñien kantau eitte gendun umik: "Doniñe moniñe bespera gabien, abadik asarratu sirien, es eben besterik egiten, alkarreri musturrek ausitten".* || *Doniñe bedarra esta bedar klase bat, doniñe idi lakoxi ixeten da bera be.* *Baya beste idiek eukitten deu adar bat payo geidxau-edo..., se esangot neuk? Ixeten da ori doniñe idiori ixeten da asi eitten dana ta apurtxut puntie okertze dxakona.* ☐

donini idie. Variedad de helecho de color pálido y que viene antes que el helecho común. Ik. *san jun idie.* || *Donini idie esate dxakon ida bat, ixete san mendidxen aste dan idie bayo, ba, bueno a be mendidxen aste san kontixu, baya ixete san subiaue. Da mendiko idi ixete san ba, ser esango dot?, ligorra, egoten dala tente ainka baten ganien, da ainbeste adartxu eukitte deute. Ori, donini idie esate dxakona ixete san, es san orren modun tente egoten beyen, da olan ainka bat es aben eukitten, ba, bera ixete san adar bat lakue, dana adar txikis beterik dauna. Ipintte san olanik balko aspidxen-edo, atin bayo be geidxau, balko eurrien-edo lotute ipintte san larrosa bat edo bigas.* || *San Jun egunien donini idie ipintten san ateburuen. Donini idie, da areri larrosa bat-edo ipintte dxakon. Da beste batzuk leixarra ipintten dabe, adarra. Da elorridxe, amen gurin dauna da elorridxe.* || *Doniñe idie be badau, ori beste bat ta. Ori da ya San Juanetan asten da ori, doniñe idi ori, da ixeten da, selaku esangot?, ba idie laku ixeten da, ixeten da aren aldin goxatzue, ixeten da ta a bayo esango neke eunditxuau ixeten da, da*

goxatzu, da orrixeri esate gentzon domiñe idie. A beste ori, mendiko idi bayo ariñau etorte san, ori domiñi idi ori. || *Donini idie da ba beste ida payo diferentetxuauk, da asten da da e sera..., doniñe..., olanik esango neke nik, olanik esku bateku-edo olan asi eitten dana, da olan e goidxe olan apur bet suntu eitten dana. Batu be esta eitten, goidxe eukitten deu apurtxut e..., apurtxut e beruntz. (...)* *Esta eltzen untxe sasora artin (iraillin) da untxe sasoyen..., doniñe idie untxe sasoyen eltzen da. (...)* *Beste idie asten dan lekuen ba ori be arantzau edo onuntzau asten da, baya ori beste idi moduen franko esta egoten. Ba an bat eta beste bat beste leku baten, da esta..., alkarren segidxen estau.* || *Bai, beste klase bat-edo, baya klase baterako be bota leix. Baya ori doniñe idie esate dxakona da idie..., olan asten da goruntz, olan apur bet eitten dxako puntiri bajatu.* ☐ **donini sue.** Fuego de San Juan. || *Sue eitte san San Juan besperan. Donini suek esate dxaken, da ori be, ba, ori sue ondiño total esta akabau, ondiño gastik dausen lekun be, ondiño be seoser eitten dabe.* || *Doniñe sue? Bai, besperan eitten diriñ arek. Doniñe sue esate gentzon. Erridxen e plasan e umik e, mutil txikidxetan neska-ta, e batze sittuen sasidxe eta egurre pe igul, de gero su ein plasan. Gero askanin sue amatetan doiñien, saltoka bateri bestera.*

dontzille, dontzillie. (DONTZEILA) Doncella. Ik. *neskatillie.* || *Dontzillie esate dxakon 'señoriti' les. Neu pe amumagandik-eta esautu naben ori berbi ori, da ya gure amak eta ainbeste es aben esaten. Da oin geruau entzun esta eitten.*

1 dorau, doraten. (DORAU, doratu-bat.) Dorar(se). || *Kipulie doraten asten danién.*

2 dorau, doraue. (DORAU, doratu-bat.) Dorado, -a. || *Arek dorau-dorau paraten direnien.*

dosena, dosenie. (DOZENA) Docena. || *Dosena erdi.*

dosenaka. (DOZENAKA) Por docenas, a docenas.

dote, dotie. (DOTE, ezkonsari) Dote. || *Oyek eta danak erute sin de, aintxiñe beidxekiñ etze batetik bestera eskontze sanien, da dotie be bai: "Onenbeste diru emon tzo dotie" esate ben aittek eta amak.* || *Dotie da: arek emon tze eskondu danién alabieri ainbeste diru, ainbeste dote.*

dotore, dotorie. (DOTORE) Elegante. Ik. *apaindute, pertxetie, txanbeliñe.* || *Dotore egon da.* || *Se dotori da!* || *Etzeko eskiñe gustidxe dotorie ipintzie gusteten dxako.* || *Geuserik dotoriéna galdu dxate.* || *Neskatille txikidxe bada, "Neskatille dotorie ikusi dxuat"; neskatille galanta bada, "Neskatille ederra ikusi dxuat".* || *Berba dotorik esate ittu baya!* || *"Mas dabil?": ba bestin modure dotore estabillena jantzitte.*

dotoretu. (DOTORETU) Poner(se) elegante. || *Dotoretu ein da.* || *Da adarrak ebate dxakos, ipintteko larrosakiñ-edo, eitteko kargie dotoretu, ba ipiñi eitten dire sintte bedarrak.*

dotriñe, dotriñie, dotreiñie. (DOTRINA, kristau ikasbide). || *Gero a konpondu ebenien, guk an dotreiñi ikesten gendun.* || *Kanpasantu sarra esate tzen, a len dotreiñi antxe ikesten gendun gero ba, da dotreiñi ikesteko leku ei ben an, da altzeu ei ben dana, ta ango asurrek eta danak atara sittuen.* || *Len dotriñara jun ein biar ixate san, domeka artzaldetan beti, eberdi ostien.* || *Elixik eskatu eitte tzen danari ya komuniñu einde dasenari ia se dotriñe dakidxen edo ba eitte tzen, da axe txartela. Da emote ban... olako orritxu bat emote ban: txartela.*

draga, dragie, tragie. (DRAGA) Freno de los carros. *Frenue ere aski zabalduta dago. Ik. karrakie, takue.* || *Dragie ipiñi.* || *Takue? Frenue. Ori e eitte san piñuten edo karga astune ekarten basendun edo goitibera aundidxe ta esiñ eutzi ganaduek, ipintte sentzon tragie. Guk tragi esate gentzon. Guk ipintte gentzon egur bat, da areri egurreri soki ipiñi tiran, atzera, Da ba eurriñ ipintten basentzon ba, ba atzera ipintte sendun. Da atziñ ipintten basentzon, ba ganadun alderdire. Antxe ganadu jute sin lekun, ba tiran ipiñi sokie. Arek e burpille tatarres erute ban, erdi tatar derrigorrien. Ganaduk titze tzenien, ona jun biarrien, ba tatarres.* || *Karrakie: orreri burdidxeri aintxiñe ipintte dxaken goititik bera juteko, ya dragie.*

dragau, dragetan. (DRAGAU, dragatu-bat.) Dragar, arreglar el camino. || *Dragau: olan arridxe ataraten, edo bidie apur bet konpontzen.* || *Dragau ein dabe.* || *Dragetan ibilli dire.*

dranga-dranga. (DRANGA) Onomatopeya que expresa ruido. || *Dranga-dranga estulke ibilli da.*

dril, drille. (DRIL) Dril, tela fuerte de hilo o de algodón crudos. || *Asteguneko prakak eitteko, gona bat eitteko-edo, masdunik e, edadiñ eurrera doixenak e, ba gona bajak-eta jaste sirin len, oiñ esta ibiltten. Baya drille teliri esate dxako, bai.*

drillesko, drilleskue. (DRILEZKO) Hecho de dril, tela fuerte de hilo o de algodón crudos. || *Drillesku da.*

drinki. (DRINKI) Trinquis, trago de vino o licor. || *Drinki edanda.* ☐ **drinki ein.** Beber (bebidas alcohólicas). Ik. *tragu ein.* || *Drinki eitten deu.*

drinkilari, drinkilaridxe. (DRINKILARI) Bebedor, -a. Ik. *edarisalie, edatune.* || *"Drinkilaridx-osak!" kuadrilli igul asko edaten dabenak, txikitxuk-eta. "Orrek e drinkilaridx-osak, orrek edate itue!"* || *Ori drinkilari garbidxe!*

droga, drogie. (DROGA) Disputa, lío, enredo. Ik. *erridxetie, erristie, istillue, sirriparrie.* || *Beti drogan egoten da.* || *Ori sitzetan dabil, orrek drogarako gogu deko.* || *Drogarik es eser barik il dabe, odol otzien.* || *Izelesko drogie egon da.* || *"Nabarbendu" da "Edoser eitten dau", "Edoser astakeridxe eitte dxok", "Nabarben dxabik". Bakixu tabernan-da be edo drogatan, edo enbra bat plasan, "Nabarben dxabik", erropakiñ edo*

dana... ☐ **drogak ipiñi.** Armar jaleo, disputar. || *Sittela da drogak-eta ipintten dittuna.* || *"Bastarrak lorrindu" da iguel drogak-eta ipintte ittunari be. Areri be "Bastarrak lorrindu dxosak". Jentartien igul eitte ittu lorrinek, da "Danak bastar gustik lorrindu dxosak ak bastarrak!". Iguel emen be eitte ittu e ganadu batek e jan da gero lorrie ta "Bastarrak lorrindu dxosak".* ☐ **drogan.** Armando jaleo, disputando. || *Drogan dabis alkarregas.* || *Bardaskie umiri esate dxake, drogan-da ibiltten diriñin: "Bardaskok alakok!".* || *Bai, alkar joten-da ibiltten diriña pa drogan ibiltten dire.* ☐ **drogan ein.** Armar jaleo, disputar. Ik. *erristan ein.* || *Drogan ein dabe.*

drogera, drogerie. (DROGERA) 1. Droguera. 2. Camorrista, liosa. Ik. *drogosie.*

drogeridxe. (DROGERIA) Droguería.

drogeru, drogerue. (DROGERU) 1. Droguero. 2. Camorrista, lioso. Zentzu honekin gehiago esaten da *drogosue*: || *Drogerue ba esate dxako drogeridxe dekonari; da drogan dabillenari be bai, drogeru bai, baya drogosu geidxau esate dxako.*

drogosa, drogosie. (DROGOSA) Revoltosa, liosa, camorrista. Ik. *matarraskie, matrakie.* || *Matrakie da beti drogan daun bat, drogosa bat.* || *Ori da drogosie!*

drogoso, drogosue. (DROGOSO) Camorrista, lioso.

drongo-drongo. (DRONGO-DRONGO)

Onomatopeya del beber. ☐ **drongo-drongo edan.** Beber ruidosamente y a grandes cantidades. Ik. *truku-truku.*

drungulu-drungulu. (DRUNGULU-DRUNGULU)

Voz que expresa el ruido producido al beber. ☐ Sarri umeari esaten zaio esnea edo dena delakoa edanarazteko. || *Esnie-edo umiri edan eraitteko: "Edaixu drungulu-drungulu!"*

dudako, dudakue. (DUDAKO, zalantzazko) Dudoso, -a. || *Baya beti eingo tzu urten dudakuk, asko. Se daus geusak erdi igulak.*

dude, dudie. (DUDA, zalantza) Duda. || *Dudari pakue.* || *Dudie euki deu.* || *Neu pe estakit seren ganiñ ixen dan. Dudi euki gendun ba.* ☐ **dudan.** Sin saber a ciencia cierta. || *"Batek jakingo dxok ori!" Ori da eritxidxen, dudan.* ☐ **dudan egon.** Dudar. Ik. *esbaidxen.* || *Dudan nau te estakipa olan ixengo bada edo ba ixengo espada.* || *Errenkurie: geusa batas olan dudan daunin-edo, sein batera sein bestera estakidxela dauniñ-edo orixe esate dxako: "Errenkuri deko".* ☐ **dude barik.** Sin lugar a duda.

duket, duketa. (DUKAT) Ducado, antigua moneda. || *Duketa: ori aintxiñekue da ori.* || *Duket baten erosi dot au.*

dultzaiñe, dultzaiñie, dultzeiñie. (DULTZAINA) Dulzaina. || *Dultzaiñie: an sulo bi-ero eukitte ittuna. Len emen e baserritarra pe egote siñ orrek jo eitte benak. || Dultzeiñie len egote san. A putz asko biste ban orrek dultzeiñik. Ori joten gitxik eitte ban. || Len soñu bat, dultzeiñi jote ben onetan baserridxetan. || Dultzeiñi jote dxok.*

dultzaiñeru, dultzaiñerue, dultzeiñerue. (DULTZAINERU) Dulzainero. || *Da besti dultzeiñerue diferente da. Se emen len dultzaiñi jote ben, tanborra be bai.*

dultze, dultzie. (DULTZE) **1.** Membrillo dulce de diversas frutas elaborado en casa. **2.** Dulce. || *Angis sagarra sagar klase bat da, dana dultzi, ixeten da sagar dultzi. || Kanela madaridxe da ba, aiñ eundidxe be esta, txikidxe be esta, trokotxu ixeten da, ba dultze-dultzi da. || Gurguxie gorri-gorridxe da, granu ixaten da, granu gorri-gorridxe. Sosuk-eta gustura jaten dabe. Neu pe batu dotas, goxu dultze-dultzi ixaten da. || Inpernu sagarra gorritxue da, txarbi bayo dultziaue.*

dunbe, dunbie. (DUNBA) Cencerro grande. Ik. arena, txintxarridxe. || *Oiñ estakitt dunbie esaten bada edo espada. Gure aitte pai. Dunbie esate tzen, seinde, euntzeri edo ardidxeri ipintte dxaken arrana, ba, dunbie. || Dunbie eundidxe da, orrek sarata eundidxe eitten deu don-don, don-don. || Dunbie da ganadu eundidxek eruten dabena, ba arena sati entzuten da urrunetik, da ageittik ipintte tze. Oiñ esta usetan eman ganaduri olan..., baya aintxiñeba dunbie olanik, bandie, kuadrilli badau, batek dunbie, nun dabillen, bandan dabixenak sentiduteko urrunautik. || Dunbie: olan beidxek ibiltten dabena, arrana. Emen dunbie, geure aitte sanari be dunbie entzun netzon baten bayo geidxautan. Da ibiltte ben ba, ori dunbi ori ba, saldidxek-edo, larrako saldidxek-edo, ba dunbie esate tzen. || Dunbin satie entzu ot. || Dunbi dabil.*

durau. Aguantar, perdurar. || *Asko estau durau.*

durdurie. (DURDURA) Verderón (pájaro). || *Durdurie berdeskie da. || Durdurie? Bidagarru bakixu selaku da? A bayo aunditxuau da, kolore igulas. Orrek ibiltten dire..., durdurie..., sagarrak eukitte ittu ba... arek urtete tze granuk e txarrak, arexek jaten. □ Miragarrue durdurie baino txikiagoa da, ondoren azaltzen den bezala: || Es, kolore bat deke, baya durduri aundidxau da. Bai. Kolore igul-igula, baya aundidxau, asko aundidxau. Durdurak etorten dire... Orrek sagarren bigurak jate ittues arek. Bigurie bakixu ser dan? Sagarrari urtete tzen arek. Arek sagarra txupeten dabe dana. Da orrek bigura jaten etorten di durdurak.*

durundi, durundidxe. (DURUNDI) Estruendo, resonancia, zumbido. || *Durundidxe dau emen. || Tubuek durundidxe ataraten deu. || Durundidxe? Ori saratie, uuuuuu-te. Edo belarrixetan bokosu, durundidxe esate su. Ori durundidxe igul oten da uuu*

satie, da durundidxe. Iguel entzuten badosu sarati be, "Seosen durundidxe bok". Seosen saratie entzuten bosu, igul are Nabarristik doin kotxie, "Bai, badxak, durundidxe badxok eta", Sarati entzuten danin. Beste batzuk esate tzesue "Saratie, bai entzuot sati".

durunditzu, durunditzue. (DURUNDITSU) Ruidoso, -a; resonante. || *Durunditzue: esate baterako, eulidxe pe, euli pillue daunien, ba rrrruuuu sarateka ibiltte dire.*

dutxa. (DUTXA) Ducha. || *Dutxa bat artu.*

dxas, dxasa. (JAS) Maña, habilidad, traza, soltura. || *Geusi susen eitten deunari esate dxako: "Dxasa badxok orrek edosertako, biar gustitarako!". Moldau danetara eitten dala, sein batara nai bestera, ba dxasekue. || Dxasa danatan dxekok orrek. □ Hori beste era honetara ere esaten da: || Ori danatara moldetok, bai baterako, da bai besterako. □ dxaseskue. Expedito, -a, hábil. Sin. taidxuskue.*

dxaseko, dxasekue. (JASEKO) **1.** Expedito, -a, hábil. Sin. taidxuskue. || *Dxaseku mutille dok ori, dxaseku! || Dxasekue? Bai, ba ser esangot neuk? Dxasekue, "Modusku da" esateko, edo "Taidxuskue da". || Esta dxaseku. **2.** De buen aspecto, de buena facha. || Dxaseku da etxure onekue, konformidade danak dekosana, ona. Dxasekue, an, bierrin be bierrin dakidxena. Ori esan gure deu dxasekuk. Ta jantzitte be, esaten da: "Jolin, beti ori ibilttok dxaseko jantzitte be!".*